

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
GIZARTE-ZERBITZUEN PLAN ESTRATEGIKOA
2016-2019**

2015eko azaroa

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	3
1. SARRERA	5
1.1 Plana egiteko esparrua.....	5
1.2. Planaren egitura eta iraupena, eta egiteko prozesua.....	15
2. DIAGNOSTIKOA	19
2.1. Sarrera.....	19
2.2. Baliabide-sarearen egoera.....	20
2.3. Baliabide-sarearen bilakaera (ibilbide historikoa).....	27
2.4. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren (GZES) zerbitzu eta prestazio ekonomikoen premia eta etorkizuneko eskaria baldintza dezaketen inguruko faktore garrantzitsuak.....	31
2.5. GZESa barrutik sendotzeko erronka nagusiak	39
2.5.1. Premiak eta baliabideak egoki daitezen sustatzea.....	39
2.5.2. GZESaren barne-egituraketa eta kudeaketa hobetzea.....	45
2.6. Laburpen gisa.....	57
3. XEDEA, IKUSPEGIA, ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK	59
3.1. GZESaren xedea eta ikuspegia.....	59
3.2. Ikuspuntu estrategikoa.....	61
3.3. Ardatz eta helburu estrategikoak.....	62
3.4. Planean bildutako ekintzen xehetasunak eta egutegia.....	65
3.5. Eusko Jaurlaritzaren buru den ekintzen kuantifikazio ekonomikoa.....	91
Laburpen-koadroa: Plan estrategikoaren hedapena / helburu eta ekintza nagusiak	95
4. EAEko GIZARTE-ZERBITZUEN MAPA ETA MEMORIA EKONOMIKOA	96
4.1. Mapa eta Memoria Ekonomikoa egiteko irizpideak.....	96
4.1.1. EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapa egiteko irizpideak.....	96
4.1.1.1. Biztanleriari buruzko hedapen-irizpideak, gutxieneko estaldurak eta adierazle sintetikoak.....	96
4.1.1.2. Arreta-sarearen hedapena lurraldean.....	100
4.1.1.2.1. Zerbitzuak ezartzeko egokien irizpideak biztanleriari buruzko irizpideak.....	100
4.1.1.2.2. Arreta-sarearen plangintza eta antolamendua Lurralde Historiko bakoitzean, eta erakundeen arteko lankidetzak.....	104
4.1.2. Memoria Ekonomikoa egiteko irizpideak.....	106
4.1.2.1. Gastu Korrante Publikoaren estimazioari dagozkion irizpideak.....	106
4.1.2.2. Diru-sarreraren estimazioari dagozkion irizpideak.....	107
4.2. Proiekzioen (gastu korrante publikoa, estaldurak eta plazak) sintesia eta diru-sarreraren estimazioa.....	109
4.2.1. Gastu Korrante Publikoa (GKP) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren. Zifra nagusiak.....	109
4.2.2. Estalduren eta gastu korrante publikoaren bilakaera zerbitzu eta prestazio ekonomikoetan (2012/01/01-2017).....	111
4.2.3. Egonkortu gabekotzat jotako zerbitzu eta prestazio ekonomikoei dagozkien aurreikuspenak.....	124
4.2.4. Diru-sarrei dagozkien aurreikuspenak.....	127
5. PLANAREN KOORDINAZIOA/DINAMIZAZIOA, JARRAIPENA, EBALUAZIOA ETA EGUNERATZEA	134
5.1 Planaren koordinazioaz, dinamizazioaz, ebaluazioaz eta eguneratzeaz arduratzen diren organoak eta figurak	134
5.2 Ekintzen eduki nagusiak	136
5.3 Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko tresna nagusiak	136
5.4 Plangintza egiteko bestelako tresnak	138
5.5 Plan Estrategikoaren eraginak	139
Eranskina. 2011ko inbentarioaren sintesia. Datu	141

nagusiak.....	
---------------	--

AURKEZPENA

Gizarte Zerbitzuei buruzko Euskal Legean EAEko administrazio publikoei honako hau agintzen zaie:

- haien katalogoan eskubide subjektibo gisa (auzitegietan erreklamatu daitekeena) 2016ko abenduaren 25etik aurrera sartzen diren gizarte-prestazio eta zerbitzuak jasotzeko aukera sustatu eta bermatzea;
- Ongizate Estatuaren laugarren zutabe den aldetik, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arautu eta antolatuta, erantzukizun publikoko eta unibertsaleko sistema bat hedatuta arrisku- edo mendetasun-egoeran, ezintasun-egoeran, bazterkeria-egoeran eta/edo babesgabetasun-egoeran dauden pertsona guztiak artatzeko, eta herritar guztiak autonomiaz gizarteratzea sustatzeko, bai eta beste sistema eta eremu batzuekin (enplegua, etxebizitza, osasuna, hezkuntza...) koordinatuta eta lankidetzan, gizarteratzea eta gizarte-ongizatea sustatzeko ere.

Horixe izan da Gizarte Zerbitzuen Erakundearteko Organoan ordezkatuta gauden euskal erakundeek taldean egin dugun plangintza-lanaren xede eta helburua; lan horren ondorioz, epe motzean sistema unibertsal bihurtzeko prozesuan aurrera egiteko aurreikuspenak nahikoak zirela egiaztatu ostean, organo horrek: a) *Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretua* ezartzea erabaki du; dekretu horren eduki teknikoaren aldeko txostena egin zuen; b) eta (orain aurkeztzen ari garen Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan bildutako) *EAEko Gizarte Zerbitzuen Maparen eta Memoria ekonomikoaren* aldeko txostena egin du.

Plangintza-lan hori egitean: a) erakundeen arteko adostasuna eta bat-egiteak lortu nahi izan ditugu, sistemaren unibertsalizazioan aurrera egiteko 2020. urtera begira, legea onartu zenekoarekin bat ez datorren testuinguruan; b) legean aurreikusitako eskumen-araubidea eta erakunde-arkitektura errespetatu ditugu, bai eta erakundeek eta gizarte-eragileek aldez aurretik egindako lana ere, sistema honako hauetan oinarrituta eratzen ari dela aintzat hartuta: Lurralde Historiko bakoitzeko errealitatearekin bat datozen eta aldez aurretik dauden sareekiko bateratzean, eta administrazio bakoitzak erabakitako legezko kudeaketa-aukeretan.

Hori horrela dela, *EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa* jarraipentzat har daiteke; hain zuzen ere, EAEko administrazio publikoek legealdiz legealdi arretaren estaldurak hurbiltzeko egin dugun ahaleginaren jarraipentzat, betiere arreta-mailetan egon daitezkeen aldeak -lurralde bakoitzeko aniztasunak justifika ditzakeenak- errespetatuta. Hartara, 2017. urtean Lurralde Historiko bakoitzean EAEko batez besteko estalduraren % 80 lortzeko konpromisoa jasotzen du *EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapak*.

Bestalde, inbestidura-saioko hitzaldian, Lehendakariak Eusko Legebiltzarraren aurrean honako konpromiso hau hartu zuen bere izenean eta Jaurlaritzaren izenean: pertsona guztientzako kalitatezko gizarte-zerbitzuak bermatzeko konpromisoa; gauza guztien gainetik eta lehen-lehenik pertsonak daudela nabarmendu zuen; eta legealdi honetan Jaurlaritzaren ekintza bideratuko duen gaitako bat kalitatezko zerbitzu publikoen aldeko Gizarte Politika bermatzeko helburua ere aipatu zuen bereziki.

EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa ezartzearekin, eta egonkortu gabekotzat jotako sistemaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoak hedatzeko finantza-lankidetzakok tresna bat eratzearekin, X. Legegintzaldi honetako Gobernu Programako ekimen bat bete nahi dugu; hain zuzen ere, Jaurlaritzaren gizarte-zerbitzuen eremuko ekintzaren ildo nagusiak biltzen dituen ekimena (1.21 arloa. Pertsona behartsuenak/1.21.2 Gizarte Zerbitzuak, ongizate-estatuaren laugarren zutabe gisa). Honako hauek ditu helburu: “*Gizarte Zerbitzuen Sistemaren iraunkortasuna*

bermatzea, zerbitzuen multzoaren garapen osoa burutuz eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari beharrezko baliabide eta bitartekoak emanez lankidetzaren eredu mistoan aurrera egiteko.”

Gobernu Kontseiluak 2013ko ekainaren 11an hartutako Erabakiaren bitartez, 2013/2016 aldiko X. Legegintzaldiko Plan Estrategikoen egutegia onartu zen, eta horien artean dago Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa, Gobernuaren Plantzat hartuta; hartara, jarduera horien izaera estrategikoa aitortu zuen, beroriek osatzen baitute, beste plan batzuekin batera, Euskal Gizartearen aurrean hartutako konpromisoen erdigune garrantzizkoena. Erabaki horren bitartez plan horiek izapidetzeko prozedura ere onartu zen.

1. SARRERA

Jarraian, plana egiteko oinarri izan dugun esparrua (premisak eta irizpideak) aurkeztuko dugu. Horren ondoren, planaren elementuak, egitura eta iraupena aurkeztuko ditugu, bai eta plana egiteko eta onartzeko prozedura zein izan den ere.

1.1. PLANA EGITEKO ESPARRUA

Plana egiteko, planaren beraren helburua izan dugu kontuan, eta helburu hori lortzeko moduari buruz eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren (GZES) plangintzan jarraitu beharreko irizpideei buruz egindako hausnarketa ere izan dugu oinarri, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean (aurrerantzean, Legean), xedatutakoaren esparruan.

Planaren xedea: GZESa finkatzea eta 2020ra begira sistemaren unibertsalizazioan aurrera egitea

Gizarte Zerbitzuen Mapan aurreikusitako zerbitzu eta prestazio ekonomikoen hedapenaren helburua honako hau da: euskal administrazio publikoek zerbitzu eta prestazio horiek jasotzeko aukera eskubide subjektibotzat bermatzeko baldintzetan egotea eskubidearen titular izanik horiek jasotzeko baldintzak dituzten pertsona guztiei, betiere legean aurreikusitako epean.

Horrek zera esan nahi du, zerbitzu edo prestazio ekonomiko bakoitza emateko zuzenean eskuduna den administrazioak premien bilakaerari erantzuteko baliabide ekonomiko, plaza eta profesional nahikoak izan behar dituela eta, zehazki, sistemaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoen eskariari (baldintzak betetzen dituen eta artatu ez den eskariari) erantzuteko, dela eskari hori erakundeetara bideratuta izan, dela erakundeek identifikatutakoa izan.

Ildo beretik, mapan eta memoria ekonomikoan estimazio bat egiten da: a) 2017an zerbitzu eta prestazio ekonomiko bakoitzean artatu beharreko erabiltzaile edo jasotzaileena, edo eskaini beharreko plazena –eta, hala badagokio, arreta-orduenan–; b) eta horretarako beharrezkoa den gastu korrante publikoa.

Dena den, kontuan hartu behar dugu:

- estimazioak direla;
- sistema hedatzeko tresna den arren, plana, batik bat, plangintzarako tresna dela euskal administrazio publikoentzat;
- nolana ere, 2016/12/25etik aurrera, euskal administrazio publikoek, legean aurreikusitako eskumen-araubidearen arabera, Katalogoko zerbitzu eta prestazio ekonomikoak jasotzeko aukera eskubide subjektibotzat bermatu beharko dutela (dagoeneko egin behar dute hori, hain zuzen, mendetasunari arreta emateko eta autonomia sustatzeko eremuetan –gastu korrante publikoaren ehuneko garrantzitsua osatzen du–, edo babesgabatasunaren eremuan).

Eta bermatu egin beharko dute, maparen eta memoria ekonomikoaren aurreikuspenak zuzenak izan ala ez, eta zerbitzuari atxikitako prestazio ekonomikoarekin kontaktuta, Legean¹ eta Zorroari

¹ 16.2 artikulua, d letra: <<Zerbitzu pertsonalekin lotutako banan-banako prestazioak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistematik kanpoko prestazio edo zerbitzu batez baliatzeko aukera emateko xedea dutenak, alegia, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan erabiltzaileak bere eskubidez lor dezakeen prestazio edo zerbitzuaren antzeko ezaugarriekiko prestazio edo zerbitzu batez baliatzeko aukera emateko xedea dutenak; betiere, beharrezkoa da sistema horretan sartzen diren zerbitzuen esparruan prestazio edo zerbitzu hori ezin aldi batez bermatzea, eskaintza aski zabala ez izategatik. Aurrekoa bakar-bakarrik aplikatuko da, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren plangintzan aurreikusitakoarekin bat etorrira, betetze-bidean dauden zerbitzuen kasuan>>.

buruzko Dekretuan zehaztutako baldintzetan, eskubidea duen pertsona zerbitzuaz hornitzeko baliabide alternatibo bakarra den aldetik.

Nolanahi ere, baldintza horietan, *EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa* funtsezko tresna da GZESa hedatzeko, sistemaren unibertsalizazioan aurrera egiteko eta sistemaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoak jasotzeko aukera eskubide subjektibotzat bermatzeko.

Hori horrela dela, **plana GZESa sendotzera bideratuta dago, sistema edo sare unibertsal moduan sendotzera, erantzukizun publikokoa, titulartasun publikoko eta pribatu itunduko prestazio, zerbitzu eta ekipamenduez osatutakoa**, ekimen publikoa eta soziala gailen izango dela, eta hartara, Euskadi osoan zerbitzu eta prestazio ekonomiko berdinak eskuratzeko aukera eskubide subjektibo moduan bermatzeko adina plaza eta profesional egongo dira, betiere Zorroari buruzko Dekretuko definizioari jarraikiz, 2016ko abenduaren 25etik aurrera.

Eskubide hori bermatu ahal izateko, **GZES unibertsal baten eraketan aurrera egin behar da eta Euskadi osoan babes-maila homogeenak sustatu**. Eta horretarako, **besteak beste, honako baliabide hauek** ditugu –lehendik ere erabiltzen ari gara baliabide horiek, eta gerora indartzea ere aurreikusi da planean–:

- Eskubide subjektiboa benetan baliatzearen sustapena, *GZESari, GZESaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoei, zerbitzu eta prestazio horietarako eskubide subjektiboari eta zerbitzu eta prestazio horiek jasotzeko betekizunei buruzko informazio- eta hedapen-ekintzak* barnean hartuta.
- Zorroko zerbitzu eta prestazio ekonomikoak *garatzeko dekretuak* onartzea, besteak beste, zerbitzu bakoitzaren *baldintza materialak, funtzionalak eta langileei dagozkionak* (figura profesionalak, ratioak...) araututa.
- *Erantzukizun publikoko eta titulartasun publikoko nahiz pribatu itunduko prestazio, zerbitzu eta ekipamenduen sarea –lehendik dagoena–* sendotzea, sare horretan titulartasun publikoko eta sozialeko baliabideak nagusi direla; eta *itunen eta lankidetzako esparru-akordio nahiz hitzarmenen araubide espezifikoak* garatzea –arauei eta operatibari dagokienez–, legean aurreikusitako baldintzetan.
- Dekretu bidez, *diagnostikoa eta balorazioa egiteko eta orientazioa emateko tresna tekniko komunak* (legearen 20. artikulua) eta koordainketari lotutako zerbitzuetan, *ordaintzera behartutako pertsonen parte-hartze ekonomikorako irizpideak* arautzea, EAE osorako irizpide komuntzat hartuta.
- *Lurralde Historiko bakoitzeko mapak* egitea, *EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapa* aurreikusitakoaren arabera, eta bertan txertatzea eranskin gisa.

Azkenik, legearen zioen azalpenean (32-34 orrialdeak) eta 5. artikuluan adierazten denez, GZESa sendotzeko eta GZESaren helburuak betetzeko honako hauek ezinbestekoak dira: Euskal Autonomia Erkidego osoan prestazio eta zerbitzu berberetzeko aukera bermatzea; eta, horretarako, lehendik dagoen zerbitzu eta zentro² publikoen eta itunpeko pribatuen sarea –lehendik dagoena– indartu eta sendotu behar da.

² Zentrotzat hartuko dira plazak dituztela esan daitekeen zerbitzuak, edo azpiegitura bat zuzenean lotuta duten bestelakoak, Katalogoan eta Zorroari buruzko Dekretuan zentrotzat definitzen diren ala ez aintzat hartu gabe; esate baterako, “adinekoentzako ostatu-zerbitzuak” eta Oinarrizko jarraikiz bati edo pertsonak artatzen dituen Oinarrizko Gizarte Unitate bati atxikitako lokalak.

Hortaz eta lehen-lehenik, *babes-maila homogeenak* sustatzeak zera esan nahi du, Euskadi osoan zerbitzu eta prestazio ekonomiko berdinak jasotzeko aukera bermatu behar dela.

Eta arreta-maila (estaldura) antzekoak baina ez berdin-berdinak lortzeko aurrera egin behar dela ere esan nahi du, zeren gizarte-zerbitzuen premian eta eskarian eragiten duten faktore demografikoez, sozialez... (zahartzea, migrazio-saldoa, krisiaren inpaktu soziala, babes formalaren eta informalkaren arteko oreka, gune bakoitzean aldeztu dagoen arreta-sarearen ezaugarriak...) joera komunak baitituzte Euskadi osoan, baina bai eta aldeak ere Lurralde Historikoen artean edo herrien artean.

Hori lortzeko, lehen esan dugunez eta egungo egoerari erreparatuta, bi urrats proposatu dira: a) zerbitzu eta prestazio ekonomiko guztiak 2017rako (2017/01/01) EAeko batez besteko estalduraren % 80ra, gutxienez, iritsiko direla bermatzea; b) eta 2020rako (2020/01/01) % 85era, gutxienez.

Azken batean, sistema bakarrerantz aurrera egitea da helburua, baina lurralde bakoitzaren errealitatea harturik abiapuntu gisa eta GZESaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoak emateko zuzeneko ardura duen administrazio publiko bakoitzaren kudeaketa-aukerak errespetatuta, baina betiere, honako hauek ezarritako baldintza eta mugen barruan: Gizarte Zerbitzuen Legeak, Zorroari buruzko Dekretuak, Legea eta zorroa garatzeko Dekretuak, plan estrategikoak eta mapak.

Horrela, bada, irizpide multzo hori aintzat hartuta, honako hauek lortu nahi dira:

- EAEn eta Lurralde Historiko bakoitzean zerbitzu eta prestazioen sarearen garapen homogeneoagoa lortzeko bidean aurrera egitea, GZESa unibertsalizatzeko helburuarekin modu koherentean, prestazio eta zerbitzuak jasotzeko eskubidea eskubidearen titular diren guztiei bermatuta, eta oreka eta homogeneotasuna ahalbidetuta lurraldeen artean.
- Eta, aldi berean, erakunde bakoitzak bere helburuak lurralde bakoitzaren errealitatera (premien, biztanleriaren lurralde-banaketa, aldeztu dagoen baliabide-sarearen ezaugarrien eta abarren arabera) egokitzeko duen gaitasunari eustea, eta unibertsaltasunaren, berdintasunaren, ekitatearen eta hurbiltasunaren printzipioekin batera, GZESa (7. artikulua) eta gizarte-zerbitzuen planifikazioa (34. artikulua) arautu behar dituzten beste printzipio batzuk betetzea.

Ildo beretik, jakin badakigu abiapuntuko egoera ez dela berdina hiru Lurralde Historikoetan, ez eta udalerriz guztietan ere; beraz honako hau ezinbestekotzat jotzen da:

- a) Zerbitzu eta prestazio ekonomikoen garapen-maila arian-arian orekatzea, norabide horretan aurrera eginda eta bidezko planteamendua proposatuta. Horrexegatik:
 - Lurralde bakoitzaren abiapuntuko egoera eta bilakaera sozio-demografikoa oinarritzat hartuta, proiektzioa egitearekin ados gaude, baina elementu zuzentzaileak ezarrita, hala nola, lehen aipatu ditugunak (EAeko batez besteko estalduraren % 80-85, gutxienez, lortzea); hartara, estaldurak behar beste hurbilduko dira.
 - EAeko batez besteko estalduraren azpitik dagoenari ahalegin handiagoa egin dezan eskatu behar zaio, baina batez besteko horren gainetik dagoenari ez zaio hazten jarrai dezan proposatu behar ezinbestean, betiere hazkunde hori hainbat faktoretan oinarrituta (itxarote-zerrenda eta abar) justifikatzen ez bada, mapan estaldurak zehazteko aintzat hartu diren faktoreez gain.³

³ Nolanahi ere, hazkunde hori 2017an EAeko batez bestekoa baino % 20 handiagoa baldin bada (2020. urtean % 15), planifikaziorako ez da aintzat hartuko.

- b) Zentroak lurraldean behar adina heda daitezzen sustatzea, “zerbitzuak lurraldean ezartzeko irizpide egokienei” jarraikiz, zerbitzu bat emateko aukera edo behar besteko hurbiltasunarekin emateko aukera bertan behera utziko lukeen hutsunerik (ingurune batean zentrorik edo estaldura nahikorik ez izatea) geratu gabe.

GZESaren unibertsalizazioan aurrera egiteko funtsezko alderdia da zerbitzuak lurraldean hedatzea, bai eta zerbitzu eta prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubidea dutenei benetan jasotzeko aukera bermatzea ere (horretan ere badu eragina).

Hori guztia:

- lurralde bakoitzeko (Lurralde Historia izan daiteke, edo bestela, Foru Aldundiak eta Toki Erakundeek jarduten duten bestelako mugape geografikoak) errealiterara egokitzeko egin beharreko egokitzapenak alde batera utzi gabe) eta eraginkortasunaren, baliabideak baliatzearen eta ekimen pribatuarekin lankidetzan jardutearen printzipioei ere erreparatuta arreta-sarearen plangintzan eta hedapenean (ildo beretik, lehendik ere badiren baliabideak baliatuta);
- eta, nolana ere, eskubide subjektiboaren egoera batean, eskubidearen titular izanik zerbitzuak jasotzeko baldintzak betetzen dituztenei zerbitzuak jasotzeko aukera bermatu behar dela jakinda, eta aukera hori eskubidea kudeatzeko behar den denboraz -ez gehiagoz- atzeratuta, baldin eta zerbitzuari atxikitako prestazio ekonomiko bat ematen ez bada, legean eta Zorroari buruzko Dekretuan aurreikusitako baldintzetan.

Ildo beretik, ez dugu ahaztu behar mapa planifikatzeko tresna dela eta zentroak gaituko direla betiere zentroen behar besteko okupazioa bermatzea ahalbidetuko duten premia eta eskaria baldin badaude.

Azkenik, bi urtera begira helburuak finkatu behar direnez eta helburu horiek koherenteak izan behar dutenez gastu-ibilbidearekin, egungo egoera ekonomikoarekin eta GZESA unibertsalizatzeko aurreikusitako epearekin, ezinbestekoa da, halaber, arreta-sarea garatzeko lanetan aurrera egitea, bereziki, lehen mailako arretari dagokionez.

Eta, horregatik, Katalogoko zerbitzu eta prestazio ekonomiko guztiek 2020. urtean hiru Lurralde Historikoetan EAEko batez besteko estalduraren % 85, gutxienez, lortzeko konpromisoa hartu dugu:

- Lurralde Historiko bakoitzean 2017. urterako (2017/01/01) aurreikusitako estaldurak proiektatuta, dokumentu honetan ezarritako irizpideei jarraikiz;
- eta zerbitzu edo prestazio ekonomiko bakoitzak 2020. urtean (2020/01/01) izango duen xedebiztanleria finkatuta, EINek egindako epe motzeko proiektzio demografikoei jarraikiz, betiere proiektzio hori egiten denean dagokiona aintzat hartuta (2014-2024, 2015-2025 eta abar) eta, nolana ere, plan berria egiteko garaian, Zorroari buruzko Dekretuan bertan aurreikusitako Zorroaren aplikazioaren eta garapenaren ebaluazioa egin ostean.

Horri dagokionez, atal hau amaitzeko, Zorroari buruzko Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian honako hau aipatzen dela nabarmendu nahi dugu: <<Eusko Jaurlaritzak, gainerako euskal administrazio publikoekin koordinatzeko eskumenak egikaritzuz, Gizarte Zerbitzuen Erakundearteko Organoaren bitartez, Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren aplikazioari eta garapenari buruzko ebaluazio orokorra egingo du Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen lehenengo xedapen iragankorrean Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema unibertsalizatzeko aurreikusitako epetik aurrera bi urte igarotzen direnean, eta, hala badagokio,

Prestazio eta Zerbitzuen Zorroa eguneratuko du Lege horretako 24. artikuluan eta Dekretu honetako 8. artikuluan aurreikusitakoaren arabera>>.

Plana legearen aurreikuspenetara egokitzea, GZESaren plangintzari dagokionez

Legean (35.3 artikulua) aurreikusitakoarekin bat⁴, hona hemen Plan Estrategikoaren oinarritzko bi elementu:

- gizarte-premien *diagnostikoa*, premia horien bilakaeraren iragarpen eta guzti (Katalogoko prestazio eta zerbitzuen premian eta eskarian eragin dezaketen faktore garrantzitsuen azterketa eta mapan egindako proiektzioak);
- *ildo estrategikoak, helburu estrategikoak* eta horiek lortzeko *ekintza* egokiak.

Horietaz gain, 35.2 eta 35.4 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, Planean honako hauek ere biltzen dira:

- *EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapa* ; besteak beste, *estaldurak* zehazten ditu eta, hala badagokio, zenbat arreta-ordu⁵ eskaini behar diren, zenbat *plaza* diren beharrezko, edo prestazio ekonomikoen⁶ zenbat *erabiltzaile edo hartzaile* artatu behar diren 2017/01/01ean (Lurralde Historikoen arabera edo EAE osorako, Eusko Jaurlaritzaren eskumeneko zerbitzu eta prestazio ekonomikoen kasuan), eta era berean, *zerbitzuak ezartze aldera, biztanleriari dagozkion irizpiderik egokienak zehaztuko ditu* (36.1 artikulua).
- *Memoria ekonomikoa*; barruan hartzen du, besteak beste, euskal administrazio publikoek, legeak ezarritako eskumen-araubidearen arabera, estaldura eta arreta-ordu horiek bermatzeko egin beharreko *gastu korrante publikoaren* estimazioa, bai eta *diru-sarreraren* zenbatespena ere.⁷

⁴ <<Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategiko horretan, besteak beste, gauza hauek denak zehaztu beharko dira: gizarte-premien diagnostikoa eta premia horien bilakaeraren iragarpena; lortu beharreko helburuak eta helburu horiek lortzeko lan-ildo estrategikoak eta ekintzarik egokienak; sektore publikoak eta pribatu itunduak zerbitzuak emateko parte-hartzeari buruzko orientabideak, beharrezko koordinazio-neurriak; planaren ebaluazio sistematiko eta jarraitua egiteko baliabideak, eta hori guztia 5. artikuluan aipatutako gizarte-zerbitzuen sare publikoa taxutzeko amaiera-helburuarekin, 7.a) artikuluan ezarritako moduan. Azkenik, 76. artikuluan aipaturik datozen tresna eta prozedurak ere bildu behar ditu. Tresna eta prozedura horiek, hain zuzen ere, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema osatzen duten prestazio, zerbitzu, programa eta jardueren kalitatea hobetzeko balio behar dute>>. (35.3 art.).

⁵ Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren gutxieneko intentsitatea Zorroari buruzko Dekretuan zehaztuta dago, oro har. Mapan eta memoria ekonomikoan aurreikusitako arreta-orduen hazkundera da, 65 urte edo gehiagoko biztanleriaren bilakaera demografikoaren eta mendetasunaren arloko adierazle sintetikoaren arabera kalkulatuta, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren hartzaile gehienak adinekoak direla aintzat hartuta. Orduen hazkunde horren ondorioz estaldura ez ezik, intentsitatea ere handitu daiteke.

⁶ GZESaren prestazio ekonomikoak aipatzean direnean, berreskuratu ezin diren laguntza teknikoez baliatzeko modua errazteko diru-kopuruak hor sartzen dira, bai eta ingurune fisikoan egokitzapenak egitea ere, betiere horiek prestazio ekonomiko moduan edo laguntza ekonomiko moduan arautzeko aukera alde batera utzi gabe, Zorroari buruzko Dekretuaren 4.4. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

⁷ Plan estrategikoaren ekintzei dagokionez, Eusko Jaurlaritza buru duten ekintzen (dokumentu honen 3.5 atala) kuantifikazio ekonomikoa Memorian ez sartzea erabaki dugu, gastu hori ez baita zuzenean bideratzen prestazio edo zerbitzuak estaltzera. Nolanahi ere, non sartzen den gorabehera, GZESaren hedapenari laguntzera bideratutako gastu hori identifikatzea garrantzitsua da.

Bestalde, memoria ekonomikoari buruzko atalean azaldu dugunez, gastu eta inbertsioaren arloko aurreikuspenak euskal administrazio publikoek adostu dituzte, besteak beste, estimazioak doitu; hain zuzen ere, euren eskumeneko zerbitzu eta prestazio ekonomikoetan egindako gastu publiko korrontearen bilakaerari buruzko estimazioak, dela administrazioek zuten azken datuari dagokionez, dela administrazio bakoitzak plaza edo prestazio bakoitzeko gastu korrante publikoaren aurreikus daitekeen hazkunderaren estimazioari dagokionez (2011n behatutako datuan oinarrituta egindako estimazioa nahikoa ez dela uste izanez gero).

Alabaina, gaur egun, kasu gehienetan ezinezkoa izaten da estaldura-helburuak eta, hala badagokio, intentsitatea erakunde bakoitzaren aurrekontura eramatea. Horretarako, erakundeek aurrekontu-teknika egokitu beharko lukete, eta Zorroko zerbitzu eta prestazio ekonomikoak argi eta garbi identifikatu beharko lituzkete, aurrekontu-partida espezifikoekin lotuta eta bestelako kontzepturik bildu gabe; edo Zorroko zerbitzu eta prestazio ekonomikoetan egindako gastua beste gastu batzuekin nahastu gabe.

Bestalde, 35.3 artikuluan eta zioen azalpenean aurreikusitakoari jarraikiz, planean honako hauek xedatzen dira:

- sektore publikoak eta pribatu itunduak zerbitzuak emateko parte-hartzeari buruzko orientabidea⁸;
- beharrezko koordinazio-neurriak, eta planaren ebaluazio sistematiko eta jarraitua egiteko baliabideak, gizartearen parte-hartzea bermatuta ebaluazioan.

Hori guztia gizarte-zerbitzuen sare publikoa taxutzeko helburuarekin, 5. artikuluan eta 7.a) artikuluan aurreikusitako moduan.

Hau da: - erantzukizun publikoko sare moduan; - titulartasun publikoko eta pribatu itunduko prestazio, zerbitzu eta hornidurez osatua (5. art.); - GZESaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoen eskaintza eta horietaz baliatzeko modua bermatuko du; - gainera, sistemara sartzeko prestazioen, eskarien lehenengo harrerako prestazioen eta kasu-koordinazioarekin zuzenean lotutako prestazioen zuzeneko kudeaketa publikoa bermatuko du, 60.2 artikulua dioenaren arabera; - eta ezarri egingo du, izaera orokorrak ezarriko ere, bai kudeaketa publikoa eta bai gizarte-ekimenaren bidezko kudeaketa beti gailen izango direla GZESaren zerbitzuak ematean eta prestazio ekonomikoak kudeatzean (7.a art).

Gainera, plangintza bat dator honako hauekin:

- Erkidegoko ereduarekin (sarea eta zerbitzuak lurralde bakoitzaren ezaugarrien arabera egokitzea eskatzen du), planifikazioaren subjektuari (33., 35.1, 35.5, 36.4 eta 36.5 artikulua) eta planifikatzeko printzipioei (34. artikulua) buruz aurreikusitakoarekin.⁹

⁸ Honela gauzatzen da hori: 2017. urtean, 2011ko titulartasunaren egiturari (udalaren, foru-aldundiaren eta autonomia-erkidegoaren titulartasuneko eta titulartasun pribatu itunduko zerbitzuek guztizkoarekiko osatzen duten ehunekoari) eutsita memoria ekonomian. Gaur egun, GZESaren zerbitzuetako gastu korronte publikoa baldintzatzen duten faktore garrantzitsuenetako bat da titulartasunaren egitura.

⁹

- GZESan lortu eta jarraitu beharreko helburuak, estrategiak, politikak eta jarraibideak aurretiaz zehaztu behar dira.
- Baliabideak nola hedatu eta lurraldeka eta eginkizunka nola banatu behar diren jakiteko irizpideak definitzea. Gizarte-zerbitzuetarako eskubidea, lege honetan aitorturik dagoen hori, benetako eskubidea izateko behar hainbat izan behar dute baliabide horiek.
- Hurbiltasuna, hau da, dena delako zerbitzua nolakoa den kontuan izanda eta zenbat erabiltzaile dagoen edo egon daitekeen kontuan izanda ahal den neurrian, erabiltzaileak bizi diren lekutik hurbil eskaini behar da zerbitzua, eta beraz, horretarako bidea ematen duen inguru geografikoetan ezarri behar dira zerbitzuak.
- Lurralde-oreka eta -homogeneotasuna. Zerbitzuak lurraldean banatzeko orduan, gogoan izan behar da Euskal Autonomia Erkidegoko herritar guztiak dena delako zerbitzura iristeko aukera berberak izan behar dituztela, eta, zerbitzura iristeko baldintzak eta diru-baldintzak autonomia-lurralde osoan berberak izan behar dira.
- Baliabideak oso-osorik, arrazoi-legez eta eraginkortasunez antolatuta eta aprobetxatu behar dira. Premiei erantzuteko lanean ahalik eta ondoena erabili direla bermatzearen, ahal dela, eskura diren baliabideak malgutasunez eta bata bestearekin loturik erabili behar dira, berdin dio formalak diren edo ez, publikoak diren edo pribatuak, baina, edonola ere, gizarte-ekimenez datozen baliabideetan jarri behar da arreta berezia, berdin gizarte-zerbitzuen arlokoak diren edo gizarte-babesaren gainerako esparruetakoak diren.
- GZESaren esparruan esku hartzen duten osagai guztiak koordinaturik egon behar dute eta sarean lan egin behar dute.
- Plangintza genero-ikuspuntutik begiraturik ere egin behar da, Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean aurreikusita dagoen moduan; Eta beste ikuspuntu batzuk ere bermatu behar dira, hau da, gogoan izan behar da sexu-joerak askotarikoak direla, eta kulturak ere bai, eta belaunaldiak ere bai, eta zerbitzuetara iristeko eskubidea jende guztiarena dela, eta diseinuak gizon-emakume guztiak izan behar dituela gogoan. Ekintza positiborako eta aukera- nahiz tratu-berdintasunerako hartu beharreko neurriak ere hartu behar dira.

- Kalitatea hobetzeko balio behar duten tresna eta prozedurei buruzko aurreikuspenekin (76. artikulua), plan estrategikoan nahitaez bildu behar baita horien garapena (76.2 artikulua): a) Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioko Euskal Sistema diseinatzea, abian jartzea eta iraunaraztea; b) kalitatearen ebaluazioko eta etengabeko hobekuntzako sistemak aplikatzea; c) gizarte-zerbitzuetako ikerketa, bai eta ikerketako eta garapeneko eta ezagutzaren kudeaketako ekimenak ere, sustatzea eta bultzatzea; d) gizarte-zerbitzuetako profesionalen prestakuntzaren etengabeko hobekuntza.

Eta aurreikuspen horiei dagokienez, honako hauek aipatzen dira: Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokia (77. artikulua), profesionalen prestakuntza eta gaikuntzarekin lotutako neurriak (78. artikulua) eta Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioko Euskal Sistema (79. artikulua); horietaz gain, bestelako jardun batzuk ere biltzen dira, hala nola, GZESan integratutako zerbitzuak bereizteko ikus bereizgarri bat izatea. Horiek guztiak ere txertatu dira planean, eta GZESa egituratzeko eta hobetzeko prozesuan lagungarri izan daitezke.

Plana, hortaz, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen babespean garatu da; Lege horren xedea honako hau da: “*gizarte-zerbitzuen prestazioak eta zerbitzuak jasotzeko eskubidea sustatu eta bermatzea, eta, horretarako, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema unibertsal bat arautu eta antolatzea*”; sistema hori 7. artikuluan bildutako printzipioen arabera arautuko da: besteak beste, erantzukizun publikoaren, unibertsaltasunaren eta koordinazioaren printzipioen arabera.

Hein handi batean, alderdi horiek honako ardatz honetan bildutako edukien bitartez gauzatzen dira: *1. ardatza.- Arretaren unibertsalizazioa, lurralde-antolamendua eta ekitatea sarbidean*; zerbitzu eta prestazio ekonomikoak Mapan aurreikusitakoaren arabera hedatzea biltzen da, baina bai eta gainerako ardatzen bitartez ere, gainerako ardatz horiek zerbitzu eta prestazio ekonomikoen hedapena lortzeko tresnatzat ez ezik, helburutzat ere hartzen baitira, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren eraketarekin eta finkatzearekin ere lotuta, eta horixe da, azken batean, Planaren indarraldian gainditu beharreko erronka nagusia.

Bukatzeko, Plana Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde-egiturarekin juridikoki bat datorrela esango dugu eta, Planean bertan hainbat ekintza txertatzen direla errealitatea Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legean bildutako eskumen-banaketaren arabera egokitzeko; ildo beretik, eskumen-araubide antolatua, EAEko erakunde-egiturarekin eta legearekin koherentea izango den eskumen-araubidea finkatzeko urrats garrantzitsuenak izan dira Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretua berriki onartzea, horren ondoren lehendik zegoen zerbitzu eta prestazio bakoitza Zorroari atxikitzeko prozesua, Gizarte Zerbitzuen Mapa, eta legean proposatu den eskumen-araubidea onartzearen ondorioz euskal administrazio publikoen artean gertatuko den berregokitzapena. Eskumen-araubide horretan gerta daitezkeen desorekak, gertatzekotan, Gizarte Zerbitzuetako Erakundearteko Organoan azertu beharko dira, erakundearteko koordinazioa antolatzen duen organoa den aldetik.

Plana X. legegintzaldiko helburu programatikoetara eta Europar Batasunaren esparruan Gizarte Zerbitzuen arloan gauzatzen ari diren politiketara egokitzea

Aurkezpenean esan dugunez, Planaren ardatz estrategikoak erabat bat datoz lehendakariak 2012ko abenduaren 13ko inbestidura-hitzaldian proposatutako Gizarte Politikarekin lotutako jardunaren oinarritzko ideia harekin; hitzaldi hartan, pertsona finkatu zuen sistemaren erdigunean eta kalitatezko gizarte-zerbitzuak bermatzeko konpromisoa hartu zuen, hainbat neurriren bitartez: gizarte-laguntzen bermea eta eraginkortasuna hobetzea, eta erakundeen arteko lankidetzaren bitartez, gizarte-zerbitzuen sistemaren finantza-egonkortasuna lortzea. Planean ere funtsezkoak dira alderdi horiek.

Jardun-ildo hori konstantea izaten ari da Legegintzaldi osoan. Politika orokorreko osoko bilkura guztietan (irailean, urtero) gizarte-babesa Jaurlaritzaren lehentasunetako bat izan da, gizarte-babeseko sistema publiko eta kalitatezkoa bermatuta, inor atzean utzi gabe (2013), oinarri zabaleko gizarte-adostasuna lortzea xede izanik, egoerak gorabehera sistemak iraungo duela bermatzearen, eta sistemaren iraunkortasuna ahalbidetuta gizarte-legitimazioaren eta ekitatearen bitartez (2014); eta, azkenik, gizarte-kohesioaren bermea oraindik ere Jaurlaritzaren ekintzaren elementu garrantzitsuenetako bat dela berretsita, eta horretarako, gainerako erakundeekin oinarritzko adostasuna lortu da (2015). Adostasun horren ondorioz, Plana onartu egingo da, Gizarte Zerbitzuen Mapari eta Zorroari dagokienez alde aurretik ados jarrita.

Gobernu Programaren edukiak eta Planaren proposamenak ere bat datoz, hein berean. Izan ere, Gobernu Programan 2.7.2 “Gizarte Zerbitzuak, ongizate-estatuaren laugarren zutabe gisa” atalerako finkatutako helburuak bat datoz Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoko aurreikuspen estrategiko edo ardatzekin, gutxienez, honako alderdi hauetan:

- 1 Gizarte Zerbitzuen Sistemaren iraunkortasuna bermatzea beharrezko baliabideen bitartez, lankidetzaren publiko-pribatuaren eredu mistoan aurrera eginez; Zerbitzuen Zorroaren garapen osoa burutzea, eta sistemaren eraginkortasuna indartzea. → 4. ardatza eta Memoria ekonomikoa.
- 2 Gizarte-zerbitzuak eskariaren arabera egoki daitezela sustatzea, eta zerbitzu soziosanitario berrien garapena bultzatzea. → 4. eta 5. ardatzak.
- 3 Eremu soziosanitarioan lankidetzarako mekanismoak garatzea, bazterkeria-arriskuan dauden pertsonen jarraipena egin eta laguntza emateko. → 5. ardatza.
- 4 Erakundearteko koordinazioa eta lankidetzaren bultzatzea, bai eta lankidetzaren publiko-pribatuaren eremuan ere, gizarte-zerbitzuen eraginkortasuna hobetzearen. → 3. eta 4. ardatzak.
- 5 Adostasun-maila handiko gizarte-ituna sustatzea, gizarte-zerbitzuen sistemaren aldeko aurrerabidea finkatzearen. → 2. eta 3. ardatzak.

Planaren diseinua eta edukia Europar Batasunetik datozen oinarritzko edukiarekin bat datoz, egungo testuinguru soziopolitikoan gizarte-politika aurreratuetan gailendu beharrezko edukiak diren aldetik.

Europar Batasunean, gizarte-politika enplegu-politiken paraleloa da, helburu komun bera partekatzen dutela biek: bizi-kalitate eta bizi-maila egokiak sustatzea denontzat, gizarte aktibo, askotariko eta osasungarri batean. Baina gizarte-politika ez da EBren eskumen eksklusiboa; aitzitik, Estatu kideei funtsezko eskumetzat esleitzen zaie, eta haien artean banatzen da Estatu horietako antolamendu juridikoak eta eskumen-banaketako sistema arautzen duten arauen arabera. Horrela, bada, Estatuak egiten dituzten ekintzak babesteko eta osatzeko politikak geratzen dira EBrentzat.

Ildo beretik, Europar Batasunaren Tratatuaren 3. artikuluan dioenez, Europar Batasunaren funtsezko helburu dira ekonomiaren, gizartearen eta lurraldearen arloetako koherentsia sustatzea, gizarte-bazterkeriaren nahiz diskriminazioaren aurkako borroka, eta gizarte-babesa sustatzea.

Era berean, EBren funtzionamenduari buruzko Tratatuaren¹⁰ X. titularen –Gizarte Politikari buruzkoa–, 151. artikuluan¹¹ honako hau xedatzen da: *"Erkidegoak [Europar Batasunak] eta Estatu kideek [...] helburu hauek dauzkate: enplegua sustatzea; bizitzako eta laneko baldintzak hobetzea, aurrerapen bideak langileak parekatzeko; gizarte-babes egokia; elkarriketa soziala; giza baliabideen garapena, enplegu-maila handia eta iraunkorra lortzeko; eta bazterkeriaren kontra borrokatzea"*.

¹⁰ <http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:12012E/TXT&from=ES>

¹¹ Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala 2010.3.30. C 83/47 seriea.

Konpromisoa egiaztatuta, gizarteratze aktiboko estrategia europarrean zerbitzuak (gizarte-zerbitzuak, besteak beste) eskuratzeko aukera da gizarteratze aktiboko politikak bermatzen dituzten hiru zutabeetako bat, errentak bermatzearekin eta lan-merkatuan sartzeko aukerarekin batera.

EBren ustez, gizarte-zerbitzuei dagokienez:

- erronka nagusia zera izan da (EAEren kasuan, oraindik gainditu gabe dago), bateratze-prozesuan aurrera egitea gizarte-zerbitzuen eredu jakin bat lortzeko, hain zuzen ere, eskubide subjektiboaren logika txertatzen duen eta komunitatearentzako oinarritzko zerbitzuen eredu orokorrean (ongizate-estatuaren oinarrietako bat) sartzen den eredu;
- une honetan, funtzionamendua eta zerbitzu-maila modernizatu egin behar dira, Europa 2020 Estrategiaren helburuak (hazkundera, adimendua, iraunkorra eta integratzailea) betetzen lagunduko duten elementu bihurtzeko, betiere gastu soziala hazkunde ekonomikoarentzat kargatzat hartzen duen ikuspegi tradizionala alderantzikatu eta ekonomia egonkortzeko eta ekonomiaren hazkunderako lagungarri direla ulertuta.

Aitzitik, Planean egiazta daitekeenez, gizarte-zerbitzuak jarduera ekonomikoaren esparru garrantzitsua dira, itzulkinak biderkatu egiten dituztelako biztanleriaren bizi-kalitateari dagokionez, mendetasunarekiko prebentzioari eta autonomiaren sustapenari dagokionez, enplegua sortzeari dagokionez, BPGari egindako ekarpenari dagokionez, zerga-itzulkinari dagokionez...

Azken batean, gizarte-zerbitzuak sistema publikoaren erronka nagusia eredu bat lortzea da, eskubide subjektiboaren logika txertatzen duen eta komunitatearentzako oinarritzko zerbitzuen eredu orokorrean sartzen den eredu. Eta konpromiso horri premia bat gehitu behar zaio: gizarte-zerbitzuen Europako eredu sozialarekin –eredu hori unibertsala, kalitatezkoa eta iraunkorra da– bat egiteko premia; horretarako, honako hauetara bideratutako ekintzei eman behar zaie lehenetsuna: zorro bat eratzera, eskubide subjektiboa bermatzera, finantzaketa nahikoa lortzera, zentzuzko eskaintza garatzera, herritarrak ardatz izango dituen antolaketa teknikoa lortzera, erantzukizunak lurraldearen arabera antolatzea eskumen partekatuen sistema lortzeko lanetan aurrera egitearren, eta bukatzeko, beste sistema batzuekiko (batik bat, soziosanitarioarekin) koordinazioa garatzera bideratuta.¹² Alderdi horiek guztiak erraz identifika daitezke planaren testuan.

Alderdi horiekin bat etorritik, Planak, halaber, erantzun egiten die Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordearen (CESE) irizpenaren zuzentarauaren printzipioei. Zuzentaraua 2015eko irailaren 17koa da, “Gizarte-prestazioen sistema eraginkor eta fidagarriak lortzeko printzipio”-ei buruzkoa. Hain zuzen ere, CESEren proposamena dira, eta EBren konpromiso estrategikoaren alde egiten dute. Konpromiso hori argiago bideratu behar da gizarte-politikara, eta Batzordea gonbidatzen du gizarte-politikaren esparruko printzipio orokorrak sortzera; bere ustez, printzipio horiek oinarri izan behar dute EBko erakundearen jarduerarako eta, zehazki, gobernantza ekonomikorako, aurrekontu-kontrolerako eta krisiaren kudeaketarako.

CESEk azpimarratzen du, hori dela eta, bidezko oreka aurkitu behar dela printzipio partekatuen beharrezanaren eta sistemen aniztasunaren artean; izan ere, horiek dira herrialde bakoitzeko gizarte-politikaren, kulturaren eta historiaren isla. Halaber, uste du Europako gizarte-ereduaren arabera garatu behar dutela. CESEren proposamenak 17 printzipio ezartzen ditu, eta, horien artean, EAEko Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak nabarmendu eta azpimarratu egiten ditu partaidetzari dagozkion printzipioak (prestazio eta zerbitzu guztiek izan behar dute lagungarri herritarrak gizarteko kide senti daitezen eta gizartean parte har dezaten, partaidetza profesionala,

¹² “Servicios sociales y cohesión social”. Laburpen exekutiboa. CES-Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea

kulturala eta politikoa barne, gizarte-ongizatearekin batera) eta pertsona erabiltzailearen autodeterminazio-printzipioa (pertsona erabiltzaileak ez dira objektu pasibo, ezpada laguntzen ekoizlekideak eta prestazioak jasotzeko eskubidea duten herritarrak).

Plana Gobernuaren plangintza orokorraren esparruan.

“2013/2016 aldiko X. Legegintzaldiko Plan Estrategikoen egutegian”, aldi horretarako guztira 14 plan estrategiko biltzen dira eta horien artean dago 2016-2019 aldirako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa.

Planaren 5. ardatza –“Beste sistema batzuekiko lankidetzaz” Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 40.6 artikuluan¹³ oinarrituta dago, eta gizarte-zerbitzuen politikaren eta bestelako politika publiko konkomitanteen arteko lotuneak ditu aztergai.

28. helburu estrategikoan honako hau proposatu da: “Eremu soziosanitarioa eraikitzen bukatzea, zaintzaren zerga-kolektibo guztiei behar duten ordezkariak eta estaldura emanaz, eta gizarte-zerbitzuen eta osasun-zerbitzuen arteko koordinazioa hobetzea, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluan erabakitako koordinazio eta integrazio soziosanitarioko ildo estrategikoak sustatuta, eta hirugarren sektoreko erakundeek bazkide estrategikotzat eta lehentasunezko zatik parte hartuta” eta bat-egite horren esparruan, honako ekintza hauek hautatu dira.

- Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren Dekretu berria onartzea.
- Koordinazio soziosanitarioko programa pilotuak garatzea, bereziki kontuan hartuta etxeko esku-hartze programa soziosanitarioak abian jartzea.
- Zerbitzu soziosanitarioen Zorroa jasotzen duen Dekretua onartzea.

Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemarekin koordinatzeari dagokionez, bi prestazioak jasotzen dituzten hartzaitzaileak bat etor daitezkeela ikusita, koordinatze eta sarean lan egiteko bide eraginkorrak ezarri behar direla geratu da agerian, GZEKren gomendioei jarraikiz. horretarako, honako ekintza hau diseinatu da: “Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta GZESaren arteko koordinazioa eta lankidetzaz gauzatzeko bide iraunkorrak ezartzea...” diru-sarrerak bermatzeko prestazioak jasotzen dituztenen artetik, problematika batik bat soziala dutenei arreta emateko. Ekintza horri lehentasunik handiena eman zaio.

Hezkuntzaren arloan, GZEKren gomendioei jarraikiz kasu honetan ere, ekintza bakarra aurreikusi da: (“Koordinazio-protokoloak ezartzea ikastetxeekin eta osasun-zentroekin, koordinazioarako eta ebaluazioarako bide iraunkorrak eta ekimen partekatutako barnean hartuta, batik bat, haurren babesaren esparruan”), eta garrantzi berezia eman zaio, ekintza estrategiko oso garrantzitsutzat hartzen baita Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa hedatzeko, eta erakundeen arteko lankidetzaren bitartez gauzatu behar da.

Bestalde, planean lau ekintza ezarri dira genero-politikei dagokienez; izan ere, alde batetik, genero-ikuspegia Plana osatzen duten ekintza guztietan sartzea aurreikusten baita, genero-desberdintasunak kentzeko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko GZESan (1.8.1, 1.8.2 eta 1.8.3) eta, bestetik, azterketa bat egitea proposatu da, emakumeen aurkako indarkerian sartuta dauden zerbitzuen eta erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko (5.5.1).

¹³ Artikulu horren arabera, Eusko Jaurlaritzari dagokio Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren koordinazio orokorra, prestazioak eta zerbitzuak Euskadiko lurralde osoan orekaturik garatu daitezkeen, hartara, haietara iristeko aukerak homogeneoak izan daitezkeen. Eta, beste alde batetik, gizarte-zerbitzuen beren eta gizarte-ongizatearekin zerikusi zuzena duten sistema eta politika publikoen artean koordinaturik jarduteko bideak zabaltzea, sistema-politika horiek eskumenak dituzten lurraldean jardun beharra dagoenerako, batez ere honako hauekin: *osasun-zerbitzuak, hezkuntzakoak, etxebizitzakoak, enpleguak eta diru-sarrerak eta gizarteratzea bermatzekoak.*”

Jardun horren osagarri, EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako VI. Planean arlo horrekin lotuta dauden aurreikuspenak har daitezke.

Osasunaren arloan, 2013-2020 Osasun Planean honako hau proposatu da: "Gobernuaren zeharkako estrategia gisa sektorearteko ekintza sustatzen duen erakundearteko konpromisoa lortzea, osasuna eta osasuneko ekitatea gobernu osoaren eta politika publiko guztien xede gisa har daitezzen, hartara osasuna politika guztietan txertatuta eta bultzatuta".¹⁴ Helburu horretan bat egiten dute eremu soziosanitarioarekin lotura duten planeko ekintza guztiek.

Halaber, hirigintzaren, etxebizitzaren eta garraioaren arlorako ere bada ekintza espezifiko bat planean (5.4.1). Eta, horri dagokionez, Etxebizitza Plan Zuzentzailea 2013-2016 eta Etxebizitzak Birgaitzeko Renove Plana 2013-2016 planetako aurreikuspenak aintzat hartu behar dira, eta Garraio Iraunkorraren Gidaplana 2020ko Horizontea plana prestatzeko lanetan parte hartu.

Azkenik, Euskadiko Udal Legearen Proiektuan (legebiltzarreko izapidean dago) EAEko udalek beren gain hartu beharreko eskumenak identifikatu beharko dira, bai eta proiektua behar bezala burutzeko antolatzen diren finantzabideak ere, gizarte-zerbitzuei dagokienez, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legean eta plan honetan aurreikusitakoarekin koherente izanik. Eta Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Euskal Enplegu Sistemaren Legearen aurreproiektuari dagokionez (prestatzen ari da eta, aurrekoa bezalaxe, Legegintzaldiko Egutegian sartuta dago), enplegu-mailak eta enpleguaren egonkortasuna eta kalitatea areagotzeaz gain, enplegarritasuna eta laneratzea hobetzea ere ditu azken helburu, eta gizarte-zerbitzuen sistemarekin eta plan honekin konexioak ezarri beharko ditu, dela GZESko enpleguaren kalitateari eta enplegua sortzeari dagokienez, dela laneratzeari dagokionez.

1.2. PLANAREN EGITURA ETA IRAUPENA, ETA EGITEKO PROZESUA

Planaren egitura

Atal honetatik aurrera, planak honako bloke edo kapitulu hauek jasotzen ditu:

1. **Premien diagnostikoa;** honako hauek biltzen ditu:
 - *Baliabide-sarearen* (GZESaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoak) *egoeraren diagnostikoa;* horri esker, 2011. urtean sarearen garapen-maila zenbatekoa zen jakin ahal izan dugu, eta GZESA hedatzearekin lotutako gai garrantzitsuak identifikatzeaz gain, ondorioak ere atera ditugu.
 - Azken urteotan *sareak izan duen bilakaerarekin* lotutako hainbat alderdi, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren (GZEK) III. Txostenean bildutakoari jarraikiz.
 - GZESaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoen *etorkizuneko eskaria eta premia baldintza dezaketen inguruneko faktore garrantzitsuak eta bestelako alderdiak* (prospekzioa).
 - *GZESak barnean dituen erronka nagusien azterketa,* sendotzeari begira.
2. GZESaren xedea eta ikuspegia, planaren ardatz eta helburu estrategikoak¹⁵ eta ardatz eta helburu estrategiko bakoitzari dagozkion ekintzen xehetasuna, ekintza bakoitzari buruz

¹⁴http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.eus/r48rplancoo/es/contenidos/plan_programa_proyecto/xleg_plangub_13/es_plang_13/plang_13.html

¹⁵ Ildo eta helburu estrategikoak finkatzeko garaian, oinarriko ildo eta helburuak aukeratu nahi izan ditugu, erakunde guztiak bilduko dituztela eta, aldi berean, beharrezkoa den maniobra tartea ere izan dezaten definizio praktikoan. Ekintzen azken zehaztasunak erakunde bakoitzak xedatu behar ditu, orientabide orokor hauei jarraikiz, baina lurralde-eremu bakoitzeko egoerak, premiak eta

honako datu hauek aipatuta: lehenetasun-maila, ekintza gauzatu edo bideratu behar duen erakundea, lehenetasunezko zer elementuri erantzuten dion eta jarraipena edo ebaluazioa egiteko adierazleak.

Bakoitzarekin lotutako ardatz, helburu eta ekintzei dagokienez, planean honako hauek sartzen dira:

- **5 ardatz edo ildo estrategiko:** erakundeen ahalegina ardatz edo ildo horietara bideratu beharko da, lehenetasunez, planaren indarraldian.
- **32 Helburu Estrategiko:** horien bidez ardatz bakoitzean eman beharreko aurrerapausoak ezarriko dira.
- **90 ekintza,** horien bidez aipatutako helburuak lortu behar dira.

Bloke hau bukatzeko **egutegia** dago, ekintza bakoitza hasteko eta bukatzeko aurreikusitako epeak zehaztuta; eta **planean aurreikusitako ekintzetatik, Eusko Jaurlaritza buru izango den ekintzen kuantifikazio ekonomikoa** ere egin dugu, betiere egiazko kuantifikazioa egiteko moduko zehaztasun-maila izanez gero.

3. *EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapa eta Memoria Ekonomikoa.*

4. Plana **koordinatzeko, dinamizatze, jarraipena egiteko, ebaluatze eta eguneratzeko** finkatu den modua.

Planaren iraupena

Plana 2016-2019 aldirako proposatu dugu, baina ez dugu ahaztu behar 2015eko bigarren hiruhilekoan alde aurreko hainbat ekintza garrantzitsu gauzatu behar zirela; zehazki, Zorroari buruzko Dekretua onartu behar zen, eta 2015/12/31 baino lehen, Finantza Publikoen Euskal Kontseiluaren erabaki bidez, Zorroari buruzko Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian horretarako aurreikusitakoari jarraikiz, egonkortu gabekotzat jotako zerbitzu eta prestazio ekonomikoak indartzeko finantza-lankidetzako formula bat ("funts" bat) eratu behar zen, zerbitzu eta prestazio ekonomiko horiek funtsezkoak baitira GZESA hedatzeko. Bi ekintza horiek burututa daude.

2019. urtea ezarri dugu planaren jomuga, honako hauek aintzat hartuta:

- 2016/12/25etik aurrera GZESaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoen eskari guztiari – baldintzak betetzen dituen eta artatu ez dena– erantzun beharko zaiela;
- 2017. eta 2018. urteetan, eskaintza eskariari (eta, bereziki, bideratutako eskariari) zenbateraino egokitzen ote zaion aztertu beharko dela bereziki, eta egokitzapen hori sakonki ebaluatu behar dela 2018ko bigarren seihilekoan, Zorroari buruzko Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako Zorroaren aplikazioaren eta garapenaren ebaluazio orokorrekin batera, eta Dekretu horretan aurreikusitakoari jarraikiz, 2018ko abendutik aurrera egin beharko dela (ebaluazio horren emaitzaren ondorioz, 2020/01/01erako

aukerak ere aintzat hartuta. Halaber, antzeko zehaztapen-maila duten helburu eta ekintzak sartu nahi izan ditugu planean, eta horretarako, ez ditugu enuntziatu orokorregiak egin, ez eta jardun oso zehatz edo espezifikoak zehaztu ere; eta helburu eta ekintzak definitzeko garaian, irizpide errealistari jarraitu nahi izan diogu, bete ezinak diren neurriak ez proposatzearen.

Bestalde, sartu ditugun zenbait ekintza jada aurreikusita edo, zenbait kasutan, abiarazita daude. Bi arrazoirengatik sartu ditugu ekintza horiek: planak biltzen dituen lehenetasunei erantzutera bideratutako neurri guzti-guztiak txertatu nahi izan ditugulako, eta jada partzialki aplikatzen ari diren zenbait neurri orokortu eta zabaltea nahi dugulako.

aurreikusitako helburuak betetzeko ekintzetan egin beharreko eguneratzeak egin beharko dira, zerbitzu eta prestazio ekonomikoen hedatzeari dagokionez);

- planak lau urteko iraupena izan behar duela, EAEko Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean aurreikusitakoari jarraikiz;
- eta 2019an amaitzen dela udalen eta foru aldundien legegintzaldia, udalak eta foru aldundiak baitira Katalogoko zerbitzu eta prestazio ekonomiko gehienak emateaz arduratzen diren erakundeak.

Azkenik, Zorroaren aplikazioa eta garapena ebaluatu ostean, 2020-2023 aldirako beste plan bat egin beharko da.

Plana egiteko, onartzeko eta aurkezteko prozesua

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila plana, mapa eta memoria ekonomikoa egiteko prozesuaren buru izan da, bere koordinazio-eskumenak erabiliz, Foru Aldundiekin eta Udalekin koordinatuta, legearen 35.1 artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.

Nolanahi ere, prozesu hori kolektiboa edo kide anitzekoa izan da, batik bat, maparen eta memoria ekonomikoaren kasuan, GZESaren erakunde-arkitekturarekin koherentea.

Planean honako hauek hartu dira aintzat:

- GZEOan 2011ko ekainean aurkeztu zen 2011-2014 aldirako plan estrategikoaren zirriborroa; zirriborro horretako ekintzen balorazio positiboa egin zuen GZEOak, eta zirriborroa izapidetzen ari zen bitartean mapa eta memoria ekonomikoa egin ziren (zirriborroan aurreikusitako ardatz, helburu estrategiko eta ekintzak kontuan izan dira, eta behar izanez gero, eguneratu egin dira);
- Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluak 2013. urtearen amaieran GZESa hobetzei buruz emandako gomendioak, legearen 48.3 artikuluko d letrari jarraikiz.

Bestalde, mapa eta memoria ekonomikoa egiteko, aldez aurretik 2011ko *Inbentarioa* egin behar izan da, abiapuntuko egoera zein den jakitearren, besteak beste, dokumentu horiek egiteko funtsezko bi parametreri zegokienez: a) zerbitzuetako plaza eta/edo erabiltzaileen kopurua edo, hala badagokio, prestazio ekonomikoen hartzaile kopurua 2011n; b) plaza, erabiltzaile edo hartzaile bakoitzeko gastu korrante publikoa.

Horretarako, lau bilera egin zituzten operazio hori -GZGEEaren¹⁶ azpi-operazio moduan proposatu zen- eta lortutako datuak aurkezteko, eta aurrerago, inbentarioaren zirriborroa eta datuak alderatzeko bilerak ere egin ziren. Zehazki: a) Gipuzkoako Foru Aldundiarekin bilera bat; b) bi bilera Arabako Foru Aldundiarekin; c) lau bilera Bizkaiko Foru Aldundiarekin; c) hiru bilera

¹⁶ Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika - Erakundeak eta Zentroak (GZEEZ edo GZGEE). Erakunde bakoitzeko galde-sorta bat betetzen da, eta horrekin lotuta, erakundeak (publiko nahiz pribatu) kudeatzen dituen "zentroak" adina galde-sorta. Bestalde, GZGEEaren datuak Gastu Publikoaren Inkestarekin gurutzatzen dira.

GZGEEan zerbitzu guzti-guztiak hartzen dira kontuan, titularra publiko nahiz pribatu izan (GZGEEari eta lan honi dagokienez, erakunde titular izango da galde-sorta betetzen duena). Azpi-operazioan zerbitzu pribatuak eta itunpekoak bereizten dira, plazei dagokienez. Oraingoz, gainerako datuekin (gastua, diru-sarrera) ezinezkoa da bereizketa hori egitea, baina, titulartasun pribatuko zerbitzuetan, gastu korrante publikoa itunpeko plazak finantzatzera bideratzen dela ulertuko da, ez gainerako plazak. Horrenbestez, erantzukizuna eta titulartasuna bereizi egiten dira. Administrazio publikoak Katalogoko eta Zorroko zerbitzuen erantzule dira, titulartasun publikoak zein pribatu itunduak izan.

EUDELein; d) hiru bilera Gasteizko Udalarekin; e) bilera bat Eusko Jaurlaritzarekin, haren eskumeneko prestazio ekonomiko eta zerbitzuetako datuei buruz. Bilera horietan eta 2014. urtean egindako GZEOaren bileran, zirriborroaren inbentarioarekin batera, zirriborro horretan oinarrituta mapa eta memoria ekonomikoa egiteko jarraitu beharreko irizpideak ere aurkeztu eta eztabaidatu ziren.

Gero, mapa eta memoria ekonomikoa prestatzeko lanari ekin zitzaion, datuak erakunde bakoitzarekin kontrastatu ziren, elkarrekin, bilera teknikoetan.

Hori horrela izanik, *EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapa eta Memoria ekonomikoa* lan-prozesu baten emaitza dira; GZEOak adostutako lan-prozesua izan zen eta, lan horri esker, lau bileratan (2014ko urriaren 2an eta 24an, azaroaren 25ean eta abenduaren 16an) partekatutako planteamendu bat lortzeko bidean aurrera egin ahal izan genuen *EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoari* buruz eta, zehazki, *Mapari eta Memoria ekonomikoari*¹⁷ buruz.

Gainera, GZEOak funtsezko iritzi zion *EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapa eta Memoria ekonomikoa* oinarritzat hartzeari Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuari buruzko nahitaezko txostena egiteko eta, hala badagokio, GZESaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroa ezartzeko beharrezkoa den erabakia hartzeko.

Azkenik, 2014ko abenduaren 19ko bileran, eta EAEko Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 44. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz, GZEOak *Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuari* buruzko nahitaezko txostena egin zuen, *EAEko Gizarte Zerbitzuen Maparekin eta Memoria ekonomikoarekin* batera, eta *Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroa* ezartzeko erabakia hartu zuen.

¹⁷ Planean bildutako mapa eta memoria ekonomikoaz gain, EAEko Gizarte Zerbitzuen Maparen eta Memoria ekonomikoaren bertsio luzeago bat ere badago, eta kontsulta daiteke, nahi izanez gero.

Legean aurreikusitakoari jarraikiz, GZEOak eta GZEKk planari buruzko nahitaezko txostena egin dute (35.5 eta 48.3.a artikulua), mapa eta memoria ekonomikoa alde batera utzita; izan ere, mapari eta memoria ekonomikoki buruzko aldeko txostena lehendik egin baitzuten. Gobernu Kontseiluak horren berri izan eta onartu ostean, Eusko Jaurlaritzaren komunikazio baten bidez bidaliko zaio Eusko Legebiltzarrari (35.1 artikulua).

GZEOan aurkeztu aurretik, Jaurlaritzaren Lehendakariak eta Ogasun eta Finantza Sailak ere egin zuten Plan Estrategikoari buruzko nahitaezko txostena Jaurlaritzaren X. Legegintzaldiko Plan Estrategikoak onartzeko prozedurari jarraikiz.

2 DIAGNOSTIKOA

2.1. SARRERA

Diagnostikoak bi zati ditu.

Diagnostikoaren lehenengo zatian, 2011ko Inbentarioan oinarrituta adierazitako premien (GZESaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoen erabilerari buruzko datuak) ebaluazioa egingo dugu.

Ildo beretik, premien ebaluazioa egiteko, lehenik, abiapuntuko egoera zein den zehaztasun- eta sakontasun-maila jakin batekin jakin behar genuen, baliabide-sareari dagokionez (plazen, erabiltzaileen edo hartzaileen kopurua, estaldurak, gastu korrante publikoa...) eta egoera horretan oinarrituta, 2017rako proiektzioak finkatu.

Abiapuntuko egoeraren deskribapena eta azterketa gehienbat 2011ko inbentarioan oinarritua egin da, eta inbentarioaren serie historikorik ez dagoenez, bilakaeraren zenbait elementu ere aintzat hartu dira; hainbat urtetako *EAEko gizarte-zerbitzuen egoerari buruzko txostenak* alderatu ostean lortu ditugu bilakaerarekin lotutako elementu horiek, eta aurrerago aipatuko dugunez, txosten horien xedea GZESaren Zerbitzu eta Prestazioen Katalogoko zerbitzu eta prestazio ekonomikoak baino zabalagoa da.

Bi alderdi horiek (baliabide-sarearen egoera eta ibilbide historikoa) bildu ditugu diagnostikoaren atal honetan; horiekin batera, premien *ikuspegi arau-emailea* (teknikoa eta politikoa) ere aintzat hartu dugu, eta GZESaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoen etorkizuneko eskaria eta premia baldintza dezaketen zenbait faktore garrantzitsuren azterketa kualitatiboa egin (pronostikoa): a) biztanleriaren zahartzea; b) zainketa-ereduen eta zainketa formaren eta informalaren arteko orekaren bilakaera eta dibertsifikazioa, zainketa formala gailenduta; c) krisiaren eragina; d) eredu komunitarioaren garapena.

Premien tipologiari dagokionez (adierazitakoak, sentitutakoak edo hautemandakoak, arau-emaileak eta alderatuak), premien ebaluazioan, ordea, ez ditugu honako alderdi hauek sartu:

- *sentitutako edo hautemandako premiak* (hartzaileek ahoz adierazitako eskariak); kontuan izan behar da gizarte-zerbitzuen eskariari buruzko azken inkesta 2010. urtean egin zela eta ez dugula zerbitzu guztietako itxarote-zerrendari buruzko daturik (datu horiek GZGEEan eskatzen diren arren, ez dira ematen, eta ditugun datuak ez dira beti homogeenak izaten, "itxarote-zerrenda" kontzeptuak ez baitu beti esanahi bera izaten; beraz, oraingoz, plangintza-prozesuan horrelako daturik ez sartzea erabaki dugu);
- *alderatutako premiak* (beste autonomia-erkidego batzuetan edo European dauden joeran aintzat hartuta), aldeak baitaude gizartearen, demografiaren, kulturaren... arloko faktoreetan eta alde horiek eragina dute premietan nahiz arreta-sistemen konfigurazioan eta ibilbidean.¹⁸

Diagnostikoaren bigarren zatia Gizarte Zerbitzuen barne-errealitateari dagokio eta sistema hori sendotzeko lehentasunezko zat hartzen diren elementuak identifikatzen ditu.

¹⁸ Nolanahi ere, alderatutako premiak aintzat hartuko balira, kontu handiz egin beharko litzateke hori, ez baita egokia gizarte baten gizarte-zerbitzuen arloko premien erantzunak beste gizarte batera zuzenean eramatea, bi gizarteen arteko aldeak -demografiaren, gizartearen, ekonomiaren eta kulturaren arlokoak, baliabide publiko eta pribatuen sareari dagozkionak, babes formalaren eta informalaren arteko orekari dagozkionak eta abar- alde batera utzita.

Bi zatiak oinarri izan dira plana osatzen duten ardatz edo ildo estrategikoak, helburu estrategikoak eta ekintzak zehazteko.

Lehenengo zatia zerbitzu eta prestazio ekonomikoen hedapenarekin lotutako helburuak zehazteko. Eta bigarrena gainerako helburuak zehazteko, GZESaren barne-antolamenduari, kudeaketa-sistemen garapenari eta beste arreta-sistema batzuekiko koordinazioari dagokienez.

Esan berri dugunez, diagnostiko-fase honetan identifikatutako lehentasunezko elementuen zehaztea nagusiki hiru *iturri* hauetatik eratorri da:

- *Zerbitzu eta prestazio ekonomikoen inbentarioa (2011)*; horri esker, 2011. urtean GZESaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoen egoera zein zen jakin ahal izan dugu, eta 2017ko proiektzioak egiteko oinarritzko ildo bat zehaztu dugu.¹⁹
- *EAEko gizarte-zerbitzuen egoerari buruzko III. txostena eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren gomendioak*, 2013. urtekoak.

Alde batetik, ez dugu ahaztu behar txosten horretan GZESaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoak baino gehiago biltzen direla, batik bat GZGEEan eta Gastu Publikoaren Inkestan (GPI) oinarrituta egin delako eta bi operazio horien xedea zabalagoa delako; bestalde, hiru urtean behin egiten da, aipatzen dituen datuei dagokienez, eta beraz, III. txostenean 2010eko datuak daude.

Horiexek izan dira, hain justu, besteak beste, inbentarioa azpi-operazio moduan diseinatzeko arrazoiak GZGEE horietan eta GPIan oinarrituta; hartara, datu zehatzagoak lor ditzakegu, soilik GZESaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoei buruzkoak.

Eta beste alde batetik, 2011-2014 aldiko plan estrategikoaren zirriborroan arreta-sarearen bilakaera aztertu zen EAEko gizarte-zerbitzuen egoerari buruzko txostenak alderatuta, eta azterketa hori gorde egin dugu, txosten horiek baitira sarearen ibilbidea aztertzeke egun dugun tresna bakarra.

Jarraian, gizarte-zerbitzuen egoeraren deskribapen kualitatiboa egingo dugu eta, hein batean, bat dator EAEko gizarte-zerbitzuen egoerari buruzko III. txosteneko eta Inbentarioko datu kuantitatiboekin eta ondorio nagusiekin.

2.2. BALIABIDE-SAREAREN EGOERA

Inbentarioko datuei erreparatuta, gaur egun ere aintzat hartzeko modukoak diren hainbat alderdi garrantzitsu aurkituko ditugu.

- Gizarte-zerbitzuetako gastu korrante publikoak ehuneko oso handia osatzen du gizarte-zerbitzuetako gastuaren guztizkoari dagokionez (erantzukizun publikokoak ez diren prestazio eta zerbitzuak ere barnean hartuta), eta ia gastu osoa GZESaren prestazio eta zerbitzuetako gastuari dagokionez.

¹⁹ Inbentarioak oinarritzko ildo bat osatzen du, zer zerbitzu eta prestazio ekonomiko eskaintzen diren eta zenbateraino hedatuta dauden jakiteko aukera ematen digun lerroa, bai eta zenbateko gastu korrante publikoa eragiten duten ere; hartara, mapa eta memoria ekonomikoa egin ditzakegu gero, GZEOan adostutako irizpideei (2017ko proiektzioak egiteko...) jarraikiz. Horretaz gain, zerbitzuetako plaza edo erabiltzaileei edo prestazio ekonomikoen hartzaileei eta gastu korronteari buruzko informazioarekin batera, diru-sarrerei eta inbertsioari buruzko informazioa ere ematen du.

Eranskinetan, inbentarioko datuen laburpen bat txertatu dugu, eta jarraian, gaur egun garrantzitsuak diren hainbat alderdi aurkeztu ditugu, inbentarioan adierazten direnez. Dena dela, dokumentu zabalago bat izan bada, eta kontsulta daiteke nahi izanez gero.

Gizarte-zerbitzuen eremua erantzukizun publikoko zerbitzuena baino zabalagoa bada ere, eremu horretan erantzukizun publikoa sendotzen ari da arian-arian, eta sendotze-prozesu hori bat dator legean biltzen den betebeharrarekin; hain zuzen ere, erantzukizun publikoko GZES bat eratzeko betebeharrarekin, prestazio, zerbitzu eta ekipamendu publiko eta pribatu itunduez osatuta dagoela.

Hala ere, zenbait zerbitzutan erantzukizun publikoa sendotzea garrantzitsua da, bereziki, bazterkeriaren/gizarteratzearen eremuan, eta, hala badagokio, jasotzen ari diren finantzaketa publikoa areagotzea prozesu baten bitartez; prozesu horretan, zerbitzua emateaz arduratzen diren erakundeek erabaki ahal izango dute sektore pribatuak eskaintzen dituen zerbitzuetatik zeintzuk har daitezkeen erantzukizun publikoko zerbitzutzat.

- Alde batetik, zerbitzuetako eta, bestetik, prestazio ekonomikoetako gastuaren proportzioari dagokionez, gastuaren zati handiena zerbitzuetara bideratzen da eta hori bateragarria da azken urteotan prestazio ekonomiko jakin batzuetan izandako gastu-igoerarekin, hala nola, Familia Inguruneke Zaintzetarako Prestazio Ekonomikoan (FIZPE) edo Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoan (LPPE).

Bestalde, gastu korrante publikoa kontingentzien arabera nola banatzen den aztertzen badugu, gastu korrante publikoaren erdia baino gehiago Autonomia eta Mendetasunaren Arretarako Sistemako zerbitzu eta prestazio ekonomikoekin lotuta dago; sistema horretan sartzeko aukera eskubide subjektibotzat bermatu behar da jada.

- Zerbitzu eta prestazio ekonomikoetako gastuari aurre egiteko diru-sarrereri dagokionez, batik bat publikoak dira, eta koordainketatik eratorritakoak halakorik dagoenean. Dena den, 2017ra begira egonda, kontuan izan behar dugu zuhurtziaz jokatu behar dugula Autonomia eta Mendetasunaren Arretarako Sistemaren finantzaketa kalkulatzeko, sistemako zerbitzuen finantzaketa pribatuak desagertu egin beharko bailuke.

Bestalde, finantza-arloko barne-egokitzapena egin behar da, EAEko administrazio publikoetako maila batek beste maila baten zerbitzuak finantzatzeko dituen egoerak konpontzeko. Nolanahi ere, zuzenean inplikaturako administrazio publikoek egin behar dute prozesu hori.

- Inbertsioei dagokionez, okupaturako plazen eta erabilgarri dauden plazen kopuruak –okupatu gabeko plazak eta sektore pribatuarekin itun litezkeenak aintzat hartuta– aztertu gero, honako hau baieztatu ahal izango genuke: oro har, badugula azpiegitura nahikorik zerbitzuen eskariaren –baldintzak betetzen dituenaren– eta premiaren gorakadari erantzuteko.

Hala ere, 2017. urterako proiektaturako plazak eskaintzeko egin beharreko inbertsioaren estimazioa egindako zerbitzu (zentro) jakin batzuetan arazoak egon daitezke; hala nola, udalen eskumenekoak diren eguneko arretarako eta adinekoentzako ostatu-zerbitzuetan, plaza gehienak aldundiek hitzartutakoak baitira eguneko arretarako zerbitzuetan, edo pertsona autonomoek okupatuta baitaude.²⁰

- Lurralde Historikoen artean alde handiak daude zerbitzu eta prestazio ekonomikoen garapen-mailari dagokionez, bai eta beste hainbat alderdi garrantzitsutan ere: zerbitzu eta prestazio ekonomikoen ereduak edo ezaugarriak, titulartasunaren egitura (publikoa edo pribatu

²⁰ Eta, hein txikiagoan, bazterkeriaren eremuko zerbitzuetan; izan ere, lehendik dauden bestelako azpiegiturak erabilera horretara bideratzeko aukera egon daiteke, hala nola, harrera-etxeak edo jantoki sozialak eguneko zerbitzu bihurtu daitezke, edo gizarte-ekimeneko baliabideak, lehendik badiren eta okupazio-indize txikia duten baliabideak eta abar.

itundua), koordainketak gastu korrontearen zenbateko ehuneko osatzen duen, edo per capita gastu korrante publikoa.

Aldeetako batzuk zilegi diren kudeaketa-aukerek lotuta daude. Hala ere, zerbitzu eta prestazio ekonomikoen estalduretan eta diseinuan bat egitea ezinbestekoa da, Mapan eta Zorroari buruzko Dekretuan, hurrenez hurren, aurreikusitakoari jarraikiz, beste alderdi batzuk ere ahaztu gabe: koordainketa proposatzeko garaian jarraitu beharreko irizpide orokorrak, etorkizuneko Dekretuan horri buruz esango denari erreparatuta.

- Badira, halaber, EAE osoan komunak diren zenbait alde, zentroyen garapen-mailari dagokionez, astunagoak baitira zerbitzuak baino, eta foru-eskumeneko eta udal-eskumeneko zerbitzuen garapen-mailari dagokionez, lehenengoak garatuagoak baitaude bi kasuetan. Eta zerbitzuak, lehen mailako arreta eta autonomia sustatzeko zerbitzuak indartu behar dira, arreta emateko alternatibak eskaintzeko eta eredu komunitarioan aurrera egiteko.
- Prestazio ekonomikoei dagokienez, oro har, garapen-maila handiagoa dute Gipuzkoan, eta nolana ere, Familia Inguruneko Zaintzetarako Prestazio Ekonomikoa nabarmen garatu da hiru Lurralde Historikoetan, baina bereziki Gipuzkoan. 2011. urteaz geroztik, Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa garatzen ari da Araban eta Bizkaian, baina asko falta zaie oraindik Gipuzkoako garapen-mailara iristeko. Nolanahi ere, aurreikuspenen arabera, prestazio ekonomikoek eta, zehazki, Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoak garatzen jarraituko dute mapan eta araudian aurreikusitako esparruan, baina oro har, ez dira garatuko orain arteko erritmoan.
- Bestalde, Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoarekin batera, badira bultzada nabarmena behar duten beste zenbait zerbitzu ere.

EAE n edo Lurralde Historiko batean berriak direlako edo gutxi garatuta zeudelako egonkortu gabekotzat jotako prestazio ekonomiko eta zerbitzuak dira. Prestazio eta zerbitzu horien kasuan, estaldura-helburu espezifikoak finkatu dira (abiapuntua zein den aintzat hartuta, txikiak izan daitezke, baina bai eta EAEko batez besteko estalduraren % 80 baino handiagoak ere), bultzatzearen, batik bat, bultzada hori arreta emateko eredu komunitarioarekiko koherentea delako, eta funtsezkoa delako lehen mailako eta bigarren mailako arreta-baliabideen artean oreka egokia lortzearen.²¹

Honako hauek dira:

²¹ Bizimodu independentea babesteko zerbitzua hemen sartu dugu, gutxi garatuta dagoela uste dugulako eta, Lurralde Historiko bakoitzean eredu oso desberdinak izaki, ezin delako proiektzioa egin parametro berdinetan oinarrituta.

Zerbitzu berriak

- *Etxebizitza babestua bazterkeria-arriskuan daudenentzat (1.9.2).* Ez da existitzen halakorik, baina bazterkeriaren eta babesgabetasunaren eremuko zenbait udal-zentrok bilakaera hori izan dezakete.
- *Gizarte-larrialdietarako koordinazio-zerbitzua (2.6).* Badago Gipuzkoan, eta beste modu batera, Araban. Hiru Lurralde Historikoetan gizarte-larrialdietarako udal-zerbitzuak daude, eta Inbentarioan eta proiektioetan zerbitzu horrekin lotu dira.
- *Autonomia-mugek eragindako premiei erantzuteko gaueko zentroa (2.3.1).* Ez dago horrelakorik.
- *Bizimodu independentea babesteko zerbitzua (2.7.2.1).* Lurralde Historiko bakoitzean oso bestelako ereduak daude, eta ezin da estimaziorik egin parametro berdinetan oinarrituta, ez eta eredu jakin baten proiektzioa egin ere; beraz, proiektzioak egitean Lurralde Historiko bakoitzean dagoen eredu errespetatu dugu, eta Aldundiek emandako datu eguneratuak erabili ditugu.
- *Garraio egokituko zerbitzua (2.7.2.4).* Hein batean, Bizkaian badago. Ez dugu datu nahikorik proiektzio egokia egiteko, gastuari buruzko datuak ez badira, eta oso modu erlatiboan, zerbitzu horri lotutako gastuari buruzko informazioa ezin delako bestetatik bereizi.
- *Adinekoentzako ostatu-zerbitzuak:* tutoretzapeko apartamentuak (1.9.3) eta etxebizitza komunitarioak (1.9.4). Izan badira, baina garapen-maila txikia dute (batik bat, tutoretzapeko apartamentuen kasuan) eta desberdina Lurralde Historiko bakoitzean. Bestalde, Zorroari buruzko Dekretuan aurreikusitako hartzaileen profila ez dator bat egungoarekin, eta gainera, zerbitzu horiek indartzea koherentea da arreta emateko zerbitzu komunitarioarekin, bai eta funtsezkoa ere, lehen mailako eta bigarren mailako arreta-baliabideen artean oreka egokia lortzearen.
- *Adinekoentzako eguneko arretarako zerbitzuak,* udal-eskumenekoak (1.7). Izan badira, baina garapen-maila txikia dute eta oso desberdina Lurralde Historiko bakoitzean.²² Bestalde, Zorroari buruzko Dekretuan aurreikusitako hartzaileen profila ez dator bat egungoarekin, eta gainera, zerbitzu hori indartzea koherentea da arreta emateko zerbitzu komunitarioarekin, bai eta funtsezkoa ere, lehen mailako eta bigarren mailako arreta-baliabideen artean oreka egokia lortzearen.

Gutxi garatutako zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak

- *Zaintzaileentzako atseden eta laguntza zerbitzuak.*²³ Zerbitzu horiek bultzatzea funtsezkotzat jotzen da zaintzaileei emandako arreta indartzeko, pertsonak etxean zaintzeko eta zainketa-ereduari ez ezik, babes formalaren eta informalaren arteko orekari eusteko, baina betiere egungo eredu epe ertainera iraunkorra ez dela jakinda, eta babes formala indartu egin behar dela. Gainera, zerbitzu horien garapen-maila ezin da nahikotzat hartu –zenbait zerbitzuek garapen-maila handiagoa lortu duten arren Lurralde Historikoren batean–, ez eta homogeneotzat ere.
- *Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa (LPPE).* 2011. urtea, Bizkaian eta Araban ia garatu gabe zegoela esan dezakegu, baina Gipuzkoan garapen-maila handia zuen.

²² Bestalde, ez dago erreferentzia zehatz askorik (autonomia sustatzeko udal-zerbitzuak, eguneko arretarako landa-eremuko zentroak...) eta zerbitzuaren diseinua ez dago oso argi, Zorroari buruzko Dekretuan biltzen diren alderdiak ez badira. Hortaz, horien diseinua gehiago zehaztu behar da eta horretarako, besteak beste, arretaren intentsitatea definitu behar da. Horri dagokionez, pertsona bakoitza hiruzpalau orduko arreta eskaintzea agian nahikoa izan daiteke, baina ordutegi desberdinetan eskaini daiteke, eta ordutegia ere aldatu egin daiteke egunaren arabera, betiere balioanitzeko langileak izanik, arreta ordutegi bakoitzera eta egun bakoitzean joaten den pertsonaren arabera egokitzeko malgutasuna dutela, askotariko lanak eginda eta abar. Modu batera zein bestera, une honetan, baliabideari ezaugarri jakin batzuk esleitu dizkiogu (aurrerago aurkeztuko ditugu), inbertsioaren estimazioa egin ahal izateko, ostatu-zerbitzuekin egin dugun bezalaxe.

²³ Atseden-zerbitzuetan, atseden-zentro espezifikoetan plazak identifikatu dira, bai eta atseden hartzeko xedea duten aldi baterako egonaldiak edo arreta-orduak ere, zentro eta zerbitzu espezifikoetan (egoitza-zentroak eta etxer etxeko laguntza-zerbitzuak). Nolanahi ere, atseden-zentro espezifikoen zerbitzuak ez daude oso garatuta (2.5.), baina badira atsedenerako bestelako aukerak ere beste zerbitzu batzuetan, nahiz eta ezin izan ditugun aldi baterako gainerako plazetatik (zentroetan) edo gainerako prestazioetatik (etxer etxeko laguntza-zerbitzuan) bereizi.

Jarraian, alderdi horietako zenbait zehaztuko ditugu eta zerbitzu eta prestazio edo laguntza ekonomikoei buruzko beste gai batzuk aurkeztuko ditugu, datuak aztertzeke, aurkezteko eta erakundeekin alderatzeko prozesuan identifikatu ditugunak, hain zuzen, konstanteak direlako eta aintzat hartu ditugulako bai proiektzioak egitean, bai GZESaren hedapenarekin lotutako gastu korrante publikoa eta plazak kalkulatzeko.

Udal-eremuan

- Zorroari buruzko Dekretuan, mendetasun-arriskuan (MBB 23-24) edo mendetasun-egoeran (MBB 25-39) dauden **adinekoentzako eguneko zerbitzuak** aurreikusten dira, udalen eskumenekoak.

Baina 2011n, udalen zentroetako plaza gehienak Foru Aldundiekin itunduta zeuden eta mendetasun-egoeran daudenek okupatzen zituzten.²⁴ Eta soilik Bizkaian, sektore pribatuko zerbitzuek udal-finantzaketa jasotzen zuten; nolana ere, itundutako plazatzat hartzen zirenak oso oso gutxi ziren.

Udalaren adinekoentzako egoitza-zentroetan, plaza gehienak pertsona autonomoekin okupatuta daude, gehienbat Araban, eta Bizkaian eta are gehiago Gipuzkoan, mendetasun-egoeran dauden pertsonekin, baina plaza horiek dagokion Aldundiarekin itunduta daude; beraz, azpiegitura horiek ezin dira beste zerbitzetarako baliatu.

2011ko abenduan, **hiru Lurralde Historikoetako tutoretzapeko apartamentuen kasuan, eta Bizkaiko eta Gipuzkoako etxebizitza komunitarioen kasuan**, erabiltzaileen % 100 autonomoak ziren (Arabaren, etxebizitza komunitarioetako 43 erabiltzailetatik 13).

Horrek zera esan nahi du, gastuaren proiektzioa egiteko garaian, 2011. urtean jada bazegoen gastuari eusteaz gain -konprometituta baitago-, gastua areagotu egin beharko dela mendetasun-egoeran daudenei (I. maila) erantzuteko.

Beste horrenbeste gertatzen da jada Zorroko beste edozein zerbitzutako -Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua, esaterako- erabiltzaileen kasuan, proiektzioak egiteko garaian kontuan izan baitira.

- **Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua** funtsezko zerbitzua da arreta-eredu komunitarioa garatzeko, baina zerbitzu hori garatzeko zailtasunak izaten ari dira, alde oso handiak baitaude Lurralde Historikoen artean estaldurari, intentsitateari eta prezio/ordu faktoreari dagokienez.
- **Bazterkeria-baliabideak** udalerrri jakin batzuetan metatuta zeuden -eta daude oraindik ere-. Hiriburuetan bazterkeria-egoeran dauden pertsonen presentziak handiagoa izaten jarraituko duela aurreikusten den arren -heine batean, agian, bertan baliabideak daudelako-, garrantzitsua da udal-eskumeneko eguneko, gaueko eta ostatu hartzeko zerbitzuak garatzea, arian-arian, udalerrri ertain edo handi gehiagotan.
- **Zaintzaileei laguntzeko zerbitzua eta gizarte-zerbitzuen eremuko parte-hartzea eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzua** ez daude orokortuta, eta lehenengoaren kasuan, hiru lurralde historikoetan foru-finantzaketa garrantzitsua du.²⁵

²⁴ 2011ko abenduan, informazioa egon badago udalen eta Foru Aldundien titulartasuneko eta titulartasun pribatu itunduko ostatu-zerbitzuetan, egoitza-zerbitzuetan eta eguneko zentroetan zenbat pertsona autonomo eta mendetasun-egoerako zenbat pertsona dauden jakiteko, baina mendetasun-maila zein den ez da argitzen.

²⁵ Ildo beretik, ez dugu ahaztu behar desgaitasunaren eremuko arreta foru-aldundiei dagokiela eta, gaur egun, desgaitasunaren eremuan sartzen diren pertsonen eta familien elkarteetako familiei laguntzeko zerbitzuek -zaintzaileei laguntzeko prestazioak biltzen dituzte- ez dutela finantzaketarik jasotzen zerbitzu horren esparruan.

- **Inbertsioei** dagokienez, memoria ekonomikoan gastu korrontea da aztergai, eta GZGEEak egun eskuratzen dituen inbertsioari buruzko datuak (erakunde titularrak egindako kapitalerako ekarpenak eta kapitaleko diru-laguntzak) ahulak izaten dira²⁶ (dena den, Foru Aldundiek zuzenean emandako amortizaziorako hornidurak foru-gastu korrontean sartu ahal izan dira).

Bestalde, ez dakigu tokiko erakundeek zer azpiegitura dituzten zerbitzu berriak edo plaza berriak (propioak edo beste tokiko erakunde batzuenak, haiek baliatzeko modukoak) abiarazteko. Ildo beretik, beharrezko iruditzen zaigu EUDELekin aztertzea **zer mekanismo ezar litezkeen baliabide jakin bat ez duen udal batek zerbitzu hori emateko aukera beste udal batekin ados dezan**, taldekatu behar izan gabe. Alderdi hori oso garrantzitsua da azpiegituren defizita gainditzeko, bai eta azpiegitura horiek gaitzeko izan daitezkeen arazoak gainditzeko ere, udalerrri askok eguneko, gaueko eta ostatu hartzeko zerbitzuak eskaini ahal izan ditzaten.

Foru-eremuan

- Lehen esan dugunez, **autonomian mugak izatearen ondoriozko premiei erantzuteko gaueko zentrorik** ez dago, eta hortaz, zaila da zenbat plaza sortu behar diren eta horrek izan dezakeen kostua kalkulatzeko. Dena dela, asko jota garapen esperimentalak izan dezakeela aurreikusi da.
- **Gizarte-larrialdietarako koordinazio-zerbitzurik** ere ez dago, baina Gipuzkoako Foru Aldundiak duen zerbitzuaz gain, badira gizarte-larrialdietarako udal-zerbitzuak ere, eta gizarte-larrialdietarako koordinazio-zerbitzua udal-zerbitzu horietan oinarritu daiteke, hein batean (Arabako udal-zerbitzuarekin itundutako foru-zerbitzua dago).

Horri dagokionez, kasuan kasu, Foru Aldundiek eta zerbitzu hori izan baduten Udalek ados jarri beharko dute Zorroari buruzko Dekretuan zerbitzu horri buruzko fitxan aurreikusten den arreta presentziala ahalbidetzeko. Udal-zerbitzu horiei buruzko datuak aintzat hartu ditugu, beraz, proiektzioak egitean eta 2017an 2011ko gastuari eutsi diogu.

- **Autonomia sustatzeko zerbitzuak** ere ez daude oso garatuta eta, izan ere, ezin izan dugu informazio bereizirik bildu 2011n, ez bizimodu independentea babesteko zerbitzuari buruz, ez garraio egokituko zerbitzuari buruz.
- Bestalde, **autonomia pertsonala ahalbidetzeko ematen diren diru-kopuruak** gizarteratzea eta/edo autonomia errazteko prestazioen barruan sar daitezke, bai eta prestazio teknologikoak eskuratzeko prestazioetan ere; gaur egun, laguntza moduan araututa daude diru-kopuru horiek.

Horretaz gain, *garraio-gastuak konpentsatzeko laguntza ekonomikoa* gizarteratzea eta/edo autonomia errazteko prestazioen barruan agertzen den Zorroari buruzko Dekretuaren aurreko bertsioetan, eta garraio egokituaren zerbitzuaren helburu berdinak dituzenez, legearen 16.4 artikuluari jarraikiz, Dekretutik kanpo utzi zen.²⁷

²⁶ Horri dagokionez, kontuan izan behar dugu datu hori ez dela beti jasotzen edo ez dela bereizten, eraginpeko azpiegitura ez dagoela gizarte-zerbitzuen arloan erantzulea den Sailari edo arloari lotuta, eta gastua zenbatekoa den ez dakigula edo ez dela egozten, eta abar.

²⁷ <<2. zenbakiko a) eta b) letretan aipatzen diren prestazioak ezin izango dira hartu, inolaz ere, zerbitzu baten ordeko prestazio ekonomikotzat>>. a) eta b) letretan, gizarteratzea eta/edo autonomia errazteko prestazioak... (3.1.) eta gizarte-babes informala eskaintzen duten pertsonak babesteko eta konpentsatzeko prestazioak... (3.2.) aipatzen dira.

Kasuaren koordinazioa eta lagun egite soziala bultzatzea

Udal- nahiz foru-eremuan, GZESA erantzukizun publikoko sistematzat finkatzea nahi badugu, **kasuaren koordinazioarekin lotutako eginkizunak garatzea**²⁸, diagnostikoa egiteko eta esku-hartzea planifikatzeko tresna komunak aplikatzea (arreta pertsonalizatuko plana) eta, prozedurazko alderdi horiek baino haratago joanda, **lagun egite soziala eta esku-hartzearen harreman-ikuspegia bultzatzea** lortu nahi badugu, zeregin horietan jarduten duten langileen kopurua handitu egin beharko da.

Eta hori guztia bai sektore pribatu itunduan, eta bai, bereziki, sektore publikoan, nahiz eta *Diru sarrerek bermatzeko eta gizarteratzeko sistemako* prestazio ekonomikoen kudeaketaren transferentziari esker denbora libratu ahal izan den bi mailetan –udaletan eta aldundietan–.

Transferentzia horren bitartez, eginkizun horiek indartzeko eta, batik bat, erreferentziako figura eta kasuaren koordinazioa indartzeko aukera egon da, baina indartze horrek zera ere badakar: erronka bat gizarte-langileentzat, legearen arabera –hasieran, bederen–, lehen mailako arretaren eremuan eginkizun horiek beren gain hartuko lituzketen profesionalak diren aldetik; eta antolamendu-erronka oinarrizko edo udaletako gizarte-zerbitzuentzat.

Ibilbide horri ekin diote jada Udalek, Mankomunitateek... –zenbaitek, behintzat bai– eta eskura dituzten baliabideekin noraino irits ote daitezkeen ikusi nahian ari dira, baina oso zaila da, une honetan, tokiko erakunde bakoitzak egiten duen planteamendua gauzatzeko zenbat baliabide behar izango diren aurreikustea (zuzeneko arreta emateko profesionalen ratioak, udaletako gizarte-zerbitzuetatik eman beharreko laguntza teknikoak...).

Horrela, bada, gaur egun, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak trantsizio-prozesuan daude, *Diru sarrerek bermatzeko eta gizarteratzeko sistemako* prestazio ekonomikoen kudeaketa Lanbidera transferitu baita, eta ez dakite zehatz-mehatz horrek zer ondorio izango dituen, lan-kargari dagokionez eta hainbat alderdiren –esaterako, kasuaren koordinazioa– garapenari dagokionez.

Nolanahi ere, prozesu horien balorazioa egiteko zain gauden bitartean, 2020. urteari begira, beharrezko iruditzen zaigu "biztanleak profesional bakoitzeko" eta "minutuak biztanle bakoitzeko" ratioetan dauden aldean murriztea.

²⁸ Eginkizun horiek Legen bertan araututa daude, bai eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialari eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte-diagnostikoa egiteko tresnari buruzko 353/2013 Dekretuan eta diagnostikoa egiteko (bazterkeria, babesgabetasuna eta mendetasuna) gainerako tresna komunak arautzen dituzten arauetan ere. Derrigorrezko tresna horiek xertatzeak eta arau arautzaileetan proposatzen diren parametroetara egokitzeak dedikazio handia eska dezake.

2.3 BALIABIDE-SAREAREN BILAKAERA (IBILBIDE HISTORIKOA)

Joerei erreparatuta, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren III. Txostenean oinarrituta²⁹, honako elementu hauek nabarmentzea komeni da:

Adituek Gizarte Zerbitzuen egoerari buruz duten pertzepzio positiboa

GZEKren III. Txostenari jarraikiz, gizarte-zerbitzuetako adituen panela osatzen duten profesional gehienen ustez EAEko gizarte-zerbitzuen egoera ona da: hirutik bik diote hori, eta erakunde publikoetan lan egiten dutenek balorazio zertxobait positiboagoa egin dute erakunde pribatuetan lan egiten dutenek baino.

Sistemaren hazkuntza garrantzitsua baina ez nahikoa eta erantzukizun berriak hartzea

Azken bi hamarkadetan, GZESA erantzukizun publikoko sistema sendo eta hedadura handiko moduan eratu da, eta ezohiko moduan hazi da artatutako biztanleriari dagokionez, nahiz okupatutako langileei dagokienez; izan ere, Euskadiko gizarte-babeseko laugarren zutabe izatera heldu da.

Alabaina, sistemak izan duen hazkunde biziki garrantzitsu hori ez da nahikoa epe ertain eta luzeko premietan aurreikusten den bilakaerari erantzuteko, bereziki, mendetasun-egoeran dauden pertsonen arretaren eremuan, eta araudian eta plangintzan aurreikusitako GZESaren hedapenaren ondorioz epe labur eta ertainera izango dituen premia eta betebeharrei erantzuteko.

Prestazio ekonomikoen onuradunen igoera mantsotzea, eta zerbitzuen hazkundera gelditzea

Zerbitzu eta prestazioen onuradunen kopuruak gora egin zuen 2000-2010 aldian, eta urte arteko erritmoa % 9,7 izan zen, baina 2009tik 2010era bitarte, artatutako kopurua ia % 7 murriztu da, egoitza-zentroetan hazkundera gelditu egin delako, Autonomia eta Mendetasunaren Arretarako Sistemako prestazio ekonomikoak gutxiago handitu direlako eta Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren arreta emateko gaitasuna murriztu egin delako.

²⁹ Hala ere, horri dagokionez, honako hauek aintzat hartu behar dira:

- Metodologiarekin lotutako arrazoiengatik, eta 1994. urtean abiarazitako serieei jarraitzearen, III. Txostenean biltzen diren datuetan –dela gastuaren ikuspegitik begiratuta, dela okupatutako langileen edo artatutako pertsonen ikuspegitik begiratuta– GZESan sartzen ez diren prestazio eta zerbitzuak (enplegu-zentro bereziak, DSBE, GLL, KGP eta abar) biltzen dira.
- Horregatik, egin den azterketa baldintzatuta dago EAEko "gizarte-zerbitzuei" buruzko txostenetan *Dimu sarerak bermatzeko eta gizarteratzeko sistemarekin* lotutako prestazio ekonomikoak sartzen direlako, eta prestazio horiek "gizarte-zerbitzuetan" –zentzu zabalean hartuta– egiten den gastu osoan duten garrantziarengatik; zentzu zabalean hartutako gizarte-zerbitzu horietan GZGEEak eta GPIa ere sartzen dira eta, lehen esan dugunez, bi estatistika-operazio horietan oinarrituta egiten dira gizarte-zerbitzuen egoerari buruzko txostenak.
- GZESaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoak aipatzen direnean ere, modu erlatiboan edo gutxi gorabehera ulertu behar dira beti, GZGEE edo GPIaren esparruan azterketa hori egiteko mugak dauden aldetik; izan ere, horixe ikusi ahal izan dugu GZESaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoen inbentarioa 2011. urtean lehen aldiz egin dugunean, horretarako azpi-operazio estatistiko espezifiko diseinatuta.

Zehazki:

- 2008tik 2009ra bitarte egoitza-plazak % 8 hazi ziren eta urte arteko gehikuntza % 5 izan zen 2000. urteaz geroztik, baina 2009tik 2010era bitarte, % 2,9ko gorakada baino ez da izan.
- Eguneko laguntza-zentroei dagokienez, plaza kopurua % 0,6 murriztu da, eta urte arteko hazkundearen batez besteko tasak % 13 izan dira.
- Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren kasuan, ia % 7ko murrizketa izan da eta azken urteotan gertatu den geldialdia atzeraldi nabarmen bihurtu da.

Horrela, bada, egoitza-plazen hazkunde-erritmoa gutxitu egin dela egiazta daiteke, eguneko laguntza-zentroetako plazetan murrizketa txikia gertatu dela, eta etxez etxeko laguntza-zerbitzuak eskaintako arreta ere nabarmen murriztu dela.

Autonomia eta Mendetasunaren Arretarako Sistemari atxikitako prestazio ekonomikoek % 7 egin dute gora, baina aurreko urtea ia % 100 hazi ziren. Izan ere, sistema 2007. urtean hasi zen martxan, eta, beraz, onuradun potentzial gehientsuenak sisteman sartuta daudenez jada, hein batean, horregatik ari da murrizten sarrera berrien kopurua.

"Gizarte-zerbitzuen" sektorean enplegu-sorkuntza mantsotzea

Arreta-plazen kopurua murrizteak eragina izan du enpleguaren sorkuntzan, nahiz eta gizarte-zerbitzuen sektorean enplegua sortzen ari den oraindik.

EUSTATen datuen arabera, 2009tik 2010era bitarte, gizarte-zerbitzuetako langileen –propioak eta azpikontratatuak kontuan izanik– kopuruak % 1,4 egin zuen gora. Azken hamar urteetan izandako igoerarik txikienetakoa da hori, eta aldi osoko urte arteko batez besteko igoerarekin (% 7,4) kontraste egiten du.

Pertsona horiek lan egiten duten erakundeen titulartasunari dagokionez, erakunde pribatuetako langileen proportzioa –% 75 inguru– egonkor egon da EAE osoan 2006. urteaz geroztik, aurretik gutxienez bederatzi urtez segidan gora egin ostean.

Prestazio ekonomikoen garrantziak gora egiteko eta hurbileko zerbitzuen murrizteko joerari eustea.

Aurreko urteetan baion erritmo txikiagoan hazi diren arren, gizarte-zerbitzuen eskaintza osoan prestazio ekonomikoek duten garrantziak goranzko joerari eutsi dio, egoitza-zerbitzuen kaltetan eta, batik bat, hurbileko zerbitzuen kaltetan.

- 1999. urtean, eskaintako zerbitzu eta plazen % 26 etxez etxeko zerbitzutzat edo hurbileko zerbitzutzat har zitekeen (okupazio-zentroak, eguneko arretarako zentroak eta etxez etxeko arreta-zerbitzuak), % 26 egoitza-zerbitzuak ziren eta % 48 bazterkeriaren aurkako prestazio ekonomikoak.
- 2010. urtean, hurbileko zerbitzuek eskaintzaren % 16 osatzen zuten, egoitza-zerbitzuen % 17 eta bazterkeriaren aurkako prestazio ekonomikoek –DSBE eta GLL– % 50. Autonomia eta Mendetasunaren Arretarako Sistemako prestazio ekonomikoek gainerako % 17a osatzen dute.

30

³⁰ Gogoan izan prestazio ekonomiko horien garrantziari buruz aipatu berri duguna, eta horrek azterketan zer nolako eragina duen. Dena den, kasu horretan, datu mota berdinak alderatzen ari dira, bi urtetakoak.

Esan gabe doa azken urteotan etxez etxeko zerbitzuek eta hurbileko zerbitzuek atzera egin dutela, bai artatutakoen kopuruari dagokionez, bai sistema osoan duten garrantziari dagokionez.

"Gizarte-zerbitzuetan" egindako gastu publikoaren goranzko joera mantsotzea, eta udalen eta Foru Aldundien gastuak behera egitea, lehen aldiz, arlo horretan

2009tik 2010era bitarte, "gizarte-zerbitzuetan" egindako gastu publikoa % 4,6 hazi zen. Alabaina, udalen gastua % 2,6 eta Foru Aldundiena % 0,7 murriztu zen. 2002. urteaz geroztik, lehen aldia da Udalek eta Foru Aldundiek "gizarte-zerbitzuetako" gastua murrizten dutena. Aitzitik, Eusko Jaurlaritzaren gastua % 13 eta Estatuko administrazioarena % 18 hazi ziren.³¹

Bestalde, urte arteko % 4,6ko gehikuntza hori 2003. urteaz geroztik izan den txikiena da, eta 2002-2010 aldian izandako urte arteko batez besteko % 13,5eko gehikuntzarekin kontraste egiten du.

Euro konstanteetan neurtuta, 2009tik 2010era bitarte izan den gastu publikoaren gehikuntza aztergai dugun aldi osoko txikiena da. Izan ere, urte arteko batez urteko hazkundea -euro konstanteetan, hau da, inflazioaren eragina kenduta- % 9 izan bada, 2010. urtean % 2,9ra murriztu da.

GZESaren Katalogoko zerbitzu eta prestazio ekonomikoetako gastuaren murrizketa 2010. urtean

GZESaren Katalogoko zerbitzu eta prestazio ekonomikoetako dagokien gastua gainerakotik bereizten delarik, 2009tik 2010era bitarte gastu hori 10 milioi euro gutxitu zela ikusiko dugu, eta gainerakoak 80 milioi euro egin zuela gora.

Urte arteko batez besteko hazkundeak -euro korranteetan- % 11 izan ziren aurreko hamarkadan, baina 2009tik 2010era bitarte, Katalogoko prestazioek osatzen duten gastua % 1,1 murriztu zen eta Katalogoan sartzen ez direnen kasuan, aldiz, % 15 egin zuten gora. Hortaz, GZESaren Katalogoan sartzen diren zerbitzu eta prestazio ekonomikoetan egindako gastuak 2009tik 2010era bitarte lehen aldiz behera egin zuela esan dezakegu, gutxienez 1999. urtetik.³²

"Gizarte Zerbitzuetako" gastu publikoaren gorakada 2010. urtean, BPGaren eta diru-bilketaren (ahalegina) hein berean, urte askotan hazkunde askoz ere handiagoak izan ostean

Bilakaerari erreparatuta, eta EAE osoa aintzat hartuta, "gizarte-zerbitzuetan" egindako gastuak BPGari eta zerga-bilketari dagokienez osatzen zuen ehunekoak gora eta gora egin zuen urtetan, baina 2010. urtean, ehuneko hori egonkortu egin zen.

Izan ere, azken urteotan -eta, bereziki, krisialdia hasiz geroztik-, "gizarte-zerbitzuetan" egindako gastu publikoaren gehikuntza sistematikoki handiagoa izan da BPGari edo diru-bilketari dagokiona baino, funtsean, pobrezia-aren aurkako prestazioek atzeraldiaren hasierako urtetan bete izan duten egonkortzaile automatikoaren egitekoa dela-eta. Hori horrela izanik, 2007-2009 aldian BPGaren eta diru-bilketaren hazkunde-erritmoa mantsotu egin zen -edo, zuzenean, murrizketa gertatu zen-, baina "gizarte-zerbitzuetan" egindako gastu publikoak gora egin zuen, ohikoak baino tasa handiagoetara ere iritsita. 2010. urtean, aitzitik, arlo horretako gastu publikoaren, BPGaren eta diru-bilketaren hazkunde-erritmoa parekatu egin ziren, hiru adierazleen hazkunde-tasak historikoki txikienetakoak izanik.

³¹ Gogoan izan prestazio ekonomikoaren garrantziari buruz aipatu duguna, eta horrek azterketan zer nolako eragina duen.

³² Gogoan izan prestazio ekonomikoaren garrantziari buruz aipatu duguna, eta horrek azterketan zer nolako eragina duen.

Egoitza-kostu unitarioen hazkundera mantsotzea eta koordainketaren ehunekoaren egonkortzea

"Gizarte-zerbitzuetan" egindako gastu publikoaren hazkunde-erritmoa egonkortzea bi faktore hauengatik gertatu dela pentsa dezakegu:

- Zerbitzu eta prestazioetako onuradun edo erabiltzaileen kopurua murriztu delako edo gutxi hazi delako.
- Kostu unitarioei eutsi egin zaielako, gutxienez, egoitza-zentroetako -orokorrean hartuta- plaza bakoitzeko kostuari dagokionez. Euste hori, aldi berean, egoitza-sektoreko langileen ordainsarrietan izandako eustearen ondorio da, batik bat, zenbait lurraldetan.³³

Bestalde, erabiltzaileek ordaintzen duten koordainketaren ehunekoari eutsi egin zitzaion - portzentajezko bi puntuko murrizketa txikia izan zen-, eta Lurraldeen artean zeuden aldeak bere horretan geratu ziren.

Laburpen gisa

GZESaren katalogoko zerbitzu eta prestazio ekonomikoei buruzko datuak soilik dituen serie historikorik ez dagoen arren, zentzuzkoa dirudi honako hauek esateak:

- Azken bi hamarkadetan, GZESA erantzukizun publikoko sistema sendo eta hedadura handiko moduan eratu da, eta ezohiko moduan hazi da artatutako biztanleriari dagokionez, nahiz okupatutako langileei dagokienez.
- Baina gizarte-zerbitzuetan egindako gastu korrante publikoak eta ahaleginak (gastua diru-sarrerari dagokienez) urtetan gora egin ostean, gastua mantsotu eta -urtearen, erakundearen eta zerbitzuaren arabera- murriztera ere iritsi da.
- Oro har, goranzko joera izan den arren, hurbileneko zerbitzuak (etxez etxeko laguntza, eguneko arretarako zentroak/okupazio-zentroak...) bereziki indartu behar dira, antza, gainerako zerbitzuekiko osatzen duten proportzioak behera egin baitu.

Eta hori guztia honelako testuinguru orokor batean: alde batetik, "koordainketak" diru-sarreraren guttizkoari dagokionez osatzen duen ehunekoaren, eta bestetik, zentroen titulartasunaren egitura askorik aldatu gabe; izan ere, bi faktore horiek eragin handia dute gastu korrante publikoan baina Lurralde Historiko eta erakunde bakoitzean desberdinak izan dira.

Nolanahi ere, GZESaren hedapenaren ondorio diren eta araudian eta plangintzan aurreikusita dauden premia eta betebeharren bilakaerari erantzutearren, Zorroko zerbitzu eta prestazio ekonomikoetan, oro har, eta hurbileneko zerbitzuetan, zehazki, gastuak goranzko bideari ekin behar dio berriro ere.

Dena den, egin beharreko ahalegina (gastua diru-sarrerari dagokionez) desberdina izango da zerbitzu edo prestazio bakoitzak aldeztu aurretik izan duen garapenaren arabera eta, oro har, GZESA eraikitzeke fasean egindakoa baino txikiagoa izango da. Eta hori, bereziki, diru-bilketan gorakada gertatzen den heinean, besteak beste, arian-arian gertatzen ari den susperraldi ekonomikoaren ondorioz (ikusiko dugunez, plangintza egiteko garaian ez da aldaketarik aurreikusi titulartasunaren egiturari, ez eta koordainketak eragindako diru-sarreretan goranzko aldaketarik ere).

³³ Izan ere, 2009tik 2010era bitarte, oro har, egoitza-zentroetako plaza bakoitzeko kostua % 0,2 murriztu zen euro konstanteetan, urte arteko batez besteko gehikuntza -1996. urteaz geroztik- % 5,4 zen bitartean. Nolanahi ere, plaza bakoitzeko kostuaren murrizketa soilik Araban gertatu zen, egoitza-plazaren kostua batez beste % 8 jaitsi zela -beste bi lurraldeetan baino askoz ere handiagoa baitzen kostu hori-. Bizkaian % 0,2 egin zuen gora, eta Gipuzkoan % 3,4.

2.4 GZESAREN ZERBITZU ETA PRESTAZIO EKONOMIKOEN PREMIA ETA ETORKIZUNeko ESKARIA BALDINTZA DEZAKETEN INGURUNeko FAKTORE GARRANTZITSUAK

Epe labur, ertain eta luzera, GZESaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoen premia eta, horren ondorioz, eskaria -baldintzak betetzen dituen- handitu egingo dira, gutxienez, honako lau faktore hauen eraginez:

1. Adinekoen kopuruak eta, bereziki, 75 urte edo gehiago dituztenen kopuruak gora egitea, eta horrekin batera, mendetasun-egoeran edo -arriskuan daudenen kopuruak ere gora egitea.
2. Zainketa informaleko eredia dibertsifikatzea eta, epe motz-ertainera, zainketa formalaren eta informaleko arteko orekan muturreko aldaketa gertatzea; beraz, zainketa formala indartu beharko da.
3. Krisialdiak premietan eta mota guztietako baliabideetan izan duen eragina.
4. Eredueko komunitarioa eta ikuspegi sustatzaile eta prebentziozkoa indartzeko premia.

2.4.1 Adinekoen kopuruak eta, bereziki, 75 urte edo gehiago dituztenen kopuruak gora egitea, eta horrekin batera, mendetasun-egoeran edo -arriskuan daudenen kopuruak ere gora egitea.

65 urte edo gehiago dituztenen kolektiboak soilik egingo du gora 2011-2017 aldian, EINek egindako proiektzio demografikoen arabera.

2012/01/01	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Biztanleria, guztira	2.193.093	322.557	1.158.439	712.097
Gizonezkoak	1.070.438	160.649	561.134	348.655
Emakumeak	1.122.655	161.908	597.305	363.442
0-64 urte	1.757.983	264.479	922.281	571.223
65 urte edo gehiago	435.110	58.078	236.158	140.874
75 urte edo gehiago	228.945	29.375	126.591	72.979
2017/01/01	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Biztanleria, guztira	2.055.696	295.705	1.092.950	667.041
Gizonezkoak	979.097	139.624	520.814	318.659
Emakumeak	1.076.599	156.081	572.136	348.382
0-64 urte	1.583.853	231.502	839.046	513.305
65 urte edo gehiago	471.838	64.196	253.904	153.738
75 urte edo gehiago	234.452	30.452	128.793	75.207

2.4.2 Zainketa informaleko eredia dibertsifikatzea eta, epe motz-ertainera, zainketa formalaren eta informaleko arteko orekan muturreko aldaketa gertatzeko aukera.

Zainketa informaleko eredia bilakaera eta izan dezakeen bilakaera aintzat hartuta, epe motz-ertainera:

- zainketa-ereduak dibertsifikatu egingo dira; izan ere, egun nagusi den zainketa-ereduaren profila -gehienak emakumeak dira, ez dute etxetik kanpo lanik egiten, modu intentsiboan zaintzen dute eta haiek ere laguntza formala behar izaten hasi dira- aldatzen ari da, eta orain gizon edo emakume izan daiteke eta senitartekoak zaintzeko prest daude, baina beste modu batera eta laguntza formal gehiagorekin;
- laguntza formalaren eta informaleko arteko oreka berria bilatu behar da, laguntza formala indartuta; halaber, zainketa-ereduaren berriketa atsedean hartzeko eta laguntzeko zerbitzuak indartu behar

dira, bereziki, zainketa-lanetan denbora luzea daramatenei begira. Eta ezkutuko ekonomian zainketa-lanak egiten dituztenak profesionalizatu egin behar dira.

Gizarte Zerbitzuen Eskariaren Estatistikaren (GZEE) Gizarte Premiei buruzko Inkestaren (GPI) alorrean, 2010. urtean 97.227 *pertsona* ari ziren bizikide den beste norbait zaintzen eta artatzen (zainketa informala). EAEn bizi den 15 urte edo gehiagoko biztanleriaren % 5,3, eta 2006. urteko (GZEEa lau urtean behin egiten da) 82.083 *pertsonak baino* % 18,4 gehiago; izan ere, 2006an 15 urte edo gehiago biztanleriaren % 4,4k horrelako lanak egiten zituen.

Zainketa informaleko lanak egiten dituztenen kopurua handitze horretan eragina izan dezakete, besteak beste, zaintzaileen profilaren dibertsifikazioak eta, hein handi batean, ziurrenik, krisialdiak eta langabezia-egoeran dauden pertsonen -bereziki, emakumeen- gorakadak.

Horrela, bada, 2010. urtean zaintzaileen kolektiboan gehienak emakumeak ziren: guztizkoaren % 58,2, eta 2006an % 56,9 ziren. 15 urte edo gehiago dituzten emakumeen % 5,9k egiten ditu zainketa-zeregin horiek; gizonen dagokienez, berriz, % 4,6k, eta bi kasuetan goranzko joera gertatu da 2006. urtetik (% 4,9 eta % 4, hurrenez hurren, urte hartan).

Bestalde, barne-aldeak handiagoak dira adinaren aldagaia aintzat hartuz gero, eta zainketa informaleko zereginak egiten dituztenen ehunekoak gora egin du: 55-64 urtekoek dute maila handiena (% 8,4) eta 75 urte eta gehiagoko artean, % 7,4ko mailari eutsi zaio.

Datu horiei soilik erreparatuta:

- Etengabeko zainketa-lanetan jarduten duten eta lan horietan urte asko daramaten -enplegurik izan gabe- emakume zaintzaileek laguntza gero eta handiagoa behar dutela esan dezakegu, bai eta erreleboa ere, haiek ere adineko bihurtu eta mendetasun-egoeran dauden kasuetan.
- Zainketa edo laguntza informalak iraun egingo duelako hipotesia era dezakegu, baina ez zaintzaileen profil berdinarekin, ez eta zainketa-eredu berarekin ere; izan ere, epe motz-ertainera laguntza formalaren eta informalaren arteko oreka berria lortu beharko da, formala lehenetsita.

Beti egongo da emakumerik, bai eta gero eta gehiago gizonik ere, senitartekoak zaintzeko eginkizuna beren gain hartzeko prest dagoenik, baina ez orain arte, batik bat, emakumeek egin izan duten baldintzetan: enpleguari eta aisialdiari uko eginda, atsedean hartzeko ia astirik gabe, laguntza formalik gabe edo laguntza oso gutxiarekin eta abar.

Krisialdi ekonomikoaren eraginez, badirudi Familia Inguruneko Zaintzetarako Prestazio Ekonomikoak gora egin duela, baina gorakada horrek ez du joera hori aldaraziko epe ertainera, ez, behintzat, krisialdi ekonomikoa amaitzen hasten bada, enplegua sortzen hasten bada eta zainketa-lanak egiten dituzten emakumeak -eta zenbait gizon- berriro ere lan-merkatuan sartzen badira. Nolanahi ere, gaur egungo zaintzaile gehienek belaunaldia hurrengo hamarkadan ordeztuko duen belaunaldi berria ere prest egongo da senitartekoak zaintzeko, baina ez modu berean.

Horretaz gain, GZEKren gomendioetan jasotzen denez:

<<Gizarte-zerbitzuek berebiziko garrantzia dute zaintzen ereduaren krisiari erantzun kolektibo bat emateko; izan ere, eredu horrek onartzen zuen, modu bidegabean onartu ere, emakumeak arduratuko zirela, eremu pribatuan, pertsonok behar ditugun zaintza gehienez. Bai zaintzen zati bat beharrezko den moduan profesionalizatuz, bai familiako eta komunitateko zaintzei babesa eta laguntza emanez, gizarte-zerbitzuek, zaintzak jasotzen dituzten pertsonen bizi-kalitatea bermatzen saiatzeaz gainera, aktiboki egin behar dute lan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde>>.

Bestalde, GZEKren arabera, komunitate-ikuspegia izateak jarduera eta zerbitzu jakin batzuen aldeko apustu berezia egitea dakar; hau da, <<familiako, auzoko eta komunitateko harremanen eta babesen (familia-, etxebizitza- eta bizikidetzeta-mota guztiak kontuan hartuta) eta profesionalen esku-hartze presentzialen nahiz ez-presentzialen arteko sinergiak sustatzearen aldeko apustua>>.

Hartara, helburua ez da laguntza informala (senitartekoen zainketa, elkar laguntzea, boluntarioak...) alde batera uztea. Aitzitik, laguntza informalarari eutsi egin nahi zaio, baina laguntza formalaren eta informalaren arteko oreka berria bilatuta, zainketa-ereduen dibertsifikazioarekin eta bilakaerarekin bat datorrela eta bidezkoago izanik, eta zainketa-jardueretan gizonek ere parte hartzea bultzatuta.

2.4.3 Krisialdiak premietan eta baliabideetan izan duen eragina

Krisialdiak gizarte-zerbitzuen premian izan duen eragina adierazgarria da bazterkeriaren eremuan: eguneko zerbitzuetan -jantoki sozialak barnean hartuta-, gaueko zerbitzuetan eta ostatu hartzeko zerbitzuetan.

Baina desgaitasuna dutenak, mendetasun-egoeran daudenak eta/edo babesgabetasun-egoeran daudenak eta haien senitartekoak -bazterkeria-egoeran egon ala ez egon- ere krisialdiaren ondorio sozialen eraginpean daude.

Zentzu horretan, seme-alaba adingabeak dituzten familiak bereziki aipatu nahi ditugu, pobrezia-egoera larriak bizi dituztelako, bazterkeriaren eta babesgabetasunaren egoerak edo arriskua gainjartzen baitira haiengan (haurren pobrezia).

Izan ere, krisialdiaren eta haren ondorio sozialen eragina oso garrantzitsua da eta izango da, epe motz, ertain eta luzera, eremu horietan, bai eta prestazio ekonomikoen eta zeharkako zenbait zerbitzuren -bereziki, harrera-zerbitzuetan eta lagun egite sozialeko zerbitzuetan- premian ere.

Hartara, eragin hori zehaztea edo mailakatzea zaila izango den arren, honako pertsona hauen kopuruan gorakada izan dela egiaztatu da:

- oinarrizko gizarte-zerbitzuetan eta hirugarren sektore sozialeko harrera-zerbitzuetan informazioa eta orientabidea eskatzen dutenak;
- okupazio-zentroetan, desgaitasuna dutenen laneratzeko ibilbidean atzerapausoak gertatzen diren heinean, krisialdiak enplegu arrunta lortzeko aukeretan eta enplegu-zentro berezietan izan duen eragina dela-eta;
- GZESaren prestazio ekonomikoak eta, bereziki, Familia Inguruneko Zaintzetarako Prestazio Ekonomikoa (FIZPE) eskatzen dutenak, bai eta *Diru sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko Sistemako* prestazio edo laguntza ekonomikoak eta, bereziki, *Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE)* ere.

Horixe adierazten dute 2007-2012 aldiko DSBEaren bilakaerari buruzko datuek.

	EAE	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
DSBEa jasotzen dutenak (2007).	36.004	4.206	25.929	5.869
DSBEa jasotzen dutenak (2012) ³⁴	49.417	8.170	31.909	9.315
Gehikuntza	13.413	3.964	5.980	3.446

³⁴ Pentsioak osatzeko diren prestazioak jasotzen dituztenak aintzat hartu gabe.

Bestalde, krisialdiak eragin nabarmena izan du baliabide publikoetan eta gizarte-ekimenaren baliabideetan, bai eta gero eta premia gehiago (oinarrizko premiak, gizarte-zerbitzuetakoak eta abar) betetzeko familiek izaten dituzten baliabideetan ere.

GZESak barne-mailan proposatuta dituen erronka nagusiak aipatzean zehaztuko dugunez, eragin hori dela-eta, honako hauek beharrezko bihurtu dira eta bihurtuko dira:

- Administrazio publikoek GZESaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoak dagokienez aurreikusitako estaldura-mailetara iristeko egindako *ahalegina* (gastua diru-sarrerari dagokionez) areagotzea.
- EAEko administrazio publikoen ahalegina euren erantzukizunpeko eta eskumeneko zerbitzu eta prestazio ekonomikoak sendotzera eta hedatzera bideratzea.
- Eta, inoiz baino gehiago, dauden baliabideen –publiko nahiz pribatu– aprobetxamendua sustatzea, bai eta baliabide horien erabilera eraginkorra ere.

Bestalde, krisialdiari, krisialdiaren ondorio sozialei eta GZESak egin beharreko ekarpenari dagokienez, gizarte-zerbitzuen garapena aukeratzat eta inbertsiontzat hartu behar da, enplegua sortzeko potentziala duelako, itzulkin sozial eta ekonomikoaren maila handiak dituelako, eta kostu pertsonal, sozial eta ekonomiko oso handia eragiten duten arazo edo premiei aurrea hartzeko gaitasuna duelako.

Azkenik, krisialdiaren ondorio sozialak luzatu egingo dira, zalantzarik gabe, eta susperraldi ekonomiko jarraitua gertatzen hasten denean ere iraun egingo dute, betiere langabezia-tasa eta pobrezia-tasa oso handietara iritsi garela kontuan izanik, bai eta krisialdiaren aurreko enplegu-mailak berrekartzeko aurreikusi diren epeak ere.

Nolanahi ere, epe ertain eta luzera, zerbitzu eta prestazio ekonomikoen premiaren eta eskariaren gorakada mendetasuneko/autonomiaren sustapeneko egoerei arreta emateko eremuan gertatutako da hein handiagoan, gastu publiko handiagoa ekarriko duten zerbitzuekin; horretaz gain, jarraian adieraziko dugunez, eredu komunitarioari bultzada eman eta zerbitzu eta prestazio ekonomiko jakin batzuk indartu beharko dira.

2.4.4 Eredu komunitarioa eta, bereziki, ikuspegi sustatzaile eta prebentiboa indartzeko premia, bai eta zerbitzu eta prestazio ekonomiko jakin batzuk ere

Arreta-eredu komunitarioa eta, bereziki, ikuspegi sustatzaile eta prebentiboa, eta hurbileko zerbitzuak indartzeko premia dagoenez, eta lehen aipatu ditugun lehenengo bi joerak ere aintzat hartuta, GZESaren prestazio eta zerbitzuen premiak eta gastuak gora egingo dute etengabe.

Eta, zehazki:

- Biztanleriaren bilakaera demografikoari erreparatuta, *adinekoei zuzendutako etxer etxeko laguntza-zerbitzuak, telelaguntza-zerbitzuak, eguneko zerbitzuek, ostatu-zerbitzuek eta egoitza-zentroek* bultzada jaso beharko dute.
- Eta *zerbitzu eta prestazio berriak edo gutxi garatu direnak* sustatu egin beharko dira: zaintzaileei begirako atsedean hartzeko eta laguntzeko zerbitzuak, bizimodu independentea babesteko zerbitzuak eta laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoak.³⁵

³⁵ Eta, hein txikiagoan, garraio egokituaren zerbitzua (garraio egokituaren prestazioa garraio mota hori eskaintzen duten zerbitzuen barruan sartzen da) eta gaueko zentroa, autonomiari dagozkion mugen ondoriozko premiei erantzuteko.

Autonomiaren prebentzioko eta sustapeneko esparruan, badirudi LPPEa eta “prestazio teknologikoak eskuratzeko prestazio indibidualak –laguntza tekniko berreskuraezinak jasotzea edo ohiko bizitza-ingurunean egokitzapenak egitea errazteko–” ere indartu behar direla: a) berreskuratu ezin diren laguntza-produktuak eskuratzeko laguntza ekonomikoa; b) ohiko etxebizitzan eta ibilgailu partikularretan egokitzapenak egiteko laguntza ekonomikoa. Horretaz gain, FIZPEa ere sustatu behar da, betiere zaintzaileei zaintzeko aukera ahalbidetzearren eta mendetasunaren arretarako zerbitzuak eskuratzearrekin bateragarria izanik, egoitza-zentro edo zerbitzuetan edo ostatu-zerbitzuetan egonaldi iraunkorren kasuan izan ezik, Zorroari buruzko Dekretuan jasotzen denez.³⁶

Hori horrela, ezin dugu esan, oro har, prestazio ekonomikoek eginkizun osagarria eta salbuespenezkoa bete behar dutenik GZESan.

Gainera, 2017. urteari begira eta egoera ekonomikoak dakartzan mugen barruan, hainbat alderdi garrantzitsu eredu komunitarioa egokitu behar dira, kontingentzia guztiei dagokienez (babesgabetasuna, bazterkeria, mendetasuna edo horiek izateko arriskua, eta desgaitasuna).

Arretaren jarraitutasunarekin, integraltasunarekin, hurbiltasunarekin eta pertsonalizazioarekin lotutako alderdiak, edo erabilzaile eta hartzaileen parte-hartzearekin lotutakoak; hala nola:

- Kasuaren koordinazioa, erreferentziako figura eta lagun egite soziala bultzatzea, ekimen pribatuarekin eta, bereziki, sozialarekin lankidetzan laneko eredu bat zehaztuta.
- Oinarrizko gizarte-zerbitzuak (1.1 puntutik 1.4 puntura bitarte) eta horien kudeaketa deszentralizatua (hala badagokio, oinarrizko gizarte-unitateen bitartez) garatzea, zerbitzuak komunitate bakoitzaren ezaugarrietara egokituta eta ikuspegi prebentiboa eta zerbitzuak ingurunera irekitzea aurreikusita (etxez etxeko bisitaldiak, talde-lana, komunitatearen baliabideak ezagutzea eta haiekin lankidetzan jardutea eta abar indartuta).

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuari dagokionez, arreta-orduen eta gastuen aurreikuspena iristeko estrategia bat bultzatu behar da. Zerbitzu hori oso garrantzitsua da eredu komunitarioa garatzeko eta, batik bat, etxeko arreta ahalbidetzeko eta prebentzio-ikuspegia finkatzeko, baina hala ere, zerbitzua geldituta dago, honako arrazoi hauengatik: zerbitzuaren diseinuan malgutasunik eta berrikuntzarik ez dagoelako, kostuen gorakadarengatik, ezkutuko ekonomiaren lehiagatik eta prestazio ekonomikoaren garapenagatik, edo ordaintzera behartuta daudenen parte hartzeko irizpide ekonomikoaren definizioagatik (“koordainketa”).

- Udal-eskumeneko gainerako zerbitzuak (egunekoak, gauekoak eta ostatu hartzekoak) finkatzea, komunitate bakoitzaren ezaugarrietara egokitzeko gako berdinei jarraikiz, prebentzio-ikuspegiarekin eta ingurunera irekita, eta ahal denean, oinarrizko gizarte-zerbitzuekin konektatuta dauden baliabideak ahalik eta gehien aprobetxatzeko.

³⁶ Alde batetik, kontuan izan behar da prestazio hori eskatu egiten dutela, hainbat arrazoirengatik, hala nola, pertsonen eta familien aukera izateaz gain, krisialdiak enpleguan izan duen eraginagatik edo prestazioa eskatzen dutenek beren premiekin eta ahalmen ekonomikoarekin bat datorren zerbitzu bat edo zerbitzu multzo bat eskuratzeko izan dezaketen zailtasunagatik.

Beste alde batetik, Autonomia eta Mendetasunaren Arretarako Sistema arautzen duen araudian aurreikusitakoarekiko koherentziari eutsita, horien erabilera soilik kasu jakin batzuetan mugatu eta aurreikusi egin beharko litzateke, baldin eta “zerbitzu bat onartzea ezinezkoa bada baliabide publiko edo pribatu egiazaturik ez dagoelako” (Ebazpena, 2012ko uztailaren 13koa, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Estatuko Idazkaritzarena, Autonomia eta Mendetasunaren Arretarako Sistema hobetzeko Autonomia eta Mendetasunaren Arretarako Sistemaren Lurralde Kontseiluaren Akordioa argitaratzen duena. Bigarren akordioa, zazpigarren hobekuntza). Autonomia eta Mendetasunaren Arretarako Sistemari buruzko araudiaren aurreikuspen horrek, ordea, legearen 16.4 artikuluan aurreikusitakoarekin talka egiten du; legearen artikulua horren arabera: <<3. zenbakiko a) eta b) letretan aipatzen diren prestazioak ezin izango dira hartu, inolaz ere, zerbitzu baten ordeko prestazio ekonomikotzat>>.

- Foru Aldundien eta Autonomia Erkidegoaren eskumeneko zerbitzu eta prestazio ekonomikoak bultzatzea, prebentzioko eta autonomia sustatzeko xede nabarmena izanik, eta pertsonen beren etxean bizitzen jarraitzeko aukera emango dietela.
- Administrazio arduradunak zerbitzu-sarea lurraldean barrena hedatzeko lanetan aurrera egitea, ezarpenerako egokien irizpideei jarraikiz, administrazio horrek lurraldearen premiei eta ezaugarriari buruz dakienaren arabera eta dauden baliabideen banaketaren arabera (lehendik badagoen sarean oinarrituta, erantzukizun publikoko sistema bat finkatzen ari da).
- Araudian aurreikusitako zerbitzuen arteko, eta zerbitzu eta prestazio ekonomikoen arteko bateragarritasun-araubidera egokitzea, praktikan.
- Familiarekin eta laguntza informaleko sarearekin egindako lana bultzatzea, eta zaintzaileei begirako atsedeen hartzeko eta laguntzeko zerbitzuak garatzea, betiere laguntza informala potentziatu eta osatzea xede duen ikuspegi erlazional eta komunitarioarekin koherente izanik.
- Zerbitzu bakoitza -mendetasun-egoeran daudenentzako egoitza-zentroak barnean hartuta-kokatuta dagoen lurraldearekin konektatzea norabide bikoitzean (erabiltzaileek inguruneke jardueretan parte hartzea eta alderantziz).
- Erabiltzaileek arreta pertsonalizatuko planen orientabidean eta ebaluazioan, zerbitzuen diseinuan eta ebaluazioan, zentroetako bizimoduaren antolaketan eta abarren parte hartzeko mekanismoak garatzea.

Eredu komunitarioaren sustapenari dagokionez, GZEKk honako hau dio gomendioetan:

Bere ustez, <<pertsona bakoitzak intimitaterako, duintasunerako, autonomiarako eta bere bizimoduaren eta bizi-ingurunearen diseinuari eta jasoko dituen prestazioei buruzko aukeraketak egiteko (medikuak agindutakoarekin bateragarriak) duen eskubidea erabili ahal izateko, beharrezkoa da zerbitzuak benetan eskura izatea, eta, oro har, laguntzak eskura izatea (pertsonek bere ohiko bizilekuan jarraitu ahal izateko nagusiki, baina baita bizileku horretatik irteteko ere, beharrezkoa eta egokia balitz, komunitatetik hurbil betiere)>>.

Horretarako, <<Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluak honako hau eskatzen die sisteman parte hartzen duten eragile publiko eta pribatuei: lan koordinatu eta berritzaile bat egiteko politika publikoetatik eta gizarte-estrategietatik (etxebizitzak birgaitzea eta egokitzea, komunitate-garapena, laguntzeko teknologiak, familia-politikak, pertsona guztiak erabili ahal izateko moduko diseinua, zerbitzuen eskaintza...), pertsonak ardatz dituen arreta osoa eman ahal izateko, eta gure etorkizuna planifikatzea eta gure bizitzaren iraunkortasuna kudeatzea errazteko guztioi>>.

Eta <<Kontseiluaren ustez beharrezkoa da, halaber, parte hartzen duten eragile guztiak elkarrekin lan egitea pertsonen bizilekuan edo ohiko ingurunean eman eta jaso daitezkeen zerbitzuen aukera zabal eta erakargarri bat eraikitzen. Bizilekuan laguntzen duten gizarte-zerbitzu batzuk behar ditugu, zabalagoak, garatuagoak, dibertsifikatuagoak, erabiltzaileentzat erabilerrazagoak direnak, lehiakorragoak eta osagarriagoak direnak elkarren artean edota beste zerbitzu batzuekin (gizarte-zerbitzuekin nahiz beste zerbitzu batzuekin), eta esku-hartze baliotsuak egin ditzaketenak elkarrekin; adibidez, etxeko laguntza ematea, laguntzaile pertsonala jartzea, osasun-laguntza ematea, laguntza teknologikoa ematea...>>.

2.4.5 Babesgabetasunaren arloari dagokionez.

Babesgabetasunaren eremuan eta, batik bat, haurrak babesteko sistemari dagokionez, aipatu berri ditugun alderdiekin lotuta honako hauek nabarmendu nahi genituzke:

- krisialdi ekonomikoak eragin handia izan du seme-alaba adingabeak dituzten familiengan (haur-pobrezia), eta beraz, horrelako egoeren arreta, prebentzio, detekzio eta erantzun goiztiarrean aurrera egin behar da, adingabeen heltzeko eta garatzeko prozesuan eta osasun fisiko nahiz psikologikoan epe motz, ertain eta luzean izan ditzakeen ondorioak alde batera utzi gabe;
- haurrak babesteko sistemaren izaera gero eta prebentiboagoa eta komunitarioagoa izan dadin egiten den ahaleginarekin aurrera egin behar da (lehen mailako arreta, soziala eta sanitarioa, indartzea eremu horretan, eta esku-hartze sozioedukatiboko eta psikosozialeko zerbitzua, bereziki; familia-harrera eta desinstituzionalizazioa sustatzea, txiki-txikitako esku-hartzeak - fokalizatuak eta zorrotzak- bultzatuta, kasuak ez daitezen kronifikatu erakundeetan eta abar).

Esanak esan, babesgabetasunaren eremu espezifikoa, testuinguru sozialaren ondorioz, arreta-bolumenak nabarmen handitzen eta arreta hori kualitatiboki eraldatzen (baliabide berriak garatzea eta esku-hartzeak egokitzea) ari den egoera sortzen hasi zen aspaldi, besteak beste, alde batetik, adingabeak eta emakumeak eraginpean hartzen dituzten babesgabetasun- eta arrisku-egoeren gaineko kontzientzia sozialaren areagotzeari erantzuteko, eta bestetik, familietan gertatzen ari diren sakoneko aldaketei erantzuteko:

- familia-ereduak dibertsifikatzea (guraso bakarreko familiak, berreginak...);
- rolak (aitarena, amarena...) eta harremanak (bikote barruan, guraso eta seme-alaben artean...) aldatzea;
- gizarte-sareak haurren zainketan betetzen duen egitekoa aldatzea (alderdi horretan ere eraldaketa garrantzitsuak gertatu dira zainketen eremuan eta zainketa formalaren -hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, zerbitzu sozioedukatiboak...- eta informalaren arteko orekaren eremuan, emakumeen eta aitona-amonen rolari dagokionez...);
- gizarteratzeko agenteen (familia, eskola...) arteko harremana aldatzea eta gizarteratzeko gune berriak agertzea (sare sozialak...);
- bizi-zikloak (seme-alabak zenbat urterekin izaten diren) eta bizikidetzak (esate baterako, 50 urtetik gorako gurasoak seme-alaba nerabeekin bizi diren egoerak egon daitezke) aldatzea;
- immigrazioak eragin kuantitatiboa (familia berriak eta bakarrik dauden etorkin adingabeak) eta kualitatiboa (kultura-erreferentzia desberdinak) izatea.

Adingabeen bilakaera demografikoari erreparatuta, hiru Lurralde Historikoetan adingabeen kopuruak jaitsiera txiki bat izan duela ikusi dugu, eta bakarrik dauden atzerritar adingabe gutxiago ere iritsi direla; izan ere, inbentarioan jasotzen denez, bakarrik dauden etorkin adingabeen etorrera horrek egoitza-harrerako zentroetan plazen eskaintza nabarmen handitu behar izatea eragin zuen, bere garaian. Alabaina, faktore horiei beste bat ere gehitu behar zaie: familia errefuxiatuen eta adingabeen (horietako zenbait bakarrik) kolektibo garrantzitsu bat iritsiko da datozen hilabeteetan, eta etorrera horrek GZESaren prestazio eta zerbitzuen premian eta eskarian eragina izango du, eta bereziki, babesgabetasun- eta/edo bazterkeria-arriskuan edo -egoeran daudenei zuzendutako prestazio eta zerbitzuetan.

Bestalde, emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren emakume eta hurrei ematen zaien arreta indartzen jarraitzea ezinbestekoa da, eta antza, zenbait indarkeria mota (seme-alaben eta gurasoen arteko indarkeria, bullyinga...) sendotzen ari dira, edo berriak sortzen, hala nola, adinekoenganako indarkeria; hortaz, horrelako egoerak prebenitzeko, detektatzeko eta egoera horietan eragiteko ahalmena hobetu egin behar da, lehenbailehen.³⁷ Eta eremu soziosanitarioari

³⁷ Hein batean, arretak izan duen garapenaren eta arreta motetan izan diren aldaketen ondorioz agian, emakumeentzako egoitza-zentroetan eta ostatu-zerbitzuetan beste zerbitzu batzuetan baino okupazio-indize txikiagoak daudela adierazten du inbentarioak. Izan ere, okupazio-indize bereziki txikiak dituzten zerbitzuetan agian gehiegizkoa da 2017. urterako 2011n erabilgarri zegoen plaza kopurua aurreikustea, baina irizpide orokor horri eutsi diogu (zerbitzu eta prestazio guztietan, erabilgarri zeuden plazen kopuruan oinarrituta egin dugu proiektzioa).

dagokionez, gaixotasun mentala duten adingabeei osasun-sistematik ematen zaien arreta eta sistemarekiko lankidetzan indartu behar dira, osasun mentaleko arazoak dituzten adingabeen babesgabeen kolektiboari eta, bereziki, jokabide-arazoak dituzten adingabeei ematen zaien arreta garatzeko.

2.4.6 Epe motz eta ertainerako zenbait lehentasun, egindako azterketan oinarrituta

Aipatu ditugun lau faktoreak ez ezik, babesgabetasun-eremuaren errealitate espezifikoaren errealitate kontuan hartuta, badirudi beharrezkoa dela:

- Epe motzera, bazterkeriaren eta babesgabetasunaren eremuko zerbitzuak finkatzeko eta, hala badagokio, hedatzeko ahalegin berezia egitea, eta bi kasuetan, krisialdiak gizaratean izan dituen ondorioak aintzat hartuta.
- 2017. urteari begira, mendetasun-egoeretan edo mendetasun-arriskuaren egoeretan arreta emateko zerbitzuak eta autonomia sustatzekoak indartzea, bai eta, batik bat, laguntzaileei begirako atsedeen hartzeak eta laguntzeko zerbitzuak ere.
- Epe ertainera, laguntza informala eta formala arteko oreka berria bilatzea, formala indartuta, eta estrategia jakin batzuk irmoki eta beste sistema batzuekin lankidetzan indartzea; hala nola, autonomiaz gizarateratzea sustatzeko eta mendetasuna prebenitzeko estrategiak, zahartze aktibokoak, desgaitasuna dutenen enplegu-maila berreskuratu eta indartzeko estrategiak (gutxienez, krisialdiaren aurreko mailak berreskuratuta) eta abar.

Zentzu horretan, kontuan izan behar da testuinguru sozialak, oro har, zer eragin izan dezakeen pertsonen eta familien egoeran, arretaren kalitatean eta ongizate-sistema osoan (gizarte-zerbitzuen sistema, osasun-sistema, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarateratzeko sistema eta abar) zerbitzuen epe motz, ertain eta luzeko premian eta eskarian; gainera, ez dugu ahaztu behar eredu komunitarioa ez dela askorik indartu, ez eta, bereziki, prebentzioko eta autonomiaz gizarateratzea sustatzeko estrategiak ere.

Azken batean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluak gomendioetan diotenari jarraikiz, testuinguru sozialak gizarte-babeseko eta sustapeneko sistemak, oro har, indartzea eskatzen du, eta gizarte-zerbitzuen sektorearen alde bereziki apustu egitea:

<<Gure historiaren une honetan gero eta pertsona gehiago gaude, maila eta modu desberdinetan bada ere, ahultasun-egoeran, eta garai txarrak dira ongizate-estatuarentzat (eragina gizonetan baino handiagoa da emakumeetan). Horregatik, indartu egin behar ditugu gizarte-babesa eta -sustapena emateko ditugun sistemak sektore guztietan: osasunean, hezkuntzan, etxebizitzan, enpleguan, diru-sarreraren bermean...

Nolanahi ere, azpimarratu nahi dugu gaur egun hemen dugun gizarteak gizarte-zerbitzuen sektorearen aldeko apustu berezi bat egitea eskatzen duela. Izan ere, gure gizaratean, oso modu azkar eta bizian ari dira areagotzen bizi-zikloaren zenbait unetan eta egoeratan laguntza pertsonala jasotzeko beharrak (batez ere zahartzaroarekin lotuta, baina ez aro horrekin soilik), eta, era berean, oso azkar ari dira eraldatzen familiako eta komunitateko egiturak, dinamikak eta sareak (prozesu hori jaiotza-tasaren beherakadarekin lotutako dago, besteak beste). Orain arte, egitura eta sare horiek ematen zituzten, neurri handi batean, zaintza eta babes horiek.

Era honetako gizarte batean, beraz, gero eta beharrezkoagoa da gizarte-zerbitzuen laguntza, laguntza hori gabe nabarmen egiten baitu okerrera biztanleriaren bizi-kalitateak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunak (eta, oro har, aukera berdintasunak), bai eta ongizate-sistema osoaren eraginkortasunak ere. Gizarte-zerbitzuak garatzearen aldeko apustu argi eta berritzaile batek gizarte-babeseko sistemaren barruko beste prestazio eta zerbitzu batzuk (adibidez, osasun-zerbitzuak) modu egokiagoan eta eraginkorragoan erabiltzen lagundu dezake eta lagundu behar du>>.

2.5 GZESA BARRUTIK SENDOTZEKO ERRONKA NAGUSIAK

Idatz-zati honetan jasotzen dira Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak barnerako proposatu dituen egitura-erronkak, sistema hori sendotzeko funtsezkoak hain zuzen ere. Hortaz, sistema egituratzeko lehentasunezko zatitako elementuak –Katalogoko zerbitzu eta prestazio ekonomikoen hedapena bera gaindituta– aipatuko ditugu, eta behar bezala ebatzita ez daudenei erreparatuko diegu bereziki.

Azterketa kualitatibo honen asmoa zera da, GZESak planteatu dituen erronken diagnostiko adostua egitea, planaren ardatzak, helburuak eta ekintzak –GZESaren barne-egiturarekin lotura dutenak– zehazteko abiapuntu izan dadin.

Oro har, GZESaren erronka nagusiak 2 arlo nagusitan biltzen dira:

- Premiak eta baliabideak egoki daitezen sustatzea.
- GZESaren kudeaketa indartzea eta barne-antolamendua hobetzea, erakundearteko eta beste arreta-sistema batzuekiko koordinazioari³⁸ bereziki erreparatuta.

Bestalde, azterketan, oraindik landu gabe dauden hainbat gairekin batera, –legean agertzen direlako edo hainbat erakunde lantzen ari delako– konponbidean dauden beste gai batzuk ere sartu dira, baina bai batzuk bai besteak planean txertatu beharrekotzat jotzen dira.

2.5.1 Premiak eta baliabideak egoki daitezen sustatzea

Gaur egun, –zerbitzu nahiz prestazioen premiak eta eskariak gora egin duten eta krisialdi ekonomikoaren testuinguru honetan– GZESak duen erronka nagusia zera da, alde batetik, mapan aurreikusitako GZESaren hedapenarekin lotutako premiak eta, bestetik, baliabide ekonomikoak –memoria ekonomikoan zehaztutako baldintzetan– bat etor daitezen sustatzea; horretarako, gutxieneko estaldurak bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartu behar dira, eta estaldura-zerrenden maila gorenera iristen saiatu.

Hori lortzeko, ezinbestekoak da honako hauek egitea:

- Gastu publikoa handitzea, legean aurreikusitako eskumen-araubidearen eta maparen arabera egokituta, betiere legearen hirugarren xedapen iragankorrean jasotako mekanismoaren bitartez.
- Eskura dauden mota guztietako baliabideen (baliabide ekonomikoak, azpiegiturak, pertsonen kompetentziak...) kudeaketan ahalik eta eraginkortasun eta efizientzia handiena bilatzea, laguntza informaleko sarea eta lehendik dagoen ekimen publiko eta pribatuko baliabide-sarearen aprobetxamendua barnean hartuta.

Ildo beretik:

- a) Ahaleginak GZESaren berezko xedean eta Katalogoan metatu behar dira.
- b) Bikoiztasunak eta esku-hartzean eta kudeaketan izan daitezkeen bestelako disfuntzioak saihestu behar dira, eta lehendik dagoen baliabide-sarearen aprobetxamendua eta lankidetzat sustatu.
- c) Pertsonen baliabideen (kompetentziak) kudeaketa hobetu behar da, bai eta profesionalak zaindu ere.

³⁸ Zentzu horretan, kontua ez da koordinazio-arazoak daudela, baizik eta lehendik dauden errealitateetatik abiatuta erantzukizun publikoko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema (GZES) bakar bat eratzeke lanetan aurrera egitea, GZEO izanik sistema kudeatuko duen kide anitzeko organoa, elkarlanaren kulturaren eta praktikan sakonduta, eta jarraian zehaztuko ditugun beste zenbait alderdi landuta, hala nola, erakunde bakoitzak ematen dituen zerbitzuak legean aurreikusitako eskumen-banaketaren arabera egokitzea, lehen mailako eta bigarren mailako arretaren arteko lankidetzat eta abar.

- d) Kostuak arrazionalizatu behar dira, kalitatearen eta kostuen arteko erlazioa egokia izango dela bermatuta, eta lan-baldintzak okerrera aldatu gabe.
- e) Prebentzio-ekintzak eta laguntza informaleko sarea zaintzea indartu behar dira.
- f) Arreta komunitarioa indartzera, kostuak arrazionalizatzen eta sistemaren eraginkortasuna hobetzera bideratutako I+G+Bko jarduerak indartu behar dira.

2.5.1.1 Ahaleginak GZESaren berezko xedean eta Katalogoan metatzea

Legeak aurrera egin du GZESaren xedea zehaztu eta mugatzen; izan ere, besteak beste honako hau xedatu da: “*pertsona, familia eta talde guztien gizarteratzearen, autonomiaren eta ongizatearen alde egitea du xede, eta sustatzeko, aurreikusteko, babesteko eta laguntzeko eginkizunak betez gauzatu nahi du xede hori, funtsean pertsonen eta harremanen buruzkoak diren prestazio eta zerbitzuen bidez*” (5.1 artikulua, eta 6. artikuluan garatzen da), eta GZESaren berezko zerbitzu eta prestazioen katalogoa ere zehaztu da.

Izan ere, orain arte gizarte-zerbitzuak hainbat kolektibo espezifikoaren premia guztiak artatzera bideratutako baliabideetat hartzen ziren baina orain, ikuspegi hori arian-arian desagertzen ari da, eta ongizate-sistemetak bakoitzak zer eginkizun bete behar duen finkatzen ari da, bakoitzaren xedea eta prestazioak ere bereizita.

Alabaina, orain arteko historian, zailtasunak izan dira definizio horrek dakartzan inplikazio praktikoak onartzeko eta horrek eragina izan du GZESaren eraginkortasunean (berez dagozkion helburuak betetzeari dagokionez); horrekin batera, xede horretara bideratutako baliabideak murriztu egin dira de facto, zeren eta:

- gizarte-zerbitzuetan eskudunak ziren Sailen ahaleginak –ekonomikoak eta antolaketarekin lotutakoak– GZESatik eta/edo Katalogotik kanpoko prestazio eta zerbitzuetara bideratzen baitziren;
- eta horren ondorioz, Katalogoko zenbait zerbitzu eta prestazio –lagun egite soziala, esaterako– behar baino intentsitate txikiagoarekin garatu dira, gizartearen premiak eta bilakaera aintzat hartuta, eta GZESaren xedearen definizioa bera, arreta-eredu komunitarioa eta legeak arlo horretan egiten dituen beste hainbat aurreikuspen ere gogoan izanik.

GZESaren xedea legean zehaztu izanaren ondorioz, eta baliabideak murriztu eta araudian aurreikusitako betebeharra bideratu izanaren ondorioz, egoera hori aldatu egin da, antza, baina hala ere, ahaleginak Katalogoko zerbitzu eta prestazio ekonomikoak garatzera eta GZESa bera indartu eta egituratzera bideratu behar dira.

2.5.1.2 Bikoiztasunak eta esku-hartzean eta kudeaketan izan daitezkeen bestelako disfuntzioak saihestea, eta lehendik dagoen baliabide-sarearen aprobetxamendua eta lankidetzaren sustatzea

GZESa erantzukizun publikoko sistematzat definitu da, titulartasun publikoko eta pribatu itunduko prestazio, zerbitzu eta ekipamenduez osatutakoa, ekimen publikoa eta pribatu soziala gailen izango dela; definizio hori eta GZESaren arkitektura bera aintzat hartuta:

- Administrazio publikoen arteko eta ekimen pribatuarekiko lankidetzaren kultura sakonean garatu behar da, zerbitzuen hornidurari, kasuaren koordinazioari eta sistemaren kudeaketari dagokienez, bai eta GZESan eta, bereziki, GZEOan erabakiak taldean hartzeko prozedura eta irizpideak ere.
- Koordinazio-ahaleginak indartu behar dira, erabiltzaileengan nahasmendurik ez eragiteko, arretan bikoiztasunik edo hutsunerik sor ez dadin, eta zerbitzu batetik besterako edo arreta-maila batetik besterako igarotzeak behar bezala kudeatzeko, betiere pertsona eta/edo familia

erabiltzaile bakoitzari erreferentziako figura bat eskainita; figura horrek kasuaren koordinazioa hartuko du bere gain eta prozesuan lagundu egingo dio.

GZESaren arkitektura EAeko administrazio publikoen hiru mailen arteko eta ekimen pribatuarekiko -ekimen soziala gailen dela- lankidetzan oinarritzen da, eta egitura horrek abantailak izan baditu -hala nola, sarea bera garatzea lehendik dauden baliabideetan oinarrituta eta eredu komunitarioari jarraikiz, hurbiltasunari, parte-hartzeari, deszentralizazioari... dagokienez-, baina bai eta arriskuak ere.

Hori horrela izanik, legeak eskumen-araubidea argitzen aurrerapauso handia ekarri duen arren, gaur egun, zaila da oraindik ere lehendik badiren zenbait zerbitzu -mendetasunaren/autonomiaren, babesgabetasunaren eta bazterkeriaren/gizarteratzearen eremuetan-foru-aldundien edo udalen eskumeneko zerbitzu ote diren jakitea, legean aurreikusitakoari jarraikiz. Eta zerbitzu horiei ez ezik, gizarte-larrialdiei erantzuteko bestelako zerbitzuei ere dagokienez, bikoiztasunak egon daitezke.

Hala ere, alde batetik, eskumen-araubidea argitzeko bidean eta, bestetik, lehendik dauden zerbitzuen gaineko erantzukizuna EAeko administrazio publikoetako maila bati edo besteari esleitzeko bidean aurrera egitea ahalbidetuko duten bi alderdi aipatuko ditugu:

- Zorroari buruzko Dekretua; besteak beste, EAeko administrazio publikoetako maila bakoitzak artatu behar dituen egoerak eta "gradu edo mailak" (mendetasunari, bazterkeriari, babesgabetasunari edo arriskuari dagokienez) argiago zehazten ditu;
- lehendik dagoen zerbitzu eta prestazio ekonomiko bakoitza Zorrokoekin lotzea (administrazio bakoitzak egin behar du ariketa hori, inbentarioa egiteko egindakoa baliatuta; hartara, zerbitzu eta prestazio horien parametro nagusien bilakaerari ohiko jarraipena egin ahal izango zaio, erraz).

Bestalde, aurrerapausoak egin diren arren, oraindik ere bada *arintasun eta malgutasun ezarrik*:

- dela zerbitzuak ematearekin lotutako prozesuei eta zerbitzuak eskuratzeko aukerari dagokienez,
- dela administrazio-prozesu mantsoegia duten araugintzako eta kudeaketako prozesuei dagokienez, betiere abiaraztean izan ohi den larrialdi-fasea gaingitu ostean.

Egoera horiek sortzearen arrazoi izan daitezke lan-karga handiegiak egotea, esku hartzen duten eragileak asko izatea, prozedurak konplexuak izatea, izapideen bikoiztasuna, transmititutako informazioa desegokia izatea, modernizazio teknologiko eskasa eta abar.

Nolanahi ere, faktore horiek GZESaren eraginkortasun- eta efizientzia-mailak murrizten dituzte, eta egungo GZESaren hedapen-testuinguru honetan, sistema kudeatzeko eta zerbitzuak emateko eragozpen bihur daitezke eskubide subjektiboaren egoera beharrezkoa den garaia baita; beraz, GZESa unibertsalizatzeko epea igarotakoan, GZESaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoak eskuratzeko aukeran kolapsoa ez gertatzeko beharrezkoak diren neurriak aurreikusi beharko dira, Autonomia eta Mendetasunaren Arretarako Sistema abiaraztean gertatu zena ez gertatzeko.

Horregatik guztiagatik, zehatz-mehatz identifikatu behar dira arintasunik eta malgutasunik ezean eragina izan dezaketen faktoreak zeintzuk diren, kasu bakoitzean, eta faktore horietan eragitea, dela zerbitzuak emateari dagokionez, dela, kudeaketari dagokionez, eta beharrezkoa denean:

- balorazioko, diagnostikoa egiteko eta orientazioko zerbitzuetan ratioak hobetzea, zerbitzuak eskuratzeko aukera zentzuzko epeetan ahalbidetzarren;

- prozedurak eta izapideak sinplifikatzea, batik bat, sisteman sartzekoak;
- erakundeen artean eta ekimen pribatuko erakundeekin informazio-elkartrukea –zehatza eta garaiz- areagotzea, kasuaren koordinazioari, zerbitzuak emateari eta sistemaren kudeaketari dagokienez;
- administrazio elektronikoa indartzea eta euskarri teknologikoak modernizatu eta bateragarri egitea, informazio-elkartrukea eta lankidetzaren *on line* ahalbidetzeko (Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioko Euskal Sistema...);
- eragileen arteko lankidetzaren kultura bultzatzea, bai eta lankidetzarako eta kontraste egiteko prozedura eta tresna arinagoak ere, batik bat, kasuaren koordinazioarekin eta sistema arautzeko nahiz kudeatzeko prozesuekin lotuta.

Alderdi horiei dagokienez, honako hauek egitea ere beharrezkoa da:

- administrazio publiko guztiek batera eta ados jarrita, itzarote-zerrenda teknikoaren kontzeptua definitzea eta zerbitzu bat eskuratzeko gehienez itxaron behar den denbora zehaztea;
- une horretatik aurrera, zerbitzua ematea derrigorrezkoa dela ezartzea edo, hala badagokio, Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa (ZLPE) eskuratzeko aukera izatea, betiere horretarako baldintzak betez gero.

Horri dagokionez, kontuan izan behar da, eskubide subjektiboaren egoera batean, premiak eta baliabideak arian-arian egokitzeko balio dezaketen elementuetako bat izan daitekeela Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa, baina soilik legean eta Zorroari buruzko Dekretuan aurreikusitako kasuetan eta baldintzekin.

2.5.1.3 Pertsonen baliabideen kudeaketa eta profesionalen zainketa hobetzea.

Gizarte-zerbitzuak emateko garaian eta zerbitzu horien helburuak modu eraginkor eta efizientean betetzeko garaian, pertsonak oso garrantzitsuak dira, eta hortaz, esan gabe doa pertsonak zaindu egin behar direla eta eskura dituzten baliabideak optimizatu: pertsonen gaitasunak areagotu eta garatuta, dituzten gaitasunak hobeto baliatuta eta prestakuntzaren edo esperientziaren ondorioz eskuratu dituztenak galdu gabe bajengatik edo beste eremu, erakunde edo elkarte batera lanera joaten direlako lan-baldintzen, estresaren eta abarren eraginez.

Zentzu horretan, besteak beste, pertsonen baliabideak hobeto kudeatzeko neurriak har daitezke (prestakuntza, laguntza teknikoa eta kasuen kontrastea, arrisku psikosozialen arreta...), edo administrazio-prozedurek eskatzen duten denbora murrizteko neurriak, prozedura horiek sinplifikatuta eta euskarri informatikoak garatu eta hobetuta; hartara, denbora gehiago izango da libre esku-hartzerako eta harreman-ikuspegia garatzeko (lagun egite soziala, kasuaren koordinazioa), eta aldi berean, kasua koordinatzeko eta sistema kudeatzeko beharrezkoa den informazioa eskuratzeko errazagoa izango da eta abar.

Bestalde, ez dugu ahaztu behar sistemak enplegua sortzeko potentziala izan baduela, eta potentzial hori ahalik eta gehien baliatzeko beharrezkoak diren bitartekoak jarri behar dira. Gizarte-zerbitzuen garapenari esker, sexuarekin, adinarekin edo jatorriarekin lotutako arazoengatik bazterkeria-egoera bizi dutenek enplegua lortzeko aukera izan dezakete, zuzenean, eta bestelako errealitate zehatzetan ere eragin daiteke, zeharka, hala nola, haurren pobrezian eta gazteen bazterkerian.

Lan-baldintzei dagokienez, lurraldearen arabera eta lantzen ari den eremuaren (bazterkeria, babesgabetasuna, mendetasuna, desgaitasuna) arabera aldeak daudela izan behar dugu kontuan, zerbitzuak ematen dituzten erakundeak publiko nahiz pribatu izan, bai eta antzeko ezaugarriak dituzten zerbitzuak direnean ere, eta lan-baldintzak nolabait parekatzea lortu behar dugu, batik bat, bazterkeriaren eremuan, plan estrategiko honi dagokion aldian.

Era berean, honako hauek ere erronka garrantzitsuak dira eta beste sistema batzuekin eta, bereziki, Euskal Enplegu Zerbitzuarekin batera ekin behar zaie: langileen prestakuntza eta kualifikazioa hobetzea, ezkutuko ekonomiatik edo ekonomia informaletik Euskadin mendetasun-egoeran dauden edo desgaitasunen bat duten adinekoak artatzen laguntzen duten langileen egoera erregularizatzea.

GZEKren gomendioetan jasotzen denez: <<Gizarte-zerbitzuen sektoreko jarduera profesionalak normalizatzen, formalizatzen, arautzen, prestatzen eta hobetzen aurrera egitea lagungarria izango da, zalantzarik gabe, gizarte-alorreko esku-hartzea jasotzen duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko, baina baita jarduera-sektore horretako lan-baldintzak pixkanaka hobetzeko ere, eta nagusiki emakumeak aritzen direnez lan horretan, beharrezkoa da emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunerako politikak proaktiboki aplikatzea ere. Emakumeek sektoreari egin dioten ekarpena ikusarazi eta aitortu behar da, bai eta emakume immigranteen presentzia handia ere>>.

2.5.1.4 *Kostuak arrazionalizatzea*

Azterketan argi ikusten da Katalogoko zerbitzu berean (zerbitzu berdin-berdinak edo, gutxienez, antzekoak, atxiki zaizkiola inbentarioa egitean) egindako gastu korrontea eta gastu korronte publikoa ez dela berdina, inondik inora ere, Lurralde Historikoaren eta zerbitzuaren titular nor den (udaletxea, Foru Aldundia edo pribatu itundua) arabera, Lurralde Historiko beraren barruan, baina ezin da frogatu alde horiek kalitate-mailarekin zuzenean lotuta daudenik.

Bestalde, alde garrantzitsuak daude, halaber, gastu korrontean eta gastu korronte publikoan Lurralde Historiko beraren eta sektore pribatu itunduaren barruan, eremuaren arabera (mendetasuna/autonomia, bazterkeria/gizarteratzea, babesgabetasuna, desgaitasuna), eta alde horiek agertzen dira eremu desberdinekoak izanik, antzeko ezaugarriak dituzten zerbitzuetan ere (egunekoa, egoitza-zerbitzua,...; laguntza-intentsitate antzekoak dituztenak; eta abar).

Aipatu ditugun alde horiek guztiak -Lurralde Historikoarekin, titulartasunarekin eta eremuarekin lotutakoak-, hein batean, soldata-aldeen ondorio dira; izan ere, zenbait kasutan baliteke justifikatuta egotea, baina beste kasu batzuetan zaila da alde hori justifikatzea, adibidez, Lurralde Historiko berean titular bera duten antzeko ezaugarriak dituzten zerbitzuak direnean.

Horri dagokionez, kostuen arrazionalizazioan aurrera egiteko, honako hauek garrantzitsuak dira:

- Katalogoko zerbitzuei dagokienez, EAE osorako komunak diren zerbitzu bakoitzerako kalitate-estandarrik eta -adierazleak zehaztea -legearen 7. artikuluko k letran aurreikusitakoaren arabera-, eredu komunitarioarekin eta gizarte-zerbitzuen borondatezko kalitate-esparru europarrarekin koherenteak izanik, herritarrek eskuratzeko modukoak, eta zerbitzuen kalitatearen eta kostuaren arteko erlazioa baloratzea ahalbidetzen dutela.
- Zerbitzu bakoitzaren kostuen egitura aztertzea, eta gastu-aldeak zein kasutan justifikatuta dauden zehaztea -kalitatean eragina dutelako edo beste faktore batzuegatik- eta zein kasutan ez.
- Kalitatea ebaluatzeko eta etengabeko hobetzeko sistemak indartzea, legearen 76. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz, zerbitzuetatik eta, hala badagokio, kudeatzen dituzten erakundeetatik kanpoko tresnak ere barnean hartuta (ikuskapen-zerbitzuen bitartez edo bestela); hartara, zerbitzuak emateaz arduratzen diren administrazio publikoek kalitatea ziurtatu ahal izango dute eta kalitatearen eta kostuen arteko erlazioa egokia izango dela bermatuko da, bai zerbitzu publikoetan, bai zerbitzu pribatu itunduetan.

Nolanahi ere, kostuak arrazionalizatzeak ez du esan nahi arretaren kalitatea murriztu behar denik, eta honako hauek ere ez ditu eragin behar:

- Administrazio publiko bakoitzak hauta dezakeen kudeaketa-eredua baldintzatzea.³⁹
- Lan-baldintzak okerrera aldatzea, baldin eta zerbitzuak emateko baldintzak ere zentzu berean aldatzen ez badira, edo dauden soldata-aldeak finkatzea, alde horiek justifikatu ezin direnean.

Bestalde, 2011-2014 aldirako plan estrategikoaren zirriborroan adierazten zenez:

<<Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren III. Txosteneko datuek agerian uzten dute Gizarte Zerbitzuetako zenbait eremutan, bederen, kostu unitarioak inflazioa baino askoz ere gehiago hazi dira. Kostuen gehikuntza horrek sistemaren iraunkortasun ekonomikoa arriskuan jartzen du, eta gainera, estaldurak areagotzea, enplegu berriak sortzea eta zerbitzua pertsona gehiagori ematea larriki zailtzen du. Zentzu horretan, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuak egun bizi duen atzeraldia, besteak beste, zerbitzu horren orduko kostuaren gorakada garrantzitsuarekin lotuta dagoela pentsa dezakegu, batik bat, zenbait lurraldetan. Egoitza-zerbitzu jakin batzuk izaten duten kostua ere kezkatzeko modukoa da, bereziki, titulartasun publikokoei dagokienez>>.

Nolanahi ere, GZESaren hedapenerako gastu korrante publikoa areagotu egin behar da, baina horretaz gain, dirua hobeto gastatzea ere ezinbestekoa da. Ez dirudi bidezko denik zergadunei zerga-ahalegin handiagoa eskatzea baina baliabide publikoak ahalik eta modu eraginkor eta efizienteenean erabiltzen direla ziurtatu gabe, eta baliabideak modu horretan erabiltzeak kostuei ez ezik, emaitzei ere erreparatzea eskatzen du.

2.5.1.5. Prebentzio-ekintzak eta laguntza formalaren eta informalaren arteko oreka berria indartzea

Esan dugunez, prebentzio-ekintzak indartzea, laguntza informalarik eustea (zainketa informala, boluntarioak, elkar laguntzea) eta laguntza formalaren eta informalaren artean oreka berria edo mendetasun-egoeran daudenak zaintzeko eredu berria sustatzea funtsezko dira, lehenik, pertsonen bizi-kalitatea eta ongizatea sustatzeko, baina bai eta gizarte-eredu bidezkoa, solidarioa, parte hartzen duena, aktiboa eta abar sustatzeko ere.

Horretaz gain, horrelako estrategiak beharrezkoak dira, halaber, GZESaren beraren jasagarritasuna ahalbidetzeko, eta GZESA bera ideala izango balitz ere, ezin izango litzateke bermatu laguntza informalaren sareak artatzen dituen premia guztiak laguntza formalaren bitartez estaliko liratekeenik.

Horregatik, ezinbestekoa da honako hauek indartzea:

- zahartze aktiboa sustatzeko estrategiak;
- lehen mailako arretako zerbitzuak eta bigarren mailako arretako zerbitzu eta prestazio ekonomikoak, batik bat, prebentzioarekin eta autonomia sustatzearekin lotutakoak, hala nola, prestazio teknologikoak eskuratzeko prestazio ekonomikoak, LPPE Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa, arreta goiztiarreko esku-hartze sozialeko zerbitzua, bizimodu independentea babesteko zerbitzua, laguntza teknikoaren zerbitzua (laguntza-produktuak) eta ingurune fisikoaren egokitzea eta abar;

³⁹ Zerbitzu bakoitza emateko eskuduna den administrazio publikoak edozein kudeaketa-eredu hauta dezake, betiere legean GZESaren zerbitzuak emateari dagokionez kudeaketa publiko zuzenari eta ekimen pribatuaren -ekimen soziala gailen dela- parte-hartzeari buruz xedatzen diren parametroen barruan. Nolanahi ere, aukera hori kalitate-kostu, kostu-eraginkortasun eta baliabideen erabilera efizientearen terminotan justifikatu beharko litzateke, lehendik badiren baliabideak -publikoak eta pribatuak- aprobetxatzearekin hasita, baliabide publiko eta pribatu sozialak gailen direla.

Aipatu dugunez, 2017ra begirako proiektzioak egiteko garaian 2011n zegoen titulartasun-egiturari eutsi diogu (zerbitzu bakoitzean erakunde titular mota bakoitzak zenbateko ehuneko osatzen zuen), baina gastu korrante publikoak behera egingo luke ehuneko hori aldatuko balitz katalogoko zerbitzuen horniduran ekimen pribatuaren parte-hartzea handitzearen ondorioz.

- zaintzaileentzako atsedeen eta laguntza-zerbitzuak;
- bakarrik edo senitartekoekin batera bizi diren eta mendetasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen arreta eskaintzeko laguntza formala.

2011-2014 aldirako plan estrategikoaren zirriborroan, zaintzaileei buruz aurreko atalean aurkeztu ditugun GZEE - GPI inkestako datuen arabera, faktore garrantzitsuei dagokienez honako hau aipatzen da:

<<Datu horiek ikusita, sistemaren eraginkortasuna hobetearren, arreta-premiei eusteko neurriak martxan jartzea beharrezkoa da; neurri horiek bide honetatik datoz: epe ertainean asistentzia-premiak (osasun-eremuan nahiz gizarte-eremuan) murriztuko dituzten zahartze osasuntsurako jarraibideak sustatzetik eta gizarte-laguntzarako sare informalak indartzetik. Hori guztia, aldi berean "des-familiarizazio"-maila altuagoak lortzea alde batera utzi gabe, hau da, asistentzia-premiak dituzten pertsonen ahaideek asistentzia formaleko gutxieneko maila bat baliatzea eta inoren laguntza behar duten edo asistentzia-premiak dituzten pertsonen bizi-kalitatea soilik familia-sareen aktibazio-ahalmenaren menpe ez egotea>>.

Bestalde, aipatu dugunez, prebentzio-ekintzak sustatzeko eta laguntza formalaren eta informalaren arteko oreka berria bilatzeko estrategia horrek kontingentzien multzo osoa hartu behar du eraginpean, eta bereziki, haurrak babesteko sistema, betiere arreta-eredu komunitarioa, lehen mailako arreta (soziala eta sanitarioa) garatzea eta zainketa formalaren eta informalaren arteko oreka berria ahalbidetuta.

2.5.1.6. Kostuak arrazionalizatzea eta sistemaren eraginkortasuna hobetzea bideratutako I+G+Bko jarduerak indartzea.

Ikerketako, garapeneko eta berrikuntzako jarduerak gehiago garatuko balira domotikaren edo osasun-teknologiaren eremuetan -esan gabe doa, gainera, pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko lagungarri direla- plan honetako oinarritzako bi ildo hedatzeko lagungarri izango litzateke: arreta komunitarioa indartzea, alde batetik, eta kostuak arrazionalizatzea eta sistemaren eraginkortasuna hobetzea, bestetik.

Bestalde, estrategia hori ez datza soil-soilik laguntza-produktuak eta -teknologiak garatzean, zerbitzuak antolatze eta kudeatzeko eredu berritzaileen -GZESaren helburuak ahalik eta eraginkortasun handinez lortzea ahalbidetuko dutenen- garapenera ere hedatu beharko bailitzateke.

Esparru horretan ezinbestekoa da Unibertsitateak eta ikerketara eta berrikuntzara bideratutako programa eta ekimenek (eta, bereziki, Innobasquek) bat egitea.

2.5.2. GZESaren barne-egituraketa eta kudeaketa hobetzea

2.5.2.1 GZESari egituraketa handiagoa emango dioten ekintzak garatzea

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema, hainbat arrazoiengatik, gutxi egituratutako sistema izan da historikoki.

Zalantzarik gabe, *Katalogoak eta Zorroak* sistemari barne-egituraketa handiagoa ematen lagunduko diote, eskaintzen diren zerbitzu eta prestazio ekonomiko motari dagokionez nahiz horien eduki eta ezaugarriei dagokienez. Horretaz gain, azken urteotan, aurrera egin da legearen 20. artikuluan xedatzen diren *tresna tekniko komun* eta Katalogoko zerbitzuen araudiaren garapenean. Ildo beretik, arreta pertsonalizatutako planaren eredia lantzea baino ez da geratzen, eta bestalde, egokia izan liteke helduak eraginpean har ditzaketen babesgabetasun-egoerak baloratzeko tresna bat diseinatzea.

Beste alde batetik, legean jasotzen den erakunde-arkitekturaren bitartez egoera hori gaingitu nahi da; izan ere, EAEko administrazio publikoen hiru mailen arteko lankidetzaren eredu batean oinarritzen da, eta GZESA kudeatzeko, besteak beste, honako tresna hauek ezarri dira:

- *erakundearteko organoa* (GZEO): operatiboa izan dadin, GZESaren kide anitzeko kudeaketan lankidetzakultura eta -jardunbideak garatu behar dira;
- eta *informazioa lortzeko eta azterketak, plangintzak eta ebaluazioak egiteko hainbat prozedura eta tresna*: GZEOa edo EAeko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa bera; mapa eta memoria ekonomikoaz gain, GZESA osatzen duten prestazio, zerbitzu, programa eta jardueretan *kalitatea hobetzeko tresnak eta prozedurak* txertatu dira, esan bezala, plan estrategikoan (76. artikulua eta hurrengoak).

Horrela, bada, artikulua horri jarraikiz:

<<1. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak sistema hori osatzen duten prestazio, zerbitzu, programa eta jardueren kalitatea hobetzera bideratutako jarduerak sustatu beharko ditu, honako tresna hauen bitartez:

- Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioko Euskal Sistema diseinatzea, abian jartzea eta iraunaraztea.
- Kalitatearen ebaluazioko eta etengabeko hobekuntzako sistemak aplikatzea.
- Gizarte-zerbitzuetako ikerketa, bai eta ikerketako eta garapeneko eta ezagutzaren kudeaketako ekimenak ere, sustatzea eta bultzatzea.
- Gizarte-zerbitzuetako profesionalen prestakuntzaren etengabeko hobekuntza.

2 Aurreko paragrafoan aipatzen diren tresna eta prozedurak berariaz jasoaraziko dira Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan>>.

Tresna horiei dagokienez –aurrerago eta zehaztasun handiagoz garatzen dira legearen 77., 78. eta 79. artikuluetan–, honako hau esan behar dugu.

2.5.2.2 Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioko Euskal Sistema (GZIES) indartzea

Informazio-sistemei dagokienez, orain arte ez dira behar beste baliatu –askotariko arrazoiengatik, eta saiakerak egin diren arren– informazioaren eta komunikazioaren teknologiek eremu honetan ematen dituzten aukerak, beste zenbait sistematan –osun-sisteman, esaterako– egin duten moduan, baina horrek ez du esan nahi garapen horrek ez duenik zailtasunik izan.

Eusko Jaurlaritzak ‘Diagnostikoa eta Esku-hartze soziala’ aplikazio informatikoa garatu du premiei buruzko informazioa biltzeko, bere lurralde-eremuan diagnostiko sozialak egiteko, eta diagnostiko indibidualak eta gizarteratze-ibilbide pertsonalizatuak egiteko, baina aplikazio hori partzialki baino ez da ezarri; hainbat udalek –hainbat arrazoiengatik– uko egin diote sistema hori erabiltzeari edo aplikatibo horren erabilerarekin zuzenean lotutako prestazioak izapidetzeko baino ez dute erabili.⁴⁰

Bestalde, foru-aldundiek beren prestazio propioak kudeatzeko sare-loturako sistemak sortu dituzte eta maiz Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek prestazioak izapidetzeko sistema horiek erabili behar dituzte. Eta, aldi berean, udal gehienek eta batez ere udal handienek urte hauetan beren

⁴⁰ Ildo horretatik, gogoratu behar da 2005ean garai hartako Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saileko Gizarteratze Zuzendaritzak aplikazio informatiko bat garatu zuela “gizarte-diagnostikoak eta gizarteratze-hitzarmenak egiteko eta zailtasunak dituzten pertsonen (Euskal Babes Sistemaren prestazioen hartzaile izanik) gizarteratzea eta laneratzea sustatzeko baterako proiektu-ibilbideak lantzeko”.

Ildo berean, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko 18/2008 Legeak bere 83. artikuluan honako hau ezartzen du: “Gizarteratze-arloan esku hartzeko irizpideak homogeneousak izango direla bermatzearen, euskal administrazio publikoek tresna komunak erabiliko dituzte balorazioak eta diagnostikoak egiteko, baita esku-hartze pertsonalizatueterako ere”.

Legeak honako hau gehitzen dio: “Horretarako, euskal administrazio publikoek “Diagnostikoa eta Esku-hartze soziala” izeneko lanabes informatikoa erabiliko dute hau guztia egiteko: beharritanean buruzko informazioa jasotzeko, beren lurralde-eremuan diagnostiko sozialak egiteko eta banakako diagnostikoak eta gizarteratzeko ibilbide pertsonalizatuak egiteko. Aukeran izango dute beste baliabide tekniko balioetsi batzuk ere erabiltzea, informazioa elkarri helarazten eta datuak konparatzen errazteko”.

kudeaketa-aplikazio propioak sortu eta garatu dituzte, normalean garestiak, oso sendotuak eta askotan, aurrekoekin bateraezinak.

Horren guztiaren ondorioz, gaur egun:

- Ez dago programa edo aplikazio komunik Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egiten duten jarduerari buruzko oinarrizko datuak modu homogeneoan bete eta ustiatzeko aukera ematen duenik.
- Kasu askotan, oinarrizko gizarte-unitateek bi aldiz sartu behar izaten dute informazio bera aplikazio desberdinetan, erabiltzen dituzten aplikatiboek jasotzen duten informazioa partekatzeke zailtasunak dituztelako.

Testuinguru horretan, legearen 79. artikulua honako hau ezartzen du: “Eusko Jaurlaritzak, GZIESaren abian jartzea, iraunaraztea eta eguneratze etengabekoa diseinatuko eta bermatuko ditu, datuen iraulketa etengabekorako beharrezko diren sare eta gailu informatiko eta telematikoen egituratzearen bidez”.

Ez daiteke esan informazioko sistema komun bat ezartzeko egindako ahaleginek aurreikusitako emaitza guztiak eman dituztenik baina esan daiteke sistema hori behin betiko ezartzeko oinarriak jarri direla.

Ildo horretan, honako hau nabarmendu behar da: Gizarte Zerbitzuen eremuan esku hartzen duten administrazio desberdinek dituzten informazio-sistemak integratzeko eredu bat diseinatu da eta eredu horren funtzionamendu-prototipo bat martxan jarri da.

Horri dagokionez, baliabideak kudeatzeko tresna propioa izan baduten udalerriei GZIESan sartzeko moduak ahalbidetu beharko litzaizkieke.

Bestalde, Katalogoko eta Zorroko zerbitzu eta prestazio ekonomikoen bilakaerari buruzko oinarrizko informazioa –sinplea eta aldizkakoa– izatea funtsezkoa da. Eta, horretarako, bi aukera daude:

- inbentarioa egiteko, GZGEE eta GPI horietan oinarrituta diseinatutako azpi-operazio estatistikoarekin jarraitzea, baina sinplifikatuta;
- beste sistema bat diseinatzea, errazagoa eta arinagoa, iraulitako informazio guztia GZEOa osatzen duten erakunde guztientzat eskuragarri egongo dela bermatuko duela.

Edonola ere, bi kasuetan informazioak GZEOa osatzen duten erakunde guztientzat denbora errealean eskuragarri egon behar duela proposatu da (beraz, lehenengo aukera hautatuz gero, azpi-operazioa sekretu estatistikoari ez zaiola atxikitzen bermatu beharko litzateke), eta erantzukizun publikoko zerbitzuei –publiko nahiz pribatu– buruzko informazioa zerbitzu horiek emateaz arduratzen diren administrazio publikoek bildu eta eskaini beharko dutela.

2.5.2.3 Kalitatearen ebaluazioa eta etengabeko hobekuntza sustatzea

Adierazleen sistema komunetan aurrera egin behar da, zerbitzuen kalitatea, eraginkortasuna eta efizientzia neurtzeko aukera ez ezik, datu horiek herritarren artean erraz eta eskuratzeko moduan hedatzeko aukera ere emango baitigute, hobetzeko helburuak zehazteko lagungarri izanik.

Kalitate-estandar partekatuak ezartzen badira, GZESaren egituraketan aurrera egin ahal izango dugu, eta Euskadi osoan tratu ekitatiboa eta antzeko kalitateko arreta jasoko dugula bermatuko da, arreta-eredu komunitarioarekin eta beste hainbat erreferentziarekin –Europar Batasunaren Gizarte Babeserako Batzordearen “gizarte-zerbitzuen borondatezko kalitate-esparru europarra”, edo 2013. urtean Autonomia eta Mendetasunaren Arretarako Sistemaren eta Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseiluak onartutako “gizarte-zerbitzuen kalitateari eta erabilera egokiari buruzko irizpide komunak” – koherente izanik.

Bestalde, legearen 77. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz, Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokiak gizarte-zerbitzuen kalitatea bermatzeko eta hobetzeko beharrezko diren neurriak sustatzeko xedea du, eta horretarako, honako eginkizun hauek garatu behar ditu:

- a) Ebaluazioko prozesu egiaztatuen eta kalitatearen etengabeko hobekuntzako metodoen aplikazioa sustatzea, beharrezko gogobetetzean eta zerbitzuen funtzionamenduan, kudeaketan zein zuzeneko arretan, gertatzen diren disfuntzioak edo defizitak zehazten laguntzeko; betiere gai honetan lortutako emaitzen aitortpen publikorako formulak eta bideak ezarri ahal izango dira.
- b) Eremu honetan garatzen diren jarduerak koordinatzea, emaitzen alderagarritasuna bermatzen duten ebaluazioko tresnen erabilera errazteko.
- c) Gizarte-zerbitzuetako profesionalak, eta bereziki zerbitzuetan eta zentroetan lan egiten dutenak, beren praktika profesionalak duen alderdi etiko eta bioetikoari dagokionez sensibilizatzea. Hartarako, prestakuntza-programak eta ikerketa-ekimenak sustatu daitezke, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoan ari diren etika-batzordeen jardunetik ondorioztatutako gomendioak eta jokaerazko jarraibideak jakinarazteko eta hedatzeko bideak ere.
- d) Gizarte-zerbitzuen eremuko ikerketako jardunbideak garatzea, Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan ezartzen diren lehenetsuen esparruan, eta arreta berezia eskaintzea gizarte-aldaketak eragiten dituzten kausa eta faktoreen azterketari, beharrezko detekzioari eta eskariaren analisiari, plangintzako xedeekin, bai eta zerbitzuak aztertzeari ere, arretaren kudeaketa kostu eta kalitateari dagokienez, zerbitzuon etengabeko hobekuntza sustatzeko eta zerbitzuon garapena eta bilakaera bideratzeko.

Plan hau ebaluatu eta hurrengo egiten delarik, Behatokiak gai horiei guztiei buruzko nahikoa input izan beharko lituzke.

Bestalde, GZEKri dagokionez:

<<Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren ustez, zerikusia duten erakunde publikoek eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren parte hartzen duten eragile guztiek kalitate-adierazle komun eta partekatutako garatu eta aplikatu behar dituzte, eta herritarrei eskuragarri jarri, gure gizarte-zerbitzuak ebaluatzeko eta ikuskatzeko, eta beren ikuskapen-zerbitzuak eta barruko ebaluazio-taldeak indartu, gizarte-zerbitzuen jarraipena egiteko eta haiek hobetzeko ezinbesteko tresna diren aldetik>>.

Eta <<adierazi nahi du parte hartzen duten eragile guztiek beren esku-hartzeen eta ekimenen zehaztasuna hobetzen jarraitu behako luketela, beren egokitasuna, eraginkortasuna eta eragina ebaluatzeko tresna eta prozesu gehiago txertatuz, prestaziorik, programarik eta zerbitzurik egokienak aukeratu, garatu, ezarri eta zabaltzeko, baliabideak ahalik eta ondoen erabiltzeko eta herritarrengan ahalik eta ondorio gehien eta ahalik eta onenak lortzeko>>.

2.5.2.4 Gizarte-zerbitzuetan ikerketa, I+G+Ba eta jakintzaren kudeaketa sustatzea

Euskal administrazio publikoek hainbat eremutan –esaterako Gazteriaren, Immigrazioaren edo Droga-mendetasunaren eremuetan– badituzte azterketako eta prospekzioko sistemak, hain zuzen ere, eremu horietan agertzen diren datu eta joerak aztertzeko eta interpretatzeko.

Gizarte Zerbitzuen eremuan ere urratsak egin dira errealitatearen eta bere bilakaeraren azterketarekin zerikusia duten tresna komunak sartzeko, besteak beste, premien partekatutako diagnostikoa izatea eta epe ertain eta luzera sistemaren garapena planifikatzea ahalbidetuko dutenak. Horri dagokionez, Ikuspegi@k behatokiaren sarea nabarmendu nahi dugu; GZEB sare horretako kide da.

Legearen 77. artikulua arabera, GZEBaren eginkizun izango da, halaber, “Gizarte-zerbitzuen eremuko ikerketako jardunbideak garatzea” (ikus aurreko atala).

Bestalde, Sailaren Estatistika Organoak bere gain hartuta dituen edo hartuko dituen operazio estatistikoei buruz esan duguna aintzat hartu behar da: GZGEE, la GPI eta Gizarte Zerbitzuen Eskariaren Estatistika (GZEE). Halaber, unibertsitate-esparruarekiko lankidetzaren bultzatu behar da.

Eta, azkenik, Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiak eta udalak ikerketaren edo errealitatearen azterketaren arloan egiten dituzten ekintzak, bai eta berrikuntzakoak –esperientzia pilotuak sustatuta– eta jakintza kudeatzekoak ere.

Zehazki, Eusko Jaurlaritzak eta EAEko gainerako administrazio publikoek proiektu esperimentalak egitearen alde egin izan dute gizarte-zerbitzuen eremuan, bai eta zerbitzuak estandarizatzearen eta esku-hartzeko, jardunbide egokien eta abarren ereduak definitu eta ezartzearen alde ere.

Zalantzarik gabe, lehenik, ahalegin horiek ezagutarazi beharko liriteke, eta emaitzak GZESaren barruan bertan gizarteratu; hartara, sistemaren eraginkortasuna areagotzeko ere lagungarri ere izango litzateke.

2.5.2.5 Prestakuntza sustatzea

Gizarte-zerbitzuen eremuan, prestakuntza-eskaintza zabal eta sistematikorik ez dagoela esan dezakegu, batik bat, profesionalen etengabeko prestakuntzari dagokionez.

Eta, ildo beretik, ahal dela, erantzukizun publikoko gizarte-zerbitzuak ematen parte hartzen duten sektore publikoko nahiz pribatuko profesionali zuzendutako eskaintza indartu behar da; horretarako, prestakuntza-premien diagnostikoa egin beharko da, eta GZES osorako prestakuntza-plan bat prestatu, profesionalen prestakuntzan parte hartzen duten askotariko agenteekin eta, bereziki, Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzan garatua beharrekoa, legean aurreikusitakoari jarraikiz.

Legearen 78. artikuluan xedatzen denez, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioak elkarren artean koordinatuko dira, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari esku hartzen duten eragile eta profesionalen prestakuntza sustatzeko eta planifikatzeko. Eusko Jaurlaritzak, bereziki, bere gain hartuko ditu sarrerako irizpideen eta tresna erkideen interpretazioari eta aplikazioari lotutako prestakuntza-ekintzen kudeaketa.⁴¹

Era berean, legean honako hau xedatzen da:

- Gizarte-zerbitzuetako prestakuntza, zerbitzuon eskaintzan diharduten profesionalen gaikuntza hobetzera eta egokitzera zuzenduko da, profesional horien ezagutzak, ahalmenak eta gaitasunak indartuz, gizarte-laguntzaren kalitatea, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko.
- Bereziki, honako hau zainduko da: gizarte-zerbitzuetan esku hartzen duten langile guztien prestakuntza oinarrizko, mailakatu eta iraunkorrerako neurriak hartzea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan.
- Eusko Jaurlaritzak zehaztuko ditu Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa aplikatzeko beharrezko diren jarduera profesionalak gauzatzeko egokienak diren gaikuntza profesionalak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek, Lanbide Heziketan Gaitasuna eta Kalitatea Ebaluatzeko Euskal Agentziarekin edo erabakitzen den beste organo batekin lankidetzan eta koordinazioan arituz, beharrezko diren neurriak eta bideak hartuko dituzte, laguntzeko sare informal eta soziofamiliarretik arreta egiteko eginkizunetan lortutako gaitasunak errekonozitzea faboratzeko, Kualifikazio Profesionalen Sistemari eremu horretarako definitutako kualifikazio profesionaletara iristea erraztuz.

2.5.2.6 GZESa gizartean gehiago ezagutaraztea eta GZESari buruzko jakintza areagotzea

GZESaren kudeaketarekin lotura duen azken gai bat aipatu nahi genuke: **GZESak gizartean ikusgaitasun txikia du, sistema autonomo den aldetik, eta biztanleriak, oro har, ez du sistemaren berri.**

⁴¹ Ildo beretik, zentzuzkoa dirudi esku hartzeko oinarrizko prozedurarekin, kasuaren koordinazioarekin eta lagun egite sozialarekin lotutako prestakuntza-ekintzak ere sustatzea, ekintza horiek lehen eta bigarren mailako arretako sektore publikoko nahiz pribatuko profesionalak parteka ditzaketen aldetik, eta arreta berezia emanda erabiltzaileei, behar izanez gero, bizi osoan zehar arreta jarraitua eskaintzen dieten erakundeei.

- Pentsa daiteke -nahiz eta horri buruzko daturik ez izan- gizarte-zerbitzuak ez direla herritarren aldetik sistema bakarra, koherentea eta argi mugatua bezala hautematen baizik eta askotariko erakunde publikoek eskainitako zerbitzu eta prestazioen nahasketa baten moduan.
- Ildo beretik, legearen 81. artikuluan ikur bereizgarri komuna prestatzea aurreikusten da - oraindik ez da prestatu-, bai eta GZESko kidetasuna adierazteko prozedura bat ere, sistemaren irudia sendotzen laguntzeko eta biztanleriak oro har sistema hori badagoela jakin dezan sustatzeko.
- Baliteke oinarrizko gizarte-zerbitzuei buruz ere gauza handirik ez jakitea, edo oinarrizko gizarte-unitateei buruz, zerbitzuak eskuratzeko ate diren aldetik, ez eta sistemak zer kontingentzia estaltzen dituen, zer zerbitzu eta prestazio ekonomiko eskaintzen dituen, zerbitzu eta prestazio horiek eskuratzeko zer baldintza bete behar diren, erabiltzaileek eta profesionalak zer eskubide eta betebeharrak dituzten... ere.

Horri dagokionez, GZEKk, besteak beste, honako alderdi hauek nabarmendu ditu: GZESA herritar guztiei zuzenduta dagoela jakinarazteko eta ikusarazteko premia; herritar guztiak dira gizarte-politiken eta -zerbitzuen onuradun, eta aktiboki parte hartzen dute; eta zerbitzu publikoen erabilera egokia egiteko eta guztion artean eusteko konpromiso zibikoa hartzeko premia.

Bestalde, aipatu diren gainerako gaiei dagokienez, jakintzaren kudeaketaren (prestakuntza, ikerketa, garapena eta berrikuntza) alde egitea gomendatzen du, honako baldintza hauetan:

<<Gizarte-zerbitzuetan eta gizarte-zerbitzuetatik gizartean egiten den esku-hartzeak eskuragarri dauden ebidentzietan oinarrituta egon behar du gero eta gehiago, kontuan hartu behar ditu erreferentziako komunitate zientifiko eta teknikoak ikasitako eta adierazitako jardunbide eta ikasbide onenak, eta etengabeko prestakuntza nahiz ikerketa, garapena eta berrikuntza sustatu behar ditu.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluak erabiltzaileei balio erantsi tekniko eta profesional handiko jarduerak sortzen eta ematen jarraitzea animatzen ditu gizarte-zerbitzuetako profesionalak (jarduera horiek diagnostikorako eta preskripziorako gaitasunean oinarrituta daude, eta bateragarriak dira erabiltzaileen autonomiarekin, parte-hartzearekin eta aukeratzeko gaitasunarekin), herritarrek gero eta gehiago balioets ditzaten.

Horregatik, erakunde eskudunei eta oro har parte hartzen duten eragile guztiei eskatu nahi diegu prestakuntzaren eta oro har ezagutzaren kudeaketaren aldeko apustu bat egiteko elkarrekin sektorean, hobeto uztartuz gizarte-zerbitzuen alorrean orain arteko ekimenak eta prestakuntzaren, ikerketaren, garapenaren eta berrikuntzaren eremuko ekimen berriak. Horretarako, ezinbestekoa da gizarte-zerbitzuak eta hezkuntzaren eta enpleguaren alorreko zerbitzuak elkarrekin harremanetan eta koordinatuta egotea, bereziki erdi-mailako eta goi-mailako lanbide-heziketan, profesionaltasun-zurtagirietan eta gaitasunaren aitortzean, prestakuntza-eskaintza gero eta zabalagoa izateko eta gero eta egokituago egoteko gizarte-zerbitzuen errealitate eta gaur egun horretan diharduten eta etorkizunean jardungo duten langileetara.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluak azpimarratu nahi du oso garrantzitsua dela berrikuntza sustatzea, jardunbide egokien identifikazioaren eta transferentziaren bidez, balioa emanez arrakasta izan duten esperientziei.

Uste dugu, bestalde, ezagutzaren kudeaketa lagungarria izan daitekeela, politiken diseinurako eta erakundearen arteko koordinaziorako beste neurri batzuekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-zerbitzuen eredu komun eta partekatutako bat eraikitze eta garatzeko. Gizarte-zerbitzuen alorrean lan egiten duten profesionalen motibazioa eta poztasuna hobetzeko aukera ematen duen beharrezko estrategiaren zati da, gainera.

Era beran, Kontseiluak, unibertsitatearen edo beste eragile batzuen laguntzarekin, inbertsioaren itzulkin ekonomiko eta soziala ikertzen, ikusarazten eta hobetzen jarraitzea nahi du, eta, oro har, gizarte-zerbitzuen alorrean erabiltzen diren baliabideen itzulkina ikertzen, ikusarazten eta hobetzen>>.

2.5.2.7. Ekimen pribatuaren -irabazi-asmoarekin edo gabe- zeregina sendotzea eta argitzea

Legearen 60. artikuluan xedatzen denez, ekimen pribatuak GZESaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko zerbitzuen eskaintza antolatu ahal izango du, formula jakin batzuen bidez.

Eta esanbidez dio Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioak, koordinazioko eta lankidetzako, gizarte-ekimenaren sustapeneko eta baliabideen aprobetxamendu osoko, arrazional eta eraginkorreko printzipioak aplikatuz, egoki gertatzen denetan, gizarte-ekimen pribatuak garatzen dituen gaitasunak eta baliabideak aprobetxatzen ahaleginduko direla, Katalogoko prestazio eta zerbitzuen horniketa ziurtatzeko asmoz.

Gaur egun, erakunde pribatuak gizarte-zerbitzuen eremuan duten partaidetza honako funtsezko elementu hauek definitzen dute:

Ekimen pribatu sozialaren presentzia historikoa eta merkataritza-erakunde pribatuen azkenaldiko presentzia areagotzea eremu jakin batzuetan

Hirugarren sektore sozialeko erakundeek abiarazi dituzte denboraren poderioz erantzukizun publikoko gizarte-zerbitzutzat finkatzen ari diren zerbitzu gehienak, eta egia esateko, desgaitasuna dutenei, bazterkeria-egoeran daudenei eta babesgabetasun-egoeran daudenei arreta emateko sareak, hein handi batean, administrazio publikoen eta ekimen pribatu sozialaren arteko lankidetzaren bitartez eratu dira; ekimen pribatu sozial horrek ere presentzia historiko garrantzitsua du adinekoen arretaren eremuan.

Alabaina, urte gutxitan, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen eremuan irabazi-asmoa duten erakunde pribatuen presentziaren areagotze nabaria ikusi da, bereziki, adinekoak artatzen dituzten zerbitzuen eremuan. Gertakari horrek ez du arretaren kalitatea murriztuko denik pentsarazten, baina ez luke arlo publikoaren bermeak eta irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimenaren balio erantsiak protagonismoa galtzen duten eredu bat arriskuan jarri behar.

Era berean, GZEKren Txostenari jarraikiz gogoratu behar da euskal biztanleriaren gehiengoak gizarte-zerbitzuen kudeaketa publikoaren aldekoa dela. Horren guztiaren ondorioz, kudeaketa publikoaren eta irabazi-asmorik gabeko ekimen sozialaren balio erantsia aintzatetsiko duten estrategiak garatu behar dira; horretaz gain, estrategia horien bitartez irabazi-asmoa duten erakunde pribatuak gizarte-zerbitzuak ematen parte hartzeko aukera ekimen publikoaren eta pribatu sozialaren nagusitasunarekin uztartu beharko litzateke, araudi orokorrean eta sektorial aurreikusitakoarekin koherente izatearren.

Sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren eremuan aukera berriak irekitzea, ekimen pribatu soziala gailen dela

Legeak erakunde pribatuak Katalogoko zerbitzuen horniduran parte hartzeari atea ireki zion, itun (sozialaren) araubidearen bidez -araubide hori ez dator bat administrazio publikoen kontratazio-araudian araututako kontratu bidezko itun-araubidearekin- eta horretara sarbidea izateko diskriminazio positiboko zenbait baldintza eta neurri ezartzen dira irabazi-asmorik gabeko izaera duten gizarte-zerbitzuak ematen dituzten erakundeen alde.

Bestalde, Katalogoko zerbitzuak emateko lankidetzaren hitzarmenen bidez formalizatzeko aukera ere bada, erakundearen jardura edo dagokion zerbitzuaren prestazioa berezia delako, urgentea edo berritzaile eta esperimental delako itun (sozialaren) erregimena aplikatzea komeni ez bada, eta horrela arrazoitzen bada.

Horri dagokionez, sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren hobetzeko hainbat ekintza biltzen dira planean, bai eta gizarte-zerbitzuen eremuan irabazi-asmorik gabeko zenbait erakundek egiten duten jardueraren berezitasuna aintzatezteko ekintzak ere; horretarako, sektore publikoak eta irabazi-asmorik gabeko sektore pribatuak lankidetzan jarduteko moduak (itun soziala, hitzarmenak eta lankidetzan aritzeko esparru-hitzarmenak) arautzen dituen araudia garatu da. Horretaz gain, Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Lege-proiektua

onartu du; besteak beste, sektore publikoaren eta hirugarren sektore sozialaren arteko lankidetzaren indartzea du xede, esku-hartze sozialaren hainbat eremutan, eta erantzukizun publikoko gizarte-zerbitzuak emateko eta interes orokorreko bestelako jarduerak egiteko lankidetzaren formula horiek eta beste batzuk garatzen ere lagundu nahi du.

Erakunde pribatuaren baliabidea kostuen euspenerako faktore gisa hartzeko arriskua

Aurreko ataletan agerian geratu da badagoela nolabaiteko arriskua irabazi-asmoa duen edo irabazi-asmorik gabeko ekimen pribatuaren baliabidea, funtsean, kostuei eusteko elementutzat hartzeko, eta horri dagokionez, zenbait irizpide eta neurriren bat ezarri dira Katalogoko zerbitzuen finantzaketa publikoa hobetzeko, bazterkeriaren eremuan.

Erantzukizun publikoko zerbitzuen eremuan sartzen ez diren interes orokorreko zenbait jardueraren finantziarioa murrizteko arriskua

Legearen 73. artikulua araber, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek Katalogoan sartuta ez dauden beste prestazio eta zerbitzuak eskuratzea sustatu eta/edo babestu ahal izango dute, bai eta gizarte-zerbitzuen eremuko beste jarduerak batzuk egin daitezkeen sustatzea ere, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen plangintza estrategikoak ezarritako jardunbide orokorretara egokitzen badira eta irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeek garatzen badituzte.

Alabaina, administrazio publikoek Katalogoko zerbitzu eta prestazioak hornitzera bideratu behar dituzten ahaleginak –ekonomikoak eta antolatetari dagozkionak–, arriskua sor daiteke; hain zuzen ere, administrazio publikoek erantzukizun publikoko zerbitzuak hornitzearekin loturarik ez duten interes orokorreko beste jarduerak batzuk sustatzeko ekintza gutxiago egiteko arriskua.

Horri dagokionez, administrazio publikoen eta kutxen gizarte-ekintzen laguntza-deialdiei ahalik eta gehien eusteaz gain, horrelako jarduerak babesteko eta sustatzeko mekanismo berriak abiarazi behar dira, dela sektore publikotik, dela irabazi-asmoa duen pribatutik, besteak beste, hirugarren sektore sozialeko erakundeek eta enpresen lankidetzaren (boluntariorik korporatiboa, babesletza eta mezenasgoa, proiektuak lankidetzan garatzea) sustatuta erantzukizun korporatiboko estrategien esparruan, betiere Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren lege-proiektuan aurreikusitakoari jarraikiz.

Irabazi-asmoa duen eta irabazi-asmorik gabeko ekimen pribatuaren zeregina sendotzea eta argitzeari dagokionez, GZESan Hirugarren Sektore Sozialaren parte-hartzea, maila guztietan, garrantzitsua izatea nahi du GZEKk; hirugarren sektore sozialeko erakundeek administrazio publikoen eta gizartearen, oro har, babes irmoa merezi dute, gizarte zibil antolatuen adierazpide, borondatezko ekintzaren bide eta esku-hartze sozialeko prozesuen sortzaile eta kudeatzaile diren aldetik.

Halaber, Kontseiluaren ustez Eusko Jaurlaritzak Legebiltzarrerara helarazi duen Hirugarren Sektore Sozialaren lege-proiektua funtsezko tresna da, beste xede eta helburuekin batera, hirugarren sektore sozialeko erakundeei ez ezik, erantzukizun publikoko sistemetan eta sistemen artean elkarreragiteko guneetan (soziosanitarioa, soziolaborala...) duten parte-hartzeari ere estatutua eta errekonozimendu juridikoa emateko, oro har, esku-hartze sozialaren eta, bereziki, gizarte-zerbitzuen eremuan.

2.5.2.8. Gizarte-babeseko bestelako sistemekiko koordinazioa hobetzea

Gizarte-zerbitzuen sistemak –beharbada gainerakoek baino gehiago– gizarte-babeseko sistemen sarean hartzen duen lekua dela-eta, gainerako sistemekin koordinatzeko harreman azkarrak ezartzea beharrezkoa du, hain zuzen pertsonen premiak modu koordinatuan eta integrean

jorratzea ahalbidetzeko. Izan ere, gizarte-zerbitzuetako profesionalentzat gainerako sistemekiko koordinazioaren gaia da GZESaren erronka nagusietako bat.

Hainbat sistemarekiko (hezkuntzako, judiziala...) harremanak oso garrantzitsuak dira baina ondoren aztertzen diren bi eremuekiko bereziki ezinbestekoa da eginkizunak mugatzea eta koordinazio-sistema eraginkorrak ezartzea.

Bestalde, eta oro har, sistemen arteko lankidetzaren eta koordinazioari bultzada emateko araudi soziala, soziosanitarioa eta soziolaborala garatzeko denborak uztartu egin behar dira.

GZESaren eta enpleguko eta diru-sarrerak bermatzeko sistemaren arteko koordinazio-harremanak

Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 1. artikulua bitartez *Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistema* sortzen da.

Eta zioen azalpenean sistema honela definitzen du: "sistema autonomo gisa, osotasun koherente eta integratu bat duela. Hainbat kudeaketa-formula egon daitezke; gaur egun gizarte-zerbitzuen eta enplegu-zerbitzuen barruan daude, baina aurrerantzean, egoki iritziz gero, beste jardun-eremu batzuetan sar litezke, osorik edo zati batean".

Geroago, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legea aldatzen duen azaroaren 24ko 4/2011 Legearen bitartez, Eusko Jaurlaritzak, bereziki Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bitartez, eskumenak eskuratuko ditu zuzenbidezko prestazio ekonomikoak, hau da, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzako prestazio osagarria, tramitatzeko eta ebazteko; eskumenak, baita, gizarteratze-hitzarmenak egiteko, proposatzeko, negoziatzeko, harpidetzeko eta horien jarraipena egiteko.

Diru-sarrerak bermatzeko sistemaren eta gizarte-zerbitzuen sistemaren artean beti izandako loturak eta diru-sarrerak bermatzeko prestazio ekonomiko horien hartzaileen zati handi batek premia ekonomikoaz gain gizarte-zerbitzuen sistemak estaltzen dituen gertakizunekin zerikusia duten premiak izateak agerian uzten dute sarean koordinatzeko eta lan egiteko bide eraginkorrak ezartzeko beharra dagoela.

Zalantzarik gabe, diru-sarrerak bermatzeko prestazio ekonomikoen kudeaketa gizarte-zerbitzuen sistematik bereizteko erakundeek egin duten aukera garrantzi handiko apustu estrategikoa da eta apustu horrek asko aldatu ditu praktika profesionalak, erabiltzaileen eta profesionalen arteko lotura eta GZESaren eginkizuna ulertzeko modua. Horren ildotik, pentsa daiteke GZESaren, enplegu-sistemaren eta diru-sarrerak bermatzeko sistemaren arteko mugak argitzeak honako hau ahalbidetu duela: pertsonen problematikak banaka jorratzean oinarritzea lehenengoan esku-hartzea, bai eta esku-hartze komunitarioan, eta partaidetza eta gizarteratzea sustatzean ere.

Nolanahi ere, aldaketa horrek honako hauetara behartzen du:

- Aktibazioko eredu eraginkor eta bidezkoa ezartzera, elkarrekikotasunaren, eskubide bikoitzaren eta gizarteratzeko erreminta gisa enpleguaren nagusitasunaren printzipioak kontuan hartzen dituen.
- Sistema bakoitzari dagozkion eginkizunak argitzera honako honetan: diru-sarrerak bermatzeko errenta edota laneratzeko laguntzaz gain batez ere gizarteratzeko laguntzak behar dituzten pertsonak artatzerakoan.
- Bi sistemen artean koordinatzeko bide eta protokolo egokiak ezartzera; esaterako, Lanbideren eta Udal Gizarte Zerbitzuen arteko lankidetzaprotokoloa.

Bestalde, GZEKk gizarte-zerbitzuen eta enpleguaren politikak eta sistemak hobeto eta gehiago koordinatzeko eskatzen die arduradun publikoei, bai eta bi sistemetarako garrantzitsua den informazioa elkarrekin kudeatzeko ere. Hartara, bazterkeria-arriskuan edo -egoeran dauden eta bi eremuetako laguntza jasotzeko beharra duten pertsonak gizarteratzeko bideak jarriko eta erraztuko dira, pertsona horiek diru-sarrerak bermatzeko sistemaren laguntzak jasotzen dituzten ala ez kontuan hartu gabe, eta ez da GZESaren laguntza behar duen pertsonarik geratuko laguntza hori jaso gabe informazio faltagatik edo harremanetan jartzeko zailtasunengatik.

Gizarte-zerbitzuen eta enpleguaren arteko koordinazioaren esparru horretan, GZEKk koordinazioa protokolizatzen eta hobetzen jarraitzea animatzen ditu profesionalak. Horretarako, tresnen arteko sinergiak bilatu beharko dituzte (diru-sarrerak bermatzeko prestazioak, enplegu-politika aktiboak, gizarte-laguntza, esku-hartze komunitarioa...), eta proaktibitatea eta profesionalen arteko lankidetzaren sustatu, pertsona guztiak –emakume nahiz gizon– gizarte- eta ekonomia-sarera aktiboki eta parte hartuz gehitzea bultzatuta; gizarte- eta ekonomia-sare hori indartzea ekarriko du horrek. Era berean, Kontseiluak erakunde arduradunei eskatzen die, bereizita dauden eta kolektibo homogeneoentzako espezifikoak diren horrenbeste arreta eman beharrean, gero eta arreta-aukera barne-hartzaile eta arrunt gehiago eskaintzeko baldintzak sustatzeko, gizartean dugun aniztasuna aurki dezaten han ere.

Eremu soziosanitarioa eraikitzea

Eremu soziosanitarioaren egoerari buruz EAEn egindako azterketek agerian utzi dute zer neurritaraino oraindik gutxi garatutako eremua den hori; izan ere, oso zaila egiten da ekintza eta hobekuntza zehatzetan gauzatzea sumatzen diren koordinazio- eta integrazio-premiak.

Eremu hori garatzeko beharra aho batez onartzen den arren, ez da egon eremuaren eraketari buruzko eredu partekaturik, ez eta hori lortzeko formulei buruzko adostasunik ere.

Alabaina, eremu soziosanitario sendo bat eraikitzea funtsezko lehentasun da GZESarentzat eta osasun-sistemarentzat, betiere mendetasun-egoeran edo -arriskuan daudenen bilakaera demografikoa eta aurreikus daitekeen gorakada ez ezik, lankidetzaren indartzeko premia ere aintzat hartuta, besteak beste, babesgabetasun-egoeran egonik osasun mentaleko arazoak dituzten adingabeen edo bazterkeria-egoeran egonik gaixotasun mental larria duten adinekoen arreta goiztiarra edo arreta hobetzeko.

Eremu hori sustatzea premiazkotzat gero eta gehiago jotzen denez, azkenaldian, hainbat neurri hartu dira; hala nola:

- Gobernu Kontseiluak 69/2011 Dekretua, apirilaren 5koa, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluarena onartzea, bai eta Euskadiko arreta soziosanitarioaren eredu eta arreta goiztiarreko eredu garatzeko jarraibideak finkatzen dituen esparru-dokumentua ere;
- Foru Aldundien eta Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuaren artean lankidetzaren hitzarmenak sinatzea, hainbat zentrori dagokionez;
- tele-laguntza arreta soziosanitarioko zerbitzutzat hartzea eta dimentsionatzea;
- berrikuntza eta jakintza sustatzea, eremu horretan, hainbat ekimenen bitartez (Euskadiko Berrikuntza Soziosanitarioko Fundazioa, arreta etxean emateko esperientzia pilotuak...) eta abar.

Hortaz, aurrerapen gero eta handiagoak egiten ari gara, zailtasunak zailtasun, bai eremuaren definizioan, bai zerbitzuak finantzatzeko eta kudeatzeko lankidetzarako formulei dagokienez.

Nolanahi ere, prozesu horretan aurrera egiten jarraitu behar dugu, eta koordinazio soziosanitarioko egituren funtzionamendua dinamikoagoa eta eraginkorragoa izateko neurriak hartu behar ditugu; horretarako, ziurrenik, autonomia handiagoa eman beharko diegu, bai eta aurrekontu propioa ere, ikerketarako eta esperientzia pilotuak abiarazteko.

Halaber, zerbitzuen antolaketan ere formula berriak arbitratu beharko dira, bai eta premien baterako balioespenera eta ondo artikulatutako zainketa sozial eta sanitarioen paketeen diseinura bideratutako diziplinarteko lana sustatu ere.

Horretarako funtsezkoa da erakunde publikoetatik konpromiso profesionala sustatzea eta maila guztietan –autonomikoa eta forala baina baita udal-arlokoa ere– konpromiso politikoa hartzea, hain zuzen ere, diskurtsotik haratago, bi sistemek bat egiten duten eremuan kokatzeagatik behar bezala artatu gabe geratzeko arriskua duen jardun-espazio bati estaldura emateko.

Azken batean, tartean sartutako erakundeen artean lankidetzaren handiagoko etapa berri baten hasieran gaude, eta lau ardatzetan oinarritutako jardun adostuak bultzatzea ahalbidetu beharko da:

1. Mendetasun-arriskuan edo -egoeran daudenei begirako helburu eta xede komunak zehaztea, gizarte-zerbitzuek eta osasun-zerbitzuek elkarrekin jardunda eremu soziosanitarioaren xedearen eta ikuspegiaren definizio partekatua izanik abiapuntu.
2. Eremu soziosanitarioaren zerbitzu eta baliabideen zorroa zehaztea, beharrezko sinergiak baliatuta eta indartuta, bai eta zainketak emateko ereduak –etxean, eguneko zentroetan, egonaldi ertain eta luzeko ospitaleetan– ere, eta komunikazio soziosanitarioko plana abiaraztea, eremu soziosanitarioaren eta elkarrekiko gaitasunen jakintza partekatzea ahalbidetzeko.
3. Sektore, erakunde eta elkarten artean akordioak sinatzea, arreta soziosanitarioari dagozkion erabakiak homogeneizatzea ahalbidetuko diguten tresnak lantzeko oinarri diren aldetik; hartara, ekitatean aurrera egingo dugu zerbitzuak emateari dagokionez. Ildo beretik, interakzioa ahalbidetzeko, informazio-sistemen integrazioa hobetu behar da mendetasun-egoeran daudenen arreta hobetzeko beharrezkoa den informazioa partekatu ahal izateko; horretarako, informazio-sistema kliniko bakarra partekatu beharko da eremu soziosanitarioko lankidetzaren ikuspegitik begiratuta beharrezkoa den guztian.
4. Profesionalak elkarren artean konektatzeko eremuak hedatzea.⁴²

Bestalde, GZEkren gomendioen artean, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluan koordinazio eta integrazio soziosanitariorako adostutako ildo estrategikoak ezartzea babesten eta sustatzen du, eta eremu horretan aurrera egiteko eskatzen die eragile arduradunei. Zehazki, honako eskaera hauek egiten dizkie:

- Soziosanitariotzat jotzen diren zerbitzuen **finantzaketaren** identifikazioa eta diseinua hobetzea, bai osasun-sistemaren barruan daudenean, bai eta gizarte-zerbitzuen barruan daudenean ere. Izan daitezke egoitzak eta ospitaleak, edota izaera birtualeko zerbitzuak, etxeko zerbitzuak, egunekoak, gauekoak...
- Zerbitzu soziosanitarioen **zorroa** jasotzen duen dekretua onartzea.

⁴² GZESaren eta herritar guztien bizi-kalitatea eta gizarte-ongizatea hobetzera bideratutako erantzukizun publikoko beste sistema batzuen arteko gainerako konexio-eremuei dagokienez, lau alderdi horiek berak landu beharko liriateke, intentsitate eta ordena desberdinekin eremu bakoitzaren helzte-mailaren arabera, eta guzti-guztietan zorro bateratua lortzeko aurrera egin behar izan gabe.

- Osasun-zerbitzuen eta gizarte-zerbitzuen arteko koordinazio-**protokoloak** ikusaraztea eta haien arteko loturak handitzea zenbait eskalatan, pertsonen ahalduzera, aukeratzeko gaitasunera (medikuak agindutakoarekin bat etorritik betiere), ibilbideak erraztera eta erabiltzailea ardatz duen arretara bideratutako ikuspegi batekin.
- **Lehen mailako arreta soziosanitarioko** taldeen eta **kasu soziosanitarioak kudeatzen** dituzten taldeen esperientzia pilotuak bultzatzea, bi sistemetako edozeinetan diharduten erreferentziazko profesionalekin.
- **Ikuspegi etiko-asistentziala** garatzea eremu soziosanitarioan.
- Eragile publiko eta pribatu guztiek **akordio soziosanitarioetan** eta koordinazio soziosanitarioan, oro har, parte har dezaten sustatzea, betiere hirugarren sektoreko erakundeak gizartearen eta erakundeen funtsezko indartzat eta lehentasuneko bazkide estrategikotzat hartuta.
- **Izaera soziosanitarioa duen banakako nahiz gehitutako informazioa elkarrekin kudeatzen** jarraitzea, aurrera eginez, besteak beste, historia soziosanitario partekatu bat sortzen eta erabiltzen, oso tresna garrantzitsua baita.
- **Jomuga-kolektibo espezifikoeetan esku hartzeko planak** egitea, martxan jartzea eta ebaluatzea, kolektibo horiek ordezkatzeko dituzten hirugarren sektoreko erakundearen parte hartzearekin.
- **Ikerketa, garapena eta berrikuntza** bultzatzea, bai eta eremu soziosanitarioan ezagutza truka dadin ere.

Horretaz gain, honako hau eskatzen die osasunaren eta gizarte-zerbitzuen alorreko sistemetan eskumena duten administrazio publikoei: bakoitzari zer prestazio **finantzatzea dagokion argitzen joatea** pixkanaka, legearen 56.3 artikulua ezarritakoari jarraituz.

Horri dagokionez, memoria ekonomikoaren arabera, GZESaren zentroetako plaza soziosanitarioen eta prestazio ekonomikoaren finantzaketa Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailari dagokio.

Bukatzeko, Kontseiluak azpimarratu du beharrezkoa dela gizarte-zerbitzuen, osasun-zerbitzuen eta etxebizitza-, hirigintza- eta garraio-politiken arteko koordinazioarekin jarraitzea eta aurrera egitea (aukera-berdintasunaren eta aniztasunaren kudeaketaren zeharkako ikuspegiarekin), pertsonak eta familiek beren eguneroko bizitzarako behar dituzten laguntzak eskaintzen dituzten **ingurune atseginak** jarritz, birgaituz, egokituz, antolatuz eta emanez, oso kontuan hartuta zahartze-fenomenoa eta kronikotasun-fenomenoa, eta pertsona ardatz duen arreta osoa emanez komunitate-ikuspegiarekin (eta, ahal bada, bizilekuan).

2.6. LABURPEN GISA

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea hazkunde ekonomikoko etapa luze baten azken fasean onartu zen; hazkunde horri esker, bi hamarkadatan, GZESa erantzukizun publikoko sistema sendo eta hedadura handiko moduan eratu zen, eta ezohiko moduan hazi zen artatutako biztanleriari dagokionez, nahiz okupatutako langileei dagokienez; izan ere, Euskadiko gizarte-babeseko laugarren zutabe izatera heldu da.

Prozesu horren ondorioz Legea onartu egin zen, GZESaren katalogoan bildutako zerbitzu eta prestazio ekonomikoen eskubidea perfektionatu eta, horretarako, GZESa bera sendotzeko. Baina legea memoria ekonomikorik gabe onartu zen, eta geroko krisialdiaren eraginez, aldi berean, gizarte-zerbitzuen arloko premia areagotu eta administrazio publikoek premia horiei eta beste batzuei aurre egiteko dituzten baliabide ekonomikoak murriztu egin dira.

Egoera berri honetan, eta salbuespenak salbuespen, GZESaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoak hedatzeko ahaleginari eutsi egin zaio eta, oro har, zerbitzu eta prestazio horietan egindako gastuari ere bai, baina hurbileneko zerbitzuen proportzioak behera egin du beste zerbitzuen aldean, etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren intentsitatea, baita estaldura ere, murriztu egin da, eta egonkortu gabekotzat jotako zerbitzuei (berriak edo gutxi garatutakoak) dagokienez, gutxi aurreratu da.

Dena dela, zerbitzu horiek guztiak indartu beharrekoak dira, arreta-eredu komunitarioarekin koherente izan nahi bada, legearen aurreikuspenei eta bestelako erreferentzia garrantzitsuei –hala nola, *Gizarte-zerbitzuen borondatezko kalitate-esparru europarra*– jarraikiz; halaber, gizarte-zerbitzuen premia eta eskaria epe ertain eta luzean baldintzatuko duten faktore garrantzitsuei erantzuteko ere garrantzitsuak dira, eta zehazki, mendetasun-egoeran edo -arriskuan daudenen gorakadari, eta laguntza formalaren eta informalaren artean dagoen oreka ahulean gertatzea espero diren aldaketei aurre egiteko.

Alderdi horiek guztiak aintzat hartuta, euskal administrazio publikoek:

1. Alde batetik, gutxieneko estaldurak eta intentsitateak eta, ahal den heinean, mapan aurreikusitako goiko mailak bermatzeko egiten ari garen ahalegina areagotu behar dugu, gutxienez administrazio publikoetako diru-sarreretan gorakada nahikoa eta etengabea gertatzen den arte.

Horren arabera, 2017an gastu korrante publikoa 155.501.594 milioi eurotik (gutxieneko maila) 164.775.439 milioi eurora (goiko maila) bitarte areagotuko dela 2011koarekin alderatuta, I. mailara zabaltzearen eta bateragarritasun-araubidea garatzearen ondoriozko gorakada barnean hartuta.

2. Eta beste alde batetik, ahaleginak Katalogoko eta Zorroko zerbitzu eta prestazioetan metatu behar ditugu, eta baliabideen erabileran ahalik eta eraginkortasun eta efizientzia handiena lortzea izan behar dugu xede, lehendik dauden baliabide guztiak aprobetxatuzetik hasita.

Era berean, honako hauek ezinbesteko iruditzen zaizkigu:

- gainerako kontingentziak alde batera utzi gabe, arreta berezia eskaini behar diogula, epe motz-ertainean, krisiaren ondorioz bazterkeriaren eremuko premietan izan den gorakadari; krisi horren ondorio sozialek luze joko dute, gutxienez, susperraldi ekonomikoa zertxobait egonkortzen den unea baino haratago;

- eta epe ertain-luzean, kontuan har dezagun mendetasun-egoeran daudenen eta haien zaintzaile informaleen laguntza-premiak arian-arian areagotu egingo direla, bai eta lehen mailako arreta eta prebentzioko-sustapeneko ikuspegia indartu beharko direla ere, batik bat -baina ez hori bakarrik-, mendetasun-egoeren prebentzioari eta autonomia sustatzeari dagokienez.

Hori guztia erabiltzaileen eskubideak benetan baliatzeko aukera eta arretaren kalitatea bermatzearren, eta testuinguru sozialak epe ertain eta luzean pertsonen eta familien egoeran eta GZESaren nahiz gizarte-babeseko beste sistema batzuen zerbitzu eta prestazioen premian izan dezakeen eragina saihestearren; gainera, ez dugu ahaztu behar eredu komunitarioa ez dela askorik indartu, eta, bereziki, prebentzioko eta autonomiaz gizarteratzea sustatzeko estrategiak ere.

Eta jakin badakigu, halaber, gizarte-zerbitzuak jarduera ekonomikoaren eremu garrantzitsua direla, eta itzulkinak biderkatu egiten dituztela, honako hauei dagokienez: a) hartzaileen bizi-kalitatea; b) mendetasunaren, bazterkeriaren... prebentzioa..., eta autonomia eta gizarteratzea sustatzea; c) enplegua sortzea (langileen aldetik zerbitzu intentsiboak dira, eta enplegu-aukerak sortzen dituzte laneratzeko zailtasun handienak izaten dituzten kolektiboentzat); d) hazkunde ekonomikoa (BPGari egindako ekarpena); e) zerga-itzulkina; eta abar.

Azkenik, barneko mailan, alderdi hauek oso garrantzitsuak dira: GZESa kudeatzeko organo eta tresnak garatu eta sendotzea, eta, bereziki, GZEOa eta ebaluazioa eta plangintza egiteko tresnak (GZESaren hedapenari eta kalitateari dagokienez); GZESa herritarren artean gehiago ezagutaraztea eta GZESari buruzko jakintza sustatzea; eta osasun-sistemeekin eta diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko sistemeekin koordinatzea eta lankidetzan jardutea.

Eta inbertsioaren eta gastuaren finantzaketari dagokionez: erakunde bakoitzak beharrezkoa duen horretan ahalegin gehiago egitea; egonkortu gabekotzat jotako zerbitzu eta prestazio ekonomikoak indartzeko "funtsa" eratu eta hornitzea; Akordio Soziosanitarioa eguneratzea memoria ekonomikoan aurreikusitakoari jarraikiz; eta EUDEL protagonistak dela, udal-eskumeneko eguneko arretako eta ostatu hartzeko zerbitzuetan beharrezkoak diren inbertsioak egitea ahalbidetuko duten tresnak indartzea, eta ahal den heinean, azpiegiturak eraikitzearekin eta horien finantzaketarekin lotutako kostuak (interesak) murriztea.

3 XEDEA, IKUSPEGIA, ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

3.1 GZESAREN XEDEA ETA IKUSPEGIA

Legearen 5. artikuluan honela definitzen da GZESA:

- Arreta-sare publiko antolatu bat da, erantzukizun publikokoa, eta pertsona, familia eta talde guztien gizarteratzearen, autonomiaren eta ongizatearen alde egitea du xede, eta sustatzeko, aurreikusteko, babesteko eta laguntzeko eginkizunak betez gauzatu nahi du xede hori, funtsean pertsoneri eta harremanei buruzkoak diren prestazio eta zerbitzuen bidez.
- Titulartasun publikoko eta pribatu itunduko prestazio, zerbitzu eta horniduraz egongo da osatua.
- GZESaren jardunak gizarte-ongizatea lortu nahian ari diren beste sistema eta politika publiko kideko edo osagarri batzuekin koordinatu behar dira.

GZESaren definizio horren osagarri, 6. artikuluan GZESaren helburua zehaztu da, 7. artikuluan sistema arautuko duten printzipioak, eta, 8. artikuluan arabera, GZESan erreferentziakoa izango den arretarako eta esku-hartzerako eredu komunitatea oinarri duen ikuspegia izango da, arretaren hurbiltasunaren ikuspegia duena.

Horrela, bada, GZESaren *xedea* pertsona, familia eta talde guztien gizarteratzearen eta autonomiaren alde egitea da –eta sustatzeko, aurreikusteko, babesteko eta laguntzeko eginkizunak betez gauzatu nahi du xede hori, funtsean pertsoneri eta harremanei buruzkoak diren prestazio eta zerbitzuen bidez; horretaz gain, gizarte-ongizatea lortzea ere badu xede, beste sistema eta politika publiko antzeko edo osagarriekin koordinatuta eta lankidetzan jardunda.

Horretarako, Katalogoa osatzen duten zerbitzu eta prestazioak jasotzeko eskubidearen titular direnei zerbitzu eta prestazio horiek jasotzeko aukera hori eskubide subjektibotzat bermatzea, legean eta Zorroan xedatutako baldintzetan, erantzukizun publikoko sarea egituratu eta antolatuta, titulartasun publikoko eta pribatu itunduko prestazio, zerbitzu eta ekipamenduz osatutakoa, kudeaketa publikoa eta gizarte-ekimenaren bidezko kudeaketa gailen direla.

Ikuspegiari dagokionez, legearen zioen azalpenean xedatzen da (26. eta 27. orrialdeetan) esparru berriaren osagai nagusia zein den –gizarte-zerbitzuetarako eskubide subjektiboaren adierazpena–, bai eta zer egoeratar iritsi nahi den sistemaren hedapenari dagokionez, hain justu, eskubide hori egiaz baliatzeko aukera bermatzearen.⁴³ Horrenbestez, honako *Ikuspegi* hau eman dezakegu:

GZESA sistema unibertsal eta erantzukizun publikokotzat sendotzea, sistema horretako zerbitzu eta prestazio ekonomikoak eskuratzeko aukera eskubide subjektibotzat bermatu ahal izateko. Eta legean aurreikusitako arreta-eredu komunitarioaren edo ikuspegiaren arabera hedatzea.

⁴³ "Arau-esparru berriaren osagai nagusia honako hau da: gizarte-zerbitzuetarako eskubidea eskubide subjektibotzat aldarrikatzea, herritartasunari dagokion eskubidea den aldetik. Eskubide subjektibo horren erabilera bermatuko bada, nahitaez eraiki behar da gizarte-zerbitzuen euskal sistema bat, erantzukizun publikokoa, modernoa, aurreratua eta bermatzailea, xedatutako ongizatea duten beste sistema batzuk bezain garatua, eskumena duten hiru administrazio-mailak egituratzeko gauza izango diren kudeaketa- eta koordinazio-tresna batzuez homitua, eta bere baitan prestazio eta zerbitzuen sare artikulatu bat ezarri, antolatu, garatu eta sendotzeko moduko egitura bat izango duena. Sare horrek aldaketa sozial, demografiko eta ekonomikoek dakartzaten egungo eta etorkizuneko erronkei koherentziaz, eraginkortasunez eta eragimenez erantzuteko xedea izan behar du.

Horrenbestez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema Ongizate Estatuaren benetako oinarri bilakatuko da, ardurua publikoko eta estaldura unibertsaleko sistema gisa, herritar guztiei zuzenduta."

Ikuspegiarekiko koherente izanik, planean aurreikusten denez, legean jasotako erakundearteko adostasunak, adostasun sozial eta politikoak finkatzen duen unibertsalizazioaren, ekitatearen, kohesioaren, lankidetzaren eta kalitatearen ildoarekin bat etorriko da GZESa, 2017rako. Eta, besteak beste, honako alderdi hauek aurreikusten dira berariaz:

- **Gutxieneko estaldurak** bermatuko dira zerbitzu eta prestazio ekonomiko guztietan, eta estaldura-zerrenden **goiko maila** lortzeko zorian egongo da, edo lortuta izango du. Eta **zerbitzuen deszentralizazioan** aurrera egingo da, betiere ezartzeko egokien iriztitako biztanleriari buruzko irizpideetara hobeto egokituta.
- **Egonkortu gabekotzat jotako zerbitzuak** mapan aurreikusitakoaren arabera indartuko dira; hartara, **zaintzaileei atsedean hartzeko eta laguntzeko sistema nahikoa** izango da, bai eta **bizimodu independentea babesteko sistema** bat ere. Eta **autonomiaren prebentzioko eta sustapeneko estrategia** bat hedatuko da eremu guztietan (mendetasuna, desgaitasuna, babesgabetasuna eta bazterkeria).
- Eta honako figura hauek garatuko dira: **erreferentziako profesionalaren figura, kasuaren koordinazioa**, sektoriala (lehen eta bigarren mailako arreta) eta sektoreartekoa (soziosanitarioa, sozioedukatioa, soziolaborala) eta **lagun egite soziala**, ekimen pribatuaren eta, bereziki, hirugarren sektore sozialaren parte-hartzearekin.
- **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako** gizarte-langileen lana eginkizun horietara bideratuko da, eta horretaz gain, udal-eskumeneko zerbitzu guztiak indartuko dira; horrekin, arreta-eredu komunitarioa ere indartuko da.
- **Gizarteak GZESarekin lotuta duen jakintza, erabilera eta aintzatespena** nabarmen zabalduko da, prestazio eta zerbitzuak hobeto ezagutuko ditu eta nola eskuratu ere bai, eta **pertsonek eta familiek esku-hartzean gehiago parte hartuko dute**, haiekin batera gauzatzen diren esku-hartzeetan, haiei zuzendutako zerbitzuetan eta haiek eraginpean hartzen dituzten politikekin; hartara, GZESaren erabilzaile eta hartzaile diren pertsona, familia eta taldeen **gogobetetze-maila** handitu egingo da.
- **GZESaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoak** (bereziki, desgaitasuna dutenei eta adinekoei emandako arretaren eremuan, egoitza-arretarekin hasita, eta arreta goiztiarreko esku-hartze sozialaren zerbitzua) eta **“koordainketa” arautzen dituzten dekretuak** garatzen jarraituko da, eta **kasuaren koordinazioarekin lotutako prozedura eta tresna** guztiak hedatuko dira, arreta pertsonalizatuko plana barnean hartuta.
- **Zerbitzuen gaineko erantzukizunak berresleitu** egingo dira, legean aurreikusitako eskumen-banaketaren arabera egokituta, eta horren ondorioz, aldean artean adostutako **barneko finantza-berregokitzapena** gauzatuko da.
- **GZESaren zerbitzu eta prestazioak edo GZESak ematen dituenak** (osasan-prestazioak edo bestelakoak) **hedatzeko beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak** aurreikusiko dira, lehendik dauden finantzaketa-tresnei eutsita (Autonomia eta Mendetasunaren Arretarako Sistema eta Akordio soziosanitarioa, memoria ekonomikoan aurreikusitako baldintzetan); horretarako, 2015/12/31 baino lehen, Finantza Publikoen Euskal Kontseiluaren erabaki bidez eta Zorroari buruzko Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian horretarako aurreikusitakoari jarraikiz, egonkortu gabekotzat jotako zerbitzu eta prestazio ekonomikoak indartzeko finantza-lankidetzarako formula bat (“funts” bat) eratuko da.
- **GZEKren** eta, bereziki, **GZEOaren** ibilbidea sendotuta egongo da, kide anitzeko organo den aldetik, EAEko administrazio publikoen hiru mailen arteko lankidetzatik abiatuta.
- **Etengabeko plangintza-sistema** bat diseinatu eta abiaraziko da; horri esker, eskaintza ezagutu eta, aldizka, egokitu ahal izango da, premien bilakaerari aurrea hartuta ahalik eta gehien.
- **Legean aurreikusitako tresnak** indartuko dira, betiere **planifikazio-eginkizunarekin, kalitatea ebaluatu eta etengabe hobetzearekin** (GZIES, GZEB), eta **profesionalen etengabeko prestakuntzarekin eta kualifikazioarekin lotutakoak** izanik.
- **Beste arreta-sistema batzuekiko lankidetzak** eta, bereziki, osasan-sistemarekiko lankidetzak garatuko da, osasan-prestazioen eta GZESaren zentroetako plaza soziosanitarioen finantzaketa Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak bere gain hartuko duela bermatuta, Lanbiderekin batera.

3.2 IKUSPEGI ESTRATEGIKOA

Gaur egungo testuinguru sozioekonomikoa, mapan finkatutako proiektzioak eta diagnostikoa, eta memoria ekonomikoa –aurrerago aurkeztuko ditugu– aintzat hartuta, GZESaren xedea hedatu eta ikuspegi horretara iristeko, honako **ikuspegi orokor** hau proposatu dugu, **ikuspegi estrategikoa** izanik, eta horretan oinarrituta, bost ardatz edo ildo estrategiko definitu ditugu.

Lehenik, kontuan izan behar da GZESaren zerbitzu eta prestazio ekonomiko guztiak eskuratzeko aukera bermatu behar zaiela horretarako baldintzak betetzen dituzten eta aukera hori baliatu nahi duten pertsona guztiei; eta horrek esan nahi du, 2016/12/25etik aurrera, honako hauek bete beharko direla:

- GZESaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoen estaldurak –eta, hala badagokio, intentsitatea– mapan eta eranskinetan (lurralde-mapak) aurreikusitakoaren arabera egokitu beharko dira.
- Horretarako, GZESaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoetan egindako gastu publiko korrontea handitu egin beharko da, betiere lurralde bakoitzaren abiapuntuko egoera aintzat hartuta (zenbat plaza dauden, edo zenbat erabiltzaile edo hartzaile dauden).

Horretaz gain, honako hauek ere lortu nahi dira:

- Eredue komunitarioa eta, bereziki, sustapeneko eta prebentzioko ikuspegia indartzea, bai eta zerbitzuen deszentralizazioa ere, ahal den heinean zerbitzu horiek deskontzentratuta, eta lehendik dauden baliabideen kokapena ere aintzat hartuta.
- Eta zainketa informalarari epe motz, ertain eta luzera eustea, zaintzaileei begirako atsedene- eta laguntza-zerbitzuak indartuta, eta laguntza formala indartuta zainketa informalaren eredu bilakaeraren eta dibertsifikazioaren arabera egokitzeke.

Ez dugu ahaztu behar estrategia horien bitartez –estrategia horiek koherenteak dira arau-esparruarekin eta diagnostikoarekin– pertsonen bizi-kalitatea hobetzen eta ahalik eta autonomia-maila handienarekin gizarteratzen laguntzeaz gain, epe motz, ertain eta luzera zerbitzu sozial, sanitario... gehiago behar izatea saihesten da.

Bestalde, planean bertan aurreikusten da informazio-ekintzak egingo direla herritar guztiei zuzenduta, Zorroko zerbitzu eta prestazio ekonomikoei buruz, horiek eskuratzeko prozedura eta baldintzei buruz, baliabideak behar bezala erabiltzeko premiari buruz...; halaber, baliabideak errazago eskuratzera bideratutako beste hainbat ekintza ere aurreikusten dira, eta horren ondorioz, zerbitzu eta prestazio ekonomiko horien eskarian ere baliteke egoera gertatzea.

Gainera, GZESA erantzukizun publikoko sistema unibertsal, ekitatiboa, kohesionatua, lankidetzakoa eta kalitatezkoa izan dadin lortzeko, orain arte esandakoarekiko koherentziari eutsiz, honelako estrategiak ere sustatu behar dira:

- GZESaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoen arauak garatzeko eta zerbitzuak araudian aurreikusitako baldintzen arabera (baldintza materialak, funtzionalak, langileei dagozkienak...) egokitzeke estrategiak; esku-hartzea baloratzeko, diagnostikoa egiteko eta orientazioko tresna komunaren arauak garatu eta hedatzeko estrategiak; eta zerbitzuen finantzaketan ordaintzera behartuta daudenen parte-hartze ekonomikorako (“koordainketa”) irizpide orokorrak arautzekoak.
- Honako hauek indartzeko estrategiak: a) erreferentziako figura eta kasuaren koordinazioa; b) lehen mailako eta bigarren mailako arreta-mailen arteko koordinazioa; c) erabiltzaile eta hartzaileen parte-hartzea; d) Oinarritzko Gizarte Zerbitzuak eta haien deszentralizazioa.

Eta zentroak eta gainerako zerbitzuak ikuspegi komunitarioaren arabera eta pertsona xede duen plangintzaren printzipioaren arabera egokitzeak.

- GZESaren barne-egituraketa hobetzeko eta gobernu- eta kudeaketa-sistema garatzeko estrategiak: a) Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua eta, bereziki, Gizarte Zerbitzuen Erakundearteko Organoa indartuta, lehendik dagoen lankidetzadynamikari eutsiz eta horretan sakonduz; b) ekimen pribatuaren eta hirugarren sektorearen parte-hartzea sustatuta, batik bat, zerbitzuak ematean (orientabidea, kudeaketa, ebaluazioa...) eta arreta-sareetan; c) GZESaren hedapena planifikatzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeko beharrezkoak diren sistemak eta tresnak indartuta; d) kalitatea hobetzeko jarduerak sustatuta.
- Baliabideak optimizatzeko estrategiak: a) gainjartzeak eta hutsuneak saihestuta; b) eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko ekimenak sustatuta; c) zerbitzu eta prestazio ekonomikoak Zorroari buruzko Dekretuan aurreikusitako hartzailleengana bideratuta (arian-arian murriztu egin behar da Zorroari buruzko Dekretuak mendetasun-arriskuan edo egoeran dauden pertsonengana bideratzen dituen zerbitzuen hartzaille diren pertsona autonomoen kopurua edo proportzioa); d) pertsonen gaitasunak aprobetxatzea eta hobetzea, produktibitatea eta eremu honetan esperientzia dutenen profesionalizazioa ahalbidetuta, betiere laneko bajak hartzea eta lanpostuetan gehiegizko txandakatzea izatea edo gai diren pertsonak galtzea saihestuko duten lan-baldintzekin; e) zerbitzu mota berdinari dagokionez, gastu korrante publikoan izaten diren aldeetan eragina duten faktoreak aztertuta, eta justifikatu gabeko aldeak murrizteko aukerak identifikatuta.
- Beste sistema batzuekiko lankidetzadindartzeko estrategiak, eremu soziosanitarioa eratzten bukatuta eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuarekin, hezkuntza-sistemarekin eta, bereziki, ikastetxeekin koordinazioa garatuta.
- GZESaren zerbitzu eta prestazioak edo GZESak ematen dituenak hedatzeko beharrezkoak diren baliabideak aurreikusteko estrategiak.

Horiek dira, besteak beste, ekintza garrantzitsuenak eta, zerbitzu eta prestazio ekonomikoen hedapenarekin batera, planaren bost ardatzak osatzen dituzte; jarraian zehaztuko ditugu ardatz horiek.

3.3 ARDATZ ETA HELBURU ESTRATEGIKOAK

Egindako diagnostikoa, GZESaren xedea eta ikuspegia aintzat hartuta, eta aipatu dugun ikuspegi estrategiko horretan oinarrituta, hona hemen plana egituratzen duten bost ardatzak:

- **1. ardatza. Arretaren unibertsalizazioa, lurralde-antolamendua eta ekitatea sarbidean.**
- **2. ardatza. Eredua komunitarioa eta, batik bat, prebentzio-ikuspegia finkatzea eta garatzea, eta arreta pertsonalizatzea.**
- **3. ardatza. Sistemaren barne-egituraketa eta GZESaren gobernu- eta kudeaketa-sistema garatzea.**
- **4. ardatza. Baliabideak optimizatzea, baliabideak premien arabera egokitzea eta eraginkortasuna eta efizientzia hobetzea.**
- **5. ardatza. Beste sistema batzuekin lankidetzan jardutea.**

Bost ardatz horiek 32 helburu estrategikotan banatzen dira.

1. ardatza. Arretaren unibertsalizazioa, lurralde-antolamendua eta ekitatea sarbidean

1. GZESaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoen estaldurak (eta, hala badagokio, intentsitatea) arian-arian egokitzea, eta zerbitzuak lurraldeetan antolatzea *EAEko Gizarte Zerbitzuen mapa*n eta eranskinetan aurreikusitakoaren arabera.
2. Zerbitzu eta prestazio ekonomiko berriak edo gutxi garatutakoak (egonkortu gabeak) indartzea eta, bazterkeriaren eremuan, erantzukizun publikokotzat jotako zerbitzuentzat finantzaketa publiko nahikoa bermatzea eta arreta-sarea finkatzea.⁴⁴
3. Zorroko zerbitzu eta prestazio ekonomiko bakoitzari buruzko araudiaren garapenarekin jarraitzea, eta baldintza materialak, funtzionalak eta langileei dagozkienak araudian –lehendik dagoena edo lantzen ari dena– aurreikusitakoaren arabera egokitzea.
4. GZESaren zerbitzuen finantzaketan ordaintza behartuta daudenen parte-hartzeari (“koordainketa”) buruzko araudia garatzea eta hedatzea, EAE osorako irizpide komunak ezarrita.
5. Esku-hartzea baloratzeko, diagnostikoa egiteko eta orientazioko tresna komunak hedatzea, eta arau bidezko garapena bukatzea (arreta pertsonalizatuko plana).
6. Gizarteak GZESa hobeto ezagutzea, eta GZESaren nahiz zerbitzu publikoen erabilera egokia egiteko eta guztion artean eusteko konpromiso zibikoa sustatzea.
7. Zerbitzuetarako sarbidea –ohikoa eta premiazkoa– hobetzea.
8. Plangintzaren ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzea, Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean aurreikusita dagoen moduan, bai eta beste ikuspegi batzuk ere (askotariko sexu-joerak, kulturartekoa, belaunaldiartekoa, irisgarritasun unibertsala eta guztiontzako diseinua); halaber, ekintza positiborako eta aukera- nahiz tratu-berdintasunerako neurriak ere aplikatzea.
9. GZESaren erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak bermatzea.

2. ardatza. Eredu komunitarioa eta, batik bat, prebentzio-ikuspegia finkatzea eta garatzea, eta arreta pertsonalizatzea

10. Erreferentziako figura eta kasuaren koordinazioa indartzea, behar duenari erreferentziako profesional bat eta lagun egite pertsonalizatua eta integrala bermatzeko, erabiltzaileen eskubideen katalogoan aurreikusitakoari jarraikiz (legearen 9. artikulua).
11. Arreta-mailen (lehen mailako eta bigarren mailako arreta) arteko koordinazioa hobetzea, arreta integralagoa eta pertsonalatuagoa izan dadin eta bikoiztasunak saihestuta.
12. Erabiltzaile eta hartzaileek maila guztietan parte har dezaten sustatzea: esku-hartze pertsonal eta/edo familiarrean, zerbitzu edo zentroetan, gizarte-zerbitzuetako politiketan.

⁴⁴ Zorroko zerbitzu eta prestazioak administrazio publikoek finantzatu behar dituzte baina horrek ez du esan nahi ezin dutenik bestelako diru-sarrerarik izan, hala badagokio, koordainketaren edo bestelako diru-sarreraren ondorioz (esate baterako, egoitza-zentroetan Zorroan sartzen ez diren zenbait prestazio eta zerbitzu emateagatik ordainketak, zentrotan bat saltzeagatik diru-sarrerak eta abar).

Alabaina, bazterkeriaren eremuan –eremu horretan, gainera, ez dago koordinaketarik, eta hirugarren sektore sozialak hornituko dituen zerbitzuak zeintzuk diren argitzen ez den bitartean, Katalogoko zerbitzuetatik hartzen dira–, inbentarioan ikusi zen finantzaketa publikoaren ehuneko gaustu korronteari dagokionez beste eremuetan baino txikiagoa dela.

13. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako (OGZ) lau zerbitzuak tokiko erakundeetan (udalak, mankomunitateak...) hedatuko direla bermatzea, eta esku-hartze eta prebentzio komunitarioko zereginak indartzea.
14. Zerbitzuak eta, bereziki, zentroak ikuspegi komunitarioaren eta pertsona xede duen plangintzaren printzipioaren (zentroetako arreta pertsonalizatzea, zentroak lurraldearekin lotzea eta abar) arabera egokitzean aurrera egitea.
15. Zaintzaileei ematen zaien laguntza hobetzea eta zainketa-ereduen bilakaerari eta dibertsifikazioari aurrea hartzea.
16. Laguntzeko teknologiak eta produktuak indartzea, autonomiaz gizarteratzea eta etxean geratzeko aukera ahalbidetzeko.
17. Arreta goiztiarreko, mendetasun-, bazterkeria- eta babesgabetasun-egoeren prebentziorako eta autonomia sustatzeko estrategia bat diseinatu eta indartzea, bigarren mailako arretara igarotzeko prozesua atzeratzearren.

3. ardatza. Sistemaren barne-egituraketa eta GZESaren gobernu- eta kudeaketa-sistema garatzea

18. GZESa bideratzeko eta hedatzeko beharrezkoak diren organoak finkatzea, lankidetzan jardunda.
19. Ekimen pribatuak eta, bereziki, gizarte-ekimenak GZESan parte har dezan sustatzea.
20. GZESaren hedapena planifikatzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeko beharrezkoak diren kudeaketako hainbat sistema eta tresna indartzea.
21. GZESan kalitatea hobetzera bideratutako jarduerak sustatzea.
22. Titularra gorabehera, zerbitzu guztien barne- eta kanpo-pertzepzioa ahalbidetzea, erantzukizun publikoko sistema bakar bat osatzen duten aldetik.

4. ardatza. Baliabideak optimizatzea, baliabideak premien arabera egokitzea, eta eraginkortasuna eta efizientzia hobetzea

23. Administrazio-kudeaketako formulak garatzea, betiere eskariak arinago izapidetzea eta erabiltzaileen arretan eta sarbidean bestelako hobekuntzak ezartzea ahalbidetzeko.
24. Arretan gainjarterik edo hutsunerik izan ez dadin ahalbidetzea, eta erakunde bakoitzaren esku-hartzea legean eta Zorroari buruzko Dekretuan aurreikusitako eskumen-esparruaren arabera egokitzea.
25. Arreta komunitarioa indartzeko, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko, kostuak arrazionalizatzeko eta GZESaren jardun-eremuan premia berriei erantzuteko zerbitzuen kudeaketan eta zerbitzu horiek ematean jardunbide egokien, ebaluazioko eta I+G+Bko jarduerak sustatzea.
26. Pertsonen gaitasunak aprobe txatu eta hobetu daitezen, produktibitatea eta lan-baldintza egokiak ahalbidetzea.
27. GZESaren zerbitzu eta prestazioak edo GZESak ematen dituenak (osasu-prestazioak edo bestelakoak) hedatzeko beharrezkoak diren baliabideak eta tresnak izatea.

5. ardatza. Beste sistema batzuekin lankidetzan jardutea

28. Eremu soziosanitarioa eraikitzen bukatzea, arreta beharrezko duten kolektibo guztiei behar duten ordezkaritza eta estaldura emanez, eta GZESaren zerbitzuen eta osasun-zerbitzuen arteko koordinazioa hobetzea, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluan erabakitako koordinazio eta integrazio soziosanitarioko ildo estrategikoak sustatuta, eta hirugarren sektoreko erakundeek bazkide estrategikotzat eta lehentasunezkoztat parte hartuta.
29. Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuarekin sarean egindako lana hobetzea, bai eta, bereziki, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Sistemari dagokionez ere.
30. Hezkuntza-sistemarekin -bereziki, ikastetxeekin- eta osasun-sistemarekin (lehen mailako arreta) sarean egindako lana hobetzea.
31. Beste sistema batzuekiko (etxebizitza, hirigintza, garraioa...) koordinazioa hobetzea, aukeraberdintasuna eta aniztasunaren kudeaketa biltzen dituen zeharkako ikuspegitik begiratuta.
32. Emakumeen aurkako indarkerian sartuta dauden zerbitzu eta erakundeen arteko koordinazioa hobetzea.

3.4 PLANEAN BILDUTAKO EKINTZEN XEHETASUNAK ETA EGUTEGIA

Jarraian, ardatz eta helburu estrategiko bakoitzarekin lotutako ekintzen zerrenda aurkeztuko dugu; horretaz gain, ekintza bakoitzari buruzko honako informazio hau ere adieraziko dugu:

- **Lehentasun-maila:** Planean bildutako ekintza guztiak garrantzitsuak dira GZESaren hedapen eta egituraketarako, baina mailaketa bat egin dugu, plana aplikatu eta ebaluatzeko garaian nolabaiteko lehentasun-ordena bat ezarri ahal izateko. Hiru lehentasun-maila zehaztu dira: 1 (lehentasun handiena), 2 (lehentasun handia) eta 3 (lehentasun ertaina).
- **Erantzukizuna:** Plana erakundeartekoa izaki, ekintza bakoitzean buru edo erantzule zer erakunde izango den erabaki behar da, baina horrek ez du esan nahi ekintza garatzean agente gehiagok ezin duenik parte hartu edo eraginpean egon.

Ekintza bakoitza garatzean buru edo erantzule izango den erakundea identifikatzeko lau kategoria ezarri ditugu: 1 (Eusko Jaurlaritza); 2 (Foru Aldundiak); 3 (Udalak), eta 4 (erakunde guztiak).

GZESaren erakunde-arkitektura aintzat hartuta, ekintza bat lankidetzan egin behar bada edo gainerako erakundeekin kontrastatu behar bada, baina, esaterako, Eusko Jaurlaritza bada buru, honela adieraziko da “1/4”. Ekintza EAeko administrazio publikoetako maila bakoitzak garatu behar badu: “1/2/3”. 5. ardatzean, Eusko Jaurlaritza (1) aipatzen denean dagokion eremu espezifikoa eskuduna den Eusko Jaurlaritzaren Sailari buruz ari gara (osasuna, enplegua...).

- **Lehentasunezko elementuak:** ekintzaren xedearekin edo orientazioarekin lotutako hainbat alderdi aipatuko ditugu, ekintzaren ezarpena eta ebaluazioa bideratzeko lagungarri direnak.
- **Adierazleak (jarraipena edo ebaluazioa egiteko):** Ekintzak zenbateraino garatu diren eta emaitzak lortu ote diren baloratzeko aztertu beharreko elementuak zeintzuk diren aipatuko dugu (jarraipen-adierazleak), batik bat, zerbitzu eta prestazio ekonomikoen hedapenari dagokionez, estaldura, intentsitatea, gastua eta abar aintzat hartuta (ebaluazio-adierazleak edo emaitzen adierazleak).

Hortaz, oro har, adierazle horiek erabilgarriak dira prozesua ebaluatzeko, eta halaber, ekintza bakoitzaren garapen-maila hartzen dute kontuan (jarraipen-adierazleak), eta ez hainbeste Planeko helburu estrategikoen lorpenean duten inpaktua (ebaluazio-adierazleak).

Ebaluazio-adierazleak ikuspegiari buruzko atalean aipatu berri ditugun alderdiekin, batik bat, dute lotura, dela zerbitzu eta prestazioen hedapenari dagokionez, dela GZESaren barne-garapenari dagokionez. Eta jakina, maparekin ere bai.

Ekintzen izaera estrategikoa: atzealde urdina jarriko diegu GZESaren hedapenerako funtsezkotzat jotzen diren ekintzei. Lehentasun-mailak desberdinak izan daitezke (ohiko moduan, 1 edo 2), baina GZESaren hedapenerako funtsezkoak diren alderdiekin lotuta daude, ardatz bakoitzaren barruan, eta planari dagokion aldiaren barruan garatuko direla bermatu behar da.

Bukatzeko, atalaren amaieran, planean aurreikusitako ekintzak gauzatzeko egutegia aurkeztuko dugu, bai eta sintesi-koadro bat ere, planaren helburu eta ekintza nagusiak biltzen dituela (atzealde urdinarekin markatuta dauden ekintza estrategikoak).

1. ARDATZA. ARRETAREN UNIBERTSALIZAZIOA, LURRALDE-ANTOLAMENDUA ETA EKITATEA SARBIDEAN

HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	LEHENTASU NA	LIDERGOA	LEHENTASUNEZKO ELEMENTUAK	ADIERAZLEAK
1.1 GZESaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoan estaldurak (eta, hala badagokio, intentsitatea) arian-arian egokitzea, eta zerbitzuak lurraldeetan antolatzea <i>EAEko Gizarte Zerbitzuen mapan</i> eta eranskinetan aurreikusitakoaren arabera.	1.1.1 <i>EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapa</i> aplikatzea, Foru Aldundien eta tokiko erakundeen plangintza txertatzen duten eranskinak aintzat hartuta.	1	1/2/3	Mapan aurreikusitako gutxieneko estaldurak (eta intentsitatea, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren kasuan) bete behar dira.	<ul style="list-style-type: none"> - Ea zerbitzu eta prestazio ekonomiko bakoitzean gutxieneko estaldurak lortu diren. - Ea zerbitzu eta prestazio ekonomikoetan estalduraren goiko mailak lortu diren, maila hori badutenen kasuan. - Plaza kopurua (guztizkoa eta berriak). - Erabiltzaile edo hartzaile kopurua (guztizkoa eta berriak).
	1.1.2 Erakunde bakoitzak honako hauek ezartzea: a) bere eskumeneko zerbitzuak (zentroak) geografikoki nola banatuko dituen, mapan xedatutako irizpide orokorrei jarraikiz; b) bere eskumeneko zerbitzu eta prestazio ekonomiko guztiak hedatzeko plana, 2017ra bitartekoa, estaldura-helburuak eremu geografiko bakoitzaren arabera egokituta eta, hala badagokio, zentro berriak sortzeko beharrezkoak diren inbertsioak zehaztuta (plangintza hori mapari gehituko zaio, eranskin moduan).	1	1/2/3	<p>Zerbitzuak erakunde bakoitzak ezarritako muga edo eremu geografikoaren arabera hedatu behar dira, betiere zentroak ezartzeko biztanleriari dagozkion irizpide egokienak aintzat hartuta.</p> <p>Estaldura-helburuak eremu geografiko bakoitzaren arabera egokitu behar dira, betiere eremu geografikoaren arabera daturik izanez gero.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Aurreikusitako eremu geografikoaren barruan eskaintzen diren zerbitzuen kopurua. - Zerbitzuak ezartzeko irizpide egokien arabera, dagokien eremu geografikoan zerbitzuak eskuratzeko aukera izan dutenen kopurua. - Hala badagokio, eremu geografiko bakoitzean lortutako estaldura (aurreikusitakoaren arabera ote den). - Zerbitzu berrien (zerbitzuak eta zentroak) kopurua: gastu korrante publikoa, hala badagokio, amortizatzen diren kopuruak eta egindako inbertsioa barnean hartuta.
1.2 Zerbitzu eta prestazio ekonomiko berriak edo gutxi garatutakoak (egonkortu gabeak) indartzea eta, bazterkeriaren eremuan, erantzukizun publikokotzat jotako zerbitzuentzat finantzaketa publiko nahikoa bermatzea eta arreta-sarea finkatzea.	1.2.1 2016. urtetik aurrera, zerbitzu eta prestazio ekonomiko berriak edo gutxi garatutakoak (egonkortu gabeak) indartzea.	1	2/3	<p>Zaintzaileei laguntzeko zerbitzuari eta atsedean hartzeko zerbitzuari bultzada eman behar zaio.</p> <p>LPPEari eta bizimodu independentea babesteko zerbitzuari bultzada eman behar zaio.</p> <p>Bazterkeria-arriskuan dauden pertsonentzako tutoretzapeko etxebizitzetarako bultzada eman behar zaie.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Zaintzaileei begirako laguntza- eta atsedean zerbitzuetan egindako gastu korrante publikoa 2016., 2017., 2018. eta 2019. urteetan. - LPPEetan egindako gastua eta hartzaile kopurua Bizkaian eta Araban, 2016., 2017., 2018. eta 2019. urteetan. Gipuzkoan estaldurari eustea. - Bazterkeria-arriskuan dauden pertsonentzako tutoretzapeko etxebizitzetan sortutako plaza kopurua 2016., 2017., 2018. eta 2019. urteetan. - Zerbitzuen garapena mapan aurreikusitakoaren arabera.
	1.2.2 2016. urtean, bazterkeriaren eremuko erantzukizun publikoko zerbitzuetan gastu korrante publikoa handitzea, hala badagokio, gastu korrante publikoak erantzukizun publikoko zerbitzuei dagokienez beste eremu batzuetan osatzen duen %-a homologatzeko, eta	1	2/3	GZESaren zerbitzu guztietan finantzaketa publikoaren maila jakin bat bermatu behar da, eta lehen mailako eta bigarren mailako arretan zerbitzuak finkatu, zertxobait deszentralizatuta.	<ul style="list-style-type: none"> - Finantzaketa publikoa eta erabiltzaileek egindako diru-sarrerak gehituta, batura horrek 2016ko gastu korrantearen % 80, gutxienez, osatzea, erakundeek bazterkeriaren eremuan erantzukizun publikokotzat hartzen dituzten zerbitzuetan.

1. ARDATZA. ARRETAREN UNIBERTSALIZAZIOA, LURRALDE-ANTOLAMENDUA ETA EKITATEA SARBIDEAN

HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	LEHENTASU NA	LIDERGOA	LEHENTASUNEZKO ELEMENTUAK	ADIERAZLEAK
	bazterkeria-eremuko arreta-sarea indartzea.				
1.3 Zerbitzu eta prestazio ekonomiko bakoitzari buruzko araudiaren garapenarekin jarraitzea, eta baldintza materialak, funtzionalak eta langilei dagozkienak araudian - lehendik dagoena edo lantzen ari dena- aurreikusitakoaren arabera egokitzea.	1.3.1 Zerbitzu eta prestazio ekonomiko bakoitzari buruzko araudia garatzen jarraitzea.	1	1/4	Garatu gabe dauden zerbitzuei buruzko araudia garatu behar da Zorroari buruzko Dekretuan aurreikusitakoari jarraikiz, betiere desgaitasunaren eta adinekoen arretaren eremukoekin hasita. Prestazio ekonomikoak eta horien erabilera egokia arautu behar dira.	<ul style="list-style-type: none"> - GZESaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoaren erregulazioa, behar beste eguneratuta, bai eta autonomia pertsonalaren aldeko laguntza ekonomikoak ere (adinekoentzako eta desgaitasunaren bat dutenentzako egoitza-zentroei buruzko dekretuak, gurtzienez, ea onartu diren eta, ahal den heinean, adinekoen eta desgaitasunaren bat dutenen arretarekin lotutako guztiak). - ZLPE Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoaren eta FIZPE Familia Inguruko Zaintzarako Prestazio Ekonomikoaren erabilera araudiarekin bat ote datorren: hartzaileen kopurua, harraldiaren batez besteko denbora, beste prestazio eta zerbitzu batzuekiko bateragarritasuna.
	1.3.2 Baldintza materialak, funtzionalak eta langilei dagozkionak araudian aurreikusitakoaren arabera egokitzea, araudian kasuan kasu ezarritako epean.	2	1/2/3	GZESaren zerbitzuek ezaugarri berdinak izatea bermatu behar da .	<ul style="list-style-type: none"> - Zerbitzuak baldintzetara egokitzeko araudian aurreikusitako epeak betetzea.
1.4 GZESaren zerbitzuen finantzaketan ordaintzera behartuta daudenen parte-hartze ekonomikoari ("koordainketa") buruzko irizpide orokorrak erregulatzeko. Eta foru- eta udal-araudia erregulazio horretara egokitzea.	1.4.1 GZESaren zerbitzuen finantzaketan ordaintzera behartuta daudenen parte-hartze ekonomikoari ("koordainketa") buruzko irizpide orokorrak erregulatzeko. Eta foru- eta udal-araudia erregulazio horretara egokitzea.	1	1/4 eta 2/3 (egokitzapena)	GZESaren zerbitzuak finantzatzeko ordaintzera behartuta daudenean Lurralde Historiko bakoitzean (foru- eta udal-zerbitzuak) egindako ahaleginak ez du handitu behar (koordainketa duten zerbitzuetan), betiere memoria ekonomikoa egiteko oinarritzat hartutako parametroei jarraikiz.	<ul style="list-style-type: none"> - Autonomia Erkidegoko Dekretua eta garapeneko foru- eta udal-araudia onartzea. - "Koordainketa" datorren finantzaketak osatzen duen ehuneko gastu korronteari dagokionez (lehendik dagoenaren antzekoa edo txikiagoa).
1.5 Esku-hartzea baloratzeko, diagnostikoa egiteko eta orientazioko tresna komunak hedatzea, eta arau bidezko garapena bukatzea (arreta pertsonalizatuko plana).	1.5.1 Mendetasuna, babesgabetasuna eta bazterkeria ez ezik arrisku-egoerak ere balioesteko tresna komunak aplikatzea.	2	2/3	Hartzaileen egoerari dagozkion sarrerako irizpideak eta betetze-mailaren balorazioa harmonizatu behar dira.	<ul style="list-style-type: none"> - Zerbitzu edo prestazio ekonomikoaren hartzaileen arteko, zerbitzu edo prestazio horiek eskuratzeko eskatzen den/diren balorazioa/k izan bad(it)u(z)ten erabiltzaileen kopurua.
	1.5.2 Bestelako tresna komunak aplikatzea: fitxa soziala, diagnostikoa eta Arreta Pertsonalizatuko Plana (APP).	2	1/2/3 (1 - APPari buruzko Dekretua onartzea)	Kasuaren koordinazioarekin lotutako tresnei dagokionez, informazioa biltzeko, baloratzeko, diagnostikoa egiteko eta orientazioko tresnak normalizatu behar dira.	<ul style="list-style-type: none"> - Fitxa soziala duten erabiltzaileen kopurua. - Diagnostikoa duten erabiltzaileen kopurua. - APPa duten erabiltzaileen kopurua. - APPa egiteko prozesua arautzen duen Dekretua onartzea, APParen eredu eta guzti.
	1.5.3 Helduen babesgabetasun-arriskua eta babesgabetasun-egoerak baloratzeko tresna diseinatzea eta aplikatzea.	2	1/2/3 (1- Dekretua onartzea)	Balorazioa egiteko tresnak garatu behar dira, kontingentzia guztiak aintzat hartuta.	<ul style="list-style-type: none"> - Balorazioa egiteko tresna arautzen duen Dekretua onartzea.

1. ARDATZA. ARRETAREN UNIBERTSALIZAZIOA, LURRALDE-ANTOLAMENDUA ETA EKITATEA SARBIDEAN

HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	LEHENTAS UNA	LIDERGOA	LEHENTASUNEZKO ELEMENTUAK	ADIERAZLEAK
1.6 Gizarteak GZESA hobeto ezagutzea, eta GZESaren nahiz zerbitzu publikoen erabilera egokia egiteko eta guztion artean eusteko konpromiso zibikoa sustatzea.	1.6.1 Komunikazio-kanpaina bat abiaraztea, GZESA herritarrei ezagutarazteko: sistemaren xedea, herritar guztien premia/kontingentzia jakin batzuk estaltzera bideratzen dela, zer zerbitzu eta prestazio ekonomiko eskaintzen dituen, sarbidea, eskuratzeko baldintzak eta moduak, haien arteko bateragarritasuna, erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak eta abar.	1	1/4	-Sarbidean ekitatea bermatu behar da informazioa zabaldua, batik bat, hartzaile izan daitezkeen pertsonen, familiei, kolektiboetara eta abarri eta gutxiengiz eskuratu dituztenei -hala nola, bakarrik dauden adinekoak, emakume immigranteak eta abar-erregarduta. -GZESaren erabilera egokia, guztion artean eustea eta erantzukizun publikoa defendatu behar dira.	<ul style="list-style-type: none"> - Kanpaina garatzea: egindako publizitateko eta informazioko ekintzen kopurua eta ezaugarriak, eta egikaritutako gastua. Ebaluazioa egitea eta, hala badagokio, aldizkako ekintza bat diseinatzea. - GZESaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoen erabiltzaileen artean, kanpainaren ondorioz GZESaren berri izan dutela, lehendik zuten informazioa osatu dutela eta/edo bertara jo dutela diotenen kopurua.
1.7 Zerbitzuetarako sarbidea -ohikoa eta premiazkoa- hobetzea.	1.7.1 Baliabide bat edo batzuk jasotzeko eskubidea onartu den kasuan, balorazioa, diagnostikoa, orientazioa eta sarbidea izateko itxarote-denbora egokiak sustatzea.	2	1/2/3	Zerbitzu eta zentroak eskuratzeko baldintzak eta prozedurak hobetu behar dira, egoera arruntetan nahiz gizarte-larrialdiko egoeretan.	<ul style="list-style-type: none"> - Aurreikusitako gehieneko epeetan hitzordua emandako pertsonen kopurua. - Zerbitzu bakoitzaren arabera, itxarote-zerrendan emandako batez besteko denbora.
	1.7.2 Gizarte-larrialdiekin koordinatzeko zerbitzua garatzea (arauak eta operatiba garatzea, lehen mailako eta bigarren mailako arretaren arteko bideratze-sistema barnean hartuta).	1	2/4		<ul style="list-style-type: none"> - Zerbitzuan guztira artatutako kopurua, eta bertatik bertara artatutako kopurua.
	1.7.3 Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eta gizarte-larrialdietako zerbitzuen artean koordinazio-protokoloak ezartzea, bai eta zerbitzu horien eta bigarren mailako arreta emateko gizarte-zerbitzuen artean ere (hala badagokio, zerbitzu horietarako premiazko sarbidea ahalbidetzeko).	1	2/3		<ul style="list-style-type: none"> - Egin eta aplikatutako protokoloen kopurua. - Zerbitzuen artean bideratutako kasuen kopurua, eta bideratutako kasuen kopurua.
1.8 Plangintzaren ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzea, Gizonen eta Emakumeen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean aurreikusita dagoen moduan, bai eta beste ikuspegi batzuk ere (askotariko sexu-joerak, kulturartekoa, belaunaldiartekoa, irisgarritasun unibertsala eta guztiontzako diseinua); halaber, ekintza positiborako eta aukerana-hiz tratu-berdintasunerako neurriak ere aplikatzea.	1.8.1 Plan honetatik eratorritako organo, batzorde eta lantalde guztietan horiek osatzen dituzten pertsonen osara orekatua ezartzea, genero-ikuspegiari dagokionez.	3	1/2/3	Parekotasuna ahalbidetu behar da betiere batzordeetako kideak bakoitzaren karguaren arabera izendatzen ez badira.	<ul style="list-style-type: none"> - Planetik eratorritako organo, batzorde eta lantaldeen osara.
	1.8.2 Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari, aniztasunari, irisgarritasun unibertsalari eta guztiontzako diseinuari buruzko modulu espezifikoak sartzea Plan honen esparruan garatutako prestakuntza-programetan.	3	1/2/3		<ul style="list-style-type: none"> - Oinarrizko prestakuntza mailakatu eta iraunkorreko ekintzetan txertatutako modulu espezifikoak. - Parte hartzen duten pertsona, erakunde eta entitateen kopurua, profilararen arabera (GZESan sartzen diren guztiak).
	1.8.3 Aldizkako txosten bar egitea, emakumeek GZESari dagokionez duten premian, eskarian eta erabileran -edo erabilerarik ezan- eragina duten faktoreak (askotariko diskriminazio egoera, pobrezia feminizazioa, emakumeen bizi-itxaropena, zainketa informalaren eginkizunak euren gain hartzea eta abar) aztertzea, bai eta horrek emakumeen bizi-baldintzetan duen inpaktua ere.	3	1	GZESak emakumeen bizi-baldintzetan duen eragina ebaluatu behar da, eta baldintza horiek hobetzeko neurriak hartu, GZESarekin lotuta.	<ul style="list-style-type: none"> - GZEBak txostena egitea eskatutako aldizkakotasunarekin, eta neurriak identifikatzea.
	1.8.4 Zerbitzu eta zentroen irisgarritasuna hobetzeko planak egitea, hobetzeko premia duten kasuetan.	2	1/2/3		<ul style="list-style-type: none"> - Egindako planen kopurua. - Egikaritu diren planetan aurreikusitako hobekuntzen kopurua.
1.9 GZESaren erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak bermatzea.	1.9.1 GZESaren erabiltzaileei -euren lehentasunaren arabera- EAEko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan artatuak izateko eskubidea bermatuko dieten neurriak indartzea.	1	4	Eskubideak bermatu behar dira.	<ul style="list-style-type: none"> - Zerbitzuak ematen dituzten erakunde eta elkarteek dagokionez, erakunde bakoitzaren berezko testuingurura egokitutako ad hoc neurriak (euskarri mota guztiak itzultzea, profesionalen prestakuntza

eta/edo hautaketa, jendeari arreta emateko postuetan profesional euskaldunak izateko bermea eta abar) abiarazi dituztenen kopurua.
 – Jasotako kexa kopurua.

2. ARDATZA. EREDU KOMUNITARIOA FINKATZEA ETA GARATZEA

HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	LEHENTAS UNA	LIDERGOA	LEHENTASUNEZKO ELEMENTUAK	ADIERAZLEAK
2.1 Erreferentziako figura eta kasuaren koordinazioa indartzea, behar duenari erreferentziako profesional bat eta lagun egite pertsonalizatua eta integrala bermatzeko, erabiltzaileen eskubideen katalogoan aurreikusitakoari jarraikiz (legearen 9. artikulua).	2.1.1 Erreferentziako figurari, kasuaren koordinazioari – sektoriala (lehen eta bigarren mailako arretaren artean) eta sektoreartekoa (soziosanitarioa, sozioedukatioa, soziolaborala) eta lagun egite sozialari buruzko eredu partekatua lantzea, gizarte-zerbitzuak ematen dituzten enpresa pribatuak eta gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko erakundeak koordinatzeko dinamiketan parte hartzea ere barnean hartuta.	1	1/4	Esku-hartzearen harreman-ikuspegia finkatu behar da, balorazioa edo diagnostikoa egiteko, orientazioko, jarraipenerako... prozedura egikaritzeaz haratago, eta erabiltzaileen eskubideak bermatu behar dira, kasuaren koordinazioari dagokionez.	– Dokumentua idaztea, GZEOan eta GZEk kontratatuta.
	2.1.2 Administrazio publikoen eta erakunde pribatuen artean protokoloak edo akordioak sinatzea, erakunde pribatuek erreferentziako figuraren eta kasuaren koordinazioaren eginkizunetan parte har dezaten, betiere erakundeko profesional bat erreferente izango litzatekeen kasua, elkartrukatu beharreko informazioa, horretarako irizpide nahiz prozedurak, administrazio publikoek egin beharreko jarraipena eta beste hainbat alderdi ere barnean hartuta.	1	1 (protokoloak) /4	Gizarte-ekintzako hirugarren sektoreak (batik bat, prozesu oso batean edo bizi osoan ere pertsona laguntza pertsonalizatu eta integrala eskaintzen dieten erakundeek) eginkizun horietan duen parte-hartzea finkatu behar da.	– Ea eredurik badagoen, GZEOan eta GZEk kontratatuta. – Formalizatutako lankidetzahitzarmen edo protokoloen kopurua. – Protokolo horiei jarraikiz, ekimen pribatuko eta hirugarren sektoreko erakundeetan artatutako erabiltzaileen kopurua. – Protokolo horiek sinatu dituzten ekimen pribatuko eta hirugarren sektoreko erakundeen kopurua.
2.2 Arreta-mailen (lehen mailako eta bigarren mailako arreta) arteko koordinazioa hobetzea, arreta integralagoa eta pertsonalizatuagoa izan dadin eta bikoiztasunak saihestuta.	2.2.1 Lehen mailako eta bigarren mailako arretaren artean lankidetzako eta koordinazioko protokoloak (baterako arreta eta bideratzea) lantzea.	1	2/3	Lehen mailako eta bigarren mailako arretaren artean lan koordinatua egiteko hobekuntzak identifikatu behar dira.	– Ezarritako protokoloen kopurua, eta horien edukia (kasuak bideratzea, baterako arreta eta abar). – Identifikatu eta saihestutako bikoiztasunak.
2.3 Erabiltzaile eta hartzaileek maila guztietan parte har dezaten sustatzea: esku-hartze pertsonal eta/edo familiarrean, zerbitzu edo zentroetan, gizarte-zerbitzuetak politiketan.	2.3.1 Pertsonekin eta familiarekin egindako esku-hartzeetako orientazioan eta ebaluazioan. 2.3.2 Zerbitzuen diseinuan eta ebaluazioan, eta zentroetako eguneroko bizitzaren antolaketan. 2.3.3 Erakunde ordezkarien bitartez, gizarte-zerbitzuetak politiketan diseinuan, betearaztean eta ebaluazioan.	2	1/2/3	Elementu hau oso garrantzitsua izaki, bermatu egin behar da, batik bat, izaera pertsonala eta harremanetarako duten zerbitzuak ematean eta eredu komunitarioan.	– Pertsona eta/edo familia erabiltzaileek ere parte hartuta, egindako eta ebaluatutako diagnostikoen eta APPen kopurua. – Parte hartzeko mekanismoak dituzten zerbitzu/zentroen kopurua. – Parte hartzeko organoetan (GZEK, MDCE...) edo prozesuetan parte hartzen duten erakunde ordezkarien kopurua.

2. ARDATZA. EREDU KOMUNITARIOA FINKATZEA ETA GARATZEA

HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	LEHENTASUNA	LIDERGOA	LEHENTASUNEZ KO ELEMENTUAK	ADIERAZLEAK
2.4 Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetak (OGZ) lau zerbitzuak tokiko erakundeetan (udalak, mankomunitateak...) hedatuko direla bermatzea, eta esku-hartze eta prebentzio komunitarioko zereginak indartzea.	2.4.1 Tokiko erakunde bakoitzak Katalogoko 1.1etik 1.4era bitarteko zerbitzuak hedatzea, eskubidearen titular diren pertsona guztiei bermatzeko moduan.	1	3	OGBak garatu behar dira, unibertsalizazio-ikuspegitik begiratuta.	– Lau zerbitzuak dituzten tokiko erakundeen kopurua, eta zerbitzuaren araberako estaldurak.
	2.4.2 Udalaren edo tokiko erakundearen ustez hala dagokionean, Oinarrizko Gizarte Unitateak (OGU) arian-arian hedatzea, OGUaren eraginpeko eremuan fisikoki kokatutako ekipo eta zentroak dituztela, bai eta dinamikak, plangintza eta beste baliabide batzuekiko lankidetzaren ere, deszentralizatuta.	1	3	OGZk eta lan komunitarioa deszentralizatuta garatu behar dira.	– OGZetako 4 zerbitzuak profesionalen osatutako taldea eta OGUak edo OGUak artatutako ingurunean fisikoki kokatutako zentro bat dituzten deszentralizatutako OGUa duten OGZen kopurua, diagnostikoa eta ingurune bakoitzerako plangintza egokia ere izanik. Eta lan komunitarioa egiten dutela, ingurune baliabideekin lankidetzan. – Komunitateko baliabideekin sarean egindako lana hobetzea, arreta berezia emanda hezkuntzaren, lanaren eta osasunaren eremu eta sistemei.
2.5 Zerbitzuak eta, bereziki, zentroak ikuspegi komunitarioaren arabera eta pertsona xede duen plangintzaren printzipioaren arabera egokitzen aurrera egitea.	2.5.1 Pertsona xede duen arreta-eredua zabaltzea, hala etxean nola egoitza-zentroetan, bai eta eguneko zerbitzuak eta egoitza-zentroak edo ostatu-zerbitzuak ingurunearekin lotzea xede duena ere.	2	1 / 2-3	GZESaren zerbitzu guztiak eredu komunitarioaren arabera egokitu behar dira (egoitza-zentroak ere barnean hartuta).	– Egindako hedapen-ekintzen kopurua eta horien emaitzak. – Landutako dokumentuak, arreta-ereduak eta jardunbide egokiak estandarizatu edo formalizatu dituztenak.
2.6 Zaintzaileei ematen zaien laguntza hobetzea eta zainketa-ereduen bilakaerari eta dibertsifikazioari aurrea hartzea.	2.6.1 Zaintzaileei begirako atsedeen eta laguntza-zerbitzuak indartzea, bai eta etxean egoera desegokiak eta laguntza-premiak hautemateko eginkizunak ere (bisitaldien bitartez...).	1	2/3	Zaintzaileei laguntza eman behar zaie, eta GZESaren ekintza zainketa ereduaren edo ereduaren arabera bilakaeraren arabera egokitu egin behar da, ahal den guztietan, laguntza formalaren eta informalearen arteko oreka birdoituta.	– Zaintzaileei begirako atsedeen eta laguntza-zerbitzuen garapena, mapan aurreikusitakoaren arabera. – Egoera desegokiak goiz detektatzeko eta artatzeko eginkizunen bultzada. Abiarazitako ekimenen kopurua eta egindako jardunen kopurua.
	2.6.2 GZEBaren esparruan, zaintzaileek eskaintzen duten laguntzarekin lotutako ikerketa-ildo espezifikoak ezartzea, eta haien egoera, gogobetetze-maila, laguntza-premiak eta zainketa-ereduaren edo ereduaren bilakaera ere aintzat hartuta.	2	1		– Egindako ikerketen kopurua eta horien ondoriozko orientabideak, zainketa-ereduaren edo ereduaren bilakaerari dagokionez eta GZESan egin beharreko egokitzapenei dagokienez, besteak beste.
	2.6.3 Zaintzaileei buruzko kongresu bat bultzatzea.	2	1		– Kongresua egitea eta ebaluatzea.

2. ARDATZA. EREDU KOMUNITARIOA FINKATZEA ETA GARATZEA

HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	LEHENTASUNA	LIDERGOA	LEHENTASUNEZKO ELEMENTUAK	ADIERAZLEAK
2.7 Laguntzeko teknologiak eta produktuak indartzea, autonomiaz gizarteratzea eta etxean geratzeko aukera ahalbidetzeko.	2.7.1 Laguntza teknikoak emateko eta ingurune fisikoa egokitzeko zerbitzuak indartzea, bai eta laguntza-produktuak eskuratzeko eta etxebizitzan eta motordun ibilgailuetan egokitzapenak egiteko zuzeneko prestazio edo laguntza ekonomikoak ere (autonomia erraztera bideratutako prestazio edo laguntza ekonomikoak).	2	2	Etxebizitzan eta ingurunea irisgarri izateko baldintza egokiak garatu behar dira, autonomiaz gizarteratzea eta etxean geratzeko aukera ahalbidetzeren.	– Mapan aurreikusitakoaren arabera garapena: hartzaileen kopurua eta gastu publiko korronea.
	2.7.2 Prestakuntza eta informazioa hobetzea ahalbidetuko duten neurriak abian jartzea laguntza emateko gaur egun dauden teknologiak ezartzeko eta behar bezala erabiltzeko.	2	2		– Laguntza teknikoak emateko (laguntza-produktuak) eta ingurune fisikoa egokitzeko zerbitzua indartzea: artatutakoaren kopurua eta gastua (mapan aurreikusitakoarekin bat ote datorren). – Hartutako neurrien kopurua eta ezaugarriak
2.8 Arreta goiztiarreko, mendetasun-, bazterkeria- eta babesgabetasun-egoeren prebentzioarako eta autonomia sustatzeko estrategia bat diseinatu eta indartzea, bigarren mailako arretara igarotzeko prozesua atzeratzeren.	2.8.1 Arreta goiztiarrekin (desgaitasuna), mendetasunaren prebentzioarekin eta autonomia sustatzearekin lotutako zerbitzu eta prestazio edo laguntza ekonomikoak indartzea.	2	2/3	Autonomia sustatu behar da, eta bigarren mailako arretari dagokion esku-hartzea eskatzen duten egoerei aurrea hartu.	– Zerbitzu eta prestazioen, edo laguntza ekonomikoaren garapena, mapan aurreikusitakoaren arabera.
	2.8.2 Psikologia-, gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzeko eta familia-orientazioko programak sustatzea gurasoen eta seme-alaben artean.	2	2/3		– Esparru horretan garatutako programen kopurua.
	2.8.3 Kontingentzia bakoitzaren (bazterkeria, mendetasuna, babesgabetasuna, desgaitasuna) funtsezko iragarleak identifikatzea eta aldizka prospekzio-azterketak egitea, premien bilakaerari aurrea hartzea ahalbidetzeko.	1	1/4		– Iragarleak identifikatzea. – Lehen prospekzio-azterlan bat egitea (eta etorkizuneko edizioetarako eguneratzea, esperientziaren arabera).
	2.8.4 Ekiteko eredu prebentiboaren definizio adostua egitea, estentsiboagoa eta intentsitate txikiagokoa, adinekoen mendetasun-arriskuari eta egoerei goiz ekinda (eguneko arretarako zerbitzuak, ostalua, zaintzaileei laguntzea eta abar).	2	1/4		– Ezarritako ereduaren ezaugarriak.
	2.8.5 Emakumeen, adingabeen, adinekoen eta desgaitasunaren bat dutenen babesgabetasun-egoerak prebentzeari, hautemateri eta goiz ekiteari bultzada ematea.	2	2/3		– Abiarazitako programa edo ekimenen kopurua, orokorrak eta/edo kolektiboaren arabera.

3. ARDATZA. SISTEMAREN BARNE-EGITURAKETA, ETA GZESAREN GOBERNU- ETA KUDEAKETA-SISTEMA GARATZEA

HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	LEHENTASUNA	LIDERGOA	LEHENTASUNEZKO ELEMENTUAK	ADIERAZLEAK
3.1 GZESA bideratzeko eta hedatzeko beharrezkoak diren organoak finkatzea, lankidetzan jardunda.	3.1.1 GZEBa indartzea, GZESaren erakunde-arkitekturarekin koherenteak diren lanerako prozedura eta irizpideak ezarrita eta lankidetzadynamika finkatuta.	1	1/4	Sistema lankidetzaren bitartez bideratzeko gai den dinamika bat sortu behar da, erakunde bakoitzaren autonomia errespetatuta betiere.	<ul style="list-style-type: none"> - Lanerako prozedurak eta irizpideak definitzea. - Egindako jarduera eta burututako ekimenak.
	3.1.2 Oro har, ekimen pribatuaren eta, zehazki, hirugarren sektore sozialaren parte-hartzea sustatzea Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren bitartez, legean aurreikusitakoaren arabera, eta Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren bitartez, gizarte-zerbitzuen arloan parte hartzeko guneak diren aldetik, eta legearen eta, bereziki, GZESaren hedapenari dagokionez.	1	1	GZESaren zerbitzuak emateko lankidetzaren publiko-pribatua garatu behar da. GZESA legearen 5., 7.a eta 7.i, 34.1 eta 35.3 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera garatu behar da.	<ul style="list-style-type: none"> - Irabazi-asmoa duen ekimen pribatuko eta ekimen pribatu sozialeko erakundeei dagokienez, GZESan modu aktiboan parte hartzen dutenen kopurua. - GZESan ezarritako kontseilu sektorialak eta kontseilu horiek egiten dituzten jarduerak. - MDCEaren jarduerak, legearen eta GZESaren hedapenari dagokionez.
	3.1.3 Gizarte Zerbitzuen lurralde- eta udal-arloko kontseiluak sortzea, hala badagokio.	2	2/3	Lehendik dauden baliabideak (gaitasunak, azpiegiturak...) baliatu behar dira.	<ul style="list-style-type: none"> - Ezarritako kontseiluen kopurua. - Horietako bakoitzak egindako jardueren kopurua eta ezaugarriak.
3.2 Ekimen pribatuak eta, bereziki, gizarte-ekimenak GZESan parte har dezan sustatzea.	3.2.1 Kudeaketa publikoa -zuzeneko eta gizarte-ekimenaren bidezkoa- gailen izango dela bermatzea.	1	1/2/3		<ul style="list-style-type: none"> - Kudeaketa publikoa -zuzeneko eta gizarte-ekimenaren bidezkoa- gailen izatea. - Gutxienez, egungo titulartasun-egiturari eustea. - Gizarte-ekimenarekin lankidetzan garatu diren GZESaren baliabideak.
	3.2.2 Itun sozialaren araubidea eta lankidetzako esparru-akordio eta hitzarmenak arautzea eta garatzea.	1	1 / 4		<ul style="list-style-type: none"> - Itun sozialaren araubideari atxikitako erakundeen -ekimen pribatukoak, irabazi-asmoa dutenak eta sozialak- kopurua. - GZESaren zerbitzuak emateko lankidetzarako hitzarmenak eta/edo esparru-akordioak sinatu dituzten gizarte-ekimeneko erakundeen (irabazi-asmorik gabekoak) eta gizarte-zerbitzuetako zentroen kopurua. - Izaera bereziko jarduera duten erakundeekin hitzarmenak sinatzea.

3. ARDATZA. SISTEMAREN BARNE-EGITURAKETA, ETA GZESaren GOBERNU- ETA KUDEAKETA-SISTEMA GARATZEA

HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	LEHENTAS UNA	LIDERGOA	LEHENTASUNEZKO ELEMENTUAK	ADIERAZLEAK
3.3 GZESaren hedapena planifikatzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeko beharrezkoak diren kudeaketako hainbat sistema eta tresna indartzea.	3.3.1 Informazioa ematen duten erakunde guztiei GZESaren hedapenari buruzko informazioa denbora errealean izateko aukera emango dien tresna erraz eta arin bat diseinatzea eta hedatzea.	1	1/4	Oro har, gizarte-zerbitzuen eta, zehazki, GZESaren eremuan mota guztietako baliabideen (formalak, informalak, giza baliabideak, materialak, ekonomikoak...) eta premien bilakaeraren berri izatea ahalbidetzen duten sistemak eta tresnak izan behar dira.	<ul style="list-style-type: none"> - Esperientzian oinarrituta diseinatu, aplikatu eta hobetzea tresna, GZEBarekin kontrastatuta. - GZESaren plangintza egiteko datuak denbora errealean izatea eta informazioa ematen duten erakunde guztiek datu horiek eskura izatea.
	3.3.2 Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioko Euskal Sistema (GZIES) hedatzea, aurreko tresna ere barnean hartuta, eta sistema horren abiaraztea, mantentze-lanak eta etengabeko eguneratzea bermatzea.	2	1/4	Eta GZESaren garapen-mailari, erabiltzaileen egoerari... buruzko datuen berri ere izan behar da, plangintza egiteko datu interesgarriak diren aldetik.	<ul style="list-style-type: none"> - Datuak etengabe iraultzeko beharrezkoak diren sare eta gailu informatiko eta telematikoak antolatzea. - Pertsona, erakunde eta entitate erabiltzaileen kopurua.
	3.3.3 GZESaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoak etengabe planifikatzeko sistema bat diseinatzea, premien bilakaerari, laguntza formal eta informalararen sareari, gastuari eta diru-sarrerei buruzko aldizkako datuetan oinarrituta.	1	1/4		<ul style="list-style-type: none"> - Sailak diseinatu behar du sistema, eta GZEBarekin kontrastatu.
	3.3.4 Sailari etengabeko plangintza-sistema diseinatzeko, gauzatzen eta eguneratzen eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema (GZES) martxan jartzeko bestelako zereginak egiten laguntzea (arauak garatzea, Gizarte Zerbitzuetako Erakundearteko Organoa dinamizatzea, GZEBa bultzatzea...).	1	1		- Laguntza ezartzea.
	3.3.5 Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokia (GZEB) sustatzea, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Ikuspegi@k Gizarte-gaietarako Behatokiaren sarea eratzen duten gainerako Behatokiarekin koordinatuz, bai eta Euskadin dauden beste Gizarte Behatokiarekin eta gizarte-zerbitzuen arloko bestelako jakintza-zentroekin ere.	2	1		<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte Zerbitzuen Behatokia erregelamendu bidez garatzea, eta beste behatoki eta jakintza-zentro batzuekin koordinatzeko bideak finkatzea. - Honako hauek indartzeko lan-ildoak proposatu eta garatzea: arretaren kalitatea ebaluatu eta aintzatestea (ikus lotutako ekintzak), eta esku-hartzearen dimentsio etikoa eta bioetikoa. - Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan ezarritako lehentasunen esparruan, gizarte-zerbitzuen arloko ikerketarako gidalerroak diseinatu eta garatzea (ikus bestelako ekintzak ere).
	3.3.6 GZESaren eragina ebaluatzeko adostutako sistema bat diseinatu eta abiaraztea (gizarte-kohesioari, prebentzioari, enplegua sortzeari, jarduera ekonomikoari... dagokienez).	2	1/4		<ul style="list-style-type: none"> - Sistema abiaraztea eta, hala badagokio, eguneratzea. - Eraginari buruzko ebaluazio-txostena egitea.

3. ARDATZA. SISTEMAREN BARNE-EGITURAKETA, ETA GZESaren GOBERNU- ETA KUDEAKETA-SISTEMA GARATZEA

HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	LEHENTAS UNA	LIDERGOA	LEHENTASUNEZKO ELEMENTUAK	ADIERAZLEAK
3.4 GZESan kalitatea hobetzera bideratutako jarduerak sustatzea.	3.4.1 Kudeaketa-kalitatearen adierazleen katalogo adostu bat sortzea; GZESan parte hartzen duten eragileek zenbateraino betetzen dituzten aztertzea ahalbidetuko duen katalogo bat.	1	1/4	GZES osoan adostutako kalitate-estandarrek bultzatu behar dira, eta hartara, arretan ekitatea sustatu, betiere arau-erreferentziak eta bestelakoak aintzat hartuta, hala nola, Gizarte-zerbitzuen borondatezko kalitate-esparru europarra.	<ul style="list-style-type: none"> - Ezarritako adierazleen kopurua eta ezaugarriak. - Sistema informazioz hornitzen duten erakundeen kopurua.
	3.4.2 GZESaren zentro eta elkarteetan erabiltzaileek eta beste interes-talde batzuek izaten duten gogobetetze-maila neurtzeko sistemak ezartzea.	2	4		<ul style="list-style-type: none"> - Erabiltzaileen (eta beste interes-talde batzuen) gogobetetzeari buruzko aldizkako datuak izaten dituzten GZESaren zentro eta elkarteetako kopurua.
	3.4.3 Zaintzaren kalitatea ebaluatzeko eta etengabe hobetzeko eredu komunak garatzea, bai eta GZESaren zerbitzuetan kalitatezko sistemak ezartzeko laguntza teknikoko programak ere.	2	1/4	Eta arretan etengabeko hobekuntza sustatu behar da, esku-hartzearen etika, bai eta erabiltzaileen eta beste interes-talde batzuen gogobetetzea ere.	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-zerbitzuetako zentroetan aplikaturiko kalitate-programen kopurua. - Kalitate-sistemak ezartzeko laguntza teknikoko programak erabiltzen dituzten erakundeen kopurua.
	3.4.4 Kontratu, itun edo hitzarmen baten kudeaketa-zikloko fase guztietan irizpide, prozedura eta tresnak txertatzea, bai eta eskuratzeko baldintzak eta diskriminazio positiboko irizpideak ere, edozein operadorek gauza ditzakeen jardunbideekin -esku-hartzeari eta kudeaketari buruzkoak- lotuta eta GZESaren zerbitzuen hornidurari balioa eranstean diotela.	1	1/2/3	Erakundeek gehitutako balioa aintzatetsi behar da, legean ezartzen diren printzipioekin (7. artikulua) eta arreta-ereduarekin (8. artikulua) koherente izanik.	<ul style="list-style-type: none"> - Horrelako klausulak txertatu dituzten erakundeen kopurua.
3.5 Titularra gorabehera, zerbitzu guztien barne- eta kanpo-pertzepzioa ahalbidetzea, erantzukizun publikoko sistema bakar bat osatzen duten aldetik.	3.5.1 GZESaren zerbitzu guztientzako sinbolo edo anagrama bereizgarri bat sortzea, sistema berekoak direla agerian uzteko bai barruan bai kanpoan.	1	1/4	Erantzukizun publikoko sistema bakar bateko kide garen kontzientzia hartu behar dugu, bai barnean, bai herritarren aldetik.	<ul style="list-style-type: none"> - Sinbolo bereizgarria zehaztea eta erabilera-baldintzak arautzea. - Hori erabiltzen duten gizarte-zerbitzuetako zentroen eta erakundeen kopurua.

4. ARDATZA. BALIABIDEAK OPTIMIZATZEA, BALIABIDEAK PREMIEN ARABERA EGOKITZEA, ETA ERAGINKORTASUNA ETA EFIZIENTZIA HOBETZEA

HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	LEHENTASUN A	LIDERGOA	LEHENTASUNEZKO ELEMENTUAK	ADIERAZLEAK
4.1 Administrazio-kudeaketako formulak garatzea, betiere eskariak arinago izapidetzea eta erabiltzaileen arretan eta sarbidean bestelako hobekuntzak ezartzea ahalbidetzeko.	4.1.1 Administrazioa arrazionalizatu eta modernizatzeko neurriak hartzea, bai eta administrazioaren zerbitzuak ekainaren 22ko 11/2007 Legea (Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzkoa) egokitzeko ere.	1	1/2/3	Datuak eskatzeko eta biltzeko prozedurak arrazionalizatu egin behar dira (bereziki, zerbitzu eta prestazio ekonomikoak jasotzeko beharrezkoak diren datuak).	– Hartutako neurrien kopurua eta ezaugarriak
4.2 Arretan gainjartzerik edo hutsunerik izan ez dadin ahalbidetzea, eta erakunde bakoitzaren esku-hartzea legean eta Zorroari buruzko Dekretuan aurreikusitako eskumen-esparruaren arabera egokitzea.	4.2.1 Erakunde bakoitzak eskainitako zerbitzuak eta zerbitzu horien hartzaileak egokitzea eta garatzea legearen eta Zorroari buruzko Dekretuaren eskumen-esparruaren arabera, erakundeen artean egin beharreko transferentziak kudeatuta (ikus finantza-berregokitzea ere).	1	1/2/3	Arretan gainjartzerik eta hutsunerik sortzea saihestu behar da, eta zerbitzuak eskumen-esparruaren arabera (hornidura, finantzaketa...) eman behar dira.	– Zerbitzu edo prestazio bat emateari edo pertsona nahiz familia baten arretari dagokionez, eskumenetan zehaztasunik ez dagoela identifikatutako egoerak. – Arretan gainjartzeak edo hutsuneak identifikatu eta konpontzea.
4.3 Arreta komunitarioa indartzeko, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko, kostuak arrazionalizatzeke eta GZESaren jardun-eremuan premia berriei erantzuteko zerbitzuen kudeaketan eta zerbitzu horiek ematean jardunbide egokien, ebaluazioko eta I+G+Bko jarduerak sustatzea.	4.3.1 Gizarte-zerbitzuen arloan, bai zerbitzuei bai antolatzeko modu berriei dagokionez berrikuntza bultzatzeko berariazko programak indartzea, baita, besteak beste, domotikaren eta osasunaren teknologien esparruetan (beste sistema batzuekin elkarlanean) bultzatzekoak ere.	2	1	Jardunbide egokiak eta berritzaileak indartu behar dira GZESaren jardun-eremuan eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko, eta GZESan artatu gabeko premia berriei erantzuteko.	– Egindako berrikuntza-programen kopurua. – Inplikaturako erakundeen kopurua.
	4.3.2 Autonomiaz gizarteratzearekin lotutako adierazleen sistema bat zehaztu eta ezartzea, GZESaren esku-hartzearen ondorioz lortu beharreko emaitza den aldetik.	1	1/4		– Adierazle-sistema diseinatzea, espero daitezkeen emaitzak aintzat hartuta eta zerbitzu eta prestazio ekonomiko guztietan aplikatzeko modukoa.
	4.3.3 Gure inguruko beste herrialde batzuetan, beste autonomia-erkidego batzuetan eta EAEn testuinguruan egiten dituzten jardunbide egokien eta berritzaileen berri izateko aukera emango duen programa bat garatzea.	3	1		– Egindako jarduerak.
	4.3.4 Gizarte-zerbitzuen eremuan jardunbide berritzaileak egin daitezten sustatzea eta bultzatzea.	3	1/2/3		– Garatutako laguntza-neurriak.
	4.3.5 GZESaren prestazio eta zerbitzuen kostuari buruzko azterlana egitea, zerbitzu mota berdinean dauden gastu korronte publikoaren diferentziak identifikatu eta horietan eragina duten faktoreei ekin ahal izateko (azterlana diseinatu eta egitea, eta azterlana baloratzea, hala badagokio, aldizkako azterlana ezartze aldera).	1	1/4		– Azterlana egitea: diferentziak eta faktoreak identifikatzea, datu alderagarriak lortzea (lurralde historikoaren arabera, titularraren arabera...) eta justifikatu gabeko diferentziak murrizteko aukerak identifikatzea.

4. ARDATZA. BALIABIDEAK OPTIMIZATZEA, BALIABIDEAK PREMIEN ARABERA EGOKITZEA, ETA ERAGINKORTASUNA ETA EFIZIENTZIA HOBETZEA

HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	LEHENTASUNA	LIDERGOA	LEHENTASUNEZKO ELEMENTUAK	ADIERAZLEAK
4.4 Pertsonen gaitasunak aprobetxatu eta hobetu daitezen, produktibitatea eta lan-baldintza egokiak ahalbidetzea.	4.4.1 Enpleguaren kalitatea sustatzera eta GZESko profesionalen kualifikazioa eta prestakuntza hobetzera bideratutako batzorde sektoriala eratzea GZEKn.	1	1/4	Profesional lan-baldintzak, kualifikazioa eta prestakuntza.	<ul style="list-style-type: none"> – Kontseilua sortzea. – Egindako jarduerak.
	4.4.2 Hitzarmenak formalizatzeko, kontratazioko edo ituntzeko prozeduretan gizarte-klausulak ezartzea, lan-arloko erregulazioak eta zerbitzuak emateko baldintza egokiak (profesionalen kualifikazioa), emakumeen eta gizonen berdintasuna eta abar betetzen direla bermatzeko.	1	1/2/3	Lan-baldintzek, gaikuntzakoek eta kudeaketakoek egokiak izan beharko dute erantzukizun publikoko zerbitzuak ematen laguntzen duten erakundeetan.	<ul style="list-style-type: none"> – Aipatutako prozeduretan horrelako klausulak txertatzen dituzten erakundeen kopurua. – Klausula horiek txertatzen dituzten kontratu/itun/hitzarmenen kopurua. – Gastu korronte publikoa eta haiekin lotutako lanpostuen kopurua.
	4.4.3 GZESan esku hartzen duten erakunde eta entitateetako profesionalak etengabe prestatu eta birzikla daitezen indartzea.	1	1/2/3	Profesionalek kualifikatuak izan behar dute, eta esku-hartzeari laguntza tekniko eskaini behar zaio.	<ul style="list-style-type: none"> – Prestakuntza-premien diagnostikoa egitea eta GZES osorako prestakuntza-plan bat diseinatu, abiarazi eta ebaluatzea. – Aurrekoarekin lotuta, premien beste diagnostiko batzuk eta/edo beste prestakuntza-plan batzuk egitea. – Prestakuntza-ekintzen kopurua, identifikatutako interesguneei dagokienez.⁴⁵ – Eusko Jaurlaritzak kudeatutako prestakuntza-ekintzen kopurua, irizpide, prozedura eta tresna komunekin lotuta.⁴⁶

⁴⁵ Harreman-ikuspegia esku-hartzean, kasuaren koordinazioan eta lagun egite sozilean; pertsona xede duen plangintza eta APPa egitea; arrisku-egoeren prebentzioa, hautematea eta erantzuna; arreta-mailen arteko koordinazioa; arreta-eremuen eta -sistemen arteko koordinazioa eta lankidetzak; familiaren lana eta zaintzaileei ematen zaien laguntza; taldeko lana; dinamizazio komunitarioa eta sare-lana; eta abar.

⁴⁶ GZESan sartzeko irizpide eta prozedurak; balorazioko, diagnostikoa egiteko eta orientazioko tresna komunak; esku-hartzearen, kasuaren koordinazioaren eta lagun egite sozialaren oinarritzko prozedura.

4. ARDATZA. BALIABIDEAK OPTIMIZATZEA, BALIABIDEAK PREMIEN ARABERA EGOKITZEA, ETA ERAGINKORTASUNA ETA EFIZIENTZIA HOBETZEA

HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	LEHENTASUNA	LIDERGOA	LEHENTASUNEZKO ELEMENTUAK	ADIERAZLEAK
	4.4.4 GZESko profesionalak gainbegiratzera eta motibatuzera bideratutako eta profesional horiei laguntza psiko-soziala eskaintzeko jarduerak sustatzea, langileek lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egin ditzaten ere ahalbidetuta.	2	1/2/3	Zainketa psikosoziala eta laguntza teknikoa eskuhartzeari.	– Gauzatutako jardueren kopurua eta ezaugarriak.
	4.4.5 GZESaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa aplikatzeko beharrezkoak diren jarduera profesionalak gauzatzeko egokienak diren lanbide-kualifikazioak zehaztu eta arautzea Eusko Jaurlaritzak, legearen 78.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.	2	1	Profesionalen kualifikazioa.	– GZESaren zerbitzuak emateko egokiak diren kualifikazioak eta lanbide-profilak bilduko dituen katalogo bat egitea.
	4.4.6 Lanbideren eta Hezkuntza Sailaren (Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutua) arteko lankidetzaren bitartez, adinekoei eta desgaitasunen bat dutenei arreta ematen lan egiten duten hainbat lanbide-profil egiaztatze prozesuak ahalbidetuko dituzten baldintzak sor daitezen sustatzea.	2	1	Profesionalen kualifikazioa.	– Kualifikazio Profesionalen Sisteman eremu honetarako definitutako lanbide-kualifikazioa eskuratzeko aukera duten pertsonen kopurua.
	4.4.7 Laguntzeko sare informal eta soziofamiliarretik arreta egiteko eginkizunetan lortutako gaitasunak errekonozitzea ahalbidetuko duten neurri eta bide egokiak ezartzea, legearen 78.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.	3	1	Sektorean enplegua sortzea eta profesionalizazioa sustatu behar dira.	– Kualifikazio Profesionalen Sisteman eremu honetarako definitutako lanbide-kualifikazioa eskuratzeko aukera duten pertsonen kopurua.
	4.4.8 Ezkutuko ekonomian zaintza-lanak egiten dituzten pertsonak profesionalizatzeko politika aktiboak sustatzea: a) Jarduera horiek formalizatzeko erakundeak sortzea eta indartzea; b) pertsona eta erakunde horientzako prestakuntza-ekintzak bultzatzea.	2	1/2		– Enpleguko eta ekonomia-sustapeneko sailetatik egindako sustapen-ekimenen kopurua. – Egindako ikastaroen kopurua. – Parte-hartzaileen kopurua.

4. ARDATZA. BALIABIDEAK OPTIMIZATZEA, BALIABIDEAK PREMIEN ARABERA EGOKITZEA, ETA ERAGINKORTASUNA ETA EFIZIENTZIA HOBETZEA

HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	LEHENTASUNA	LIDERGOA	LEHENTASUNEZKO ELEMENTUAK	ADIERAZLEAK
4.5 GZESaren zerbitzu eta prestazioak edo GZESak ematen dituenak (osasu-prestazioak edo bestelakoak) hedatzeko beharrezkoak diren baliabideak eta tresnak izatea.	4.5.1 Lehendik dauden zerbitzuen eskumenak egokitu izanaren ondorioz, administrazio publikoen artean egin beharreko berregokitze ekonomikoa egitea.	1	1/2/3	Baliabideak eta gaitasunak egokitu egin behar dira.	<ul style="list-style-type: none"> - Zerbitzu eta baliabide ekonomikok transferitzea edo konpentsatzea (transferentzian elkarrekotasuna dagoenean). - 2016/12/25a baino lehen egin beharreko egokitzapenak egitea.
	4.5.2 Zerbitzu eta prestazio ekonomikok hedatzeko beharrezkoak diren baliabide ekonomikok eguneratzea eta gaitzea.	1	1/2/3 eta inplikaturako beste sail eta administrazio publiko batzuk		<ul style="list-style-type: none"> - Erakunde eta maila bakoitzak ahalegina egitea. - Akordio soziosanitarioa (ikus 5.1.11), Autonomia eta Mendetasunaren Arretarako Sistemarik datorren finantzaketa eta, hala badagokio, GZESa finantzatzeko beste tresna batzuk. - Egonkortu gabekotzat jotako zerbitzu eta prestazio ekonomikok garatzeko funtsa.
	4.5.3 Konpentsazio ekonomikorako irizpide eta mekanismoak ezartzea, tokiko erakunde batek beste tokiko erakunde bat titular duen edo beste tokiko erakunde batek kudeatzen duen baliabide baterako sarbidea bermatu ahal izan dezan.	1	3/1		<ul style="list-style-type: none"> - EUDELeK, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, mintegi bat egitea eta konpentsazio ekonomikorako irizpide eta mekanismoak zehaztea.
	4.5.4 Eusko Jaurlaritzaren eta EUDELen artean akordioak sinatzea GZESa hedatzeko beharrezkoak diren azpiegiturak garatzeko: lurzoruaren hornidura, babestutako etxebizitza eta/edo lokalak eraikitzea edo lagatzea eta abar.	1	1/3		<ul style="list-style-type: none"> - Akordioak lortzea. - Akordio horiei jarriki lagatuko edo eraikitako higiezin edo ekipamenduen kopurua.

5. ARDATZA. BESTE SISTEMA BATZUEKIN LANKIDETZAN JARDUTEA

HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	LEHENTAS UNA	LIDERGOA	LEHENTASUNEZKO ELEMENTUAK	ADIERAZLEAK	
5.1 Eremu soziosanitarioa eraikitzen bukatzea, arreta beharrezko duten kolektibo guztiei behar duten ordezkaritza eta estaldura emanez, eta GZESaren zerbitzuen eta osasun-zerbitzuen arteko koordinazioa hobetzea, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluan erabakitako koordinazio eta integrazio soziosanitarioko ildo estrategikoak sustatuta, eta hirugarren sektoreko erakundeek bazkide estrategikotzat eta lehentasunezkoztat parte hartuta.	5.1.1 Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluren Dekretu berria prestatzea eta onartzea.	2	1	Koordinazio soziosanitarioa garatu egin behar da, lehen mailako arretari bereziki erreparatuta, berriagoa den aldetik.	– Dekretua onartzea.	
	5.1.2 Koordinazio soziosanitarioko programa pilotuak garatzea, erakundearteko lankidetzarako hitzarmen edo akordioen bitartez, bereziki kontuan hartuta etxeko esku-hartze programa soziosanitarioak abian jartzea.	2	1/3		– Ezarritako koordinazio soziosanitarioko programen kopurua eta ezaugarriak.	
	5.1.3 Lehen mailako arreta soziosanitarioko taldeen eta kasu soziosanitarioak kudeatzen dituzten taldeen esperientzia pilotuak bultzatzea, bi sistemetako edozeinetan diharduten erreferentziako profesionalekin.	2	1/3		– Abian jarritako esperientzien kopurua.	
	5.1.4 Arreta soziosanitarioko lurralde-koordinatzailearen figura eta arreta soziosanitarioko lurralde-kontseiluen garapena sustatzea.	2	1/ 2-3		– Koordinatzaileen eginkizunak eta koordinatzaileei baliabideak eskaintzea. – Kontseiluek jarduerak egitea.	
	5.1.5 Lankidetzaren soziosanitarioko protokolo eta tresnak lantzea, hainbat eskalatan, pertsonen ahalduztzera, aukeratzeko gaitasunera (medikuak agindutakoarekin bat etorritik betiere), ibilbideak erraztera eta erabiltzaile ardatz duen arretara bideratutako ikuspegi batekin.	2	1/4		Osasun-zerbitzu batetik gizarte-zerbitzu batera igarotzeko bidea edo alderantzizko bidea batera koordinatu eta planifikatu behar da, eta bi sistemetan aldi berean artatu beharreko pertsonen profilak ere zehaztu behar dira.	– Ezarritako erreminten (protokoloak eta tresnak) kopurua eta ezaugarriak. – Historia soziosanitarioa egitea.
	5.1.6 Zerbitzu soziosanitarioen Zorroa jasotzen duen Dekretua onartzea.	1	1/4		Zerbitzu soziosanitarioen zorro bat sortu behar da, eta zerbitzu zehatzak garatu.	– Zorroa onartzea, bai eta zorroan bildutako prestazioak ere.
	5.1.7 Arreta Goiztiarrari buruzko Dekretua onartzea.	1	1/4			– Dekretua izapidetzea eta argitaratzea.
	5.1.8 Babesgabetasun-egoeran egonik osasun mentaleko arazoak dituzten adingabeei eta bereziki, jokabide-arazoak dituzten adingabeei arreta emateko lankidetzak akordioak/hitzarmenak ezartzea.	1	1/2		Identifikatutako jomuga-kolektiboetan esku hartzeko plan espezifikoak egin, martxan jarri eta ebaluatu behar dira, kolektibo horiek ordezkatzen dituzten hirugarren sektoreko erakundeen parte hartzearekin.	– Jokabide-arazoak izan ala ez izan, lankidetzak akordio edo hitzarmen horien esparruan artatutako pertsonen kopurua.

5. ARDATZA. BESTE SISTEMA BATZUEKIN LANKIDETZAN JARDUTEA

HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	LEHENTAS UNA	LIDERGOA	LEHENTASUNEZKO ELEMENTUAK	ADIERAZLEAK
	5.1.9 Informazio sozio-sanitarioko sistema ezartzea.	2	1/ 2-3	Izaera soziosanitarioa duen banakako nahiz gehitutako informazioa elkarrekin kudeatzen jarraitu behar da.	<ul style="list-style-type: none"> - Sistema diseinatzea eta abiaraztea. - Partekatutako historia soziosanitarioa garatzea eta erabiltzea.
	5.1.10 Eremu soziosanitarioan ikuspegi etiko-asistentziala garatzea, eta etika-batzordea sortzea eremu horretan.	2	1/4	Kalitatea eta etika sustatu behar dira arretan.	<ul style="list-style-type: none"> - Ekintza bultzatzea: prestakuntza, materialak landu, argitaratu eta/edo ezagutaraztea (eskubideen katalogoak, jardunbide egokien eskuliburuak, protokoloak,...).
	5.1.11 Komunikazio soziosanitarioko plana egitea eta hedatzea.	3	1/ 2-3	Ekitatea sarbidean.	<ul style="list-style-type: none"> - Plana lantzea eta hedatzea.
	5.1.12 Gizarte-zerbitzuen eta osasun-arretaren arloan eskudunak diren administrazioek hitzarmen soziosanitarioak berrikustea eta eguneratzea, GZESaren zentrotako plaza soziosanitarioak eta osasun-prestazioak finantzatzeko.	1	1/ 2-3	Osasun Sailak osasun-prestazioak erabat finantzatu behar ditu, eta plaza soziosanitarioen kasuan, aldiz, baterako finantzaketa izan behar dute.	<ul style="list-style-type: none"> - Eguneratuta eta indarrean dauden hitzarmenen kopurua. - Osasun Saitetik datorren finantzaketaren ehunekoak.
5.2 Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuarekin sarean egindako lana hobetzea, bai eta, bereziki, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Sistemari dagokionez ere.	5.2.1 Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta GZESaren artean etengabeko koordinaziorako eta lankidetzarako bideak ezartzea, besteak beste, honako alderdi hauek barnean hartuta: aktibatzeko eredu partekatua, eraginkorra eta bidezkoa; gizarteratzeko laguntza behar duten pertsonen arreta ematean sistema bakoitzari dagozkion eginkizunak argitzea; koordinaziorako eta lankidetzarako bideak eta protokoloak; bi sistematarako garrantzitsua den informazioa batera kudeatzea.	1	1/ 2-3	Bi eremuei dagozkien laguntza-premiak izanik, bazterkeria-arriskuan edo -egoeran daudenei gizarteratzeko ibilbideak ahalbidetu eta bideratu behar zaizkie, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Sistemako prestazioak jaso ala ez jaso.	<ul style="list-style-type: none"> - Aktibatzeko eredu partekatua ezartzea. - Indarrean dauden lankidetzahitzarmen edo -protokoloen kopurua. - Koordinazio motaren baten (informazioaren elkartrukea...) eraginpean dauden pertsonen kopurua. - Baterako lan baten eraginpean dauden pertsonen kopurua.
	5.2.2 Hezkuntza-arloko laguntza duten gizarteratzeko eta laneratzeko proiektu pilotuak garatzea, Lanbidek eta Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak batera finantzatuta.	2	1		<ul style="list-style-type: none"> - Proiektu pilotuak garatzea eta ebaluatzea.
5.3 Hezkuntza-sistemearekin - bereziki, ikastetxeekin- eta osasun-sistemearekin (lehen mailako arreta) sarean egindako lana hobetzea.	5.3.1 Koordinazio-protokoloak ezartzea ikastetxeekin eta osasun-zentroekin (lehen mailako arreta), koordinaziorako eta ebaluaziorako bide iraunkorrak eta ekimen partekatua barnean hartuta, batik bat, haurren babesaren esparruan (bullynga eta emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko, hautemateko eta horiei aurre egiteko; familiekin batera lan egitea, eta familietan izaten diren aldaketei erantzutea; etorkinak eta errefuxiatuak gizarteratzea eta abar).	3	1 / 2-3	Eremu sozio-educatiboa eta soziosanitarioa garatu behar dira, lehen mailako arretari bereziki erreparatuta.	<ul style="list-style-type: none"> - Indarrean dauden lankidetzahitzarmen edo -protokoloen kopurua. - Koordinazio motaren baten eraginpean eta/edo baterako lanen baten eraginpean dauden pertsona edo familia erabiltzaileen kopurua.

5. ARDATZA. BESTE SISTEMA BATZUEKIN LANKIDETZAN JARDUTEA

HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	LEHENTAS UNA	LIDERGOA	LEHENTASUNEZKO ELEMENTUAK	ADIERAZLEAK
5.4 Beste sistema batzuekiko (etxebizitza, hirigintza, garraioa...) koordinazioa hobetzea, aukeraberdintasuna eta aniztasunaren kudeaketa biltzen dituen zeharkako ikuspegitik begiratuta.	5.4.1 Lankidetzakordioak edo -protokoloak eta/edo ekimen edo zerbitzu partekatuak ezartzea, batik bat, bazterkeria-egoeran edo -arriskuan daudenek etxebizitza eskuratzeko aukera izan dezaten eta desgaitasunen baten dutenei edo mendetasun-egoeran daudenei autonomiaz gizarteratzea ahalbidetzeko.	3	1/2/3	Autonomiaz gizarteratzeko premiei erantzuteko garaian, zeharkakotasuna sustatu behar da, eta hartara, GZESak helburuari erreparatu ahal izango dio.	<ul style="list-style-type: none"> - Indarrean dauden lankidetzahitzarmen edo -protokoloen kopurua. - Abian jarri diren baterako ekimenen kopurua. - Inplikaturako erabiltzaileen kopurua.
5.5 Emakumeen aurkako indarkerian sartuta dauden zerbitzu eta erakundeen arteko koordinazioa hobetzea.	5.5.1 Azterketa bat egitea emakumeen aurkako indarkerian sartuta dauden zerbitzu eta erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko.	2	1/4	Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta hobia eskaini behar zaie, eta emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko estrategia globala hobetu.	<ul style="list-style-type: none"> - Azterketa egitea eta koordinazioa hobetzeko proposamenak identifikatzea.

EGUTEGIA

1. ARDATZA. ARRETAREN UNIBERTSALIZAZIOA, LURRALDE-ANTOLAMENDUA ETA EKITATEA SARBIDEAN

HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	2016	2017	2018	2019
1.1. GZESaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoen estaldurak (eta, hala badagokio, intentsitatea) arian-arian egokitzea, eta zerbitzuak lurraldeetan antolatzea EAEko Gizarte Zerbitzuen mapan eta eranskinetan aurreikusitakoaren arabera.	1.1.1 EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapa aplikatzea, Foru Aldundien eta tokiko erakundeen plangintza txertatzen duten eranskinak aintzat hartuta.	X	X	X	X
	1.1.2. Erakunde bakoitzak honako hauek ezartzea: a) bere eskumeneko zerbitzuak (zentroak) geografikoki nola banatuko dituen, mapan xedatutako irizpide orokorreari jarraikiz; b) bere eskumeneko zerbitzu eta prestazio ekonomiko guztiak hedatzeko plana, 2017ra bitartekoa, estaldura-helburuak eremu geografiko bakoitzaren arabera egokituta eta, hala badagokio, zentro berriak sortzeko beharrezkoak diren inbertsioak zehaztuta (plan hori Mapari gehituko zaio, eranskin moduan).	X 1. hiru h.			
1.2 Zerbitzu eta prestazio ekonomiko berriak edo gutxi garatutakoak (egonkortu gabeak) indartzea eta, bazterkeriaren eremuan, erantzukizun publikokotzat jotako zerbitzuentzat finantzaketa publiko nahikoa bermatzea eta arreta-sarea finkatzea.	1.2.1 2016. urtetik aurrera, zerbitzu eta prestazio ekonomiko berriak edo gutxi garatutakoak (egonkortu gabeak) indartzea.	X	X	X	X
	1.2.2. 2016. urtean, bazterkeriaren eremuko zerbitzuetan gastu korrante publikoa handitzea, hala badagokio, gastu korrante publikoak erantzukizun publikoko zerbitzuei dagokienez beste eremu batzuetan osatzen duen %-a homologatzeko, eta bazterkeria-eremuko arreta-sarea indartzea.	X	X		
1.3 Zerbitzu eta prestazio ekonomiko bakoitzari buruzko araudiaren garapenarekin jarraitzea, eta baldintza materialak, funtzionalak eta langileei dagozkienak araudian -lehendik dagoena edo lantzen ari dena- aurreikusitakoaren arabera egokitzea.	1.3.1 Zerbitzu eta prestazio ekonomiko bakoitzari buruzko araudia garatzen jarraitzea.	X	X	X	
	1.3.2 Baldintza materialak, funtzionalak eta langileei dagozkionak araudian aurreikusitakoaren arabera egokitzea, araudian kasuan kasu ezarritako epean.	X	X	X	X
1.4 GZESaren zerbitzuen finantzaketan ordaintzera behartuta daudenen parte-hartzeari ("koordainketa") buruzko araudia garatzea eta hedatzea, EAE osorako irizpide komunak ezarrita.	1.4.1 GZESaren zerbitzuen finantzaketan ordaintzera behartuta daudenen parte-hartze ekonomikoari ("koordainketa") buruzko irizpide orokorrak erregulatzeko. Eta foru- eta udal-araudia erregulazio horretara egokitzea.	X	X		
1.5 Esku-hartzea baloratzeko, diagnostikoa egiteko eta orientazioko tresna komunak hedatzea, eta arau bidezko garapena bukatzea (arreta pertsonalizatuko plana).	1.5.1 Mendetasuna, babesgabetasuna eta bazterkeria ez ezik arrisku-egoerak ere balioesteko tresna komunak aplikatzea.		X	X	X
	1.5.2 Bestelako tresna komunak aplikatzea: fitxa soziala, diagnostikoa eta Arreta Pertsonalizatuko Plana (APP).		X	X	X
	1.5.3 Helduen babesgabetasun-arriskua eta babesgabetasun-egoerak baloratzeko tresna diseinatzea eta aplikatzea.		X		
1.6 Gizarteak GZESa hobeto ezagutzea, eta GZESaren nahiz zerbitzu publikoen erabilera egokia egiteko eta guztion artean eusteko konpromiso zibikoa sustatzea.	1.6.1 Komunikazio-kanpaina bat abiaraztea, GZESa herritarrei ezagutarazteko: sistemaren xedea, herritar guztien premia/kontingentzia jakin batzuk estaltzera bideratzen dela, zer zerbitzu eta prestazio ekonomiko eskaintzen dituen, sarbidea, eskuratzeko baldintzak eta moduak, haien arteko bateragarritasuna, erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak eta abar.		X		
1.7 Zerbitzuetarako sarbidea -ohikoa eta premiazkoa- hobetzea.	1.7.1 Baliabide bat edo batzuk jasotzeko eskubidea onartu den kasuan, balorazioa, diagnostikoa, orientazioa eta sarbidea izateko itxarote-denbora egokiak sustatzea.	X	X	X	X
	1.7.2 Gizarte-larrialdiekin koordinatzeko zerbitzua garatzea (arauak eta operatiba garatzea, lehen mailako eta bigarren mailako arretaren arteko bideratze-sistema barnean hartuta).	X			
	1.7.3 Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen eta gizarte-larrialdietako zerbitzuen artean koordinazio-protokoloak ezartzea, Zorroari buruzko Dekretuan aurreikusitako baldintzetan.	X			

1. ARDATZA. ARRETAREN UNIBERTSALIZAZIOA, LURRALDE-ANTOLAMENDUA ETA EKITATEA SARBIDEAN

HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	2016	2017	2018	2019
1.8. Plangintzaren ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzea, Gizonen eta Emakumeen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean aurreikusita dagoen moduan, bai eta beste ikuspegi batzuk ere (askotariko sexu-joerak, kulturartekoa, belaunaldiartekoa, irisgarritasun unibertsala eta guztiontzako diseinua); halaber, ekintza positiborako eta aukera- nahiz tratu-berdintasunerako neurriak ere aplikatzea.	1.8.1 Plan honetatik eratorritako organo, batzorde eta lantalde guztietan horiek osatzen dituzten pertsonen osaera orekatua ezartzea, genero-ikuspegiari dagokionez.	X	X	X	X
	1.8.2 Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari, aniztasunari, irisgarritasun unibertsalari eta guztiontzako diseinuari buruzko modulu espezifikoak sartzea Plan honen esparruan garatutako prestakuntza-programetan.	X	X	X	X
	1.8.3 Aldizkako txosten bat egitea, emakumeek GZESari dagokionez duten premian, eskarian eta erabileran –edo erabilerarik ezan– eragina duten faktoreak (askotariko diskriminazio egoera, pobrezia-aren feminizazioa, emakumeen bizi-itxaropena, zainketa informalaren eginkizunak euren gain hartzea eta abar) aztertzeke, bai eta horrek emakumeen bizi-baldintzetan duen inpaktua ere.		X		
	1.8.4 Zerbitzu eta zentroyen irisgarritasuna hobetzeko planak egitea, hobetzeko premia duten kasuetan.	X			
1.9 Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak bermatzea.	1.9.1 GZESaren erabiltzaileei –euren lehentasunaren arabera– EAEko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan artatuak izateko eskubidea bermatuko dieten neurriak indartzea.	X	X	X	X

2. ARDATZA. EREDU KOMUNITARIOA FINKATZEA ETA GARATZEA

HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	2016	2017	2018	2019	
2.1. Erreferentziako figura eta kasuaren koordinazioa indartzea, behar duenari erreferentziako profesional bat eta lagun egite pertsonalizatua eta integrala bermatzeko, erabiltzaileen eskubideen katalogoan aurreikusitakoari jarraikiz (legearen 9. artikulua).	2.1.1 Erreferentziako figurari, kasuaren koordinazioari –sektoriala (lehen eta bigarren mailako arretaren artean) eta sektoreartekoa (soziosanitarioa, sozioedukatiboa, soziolaborala) eta lagun egite sozialari buruzko eredu partekatua lantzea, gizarte-zerbitzuak ematen dituzten enpresa pribatuak eta gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko erakundeak koordinatzeko dinamiketan parte hartzea ere barnean hartuta.	X				
	2.1.2 Administrazio publikoen eta erakunde pribatuen artean protokoloak edo akordioak sinatzea, erakunde pribatuek erreferentziako figuraren eta kasuaren koordinazioaren eginkizunetan parte har dezaten, betiere erakunde profesional bat erreferente izango litzatekeen kasua, elkartrukatu beharreko informazioa, horretarako irizpide nahiz prozedurak, administrazio publikoek egin beharreko jarraipena eta beste hainbat alderdi ere barnean hartuta.	X				
2.2 Arreta-mailen (lehen mailako eta bigarren mailako arreta) arteko koordinazioa hobetzea, arreta integralagoa eta pertsonalizatuagoa izan dadin eta bikoiztasunak saihestuta.	2.2.1 Lehen mailako eta bigarren mailako arretaren artean lankidetzako eta koordinazioko protokoloak (baterako arreta eta bideratzea) lantzea.	X				
2.3 Erabiltzaile eta hartzaileek maila guztietan parte har dezaten sustatzea: esku-hartze pertsonal/familiarrean, zerbitzu edo zentroetan, gizarte-zerbitzuetako politiketan.	2.3.1 Pertsonekin eta familiarekin egindako esku-hartzeetako orientazioan eta ebaluazioan.	X	X	X	X	
	2.3.2 Zerbitzuen diseinuan eta ebaluazioan, eta zentroetako eguneroko bizitzaren antolaketan.					
	2.3.3 Erakunde ordezkarien bitartez, gizarte-zerbitzuetako politiken diseinuan, betearaztean eta ebaluazioan.					
2.4 Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako (OGZ) lau zerbitzuak tokiko erakundeetan (udalak, mankomunitateak...) hedatuko direla bermatzea, eta esku-hartze eta prebentzio komunitarioko zereginak indartzea.	2.4.1. Tokiko erakunde bakoitzak Katalogoko 1.1etik 1.4era bitarteko zerbitzuak hedatzea, eskubidearen titular diren pertsona guztiei bermatzeko moduan.	X				
	2.4.2. Udalaren edo tokiko erakundearen ustez hala dagokionean, Oinarrizko Gizarte Unitateak (OGU) arian-arian hedatzea, OGUaren eraginpeko eremuan fisikoki kokatutako ekipo eta zentroak dituztela, bai eta dinamikak, plangintza eta beste baliabide batzuekiko lankidetzaren ere, deszentralizatuta.	X	X	X	X	
2.5 Zerbitzuak eta, bereziki, zentroak ikuspegi komunitarioaren arabera eta pertsona xede duen plangintzaren printzipioaren arabera egokitzen aurrera egitea.	2.5.1. Pertsona xede duen arreta-eredua zabaltzea, hala etxean nola egoitza-zentroetan, bai eta eguneko zerbitzuak eta egoitza-zentroak edo ostatu-zerbitzuak ingurunearekin lotzea xede duena ere.	X	X			
2.6 Zaintzaileei ematen zaien laguntza hobetzea eta zainketa-ereduen bilakaerari eta dibertsifikazioari aurrea hartzea.	2.6.1. Zaintzaileei begirako atsedeen- eta laguntza-zerbitzuak indartzea, bai eta etxean egoera desegokiak eta laguntza-premiak hautemateko eginkizunak ere (bisitaldien bitartez...).	X	X	X	X	
	2.6.2. GZEBaren esparruan, zaintzaileek eskaintzen duten laguntzarekin lotutako ikerketa-ildo espezifikoa ezartzea, eta haien egoera, gogobetetze-maila, laguntza-premiak eta zainketa-ereduaren edo -ereduen bilakaera ere aintzat hartuta.			X	X	X
	2.6.3. Zaintzaileei buruzko kongresu bat bultzatzea.	X				
2.7 Laguntzeko teknologiak eta produktuak indartzea, autonomiaz gizarteratzea eta etxean geratzeko aukera ahalbidetzeko.	2.7.1. Laguntza teknikoak emateko eta ingurune fisikoak egokitzeko zerbitzuak indartzea, bai eta laguntza-produktuak eskuratzeko eta etxebizitzan eta motordun ibilgailuetan egokitzapenak egiteko zuzeneko prestazio edo laguntza ekonomikoak ere (autonomia erraztera bideratutako prestazio edo laguntza ekonomikoak).	X	X	X	X	
	2.7.2. Prestakuntza eta informazioa hobetzea ahalbidetuko duten neurriak abian jartzea laguntza emateko gaur egun dauden teknologiak ezartzeko eta behar bezala erabiltzeko.	X	X	X	X	

2. ARDATZA. EREDU KOMUNITARIOA FINKATZEA ETA GARATZEA

HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	2016	2017	2018	2019
2.8. Arreta goiztiarreko, mendetasun-, bazterkeria- eta babesgabetasun-egoeren prebentziorako eta autonomia sustatzeko estrategia bat diseinatu eta indartzea, bigarren mailako arretara igarotzeko prozesua atzeratzearen.	2.8.1. Arreta goiztiarrekin (desgaitasuna), mendetasunaren prebentzioarekin eta autonomia sustatzearekin lotutako zerbitzu eta prestazio edo laguntza ekonomikoak indartzea.	X	X	X	X
	2.8.2. Psikologia-, gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzeko eta familia-orientazioko programak sustatzea gurasoen eta seme-alaben artean.	X	X	X	X
	2.8.3. Kontingentzia bakoitzaren (bazterkeria, mendetasuna, babesgabetasuna, desgaitasuna) funtsezko iragarleak identifikatzea eta aldizka prospekzio-azterketak egitea, premien bilakaerari aurrea hartzea ahalbidetzeko.		X	X	X
	2.8.4. Ekiteko eredu prebentiboaren definizio adostua egitea, estentsiboagoa eta intentsitate txikiagokoa, adinekoen mendetasun-arriskuari eta -egoerei goiz ekinda (eguneko arretarako zerbitzuak, ostatua, zaintzaileei laguntzea eta abar).		X		
	2.8.5. Emakumeen, adingabekoen, adinekoen eta desgaitasunen bat dutenen babesgabetasun-egoerak prebenitzeari, hautemateri eta goiz ekiteari bultzada ematea.	X	X	X	X

3. ARDATZA. SISTEMAREN BARNE-EGITURAKETA, ETA GZESaren GOBERNU- ETA KUDEAKETA-SISTEMA GARATZEA

HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	2016	2017	2018	2019	
3.1. GZESa bideratzeko eta hedatzeko beharrezkoak diren organoak finkatzea, lankidetzan jardunda.	3.1.1. GZEBa indartzea, GZESaren erakunde-arkitekturarekin koherenteak diren lanerako prozedura eta irizpideak ezarrita eta lankidetzadynamika finkatuta.	X	X	X	X	
	3.1.2. Oro har, ekimen pribatuaren eta, zehazki, hirugarren sektore sozialaren parte-hartzea sustatzea Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren bitartez, legean aurreikusitakoaren arabera, eta Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren bitartez, gizarte-zerbitzuen arloan parte hartzeko guneak diren aldetik, eta legearen eta, bereziki, GZESaren hedapenari dagokionez.	X	X	X	X	
	3.1.3. Gizarte Zerbitzuen lurralde- eta udal-arloko kontseiluak sortzea, hala badagokio.			X	X	X
3.2. Ekimen pribatuak eta, bereziki, gizarte-ekimenak GZESan parte har dezan sustatzea.	3.2.1. Kudeaketa publikoa -zuzeneko eta gizarte-ekimenaren bidezkoa- gailen izango dela bermatzea.	X	X	X	X	
	3.2.2. Itun sozialaren araubidea eta lankidetzako esparru-akordio eta hitzarmenak arautzea eta garatzea.	X				
3.3. GZESaren hedapena planifikatzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeko beharrezkoak diren kudeaketako hainbat sistema eta tresna indartzea.	3.3.1. Informazioa ematen duten erakunde guztiei GZESaren hedapenari buruzko informazioa denbora errealean izateko aukera emango dien tresna erraz eta arin bat diseinatzea eta hedatzea.	X	X	X	X	
	3.3.2. Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioko Euskal Sistema (GZIES) hedatzea, aurreko tresna ere barnean hartuta, eta sistema horren abiaraztea, mantentze-lanak eta etengabeko eguneratzea bermatzea.			X	X	X
	3.3.3. GZESaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoak etengabe planifikatzeko sistema bat diseinatzea, premien bilakaerari, laguntza formal eta informaldaren sareari, gastuari eta diru-sarrerari buruzko aldikako datuetan oinarrituta.			X		
	3.3.4. Sailari etengabeko plangintza-sistema diseinatzen, gauzatzen eta eguneratzen eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema (GZES) martxan jartzeko bestelako zereginak egiten laguntzea (arauak garatzea, Gizarte Zerbitzuetako Erakundearteko Organoa dinamizatzea, GZEBa bultzatzea...).	X				
	3.3.5. Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokia sustatzea, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Ikuspegi@k Gizarte-gaietarako Behatokiaren sarea eratzen duten gainerako Behatokiarekin koordinatuz, bai eta Euskadin dauden beste Gizarte Behatokiarekin eta gizarte-zerbitzuen arloko bestelako jakintza-zentroekin ere.			X	X	X
	3.3.6. GZESaren eragina ebaluatzeko adostutako sistema bat diseinatu eta abiaraztea (gizarte-kohesioari, prebentzioari, enplegua sortzeari, jardura ekonomikoari... dagokienez).			X		
3.4. GZESan kalitatea hobetzera bideratutako jarduerak sustatzea.	3.4.1. Kudeaketa-kalitatearen adierazleen katalogo adostu bat sortzea; GZESan parte hartzen duten eragileek zenbateraino betetzen dituzten aztertzea ahalbidetuko duen katalogo bat.	X	X			
	3.4.2. GZESaren zentro eta elkarteetan erabiltzaileek eta beste interes-talde batzuek izaten duten gogobetetze-maila neurtzeko sistemak ezartzea.	X	X	X	X	
	3.4.3. Zaintzaren kalitatea ebaluatzeko eta etengabe hobetzeko eredu komunak garatzea, bai eta GZESaren zerbitzuetan kalitatezko sistemak ezartzeko laguntza teknikoko programak ere.			X	X	X
	3.4.4. Kontratu, itun edo hitzarmen baten kudeaketa-zikloko fase guztietan irizpide, prozedura eta tresnak txertatzea, bai eta eskuratzeko baldintzak eta diskriminazio positiboko irizpideak ere, edozein operadorek gauza ditzakeen jardunbideekin -esku-hartzeari eta kudeaketari buruzkoak- lotuta eta GZESaren zerbitzuen hornidurari balioa eransten diotela.	X	X	X	X	
3.5. Titularra gorabehera, zerbitzu guztien barne- eta kanpo-pertzepzioa ahalbidetzea, erantzukizun publikoko sistema bakar bat osatzen duten aldetik.	3.5.1. GZESeko zerbitzu guztientzako sinbolo edo anagrama bereizgarri bat sortzea, sistema berekoak direla agerian uzteko bai barruan bai kanpoan.	X				

4. ARDATZA. BALIABIDEAK OPTIMIZATZEA, BALIABIDEAK PREMIEN ARABERA EGOKITZEA, ETA ERAGINKORTASUNA ETA EFIZIENTZIA HOBETZEA

HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	2016	2017	2018	2019	
4.1. Administrazio-kudeaketako formulak garatzea, betiere eskariak arinago izapidetzea eta erabiltzaileen arretan eta sarbidean bestelako hobekuntzak ezartzea ahalbidetzeko.	4.1.1 Administrazioa arrazionalizatu eta modernizatzeko neurriak hartzea, bai eta administrazioaren zerbitzuak ekainaren 22ko 11/2007 Legea (Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzkoa) egokitzeko ere.	X	X	X	X	
4.2. Arretan gainjartzerik edo hutsunerik izan ez dadin ahalbidetzea, eta erakunde bakoitzaren esku-hartzea legean eta Zorroari buruzko Dekretuan aurreikusitako eskumen-esparruaren arabera egokitzea.	4.2.1. Erakunde bakoitzak eskainitako zerbitzuak eta zerbitzu horien hartzaileak egokitzea eta garatzea legearen eta Zorroari buruzko Dekretuaren eskumen-esparruaren arabera, erakundeen artean egin beharreko transferentziak kudeatuta (ikus finantza-berregokitzea ere).	X	X	X	X	
4.3. Arreta komunitarioa indartzeko, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko, kostuak arrazionalizatzeko eta GZESaren jardun-eremuan premia berriei erantzuteko zerbitzuen kudeaketan eta zerbitzu horiek ematean jardunbide egokien, ebaluazioko eta I+G+Bko jarduerak sustatzea.	4.3.1. Gizarte-zerbitzuen arloan, bai zerbitzuei bai antolatzeko modu berriei dagokienez berrikuntza bultzatzeko berariazko programak indartzea, baita, besteak beste, domotikaren eta osasunaren teknologien esparruetan (beste sistema batzuekin elkarlanean) bultzatzekoak ere.	X	X	X	X	
	4.3.2. Autonomiaz gizarteratzearekin lotutako adierazleen sistema bat zehaztu eta ezartzea, GZESaren esku-hartzearen ondorioz lortu beharreko emaitza den aldetik.			X	X	X
	4.3.3. Gure inguruko beste herrialde batzuetan, beste autonomia-erkidego batzuetan eta EAEren testuinguruan egiten dituzten jardunbide egokien eta berritzaileen berri izateko aukera emango duen programa bat garatzea.			X	X	X
	4.3.4. Gizarte-zerbitzuen eremuan jardunbide berritzaileak egin daitezten sustatzea eta bultzatzea.		X	X	X	X
	4.3.5. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazio eta zerbitzuen kostuari buruzko azterlana egitea, zerbitzu mota berdinean dauden gastu arrunt publikoaren diferentziei eta horietan eragina duten faktoreei erantzun ahal izateko.			X		
4.4. Pertsonen gaitasunak aprobetxatu eta hobetu daitezten, produktibitatea eta lan-baldintza egokiak ahalbidetzea.	4.4.1. Enpleguaren kalitatea sustatzera eta GZESko profesionalen kualifikazioa eta prestakuntza hobetzera bideratutako batzorde sektoriala eratzea GZEk.	X				
	4.4.2. Hitzarmenak formalizatzeko, kontratazioko edo ituntzeko prozeduretan gizarte-klausulak ezartzea, lan-arloko erregulazioak eta zerbitzuak emateko baldintza egokiak (profesionalen kualifikazioa), emakumeen eta gizonen berdintasuna eta abar betetzen direla bermatzeko.	X	X	X	X	
	4.4.3. GZESan esku hartzen duten erakunde eta entitateetako profesionalak etengabe prestatu eta birzikla daitezten indartzea.	X	X	X	X	
	4.4.4. GZESko profesionalak gainbegiratzera eta motibatuz bideratutako eta profesional horiei laguntza psiko-soziala eskaintzeko jarduerak sustatzea, langileek lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egin ditzaten ere ahalbidetuta.	X	X	X	X	
	4.4.5. GZESaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa aplikatzeko beharrezkoak diren jarduera profesionalak gauzatzeko egokienak diren lanbide-kualifikazioak zehaztu eta arautzea Eusko Jaurlaritzak, legearen 78.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.	X	X			
	4.4.6. Lanbideren eta Hezkuntza Sailaren (Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutua) arteko lankidetzaren bitartez, adinekoei eta desgaitasunen bat dutenei arreta ematen lan egiten duten hainbat lanbide-profil egiaztatze prozesuak ahalbidetuko dituzten baldintzak sor daitezten sustatzea.	X	X			
	4.4.7. Laguntzeko sare informal eta soziofamiliarretik arreta egiteko eginkizunetan lortutako gaitasunak errekonozitzea ahalbidetuko duten neurri eta bide egokiak ezartzea, legearen 78.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.		X			

4. ARDATZA. BALIABIDEAK OPTIMIZATZEA, BALIABIDEAK PREMIEN ARABERA EGOKITZEA, ETA ERAGINKORTASUNA ETA EFIZIENTZIA HOBETZEA

HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	2016	2017	2018	2019
	4.4.8. Ezkutuko ekonomian zaintza-lanak egiten dituzten pertsonak profesionalizatzeko politika aktiboak sustatzea: a) Jarduera horiek formalizatzeko erakundeak sortzea eta indartzea; b) pertsona eta erakunde horientzako prestakuntza-ekintzak bultzatzea.	X	X	X	X
4.5. GZESaren zerbitzu eta prestazioak edo GZESak ematen dituenak (osasun-prestazioak edo bestelakoak) hedatzeko beharrezkoak diren baliabideak eta tresnak izatea.	4.5.1. Lehendik dauden zerbitzuen eskumenak egokitu izanaren ondorioz, administrazio publikoen artean egin beharreko berregokitze ekonomikoa egitea.	X	X	X	X
	4.5.2. Zerbitzu eta prestazio ekonomikoak hedatzeko beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak eguneratzea eta gaitzea.	X	X	X	X
	4.5.3. Konpentsazio ekonomikorako irizpide eta mekanismoak ezartzea, tokiko erakunde batek beste tokiko erakunde bat titular duen edo beste tokiko erakunde batek kudeatzen duen baliabide baterako sarbidea bermatu ahal izan dezan.	X			
	4.5.4. Eusko Jaurlaritzan lurralde-antolamenduaren arloan eskuduna den Sailaren eta EUDELen artean akordioak sinatzea GZESA hedatzeko beharrezkoak diren azpiegiturak garatzeko: lurzoruaren hornidura, babestutako etxebizitza eta/edo lokalak lagatzea eta abar.	X	X	X	X

5. ARDATZA. BESTE SISTEMA BATZUEKIN LANKIDETZAN JARDUTEA

HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	2016	2017	2018	2019	
5.1. Eremu soziosanitarioa eraikitzen bukatzea, arreta beharrezko duten kolektibo guztiei behar duten ordezkari eta estaldura emanez, eta GZESaren zerbitzuen eta osasun-zerbitzuen arteko koordinazioa hobetzea, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluan erabakitako koordinazio eta integrazio soziosanitarioko ildo estrategikoak sustatuta, eta hirugarren sektoreko erakundeek bazkide estrategikotzat eta lehentasunezko zatik parte hartuta.	5.1.1. Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren Dekretua prestatzea eta onartzea.	X				
	5.1.2. Koordinazio soziosanitarioko programa pilotuak garatzea, erakundearteko lankidetzarako hitzarmen edo akordioen bitartez, bereziki kontuan hartuta etxeko esku-hartze programa soziosanitarioak abian jartzea.	X	X	X		
	5.1.3. Lehen mailako arreta soziosanitarioko taldeen eta kasu soziosanitarioak kudeatzen dituzten taldeen esperientzia pilotuak bultzatzea, bi sistemetako edozeinetan diharduten erreferentziako profesionalekin.	X	X	X		
	5.1.4. Arreta soziosanitarioko lurralde-koordinatzailearen figura eta arreta soziosanitarioko lurralde-kontseiluen garapena sustatzea.	X	X	X		
	5.1.5. Lankidetzaren soziosanitarioko protokoloa eta tresnak lantzea, hainbat eskalatan, pertsonen ahalduzera, aukeratzeko gaitasunera (medikuak agindutakoarekin bat etorritik betiere), ibilbideak erraztera eta erabiltzaile ardatz duen arretara bideratutako ikuspegi batekin.	X	X	X	X	
	5.1.6. Zerbitzu soziosanitarioen Zorroa jasotzen duen Dekretua onartzea.	X				
	5.1.7. Arreta Goiztiarrari buruzko Dekretua onartzea.	X				
	5.1.8. Babesgabetasun-egoeran egonik osasun mentaleko arazoak dituzten adingabeei eta bereziki, jokabide-arazoak dituzten adingabeei arreta emateko lankidetzak-akordioak/-hitzarmenak ezartzea.	X	X	X	X	
	5.1.9. Informazio sozio-sanitarioko sistema ezartzea.		X	X	X	
	5.1.10. Eremu soziosanitarioan ikuspegi etiko-asistentziala garatzea, eta etika-batzordea sortzea eremu horretan.	X				
	5.1.11. Komunikazio soziosanitarioko plana egitea eta hedatzea.	X	X	X	X	
5.2. Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuarekin sarean egindako lana hobetzea, bai eta, bereziki, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Sistemari dagokionez ere.	5.1.12. Gizarte-zerbitzuen eta osasun-arretaren arloan eskudunak diren administrazioek hitzarmen soziosanitarioak berrikustea eta eguneratzea, GZESaren zentrotako plaza soziosanitarioak eta osasun-prestazioak finantzatzeko.	X	X			
	5.2.1. Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta GZESaren artean etengabeko koordinaziorako eta lankidetzarako bideak ezartzea, besteak beste, honako alderdi hauek barnean hartuta: aktibatze eredu partekatua, eraginkorra eta bidezkoa; gizarteratzeko laguntza behar duten pertsonen arreta ematean sistema bakoitzari dagozkion eginkizunak argitzea; koordinaziorako eta lankidetzarako bideak eta protokoloak; bi sistematarako garrantzitsua den informazioa batera kudeatzea.	X	X	X	X	
5.3. Hezkuntza-sistemarekin -bereziki, ikastetxeekin- eta osasun-sistemarekin (lehen mailako arreta) sarean egindako lana hobetzea.	5.2.2. Hezkuntza-arloko laguntza duten gizarteratzeko eta laneratzeko proiektu pilotuak garatzea, Lanbide eta Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak batera finantzatuta.		X			
	5.3.1. Koordinazio-protokoloak ezartzea ikastetxeekin, koordinaziorako eta ebaluaziorako bide iraunkorrak eta ekimen partekatutako barnean hartuta, batik bat, haurren babesaren esparruan (bullyngia eta emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko, hautemateko eta horiei aurre egiteko; familiekin batera lan egitea, eta familietan izaten diren aldaketek erantzutea; etorkinak eta errefuxiatuak gizarteratzea eta abar).	X	X	X	X	
5.4. Beste sistema batzuekiko (etxebizitza, hirigintza, garraioa...) koordinazioa hobetzea, aukeraberdintasuna eta aniztasunaren kudeaketa biltzen dituen zeharkako ikuspegitik begiratuta.	5.4.1. Lankidetzak-akordioak edo -protokoloak eta/edo ekimen edo zerbitzu partekatutako ezartzea, batik bat, bazterkeria-egoeran edo -arrian daudenei etxebizitza eskuratzeko aukera izan dezaten eta desgaitasun baten dutenei edo mendetasun-egoeran daudenei autonomiaz gizarteratzea ahalbidetzeko.	X	X	X	X	
	5.5.1. Azterketa bat egitea emakumeen aurkako indarkerian sartuta dauden zerbitzu eta erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko.		X			

3.5. EUSKO JAURLARITZA BURU DEN EKINTZEN KUANTIFIKAZIO EKONOMIKOA

Aipatu dugunez, kuantifikatu ahal izateko adina zehaztasun-maila duten ekintzak baino ez ditugu izan kontuan. Gainera, langile-kostuak ez ditugu sartu baldin eta, gure ustez, lan hori Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak jada badituen teknikariek eta/edo arduradunek egin badezakete.

Bestalde, Plana indarrean egongo den aldi osorako kalkulatu den gastua hurrengo koadroan biltzea erabaki dugu. Horregatik: neurria ekintza bakar bati dagokion kasuetan (adibidez, azterlan bat egitea) ulertzen da gastua behin bakarrik egingo dela, eta akordio-urtea ezarritako egutegian adieraziko da; aldizkako zerbitzu bat abian jartzen den kasuetan, aurreikusitako guztizko kostua adieraziko da, eta eskuineko zutabeen, gastu hori zatituko den ekitaldiak adieraziko ditugu.

HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	KOSTUA	EGUTEGIA
1.6 Gizarteak GZESa hobeto ezagutzea, eta GZESaren nahiz zerbitzu publikoen erabilera egokia egiteko eta guztion artean eusteko konpromiso zibikoa sustatzea.	1.6.1. Komunikazio-kanpaina bat abiaraztea, GZESa herritarrei ezagutarazteko: sistemaren xedea, herritar guztien premia/kontingentzia jakin batzuk estaltzera bideratzen dela, zer zerbitzu eta prestazio ekonomiko eskaintzen dituen, sarbidea, eskuratzeko baldintzak eta moduak, haien arteko bateragarritasuna, erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak eta abar.	21.000 €	2017
1.8. Plangintzaren ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzea, Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean aurreikusita dagoen moduan, bai eta beste ikuspegi batzuk ere (askotariko sexu-joerak, kulturartekoa, belaunaldiartekoa, irisgarritasun unibertsala eta guztiontzako diseinua); halaber, ekintza positiborako eta aukera- nahiz tratu-berdintasunerako neurriak ere aplikatzea.	1.8.3. Aldizkako txosten bat egitea, emakumeek GZESari dagokionez duten premian, eskarian eta erabileran -edo erabilerarik ezan- eragina duten faktoreak (askotariko diskriminazio egoera, pobreziaaren feminizazioa, emakumeen bizi-itxaropena, zainketa informala inginkizunak euren gain hartzea eta abar) aztertzeke, bai eta horrek emakumeen bizi-baldintzetan duen inpaktua ere.	21.000 €	2017
2.5. Zerbitzuak eta, bereziki, zentroak ikuspegi komunitarioaren arabera eta pertsona xede duen plangintzaren printzipioaren arabera egokitzen aurrera egitea.	2.5.1 Pertsona ardatz duen laguntza-eredua zabaltzea, hala etxean nola egoitza-zentroetan, baita eguneko zerbitzuak eta egoitza-zentroetakoak edo ostatu-zerbitzuak eta etxeokak lotzea ere.	10.000 €	2016, 2017
2.6. Zaintzaileei ematen zaien laguntza hobetzea eta zainketa-ereduen bilakaerari eta dibertsifikazioari aurrea hartzea.	2.6.2. GZEBaren esparruan, zaintzaileek eskaintzen duten laguntzarekin lotutako ikerketa-ildo espezifikoa ezartzea, eta haien egoera, gogobetetze-maila, laguntza-premiak eta zainketa-ereduaren edo -ereduen bilakaera ere aintzat hartuta.	30.000 €	2017, 2018, 2019
	2.6.3. Zaintzaileei buruzko kongresu bat bultzatzea	30.000 €	2016


HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	KOSTUA	EGUTEGIA
2.8. Arreta goiztiarreko, mendetasun-, bazterkeria- eta babesgabetasun-egoeren prebentziorako eta autonomia sustatzeko estrategia bat diseinatu eta indartzea, bigarren mailako arretara igarotzeko prozesua atzeratzearren.	2.8.3. Kontingentzia bakoitzaren (bazterkeria, mendetasuna, babesgabetasuna, desgaitasuna) funtsezko iragarleak identifikatzea eta aldizka prospekzio-azterketak egitea, premien bilakaerari aurrea hartzea ahalbidetzeko.	30.000 €	2017, 2018, 2019
3.3. GZESaren hedapena planifikatzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeko beharrezkoak diren kudeaketako hainbat sistema eta tresna indartzea.	3.3.2. Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioko Euskal Sistema (GZIES) hedatzea.	50.000 €	2017, 2018, 2019
	3.3.4. Sailari etengabeko plangintza-sistema diseinatzeko, gauzatzen eta eguneratzen eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema (GZES) martxan jartzeko bestelako zereginak egiten laguntzea (arauak garatzea, Gizarte Zerbitzuetako Erakundearteko Organoa dinamizatzea, GZEBa bultzatzea...).	75.000 €	2016
	3.3.5. Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokia (GZEB) sustatzea, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Ikuspegi@k Gizarte-gaietarako Behatokiaren sarea eratzeko duten gainerako Behatokiarekin koordinatuz, bai eta Euskadin dauden beste Gizarte Behatokiarekin eta gizarte-zerbitzuen arloko bestelako jakintza-zentroekin ere.	30.000 €	2017, 2018, 2019
	3.3.6. GZESaren eragina ebaluatzeko adostutako sistema bat diseinatu eta abiaraztea (gizarte-kohezioari, prebentzioari, enplegua sortzeari, jardueraren ekonomikoari... dagokienez).	10.000 €	2017
3.4. GZESan kalitatea hobetzera bideratutako jarduerak sustatzea.	3.4.1. Kudeaketa-kalitatearen adierazlearen katalogo adostu bat sortzea; GZESean parte hartzen duten eragileek zenbateraino betetzen dituzten aztertzea ahalbidetuko duen katalogo bat.	21.000 €	2016, 2017
	3.4.3. Zaintzaren kalitatea ebaluatzeko eta etengabe hobetzeko eredu komunak garatzea, bai eta GZESaren zerbitzuetan kalitateko sistemak ezartzeko laguntza teknikoko programak ere.	60.000 €	2017, 2018, 2019
3.5. Titularra gorabehera, zerbitzu guztien barne- eta kanpo-pertzepzioa ahalbidetzea, erantzukizun publikoko sistema bakar bat osatzen duten aldetik.	3.5.1. GZESeko zerbitzu guztientzako sinbolo edo anagrama bereizgarri bat sortzea, sistema berekoak direla agerian uzteko bai barruan bai kanpoan.	300 € (sinboloa edo anagrama diseinatzeko)	2016
4.3. Arreta komunitarioa indartzeko, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko, kostuak arrazionalizatzeko eta GZESaren jardun-eremuan premia berriei erantzuteko zerbitzuen kudeaketan eta zerbitzu horiek ematean jardunbide egokien, ebaluazioko eta I+G+Bko jarduerak sustatzea.	4.3.1. Gizarte-zerbitzuen arloan, bai zerbitzuei bai antolatzeko modu berriei dagokienez berrikuntza bultzatzeko berariazko programak indartzea, baita, besteak beste, domotikaren eta osasunaren teknologien esparruetan (beste sistema batzuekin elkarlanean) bultzatzekoak ere.	60.000 €	2016, 2017, 2018, 2019
	4.3.2. Autonomiaz gizaratzearekin lotutako adierazlearen sistema bat zehaztu eta ezartzea, GZESaren esku-hartzearen ondorioz lortu beharreko emaitza den aldetik.	25.000 €	2017, 2018, 2019
	4.3.3. Gure inguruko beste herrialde batzuetan, beste autonomia-erkidego batzuetan eta EAren testuinguruan egiten dituzten jardunbide egokien eta berritzaileen berri izateko aukera emango duen programa bat garatzea.	20.000 €	2017, 2018, 2019
	4.3.5. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazio eta zerbitzuen kostuari buruzko azterlan egitea, zerbitzu mota berdinean dauden gastu arrunt publikoaren diferentzietan eta horietan eragina duten faktoreei erantzun ahal izateko.	35.000 €	2017

HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	KOSTUA	EGUTEGIA
4.4. Pertsonek gaitasunak aprobetxatu eta hobetu daitezten, produktibitatea eta lan-baldintza egokiak ahalbidetzea.	4.4.3. GZESan esku hartzen duten erakunde eta entitateetako profesionalak etengabe prestatu eta birzikla daitezten indartzea.	Kostu osagarririk gabe	2016, 2017, 2018, 2019
	4.4.6. Lanbideren eta Hezkuntza Sailaren (Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutua) arteko lankidetzaren bitartez, adinekoei eta desgaitasunen bat dutenei arreta ematen lan egiten duten hainbat lanbide-profil egiaztatzekeo prozesuak ahalbidetuko dituzten baldintzak sor daitezten sustatzea.	Kostu osagarririk gabe	2016,2017
	4.4.8. Ezkutuko ekonomian zaintza-lanak egiten dituzten pertsonak profesionalizatzeko politika aktiboak sustatzea: a) Jarduera horiek formalizatzeko erakundeak sortzea eta indartzea; b) pertsona eta erakunde horientzako prestakuntza-ekintzak bultzatzea.	60.000 €	2016, 2017, 2018, 2019

HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	KOSTUA	EGUTEGIA	
5.1 Eremu soziosanitarioa eraikitzen bukatzea, arreta beharrezko duten kolektibo guztiei behar duten ordezkaritza eta estaldura emanez, eta GZESaren zerbitzuen eta osasun-zerbitzuen arteko koordinazioa hobetzea, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluan erabakitako koordinazio eta integrazio soziosanitarioko ildo estrategikoak sustatuta, eta hirugarren sektoreko erakundeek bazkide estrategikotzat eta lehentasunezko hartuta.	5.1.3. Lehen mailako arreta soziosanitarioko taldeen eta kasu soziosanitarioak kudeatzen dituzten taldeen esperientzia pilotuak bultzatzea, bi sistemetako edozeinetan diharduten erreferentziako profesionalekin.	Kostu osagarririk gabe	2016, 2017, 2018	
	5.1.4. Arreta soziosanitarioko lurralde-koordinatzailearen figura eta arreta soziosanitarioko lurralde-kontseiluen garapena sustatzea.	Kostu osagarririk gabe	2016, 2017, 2018	
	5.1.8. Babesgabetasun-egoeran egonik osasun mentaleko arazoak dituzten adingabeei eta bereziki, jokabide-arazoak dituzten adingabeei arreta emateko lankidetzak-akordioak/-hitzarmenak ezartzea.	Kostu osagarririk gabe	2016, 2017, 2018, 2019	
	5.1.9. Informazio sozio-sanitarioko sistema ezartzea.	30.000 € ⁴⁷	2017, 2018, 2019	
	5.1.10. Eremu soziosanitarioan ikuspegi etikoa-asistentziala garatzea, eta etika-batzordea sortzea eremu horretan.	Kostu osagarririk gabe	2016	
	5.1.11. Komunikazio soziosanitarioko plana egitea eta hedatzea.	40.000 €	2016, 2017, 2018, 2019	
	5.1.12. Gizarte-zerbitzuen eta osasun-arretaren arloan eskudunak diren administrazioek hitzarmen soziosanitarioak berrikustea eta eguneratzea, GZESaren zentrotako plaza soziosanitarioak eta osasun-prestazioak finantzatzeko.	Ez du koste gehigarririk izango Sailarentzat	2016, 2017	
	5.2.2. Hezkuntza-arloko laguntza duten gizarteratzeko eta laneratzeko proiektu pilotuak garatzea, Lanbidek eta Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak batera finantzatuta.	Ezin da zenbatekoa zehaztu, proiektuen arabera aldatu egiten baita.	2017	
	5.5. Emakumeen aurkako indarkerian sartuta dauden zerbitzu eta erakundeen arteko koordinazioa hobetzea.	5.5.1. Azterketa bat egitea emakumeen aurkako indarkerian sartuta dauden zerbitzu eta erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko.	15.000 €	2017

⁴⁷ Informazio-sistamarako datu korporatiboak biltegitzako sistema baten hornidura eta mantentze-lanak biltzen ditu kostuak.

LABURPEN-KOADROA. PLAN ESTRATEGIKOAREN HEDAPENA / HELBURU ETA EKINTZA
NAGUSIAK



4. EAEko GIZARTE-ZERBITZUEN MAPA ETA MEMORIA EKONOMIKOA

4.1. MAPA ETA MEMORIA EKONOMIKOA EGITEKO IRIZPIDEAK

EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapa eta memoria ekonomikoa egiteko jarraitu ditugun irizpideak honako elementu hauen 2017/01/01erako kalkuluarekin, batik bat, daude lotuta: a) alde batetik, estaldurak eta, bestetik, plaza kopurua, arreta-orduak, erabiltzaileak edo prestazio ekonomikoen hartzaileak; b) Gastu Korrante Publiko (GKP); c) eta diru-sarrerak.

4.1.1. EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapa egiteko irizpideak

Gizarte Zerbitzuen Legean Mapa egiteko ezarri diren aurreikuspen guztiak aintzat hartuta, eta aurreikuspen horiek guztiak aldi berean betetze aldera, honako hauek ezarri ditugu:

- *Biztanleriari buruzko hedapen-irizpideak* (35.4 artikulua), bai eta *gutxieneko estaldurak* edo, hala badagokio, *gutxieneko intentsitateak eta adierazle sintetiko bat* (36.4 artikulua).
- Katalogoko eta Zorroko *zerbitzuak ezartzeko egokientzat hartutako biztanleriari buruzko irizpideak*, EAE osoarako berdinak (36.1 artikulua), oinarriko eremua barnean hartuta (36.2 eta 36.3 artikulua).

4.1.1.1. Biztanleriari buruzko hedapen-irizpideak, gutxieneko estaldurak eta adierazle sintetikoa

Biztanleriari buruzko hedapen-irizpideetan goiko maila eta gutxieneko maila ezarri dira.

Gutxieneko estaldurak (edo intentsitateak) *gutxieneko maila dira eta 2017. urtean maila hori bermatu egin behar da* Lurralde Historikoan (edo EAE osoan, Eusko Jaurlaritzaren eskumeneko zerbitzuen eta prestazio ekonomikoaren kasuan). *Nolanahi ere, goiko mailara iristen saiatu behar da.*

Goiko maila

Goiko maila honela finkatu da:

2011. urtean dagoen estaldura bider zerbitzu edo prestazio ekonomiko bakoitzaren *xede-biztanleria*, 2017. urtean –EINen epe motzeko proiektzioen arabera–, betiere Lurralde Historiko bakoitzean edo EAE osoan, Eusko Jaurlaritzaren eskumeneko zerbitzuen eta prestazio ekonomikoaren kasuan (*adierazle sintetikoa, 1. urratsa*).⁴⁸
- Eta ateratzen den datua (plazak, erabiltzaile edo hartzaileak, edo arreta-orduak) gorantz zuzenduta honako irizpide hauen arabera (*adierazle sintetikoa, 2. urratsa*).

⁴⁸ Zerbitzu edo prestazio ekonomiko bakoitzaren "xede-biztanleria" finkatzeko, Zorroari buruzko Dekretuan zerbitzu edo prestazio ekonomiko bakoitza eskuratzeko ezarritako baldintzak hartu dira kontuan.

- *Mendetasuna/autonomia* – adinekoak eremuko zerbitzuetan, bai eta etxez etxeko laguntza-zerbitzuan, telelaguntza-zerbitzuan, Familia Inguruneko Zaintzetarako Prestazio Ekonomikoan eta autonomia pertsonalaren aldeko laguntzetan ere, ateratzen den datua (1. urratsa) gorantz zuzendu da, eta 2017/01/01ean izango diren 75 urtetik gorako pertsonen kopuruarekin biderkatuta, eta 2012/01/01ean zeuden 75 urtetik gorako pertsonen kopuruarekin zatituta.
- *Bazterkeriaren eremuko zerbitzuetan*, ateratzen den datua (paso 1) gorantz zuzendu da 2012an DSBEa jasotzen zutenen kopuruarekin biderkatuta eta 2007an zeuden hartzaileen kopuruarekin zatituta (pentsioak osatzeko prestazioen hartzaileak kontuan izan gabe), betiere gehikuntza gehienez % 15 izanik.

Gutxienerako maila

Gutxienerako maila honela kalkulatu da:

- *Desgaitasunaren eremuan*, xede-biztanleriaren bilakaera demografikoa beheranzkoa den arren (adierazle sintetikoa: 1. urratsa), zentroetan plaza gehiago aurreikusi dira, desgaitasuna dutenak zahartu egingo baitira eta gaixotasun mentala dutenentzako zerbitzuak indartu egin beharko direla aintzat hartuta. Horrela, bada, 2014. urtean zeuden plazak bermatzea finkatu dugu xedetzat, bai eta itxarote-zerrenda betetzea ere, Foru Aldundiek emandako datuen arabera; nolana ere, 2017rako tarteko helburuak ezarri ditugu.

*Heldu ezgaituen tutoretza-zerbitzuan eta arreta goiztiarreko esku-hartze sozialaren zerbitzuan*⁴⁹ erakunde bakoitzak helburu espezifikoak finkatu ditu. *Bizimodu independentea babesteko zerbitzua*, bestalde, zerbitzu berritatu hartu da eta Foru Aldundi bakoitzak emandako datuetan oinarrituta finkatu dira helburuak.

- *Babesgabetasunaren eremuan*, xede-biztanleriaren bilakaera demografikoa beheranzkoa den arren (adierazle sintetikoa: 1. urratsa), 2011. urtean zeuden erabiltzaileen edo plazen kopurua handitzeko helburua zehaztu dugu, adingabeentzako egoitza-zentroetan izan ezik.⁵⁰

Babesgabetasun-egoeran dauden adingabeentzako egoitza-zentroetan (2.4.4) kalkulua egokitu egin dugu 2011-2014 aldiaren plazetan izandako beheranzko bilakaera aintzat hartuta (betiere erakunde bakoitzak finkatutako helburuak EAerako birkalkulatutako batez besteko estalduraren % 80tik gora daudela bermatuta). Beheranzko bilakaera hori: a) jatorriz immigranteak direnek okupatutako plazen kopurua murriztearen ondorio da, baina beherakada hori, hein batean, autoktonoek okupatutako plazen gorakadarekin konpentsatu da eta, hein askoz ere txikiagoan, familia-harrera indartu izanarekin; b) beherakada horrek ez dakar beti gastu-murrizketa 2011-2017 aldiaren, edo ez, ezinbestean, plazen kopurua murriztu den proportzio berean.

Esku-hartze sozioedukatiboaren eta psikosozialaren zerbitzuan (1.3), erabiltzaileen kopurua handitzea da helburua, eta gastua areagotu egin da (bi kasuetan, % 10), honako faktore

⁴⁹ *Desgaitasuna dutenentzako atsedenerako zerbitzu espezifikoan* egonkortu gabekotzat jotako zerbitzuen kasurako irizpide propioei jarraitu diegu.

⁵⁰ Eremu horretan, eta desgaitasuna duten pertsonen arretaren eremuan ere, adierazle sintetikoaren 1. urratsaren bitartez finkatutako helburua gorantz zuzendu da. Hala ere, bi eremu horietan aplikatutako bigarren irizpidea ez da adierazle sintetikoan sartzen, ez baitira irizpide sozio-demografikoak.

hauek aintzat hartuta: a) Zorroari buruzko Dekretuan aurreikusitakoaren arabera, babesgabetasun-arrisku arinaren edo ertainaren egoeran dauden adingabeekin eta haien senitartekoeekin batera, zerbitzuak bazterkeria-arriskuan eta/edo mendetasun-arriskuan dauden pertsona guztiak -adina gorabehera- artatu behar ditu; b) arreta psikosozialak azken urteetan izan duen bilakaeraren ondorioz, gastua handiagoa izaten ari da, esku-hartze sozioedukatioarena ez bezalako kostua duen aldetik.

Informazio-, balorazio-, diagnostiko- eta orientazio-zerbitzua (1.1)/OGZ dagokionez -aurrekoa bezala, eremu edo kontingentzia guztiak hartzen dituen zeharkako zerbitzua izaki hau ere-, 2011. urtean lehen mailako arretan zeuden langileei (gizarte-langileak eta administrazioko langileak) eta arreta-orduei eustea izango da helburu, kasuaren koordinazioa eta lagun egite soziala indartzearren; izan ere, hori guztia funtsezkoa baita eredu komunitarioa eta, bereziki, arretaren hurbiltasuna, deszentralizazioa eta pertsonalizazioa indartzeko.

Asmo berari jarraikiz, eta zerbitzu horrek, lehen instantzian, erantzukizun publikoko sistema gero eta handiago baterako sarbidea kudeatzen duela aintzat hartuta, zera proposatu da, Zorroari buruzko Dekretua ezartzearen eta zenbait prestazio ekonomikoren kudeaketa Lanbideri eskualdatu izanaren ondoriozko aldaketak ebaluatu ostean, figura profesional horien arreta-ratioetan (biztanle bakoitzeko minutuak) ere EAEko batez besteko estalduraren % 85era iristeko helburua finkatzea, 2020rako.

- *Egonkortu gabekotzat (berriak edo gutxi garatutakoak) jotako zenbait zerbitzuri* dagokionez -desgaitasunaren eremuan aipatu ditugunak, esaterako-, estaldura edo gastu-helburu espezifikoak finkatu dira.

Ildo beretik, *adinekoentzako ostatu-zerbitzuen eta eguneko arretarako zerbitzuen* kasuan, EAEko batez besteko estaldura lortzea izango da gutxieneko maila.

- *Gainerako zerbitzuetan*, gutxieneko maila honela kalkulatu da: goiko mailan aurreikusitako plazen, arreta-orduen, erabiltzaile edo hartzaile kopuruaren gorakada bider 0,75 eginda, honako kasu hauetan izan ezik:
 - Lurralde Historiko batean zerbitzu edo prestazio jakin baterako ateratako estaldura (2017. urtean eta goiko mailari dagokionez) EAEko batez besteko estaldura (2017an eta goiko mailan) *baino handiagoa baldin bazen*:
 - 2011. urtean zeuden plazak (edo erabiltzaile edo hartzaileak, edo arreta-orduak/intentsitatea, etxex etxeko laguntza-zerbitzuaren kasuan) bermatzea finkatu da helburutzat.
 - Edo zerbitzu edo prestazio bakoitza emateaz zuzenean arduratzen den administrazioak proposatutako helburua hartu da.⁵¹
 - Lurralde Historiko batean zerbitzu edo prestazio jakin baterako ateratako estaldura (2017. urtean eta goiko mailari dagokionez) EAEko batez besteko estalduraren % 80

⁵¹ Zerbitzu edo prestazio ekonomiko bakoitza emateaz zuzenean arduratzen diren administrazio publikoek gorantz edo beherantz zuzen ditzakete estaldurarako aurreikusitako helburuak egonkortutakotzat jotako zerbitzu eta prestazio ekonomikoek dagokienez (ez berriak edo gutxi garatutakoak baldin badira), betiere justifikatuz gero.

Beherantz zuzen ditzakete baldin eta, dagokion zerbitzu eta prestazio ekonomikoaren kasuan, 2017rako aurreikusitako estaldura -irizpide orokorrak aplikatu ostean ateratzen dena- EAEko batez besteko estaldura baino handiagoa baldin bada bere eskumeneko esparru geografikoan, eta zuzenketa egin ostean ere handiagoa izaten jarraitzen baldin badu. Eta gorantz zuzen ditzakete, baldin eta helburu berriak ez badu EAEko batez besteko estaldura % 20tik gora gainditzen 2017an (2020. urtean, % 15). Kasu horretan, helburua plangintzaren ondorioetarako topatuko da, eta zerbitzu edo prestazioaren erantzule den erakundeak % 20tik gorako helburuak ezarri ahal izango ditu.

(2017an eta goiko mailan) *baino txikiagoa baldin bazen*, EAEko batez besteko estalduraren % 80 bermatzeko helburua finkatu da.⁵²

Hori guztia Lurralde Historikoetako estaldura-mailen artean gero eta oreka handiagoa lortzeko arian-arian.

Beste ohar batzuk

Bazterkeriaren eremuan, adierazle sintetikoari erreparatuta, plazen eta erabiltzaileen kopurua zein izango den proiektatu da, zerbitzu publikoetan eta, gaur egun, erakundeek zerbitzu pribatu itundutzat jotzen dituztenetan.

Dena den, inbentarioan hautemandako titulartasun pribatuko beste zerbitzu batzuetan 2011. urtean zegoen gastua 2017ra eraman da (proiektatu gabe), betiere GZESan sartzen ote diren eta, hala badagokio, noren eskumenari atxikitzen zaizkion argitzeko egin behar den prozesua 2016an ixteko zain. 2011. urtean, baliabide horiek askotariko finantzaketa-iturriak zituzten, eta finantzaketa publikoaren maila oso txikia, baldin eta azkenean GZESan sartzen direla erabakitzen bada.

⁵² Hori horrela eginda, EAE osoan estaldurak parekatzeko lanetan aurrera egitea da gure asmoa; izan ere, Lurralde Historikoen artean dauden askotariko aldeak -baliabideen (zerbitzu eta prestazio ekonomikoak) premia aldatzeko gaitasuna dutela- ez baitira oso handiak, ez behintzat % 20ko (2017an) edo % 15eko (2020an) desbideratzea -gorantz ala beherantz- justifikatzeko adina, baina alde horiek agian justifika dezakete Lurralde baten estaldura EAEko batez bestekora ez iristea edo batez besteko hori gainditzea.

4.1.1.2. Arreta-sarearen hedapena lurraldean

4.1.1.2.1 Zerbitzuak ezartzeko egokien iritzitako biztanleriari buruzko irizpideak

1. Zentroak lurraldean hedatzearekin lotuta daude irizpideak, baina ez beste zerbitzuen hedapenarekin.
2. Katalogoko zentro mota bakoitzerako egokientzat hartutako hurbiltasun-mailak zehaztu dira, eta zentro bakoitzean maila horrek oso handia, handia, ertaina eta txikia izan behar ote duen finkatu da, bai eta zentralizatuak ere; faktore horien arabera, bost *biztanleria-eremu* zehaztu dira, biztanleria-bolumen jakin bat dutela, bai eta bost *mugapen geografiko* ere.

Hurbiltasun-maila	Biztanleria-eremua (Biztanleriaren bolumena)	Mugapen geografikoa	
Zentralizatuak	400.001-EAeko edo Lurralde Historikoko guztizko biztanleria	Lurralde Historikoa edo EAE	
Hurbiltasun-maila txikia	200.000 - 400.000	Sektorea	
Hurbiltasun-maila ertaina	50.001 - 199.999	Eskualdea	
Hurbiltasun-maila handia	Gutxienekoa (15.001)/Ertaina (30.001)- 50.000	Area	
Hurbiltasun-maila oso handia	Oinarrizko hiri-eremua ⁵³ Oinarrizko landa-eremua	5.000 biztanle. 3.000 biztanle.	Udalerrria edo udalerrri-elkartea

Biztanleria-eremuak dira -ez mugapen geografikoak- *zerbitzuak ezartzeko biztanleriari dagozkion irizpide egokienak*.

Biztanleria-eremuak zera dira, zerbitzu bat emateko ardua duen erakundeak zentroa non kokatu erabakitzeke garaian aintzat behar duen biztanleria-bolumena (ez mugape geografikoak), nahiz eta erakundeak mugapen geografikorik ezarri ez (edo hemen proposatu ditugunaz bestelakoak ezarri).⁵⁴

Mugapen geografikoak, ordea, mugape geografikoak dira eta, kasu askotan, alde aurretik finkatuta daude -hala nola, udalerrriak, eskualdeak edo Lurralde Historikoa-.

⁵³ Berehala ikusiko dugu biztanleriaren bolumena bat datorrela zehazki legean aurreikusitakoarekin, baina horrek ez du esan nahi Oinarrizko Gizarte Zerbitzu bat (OGZ) edo Oinarrizko Gizarte Unitate bat (OGU) egongo denik, nahitaez, oinarrizko eremu bakoitzean, baizik eta 5.000-30.000 biztanle bakoitzeko hiri-eremuan, eta 3.000-7.000 biztanle bakoitzeko landa-eremuan.

⁵⁴ Ildo beretik, zentroak biztanleria-bolumen jakin bat duten "biztanleria-eremuetan" (edo erabiltzailearen nahiz erabiltzaile izan denaren bizilekutik distantzia jakin batera, edo bestelako esateko, harentzat erreferente den Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetik edo Oinarrizko Gizarte Unitatetik distantzia jakin batera) kokatuko direla bermatzen saiatzeko orientabideak ezartzea, alde batetik, eta bestetik, mugapen geografiko jakin batzuetan oinarrituta zerbitzuak lurraldean nola hedatuko diren antolatzea ez dira gauza bera.

Zentro mota bat biztanleria-eremu jakin batean kokatzeko gomendioa egiteak zera esan nahiko luke:

- a) Lurralde Historikoan ez dela egongo ezein eremu biztanleriaren bolumena handiagoa izanik mota horretako zentro bat, gutxienez, ez duenik.

Irizpidea betetzen ote den baloratzeko, Lurralde Historikoa mugapen geografiko zehatzetan banatu daiteke, eta mugapen horietan irizpidea bete egin behar da edo, gutxienez, betetze-maila baloratu behar da, betiere erreferentziatzen hartuta Lurralde Historikoko Oinarrizko Gizarte Zerbitzu bakoitza (noranzko guztietan).⁵⁵

- b) Pertsona batek zentro mota hori eskura izan dezakeela biztanleriaren bolumen jakin bat gainditzen ez duen eremu batean.

Irizpidea betetzen ote den baloratzeko, adibidez, dagokion Oinarrizko Gizarte Zerbitzua hartu beharko da erreferentziatzen, berriro ere, edo bestela, zegokioketara, egoitza-zentro batean sartu behar badu (noranzko guztietan).

3. Irizpide horiek orientagarri dira, eta erakunde arduradunek aintzat hartu beharko lituzkete euren eskumeneko zentroen sarea lurraldean hedatzeko garaian. Plangintza horretan, erakundeek beste hainbat printzipio ere izan behar dituzte kontuan; hala nola, baliabideak kudeatu eta baliatzeko garaian eraginkor izateko printzipioa, baina irizpide (biztanleria-eremua) horien arabera egokitzeak ez du eragin behar, inolaz ere, beste baliabide bat gaitzea, eratorritako eta artatu gabeko eskari nahikorik ez baldin badago, baliabidea behar beste okupatuko dela bermatzeko adina.
4. *EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapan* ezarritako lurralde-antolaketako mugapen geografikoak bat datoz zentroen hedapenez zuzenean arduratzen diren erakundeek ezarritakoekin, betiere irizpide horiei jarraikiz (eranskin gisa atxikita dago horien plangintza).⁵⁶
5. Zentro bat zentro mota horretarako zehaztutako biztanleria-eremua aintzat hartuta kokatzea komeni da, baina horrek ez du esan nahi zerbitzua hornitzeko eskumena duen administrazio publikoa zerbitzua bera ematek salbuetsita geratzen denik baldin eta, hainbat arrazoirengatik, ezin badu zentroa eremu horretan kokatu.⁵⁷

⁵⁵ Adibidez, adinekoentzako eguneko zentro bat (2.2.1, 1. mota) 15.000-50.000 biztanleko biztanleria-eremu batean kokatu behar bada, biztanleriaren bolumen horrekin bat datozen eremuetan mota horretako zentro bat izan beharko da, erreferentziatzen hartuta Lurralde Historikoaren Oinarrizko Gizarte Zerbitzu guzti-guztiak (noranzko guztietan, OGZtik).

⁵⁶ Gainera, legera printzipioekiko koherentziari eustearren, lehendik dauden baliabideak ahalik eta gehien aprobetxatuko direla bermatu behar da eta, beraz, irizpide horiei jarraitzeak ez du eragin behar, eta are gutxiago krisi-testuinguru batean, jada GZESari atxikita dagoen ezein zentro ixtea, ez eta lehendik dauden bestelako azpiegiturak desaprobatzea ere, sarea garatzeko aprobetxa badaitezke.

⁵⁷ GZESaren Katalogoko zerbitzu eta prestazio ekonomikoetarako sarbidea bermatuta egongo da, Zorroari buruzko Dekretuan aurreikusitako baldintzetan, sarbide hori eskubide subjektibotzat onartua baitago. Eta eskubide hori zerbitzu emateko edo prestazio ekonomiko ahalbidetzeko betebeharraren ondorio da. Betebehar hori zerbitzua -edo prestazio ekonomiko- emateko eskumena duen administrazioari dagokion, Legean xedatutako eskumen-araubideari jarraikiz.

Zentroak ezartzeko egokien irizitako biztanleriari buruzko irizpideak

Hurbiltasun-maila handieneko zerbitzuak (zentroak): biztanleria-eremua (oinarrizko eremua)/mugapen geografikoa (udalerrria edo udalerrri-elkartea)	
<p><<Oinarrizko eremua izango da oinarrizko gizarte-zerbitzuen lurralde-eremua (edo, hala balegokio, oinarrizko gizarte-zerbitzuen unitateena) zedarrizteko biztanle-eremua, eta 29. artikuluko 4. paragrafoan ezarritakoaren arabera integratzen dira oinarrizko gizarte-zerbitzuetan>>. (36.3. artikulua)⁵⁸</p> <p>Biztanle kopuruaren aldetik, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren oinarrizko jardun-eremuak 5.000 biztanlekoa izan beharko du, edo, nekazaritza-inguruetan edo gune bereziki behartsu edo andeatuetan jardun behar badu, 3.000 biztanlekoa. Berdin dio biztanle-kopuru hori udalerrri bakarrean bildurik edo hainbatean banaturik dagoen (36.2 artikulua).</p> <p>Horrek esan nahi du udalerriek, mugakide izateaz gain, biztanleriaren bolumen horiek (oinarrizko eremuak) aintzat hartu behar dituztela zerbitzuak emateko elkartzan badira, eta hori egitea beharrezkoa izango litzateke, gutxienez, biztanleriaren bolumen horietara iritsi arte (“oinarrizko jardun-eremuak 5.000 biztanlekoa izan beharko du...”). Baina ez du esan nahi Oinarrizko Gizarte Zerbitzu bat edo Oinarrizko Gizarte Unitate bat bermatu behar denik, lantaldea eta ekipamendua deszentralizatuta dituela, oinarrizko eremu bakoitzeko.</p> <p>Tokiko erakunde bakoitzak Oinarrizko Gizarte Zerbitzu (OGZ) bat eta, hala badagokio, egoki irizitako Oinarrizko Gizarte Unitateak (OGU) izango ditu.</p> <p>Bigarren alderdi hori tokiko erakunde bakoitzaren arabera izango da, betiere bere auto-antolaketa gaitasuna errespetatuta eta zerbitzuen antolaketa bakoitzaren errealitateara egokitzeko premia aintzat hartuta.</p> <p>Dena den, OGZek edo OGUek 5.000-30.000 biztanleko jardun-eremua izatea gomendatzen da, hiri-eremuan, eta 3.000-7.000 biztanlekoa landa-eremuan; landa-eremutzat hartuko dira gehienez 3.000 biztanleko udalerriz osatutako udalerrri-elkarrekin osatzen dituzten oinarrizko eremuak.</p> <p>Horrela, bada, 5.000 eta 3.000 biztanleko erreferentzia horiek gutxienezkoak direla esan dezakegu, zentro bati (kasu honetan, OGZa edo OGUa) egokitzea komeni den biztanleria-eremuari dagokionez (biztanleriaren bolumena), eta oinarrizko eremua, berriz, biztanleria-eremu bat (biztanleriaren bolumena), ez mugapen geografikoa (erakunde bakoitzak nahi duena har dezake).</p>	<p>Oinarrizko Gizarte Zerbitzua/Oinarrizko Gizarte Unitateak:</p> <p>1.1. Informazio-, balorazio-, diagnostiko- eta orientazio-zerbitzua. 1.2. Etxez etxeko laguntza-zerbitzua. 1.3. Gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua. 1.4. Zaintzaileei laguntzeko zerbitzua.</p> <p><<Oinarrizko gizarte-zerbitzuak agintzen zaizkion lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuak eskaintzeko lanak egingo ditu, baina, edonola ere, 22. artikuluko 1.1, 1.2, 1.3 eta 1.4 paragrafoetan jasota datozenak beti-beti eskaini beharko ditu. 19. artikuluan arauturik dagoen esku hartzeko oinarrizko prozedura bere lurraldean behar bezala aplikatuko dela bermatzeko ardura ere badu>> (29.5 artikulua).</p> <p>Horrek ez du esan nahi Oinarrizko Gizarte Unitate bakoitzean lau zerbitzuak egongo direla bermatu behar denik.</p> <p>Alderdi hori tokiko erakunde bakoitzaren arabera izango da, betiere bere auto-antolaketa gaitasuna errespetatuta eta zerbitzuen antolaketa bakoitzaren errealitateara egokitzeko premia aintzat hartuta.</p>
Hurbiltasun-maila handiko zerbitzuak (zentroak): biztanleria-eremua (15.000 - 50.000)/ mugapen geografikoa (area)	
<p>Zentroak 15.000-50.000 biztanleko eremuan kokatzea komeni da. Area zera da, oinarrizko bi eremu edo gehiago gehituta sortzen den tokia, eta zerbitzuak emateko elkartzan diren udalerrriak mugakide izatea komeni da.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Gainerako Udal Gizarte Zerbitzuak, bazterkeriaren eremukoak izan ezik. Nolanahi ere, Gizarte-zerbitzuen eremuan partaidetza eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzuari (1.5) dagokionez, tokiko erakundearen ardurapeko lurralde osorako eman daiteke. - Adinekoentzako/mendetasuna dutenentzako eguneko zentroa (2.2.1, 1. mota), okupazio-zerbitzu edo -zentroa (2.2.2) eta adinekoentzako egoitza-zentroak (2.4.1).

⁵⁸ <<4. Oinarrizko gizarte-zerbitzuak zein lurraldetan lan egin behar duen jakiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Mapan jasota datozen irizpideak erabiliko dira. Udalerrriaren edo udalerrri-elkarrearen tamainaren arabera, oinarrizko gizarte-zerbitzua oinarrizko gizarte-zerbitzuen unitateetan bana daiteke, hartara, herritarren beharrei hobeto erantzuteko eta dagokion lurralde osoan lan egin ahal izango duela bermatzeko (29.4 artikulua)>>.

Hurbiltasun-maila ertaineko zerbitzuak (zentroak): biztanleria-eremua (50.001 - 200.000) ⁵⁹ / mugapen geografikoa (eskualdea)	
Ez da biztanleriaren bolumenik zehaztu, "eskualdeak" administrazio-mugapeak direlako eta Lurralde Historiko bakoitzean aldez aurretik finkatuta daude; beraz, biztanleriaren bolumena ere aldez aurretik zehaztua dago.	<ul style="list-style-type: none"> - Eguneko, gaueko eta ostatu hartzeko zentroak, bazterkeriaren eremukoak, udal-eskumenekoak. - Desgaitasuna eta gaixotasun mentala dutenentzako etxebizitzak, laguntzekin (2.4.2, 1. mota; eta 2.4.3, 1. mota) eta babesgabatasun-egoeran dauden adingabeentzako egoitza-zentroak (2.4.4).
Hurbiltasun-maila txikiko zerbitzuak (zentroak): biztanleria-eremua (200.001-400.000)/ mugapen geografikoa (sektorea)	
Zentroak 200.000-400.000 biztanleko eremuan kokatzea komeni da. Sektoreak dira bi eskualde edo gehiago biltzen diren lekuak.	<ul style="list-style-type: none"> - Desgaitasuna dutenentzako eguneko zentroa/helduak (gaixotasun mentala) eta desgaitasuna (2.2.1, 2. mota). - Gizarteratze-premiei erantzuteko eguneko zentroa (2.2.3); desgaitasuna dutenentzako egoitza-zentroak (2.4.2, 2. mota). - Gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza-zentroak (2.4.3, 2. mota). - Bazterkeria- eta marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak (2.4.5, 2. mota). - Etxean tratu txarren biktima izan diren emakumeentzako egoitza-zentroak eta emakumeentzako beste egoitza-zerbitzu batzuk, 2. mota.
Zerbitzu (zentro) zentralizatuak: biztanleria-eremua (Lurralde Historikoa) / mugapen geografikoa (Lurralde Historikoa)	
Zentroak Lurralde Historikoan kokatu behar dira, ahal dela.	<ul style="list-style-type: none"> - Bazterkeria- eta marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak, 1. mota. - Etxean tratu txarren biktima izan diren emakumeentzako egoitza-zentroak eta emakumeentzako beste egoitza-zerbitzu batzuk, 1. mota.

Mugapen geografikoak

Hauek ere orientabide edo gomendioak dira, erakunde bakoitzak autonomia baitu mugapenak finkatzeko, eta EAEko Mapa erakunde bakoitzak ezartzen dituenen arabera egokitu beharko da.

- **Lurralde historikoa.** Lurralde Historikoan kokatu beharreko zentroek -Foru Aldundiaren edo Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak- oso txikiak izan behar dute.
- **Sektoreak.** Tamaina eta biztanleria-bolumen handiko eremuak sortzea du xede, eremu horietan honako zerbitzu hauek kokatzeko: a) gaur egun soilik hiriburuetan ematen diren arren, Lurralde Historikoko biztanle guztiei zuzenduta dauden zerbitzuak; b) estaldura- edo intentsitate-tasa handirik eskatzen ez dutenak eta, beraz, zentro oso espezifikoan bitartez eman daitezkeenak; c) deszentralizatzea komeni direnak, hein batean, bederen, Lurralde Historiko bakoitzeko biztanleriaren arabera. Lurralde Historiko berekoak diren eskualdeen elkarte moduan eratuko lirateke. Sektoreak eratzeak, ahal dela, osasun-sistemaren lehen mailako arretako eskualdeen eraketa errespetatzea komeni da, legearen 36.6 artikuluan adierazitakoari jarraikiz.
- **Administrazio-eskualdeak.** Udalerriaz gaindiko lurralde-unitateak dira, hainbat jardun publiko sektorial -hala nola, gizarte-zerbitzuak- garatzeko sortu direnak.
- **Areak.** Hurbiltasun-maila handiko zerbitzuak areen bitartez egituratuko dira; areak, oro har, udalerriaz gaindiko unitateak dira, eta hurbiltasun-maila handia eskatzen duten zerbitzuen lurralde-eremua zehazteko ez ezik, oinarritzko eremuak tarteko tamainako biztanleria-eremuetan taldekatzeko ere diseinatu dira. Horrenbestez, mugakide diren oinarritzko hainbat eremu elkartuta sortzen dira, irisgarritasunaren, eraginkortasunaren eta efizientziaren ikuspegitik begiratuta, programa jakin batzuk partekatuta ahal izateko eta/edo zerbitzuak emateaz arduratzen direnei laguntza tekniko emateko. Foru Aldundiek eskualdeetan ezarritako azpibanaketetan oinarritzea izango litzateke zentzuzkoena.

⁵⁹ Eskualdeen kasuan, biztanleria-eremua baliteke bat ez etortzea zifra hauekin. Kontuan izan, zenbaitetan, eskualde bateko biztanleriaren bolumena area batekoa baino txikiagoa izan daitekeela.

4.1.1.2.2 Arreta-sarearen plangintza eta antolamendua Lurralde Historiko bakoitzean, eta erakundeen arteko lankidetzak

1. Foru Aldundiek eta tokiko erakundeek, legearen eskumen-araubidean (41. eta 42. artikulua, eta batik bat, bi artikuluen bigarren zenbakian) aurreikusitakoari jarraikiz, beren eskumeneko zerbitzu eta prestazio ekonomikoak hedatzeko plangintza egingo dute.
2. Plangintza horretan, *EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan estrategikoan eta Mapan* xedatutako irizpide orokorrak aintzat hartu beharko dituzte: biztanleriari buruzko hedapen-irizpideak (35.4 art.); gutxieneko estaldura-mailak eta adierazle sintetikoak (36.4 art.); Katalogoan zehazten diren zerbitzuak ezartze aldera, biztanleriari dagozkion irizpiderik egokienak (36.1, 2 eta 3 art.).⁶⁰
3. Plangintzan honako hauek gutxienez, zehaztuko dira: a) eraginpeko zerbitzu eta prestazio ekonomikoen garapen-helburuak (estaldurak, alde batetik, eta bestetik, zentroetako plazak, etxe etxeko laguntza-zerbitzuaren arreta-orduak, gainerako zerbitzuetako erabiltzaileak eta prestazio ekonomikoen hartzaileak); b) helburu horiekin lotutako gastu korrante publikoaren kalkulua; kalkulu hori, ahal dela eta arian-arian, aurrekontuen bidez egin beharko da; c) langintzaren eraginpeko zentro bakoitza -lehendik daudenak edo aurreikusitakoak-, hala badagokio⁶¹, kokatuko den mugapen geografikoa (baina ez da beharrezkoa kokapen zehatza adieraztea).
4. Horretarako, kasu horretan, bere eskumeneko zentroak bere ardurapeko lurraldeko eremu zehatzetan (foru- eta udal-administrazioek ezar ditzaketen mugapen geografikoak, legearen 36.5 artikulua araberak) banatuko ditu, geografikoki zehatz-mehatz identifikatuta eta zerbitzuak ezartzeko egokienak diren biztanleriari dagozkion irizpideak aintzat hartuta (36.4 artikulua).
5. Bere eskumeneko zerbitzu eta prestazio ekonomikoen garapen-helburuak zehazteko garaian, eremuen araberrako datu zehatzak baldin badituzte, Foru Aldundiek eta tokiko erakundeek -haiek zehazten dituzten mugapen geografikoetan- eremu bakoitzeko (mendetasuna/autonomia, bazterkeria, desgaitasuna, babesgabetasuna) berezko adierazle sintetikoak kontuan izango du, gutxieneko estaldura-maila eta batez besteko intentsitate horiek eremu geografikoetako berezitasunera egokitzeko (ikus legearen 36.4 eta 36.5 artikulua).

Horrek ez du esan nahi ezin dutenik, horretaz gain, adierazlea sintetikoaz besteko faktorerik aintzat hartu, betiere Lurralde Historiko bakoitzerako ezarritako gutxieneko estaldura-mailak eta intentsitateak bermatzea xede izanik plangintza orokor honen esparruan.⁶²

⁶⁰ Legearen 33. artikulua honako hau xedatzen du: <<Foru-aldundiek eta toki-erakundeek badute bakoitzak bere planifikazioa egiteko aukera, baina Autonomia Erkidegorako zehazturik dagoena errespetatuz. Hura garatu eta, beharrezkoa iruditzen bazaie, beren lurraldeetarako hobekuntzak ezarriko dira>>. Eta hemen proposatzen ari garena zera da, plangintza edo planifikazio hori egin dadila, proposatutako baldintzetan, eta EAEko Plan Estrategikoan txerta dadila eranskin gisa, legean plangintzari buruz egindako aurreikuspen guztiak behar bezala betetzearren. Gainera, eskumen-araubidean Foru Aldundien eta Udalen eskumenei buruz xedatutakoarekin bat dator.

⁶¹ Baldin eta kudeaketa beste norbaiti eskuordetzen ez bazaio edo beste formularen bat hautatzen ez bada plazak eskuratzeko aukera bermatzeko, betiere eta ahal dela, biztanleriari dagozkion irizpide egokienak errespetatuta zerbitzuak ezartzeko.

⁶² Gogoan izan: a) Lurralde Historikorako ezartzen diren estaldura-mailak eta intentsitateak -gutxienekoak eta goiko mailak- Lurralde Historiko osoan bete behar direla; b) eta beste eremu geografiko batean handiagoak edo txikiagoak izan daitezkeela, eremu geografiko horretako adierazle sintetikoaren arabera eta dagokion zerbitzu edo prestazio ekonomikoa emateaz zuzenean arduratzen diren administrazio publikoek aintzat har ditzaketen gainerako faktoreen arabera.

6. Gainera, Foru Aldundiak -tokiko erakundeekin lankidetzan eta erakunde bakoitzaren autonomia errespetatuta- *Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Mapa* egiteko prozesuan buru izan daitezke; mapa horretan, foru- nahiz udal-eskumeneko baliabideak sartu behar dira eta zentroak lurraldean hedatzeko proposamena ere egin beharko da.
7. Mapa horretan, halaber, zerbitzu eta prestazio ekonomiko bakoitzaren garapen-helburuak adieraziko dira, bai eta Foru Aldundiek eta tokiko erakundeek ados jarrita ezartzen dituzten mugapen geografikoetan zentroak nola hedatuko diren ere. Betiere *EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan eta Mapan* zehaztutako irizpide orokorren esparruan: alde batetik, biztanleriari buruzko hedapen-irizpideak, gutxieneko estaldura-mailak eta adierazle sintetikoa, eta bestetik, zerbitzuak ezartzeko egokientzat jotako biztanleriari buruzko irizpideak.
8. Erakunde bakoitzaren plangintza eta/edo, hala badagokio, Lurralde Historikoko mapak eranskin gisa txertatuko dira *EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan*, egin bezain laster. Edonola ere, gerta daitekeenez planifikazio-erritmoak berdinak ez izatea, *EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa eta Mapa* egintzat hartzeko ez da beharrezkoa izango horiek atxikita egotea.
9. *Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Mapa*n foru-eskumeneko baliabideak ez ezik, udal-eskumeneko baliabideak ere sartuko dira.
10. Horri dagokionez, Udalek eta Foru Aldundiek Lurralde Historiko bakoitzeko zerbitzu eta prestazioan sarea antolatzen (plangintza, kudeaketa eta ebaluazioa) lagunduko dutela aurreikusten da, betiere erakunde bakoitzaren autonomia errespetatuta; hartara, *EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapa*ri erantsiko zaion mapa ados jarrita ezarri ahal izango dute. Foru Aldundi bakoitzak sarea planifikatzeko eta Mapa egiteko prozesua bideratuko du, bai eta beste prozesu batzuk ere, udalentsat lagungarri izan badaitezke zerbitzuen sarea hedatzeko; hala nola, mankomunitateak edo bestelako udal-elkarteak eratzea. Hori guztia bat dator legean ezarritako aurreikuspenekin; izan ere, besteak beste, honako hau xedatzen baita legean:
 - a) Foru-organismoek eskumena izango dute, bakoitzak bere lurraldean, eginkizun hauek betetzeko: 2. Beren lurraldean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari bere eskumenekoak diren zerbitzuak antolatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan jasota dagoenaren arabera, eta, halakorik baldin badago, autonomia-eremuko arloko planetan eta plan berezietan jasota dagoenaren arabera. 7. Geografia-hurbiltasuna eta baliabideak ahalik eta zuzenen erabili beharra gogoan harturik -printzipioak baitira-, mankomunitateak edo beste udal-elkarte batzuk osatzeko sustapen-lana eta bultzada, gizarte-zerbitzuak eskaintzeko (41. artikulua, 2. eta 7. zenbakiak).
 - b) Udalek eskumena izango dute, bakoitzak bere udalerrian, eginkizun hauek betetzeko: 2. Beren lurraldean, udalei dagokie Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari zerbitzuak, bere eskumenekoak, antolatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan jasota dagoenaren arabera, foru-aldundiaren plangintzan jasota dagoenaren arabera eta, halakorik baldin badago, arloko planetan eta autonomia-eremuko plan berezietan jasota dagoenaren arabera (42. artikulua, 2. zenbakia).
 - c) Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioak elkarrekiko lankidetzan eta koordinazio-betebeharraren arabera jardungo dira sistemak eraginkortasunez eta eragimenez funtziona dezala bermatzeko (43. artikulua).

Badira, gainera, Lurralde Historiko bakoitzeko zerbitzu-sarearen antolaketarekin lotutako beste zenbait alderdi garrantzitsu, eta Udalek eta Foru Aldundiek gai horiei buruz ere hitz egin beharko lukete.

Eta sistemaren barruan finantza-arloko berregokitzapen bat egin beharko litzateke, baina erakunde guztien artean adostu behar da, eta hein handi batean, Udalen eta Foru Aldundien artean.

4.1.2. Memoria ekonomiko egiteko irizpideak

4.1.2.1. Gastu Korrante Publikoaren estimazioari dagozkion irizpideak

Zerbitzu eta prestazio ekonomiko bakoitzerako gastu korrante publikoa kalkulatu da, honela: 2017rako aurreikusitako **plazen kopurua** (zentroen kasuan) **edo erabiltzaileen kopurua** (gainerako zerbitzuetan, etxez etxeko laguntza-zerbitzuan izan ezik) **edo hartzaileen kopurua** (prestazio ekonomikoen kasuan) **edo arreta-orduak** (etxez etxeko laguntza-zerbitzuan) bider **2017/01/01erako kalkulaturako gastu korrante publikoa** (plaza, erabiltzaile, hartzaile edo ordu bakoitzeko).

Zerbitzu edo prestazio ekonomiko bakoitzaren 2017rako (2017/01/01) *gastu korrante publikoaren estimazioa egiteko*, 2011ko gastu korrante publikoari *faktore zuzentzaile bat* aplikatu zaio 2011-2016 aldian (5 urte) gastuak izan duen bilakaerari –erreal eta aurreikusitakoa– erreparatuta. Faktore hori erabakitzeke garaian honako alderdi hauek izan dira kontuan zerbitzu eta prestazio ekonomiko bakoitzari dagokionez:

- *Foru-aldundiaren eskumeneko zerbitzu eta prestazio ekonomikoetan*: 2011tik 2013ra bitarte gastuak izan duen bilakaera, Foru Aldundiek emandako datuen arabera (gastu korrante publikoa, Bizkaiko eta Gipuzkoako kasuetan, eta gastu korrantea, Arabako kasuan); eta 2014tik 2017ra bitarte gastu korrante publikoan izan den gorakada, Bizkaian eta Araban. Gipuzkoan, 2014-2017 aldian gastu korrante publikoaren bilakaerari buruz Aldundiarekin kontrastaturako estimazioa hartu da kontuan.
- *Udal-eskumeneko zerbitzuetan*, gastu korrante publikoak 2011tik 2014ra bitarte izan duen bilakaera, betiere zenbait udalek emandako datuei, EUDELekin izandako lan-saioari eta gastu korrante publikoaren % 0tik % 4,5era bitarteko gorakadari erreparatuta (eremuen arabera, alde batetik, eta lurralde historikoen arabera etxez etxeko laguntza-zerbitzuen kasuan, bestetik), gastuak 2017ra bitarte izango duen estimaturako bilakaerari erantzuteko, EUDELekin izandako bileran jasotako ekarpenak eta indarreko zenbait hitzarmen aintzat hartuta.
- *Eusko Jaurlaritzaren eskumeneko zerbitzuetan*: gastu korrante publikoak 2011tik 2014ra bitarte izan duen bilakaera, betiere Eusko Jaurlaritzak emandako datuei erreparatuta; eta gastu korrante publikoaren % 2ko gorakada, 2015-2016 aldian.

Horretaz gain:

2011. urtean plazek zuten titulartasunaren egiturari (udalek, Foru Aldundiek edo Autonomia Erkidegoak zuzenean kudeatzeko plazek eta sektore pribatuarekin hitzartutako plazek plazen gutzitzaioarekiko osatzen dituzten ehunekoei) eutsi egin zaio 2017ra bitarte sortu beharreko plaza berriak (edo txertatu beharreko erabiltzaileak) esleitzeko garaian.

GZESatik kanpo bermatu beharreko plazetan gastu bat ere aurreikusi da; izan ere, 2014. urtean udala titular den adinekoentzako ostatu-zerbitzuen edo egoitza-zentroen erabiltzaile zirenen % 73k -autonomoak zirenak edo udala titular den egoitza-zentroetan itundu gabeko plazak okupatzen zituztenak- 2017an ere plaza horiek okupatzen jarraituko baitute.

2017an ostatu-zerbitzuetan bermatzen jarraitu beharreko GZESatik kanpoko plazei buruzko aurreikuspen horretaz gain, honako alderdi hauek ere kontuan izan behar ditugu: a) 2017rako, 2011n zeuden plazen % 100 proiektatu dira, bai eta horiei dagokien gastua ere, plazak okupatzen zituztenen profila gorabehera; b) eta, horretaz gain, sortu beharreko plazen beste zenbateko bat eta horien gastua (plaza berriak) ere aurreikusi da, eta horiei dagokienez, egin beharreko inbertsioa ere kalkulatu da.⁶³

Foru Aldundiek beren eskumeneko zerbitzuetan amortizatzeko hornidurei buruz emandako datua ere sartu da gastu korrante publikoan, eta 2011ko datua txertatu ondoren, gastu hori 2017ra proiektatu da.

4.1.2.2. Diru-sarreraren estimazioari dagozkion irizpideak

Diru-sarrerei dagokienez, 2017rako aurreikuspenetan honako hauek egin dira:

1. Erabiltzaileen kuotek, erabiltzaileen bestelako diru-sarrerek eta bestelako diru-sarrerek 2011. urtean Arabako eta Bizkaiko gastu korrante publikoari dagokionez osatzen zuten ehunekoari eustea. Gipuzkoako Foru Aldundiaren kasuan, 2017an likidatutako erabiltzaileen kuoten zenbatekoa 2013koaren berdina izatea aurreikusi da; beraz, koordinaketak gehi erabiltzaileen bestelako diru-sarrerek eta bestelako diru-sarrerek gastu korrante publikoari dagokionez osatzen zuten ehunekoak behera egingo du.
2. 2017tik aurrera, administrazio bakoitzari esleitzea, legean xedatzen den eskumen-araubideari jarraikiz, bere eskumeneko zerbitzu eta prestazioak edo laguntza ekonomikoak finantzatzeko erantzukizuna, finantzaketa pribaturik eta beste euskal administrazio publiko batzuetan gizarte-zerbitzuen arloko erantzukizuna duten sailetatik datorren finantzaketarik gabe.
3. Bestalde, finantzaketa orokorreko tresna hauei eusteko aurreikuspena egin da:
 - Autonomia eta Mendetasunaren Arretarako Sistematik datorren finantzaketari, 27. taulan jasotako baldintzetan kalkulatuta.
 - Akordio soziosanitarioari, zenbatekoak eta kontzeptuak berrikusita, betiere EAeko Gizarte Zerbitzuen Mapan proposatutako helburuetara egokitzeko; hartara, finantzaketa bat etorriko da lurralde bakoitzean aurreikusitako helburu eta gastuekin.

Hori horrela izanik, Zorroari buruzko Dekretuan honako aurreikuspen hau txertatu da:

Sistema Sanitarioak eta Gizarte Zerbitzuen Sistemak Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Mapan aurreikusitako premia soziosanitarioen plangintza eta ebaluazioa egingo dute elkarrekin urtero (7.4 artikulua).

2016. urteari begira, akordio soziosanitarioan jada txertatuta dauden zentroi atxikitako finantzaketa garatzera eta hobetzera bideratuko dira helburuak, eta akordio hori hiru

⁶³ Proiektzioa baldintza horietan egin da, I. mailako mendetasun-egoeran dauden pertsonak erabiltzaile moduan txertatzearen ondoriozko premiei erantzun ahal izateko, nahiz eta jakin lehendik badiren plazen ehuneko handi bat ordura arte plaza horiek okupatzen zituzten pertsonak okupatzen jarraituko dutela aldi batez (oraindik ere autonomo iaten jarraitzen badute ere, edo I. mailako mendetasun-egoerara igarotzen badira ere).

Lurralde Historikoetan aplikatzeko baldintzen estandarizazioan eta normalizazioan aurrera egingo da.

Horretarako, Lurralde Kontseilu Soziosanitarioan Lurralde Plan Operatiboa adostuko da 2016-2017 aldirako. Plan hori, gerora, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluak berretsi beharko du.

Plan horren esparruan, EAeko Gizarte Zerbitzuen Mapan egindako gastu-proiektzioak aintzat hartu beharko dira, bai eta, bereziki, 2016ra begira, Osasun Sailak jada finantzatzen dituen zentroekin -2.4 zenbakian aipatzen direnak- lotutako diru-sarreraren proiektzioak ere.

Eta, aldi berean, diru-sarreraren proiektzio horiek egungo irizpide eta moduluetan oinarrituta egin direnez, eta Osasun Sailaren egungo ekarpenak eguneratu egin behar direla kontuan izanik -GZESaren esparruan osasun-zerbitzuak emateagatik jasaten ari den gastuari dagokionez-, modulu eta irizpide horiek berraztertu egin beharko dira.

4. Eta 2015/12/31 baino lehen, Finantza Publikoen Euskal Kontseiluaren erabaki bidez, Zorroari buruzko Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian horretarako aurreikusitakoari jarraikiz, GZESa hedatzeko finantza-lankidetzarako formula bat ("funts" bat) eratzea aurreikusi da, eredu komunitarioaren eta lehen mailako arretaren garapenari, bereziki, laguntzarren. Kontseilu horren 2015eko urriaren 14ko saioan honako hau erabaki zen:

Funtsa urte askotarako izango da, baina denbora-muga ez da aldeztu zehaztuko.

10 milioi euro izango ditu 2016. urtean udal-erkumenerako egonkortu gabeko zerbitzuetzat (berriak edo gutxi garatutakoak), eta 20 milioi euro 2017. urtean eta hurrengoetan.

Funtsa koefiziente bertikalez hornituko da, hau da, % 70 (Eusko Jaurlaritza), % 30 (Foru Aldundiak eta Udalak) ezagunaren bidez. Funtsa erakundearen artean banatu aurretik, 10.000.000 euroak edo 20.000.000 euroak -hurrengo urteetan- kendu egingo dira, eta funts hori Lurralde Historikoen artean banatzeko garaian, koefiziente horizontalak hartuko dira kontuan. Gero, lurralde bakoitzak erabakiko du, barnean, bakoitzari dagokiona nola banatuko duen.

2016. urtean, udal-erkumenerako egonkortu gabeko zerbitzuetan (berriak edo gutxi garatutakoak) inbertsioak egiteko erabiliko da funtsa.

2017. urtean eta hortik aurrera, denbora-mugarik gabe, funtsa egonkortu gabekotzat jotako zerbitzu eta prestazio ekonomikoak garatzeko proiektuetara bideratuko da, foru-erkumenerakoak nahiz udal-erkumenerakoak izan.

Finantzaketa gastua benetan egiten duen administrazio publikoari emango zaio, zerbitzua edo prestazio ekonomikoa haren erkumenerako izan ala ez izan.

4.2. Proiektzioen (gastu korrante publikoa, estaldurak eta plazak)⁶⁴ sintesia eta diru-sarreraren estimazioa

4.2.1. Gastu Korrante Publikoa (GKP) GZESan. Zifra nagusiak

11. TAULA. 2017rako ESTIMATUTAKO GKPa

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	Eusko Jaurlaritza	GUZTIRA
Prestazio ekonomikoak	19.869.332	48.949.358	55.697.856	1.071.000	125.587.546
Zerbitzuak ⁶⁵	175.703.944	445.990.184	313.117.860	13.227.176	948.039.164
Zerbitzu berriak	1.930.868	9.578.273	3.246.914	0	16.434.429 ⁶⁶
GZESko GKPa GUZTIRA ⁶⁷	198.600.712 ⁶⁸	504.517.815	372.062.630	14.298.176	1.091.157.707
GZESatik kanpoko plazetako GKPa	5.464.881	3.473.493	2.177.854	0	11.116.229
GKPa, GUZTIRA	204.065.593	507.991.308	374.240.484	14.298.176	1.102.273.936
GKPa, GUZTIRA (gutxieneko maila) ⁶⁹	201.054.309	501.937.420	374.031.810	14.298.176	1.093.000.089

Estimazio horri honako hau gehitu behar zaio:

I. mailara zabaltzearen gastua ⁷⁰	0	8.656.875	Goian sartu da	0	8.656.875
Bateragarritasunak garatzearen gastua ⁷¹	3.042.110	9.269.235	0	0	12.311.345

12. TAULA. GKPa 2011n

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	Eusko Jaurlaritza	GUZTIRA
Zerbitzuak	166.527.734	397.857.981	273.592.531	10.648.043	848.626.289
Prestazio ekonomikoak	19.026.575	42.996.550	46.227.425	493.308	108.743.858

⁶⁴ 2.3 zerbakiaren zehaztasun handiagoz aurkeztuko dugu egonkortu gabekotzat (berriak eta gutxi garatutakoak) jotako zerbitzu eta prestazio ekonomikoari buruzko informazioa; izan ere, hemen sartuta dago informazio hori, baina ez banakatuta.

⁶⁵ Proiektatutako zerbitzu teknikoak eta bestelako zerbitzu orokorrak (egitura) sartuta daude, 2011ko zenbatero berarekin.

⁶⁶ Adinekoentzako ostatu-zerbitzuetarako amortizaziorako horniduren urteko kostua (1.511.706,5 euro) eta adinekoentzako eguneko arretarako zerbitzuen urteko kostua (166.667,16 euro) ere sartuta daude. Zenbatero horiek gehitu dira hiru "gutzizkoetan", baina ez dira banakatu Lurralde Historikoaren arabera.

⁶⁷ Bazterkeria-eremuko zerbitzu jakin batzuk GZESan sartzen ote diren eta, hala badagokio, noren eskumenari atxikitzen zaizkion argitu gabe dago oraindik, baina hala ere, zerbitzu horien GKPar dagozkion 13.893.296 euroak sartuta daude.

⁶⁸ Diru-laguntzen eta hitzarmenen deialdiei (funtzionamendua) dagozkien 1.096.568 euroak sartuta daude 2017an eta 2011n.

⁶⁹ Guztizko GKPa da, baina goiko maila duten kasuetako gutxieneko mailako GKPa hartuta.

⁷⁰ Gipuzkoan, zerbitzu eta prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubidea I. maila duten pertsonen zabaltzearen ondoriozko gastu-estimazioa sartuta dago, jada, aurreko taulako zerbitzu eta prestazioen gorakadaren estimazio orokorrean. Arabako kasuan, I. mailara zabaltzeagatik gastuan ez da gorakadarik aurreikusi.

⁷¹ Gipuzkoan, ez da aurreikusi bateragarritasunak garatzeagatik GKPar gorakadarik.

GKPa, GUZTIRA	186.650.877 ⁷²	440.854.531	319.819.956	11.141.351	958.466.715
	GZESatik kanpoko plazetako GKPa (sartuta dago jada: 958.466.715)				15.227.712

13. TAULA. GKParen ALDAKUNTZA 2011-2017

	ARABA	BIZKAI	GIPUZKO	Eusko	GUZTIR
Zerbitzuen igoera	16.662.348	52.890.414	42.508.691	2.579.133	114.640.586
Prestazio ekonomikoen igoera	842.757	5.952.808	9.470.431	577.692	16.843.688
GZESatik kanpoko plazetako GKParen beharokada	-2.021.258	-1.284.717	-805.508		-4.111.483
Igoera, guztira	15.483.847	57.558.505	51.173.614	3.156.825	127.372.791
Gastua zerbitzu "berrietan"	1.930.868	9.578.273	3.246.914	0	16.434.429
Igoera, guztira, zerbitzu berriak sartuta (1.102.273.936 - 958.466.715)	17.414.715	67.136.778	54.420.528	3.156.825	143.807.220

14. TAULA. GKParen ALDAKUNTZA KONTINGENTZIEN ARABERA, 2011-2017 (zerbitzu berririk gabe).

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	Eusko Jaurlaritz a	GUZTIRA
Adinekoak / Autonomia - mendetasuna	13.670.248	20.557.845	15.641.866	2.443.350	52.313.309
Desgaitasuna dutenak	5.475.538	20.613.467	11.642.835		37.731.840
Babesgabetasuna	2.104.144	3.317.304	3.829.805	87.369	9.338.622
Bazterkeria / Gizarteratzea	1.422.901	1.787.407	5.155.542		8.365.850
OGZ, Gizarte-larrialdiak eta bestelako zeharkakoak	-6.010.483	6.614.391	6.238.643	48.413	6.890.964
Zerbitzu teknikoak eta bestelako zerbitzu orokorrak	0	0	0	0	0
Prestazio ekonomikoak	842.757	5.952.808	9.470.431	577.692	16.843.688
GZESatik kanpoko plazetako GKParen beharokada	-2.021.258	-1.284.717	-805.508		-4.111.483
Igoera, guztira	15.483.847	57.558.505	51.173.614	3.156.824	127.372.790

15. TAULA. GASTU KORRONTE PUBLIKOA KONTINGENTZIEN ARABERA 2011n

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	Eusko Jaurlaritz a	GUZTIRA
Adinekoak / Autonomia - mendetasuna	66.254.972	135.061.537	113.018.238	4.661.514	318.996.261
Desgaitasuna dutenak	26.668.927	76.871.227	47.053.576		150.593.730
Babesgabetasuna	13.289.320	41.421.615	34.900.750	474.795	90.086.480
Bazterkeria / Gizarteratzea	9.085.226	19.282.340	13.052.080		41.419.646
OGZ, Gizarte-larrialdiak eta bestelako zeharkakoak	34.865.572	73.218.009	42.729.226	2.579.448	153.392.255
Zerbitzu teknikoak eta bestelako zerbitzu orokorrak	16.363.717	52.003.253	22.838.661	2.932.286	94.137.917

⁷² Diru-laguntzen eta hitzarmenen deialdiei (funtzionamendua) dagozkien 1.096.568 euroak sartuta daude baturan.

Prestazio ekonomikoak	19.026.575	42.996.550	46.227.425	493.308	108.743.858
Guztira	186.650.877 ⁷³	440.854.531	319.819.956	11.141.351	958.466.715 ⁷⁴

⁷³ Diru-laguntzen eta hitzarmenen deialdiei (funtzionamendua) dagozkien 1.096.568 euroak sartuta daude baturan.

⁷⁴ Diru-laguntzen eta hitzarmenen deialdiei (funtzionamendua) dagozkien 1.096.568 euroak sartuta daude baturan.

4.2.2. Estalduren eta gastu korrante publikoaren bilakaera zerbitzu eta prestazio ekonomikoetan (2012/01/01-2017)

- Datu demografikoak EInen “Populazioaren proiezioak epe laburrean 2012 - 2022” lanetik atera ditugu (2012ko azaroko datuak dira).
- Lurralde Historiko bakoitzean I. mailako balorazioa duten pertsonen kopuruari buruzko datuak lurralde bakoitzeko Foru Aldundiak emandakoak dira, 2012/01/01eko datarekin.
- Zorroari buruzko Dekretuko zerbitzu eta prestazio ekonomikoak dagozkien izen eta zenbakiarekin aurkeztu dira, honela ordenatuta:
 - *Kontingentzien edo eremuen arabera* (mendetasuna, desgaitasuna, babesgabetasuna eta bazterkeria), bukaeran zeharkako zerbitzuak sartuta (herritar guztiei zuzendutakoak edo kontingentzia batekin baino gehiagorekin lotutakoak). Gainera, “mendetasuna/autonomia-adinekoak” eremuan, eremu horretako berezko adierazle sintetikoa aplikatu zaien bestelako zerbitzu eta prestazioak ere sartu dira (etxez etxeko laguntza-zerbitzua, Familia Ingurune Zaintzetarako Prestazio Ekonomikoa eta Autonomia pertsonalaren aldeko laguntzak, baina horiek guztiak beste eremu batzuekin lotuta egon daitezke, hala nola, desgaitasunaren eremuarekin).
 - *Eremu bakoitzaren barruan*, horniduraz arduratzen den administrazio publikoaren *mailaren* arabera: udal- eta foru-zerbitzuak, ordena horri jarraikiz (desgaitasunaren eremuan izan ezik; izan ere, desgaitasunaren eremuak zerbitzu guztiak foru-aldundienak baitira).
 - *Maila bakoitzaren barruan*, Zorroari buruzko Dekretuan aurkezten diren ordenaren arabera.
- Zenbait zerbitzutan ez dugu erabiltzaile kopuruari dagokion daturik eta, kasu horretan, erabiltzaileei eta estaldurari buruzko datuen ilara ezabatu egin dugu. “Aldakuntzaren %-a 2012-2017” ilara ere ezabatu egin dugu plazan edo erabiltzaileen kopuruan benetan aldaketarik gertatu ez bada.
- Datuak (bermatu beharreko) gutxieneko mailari dagozkio, goiko maila ere baduten zerbitzu edo prestazio ekonomikoen kasuan izan ezik. Kasu horretan, plazei, erabiltzaileei edo arreta-orduei buruzko datuak goiko mailari dagozkio eta, bestalde, goiko mailari eta gutxieneko mailari dagozkien gastu korrante publikoaren datua ere eman da.
- 2017/01/01erako proiektioei dagozkien zutabeetan hainbat gelaxka koloretzatua daude: Horiz, egonkortutako zerbitzu izanik, EAeko batez besteko estalduraren % 80 bermatzeko helburua aplikatu zaien zerbitzuak; berdez, egonkortutako zerbitzu izanik, EAeko batez besteko estalduraren gainetik egon arren 2011ko plazak (edo arreta-orduak/intentsitatea, erabiltzaileak edo hartzaileak) bermatzeko helburua ezarri zaienak; edo horniduraz zuzenean arduratzen den administrazioak proposatutako helburua hartutako kasuak (hori egin dugu, halaber, Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoaren kasuan, Gipuzkoan).
- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako (GZES) plazarat hartu dira bai “GZESan txertatutako zerbitzuetako plazak”, bai “ZLPE Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoak (edo Laguntza Ekonomiko Indibidualek) esleitutako plazak”; tauletan parentesi artean agertzen dira, datu nagusiaren alboan (parentesia datu nagusiaren desagregazioa da eta, beraz, barnean hartuta dago). Nolanahi ere, argi eta garbi zehaztu behar da: bi kasu desberdin direla; 2016/12/25etik aurrera Laguntza Ekonomiko Indibidualak ez direla eman behar; 2011n “ZLPEak esleitutako plazak” “GZESan txertatutako zerbitzuetako plaza” (plaza arrunt) bihurtu beharko lirakeela 2016/12/25a baino lehen.

Adierazitako irizpideak aplikatzearen ondorioz, estalduren gorakada gertatu da zerbitzu eta prestazio ekonomiko guztietan, honako hauetan izan ezik: Arabako eta Gipuzkoako *etxez etxeko laguntza-zerbitzuan*, Gipuzkoako *adinekoentzako egoitza-zentroetan*, Arabako *Familia Ingurune Zaintzetarako Prestazio Ekonomikoan*, Arabako *adinekoentzako ostatu-zerbitzuetan eta adinekoentzako eguneko arretarako zerbitzuetan* eta Bizkaiko eta Gipuzkoako *babesgabetasun-egoeran dauden adingabeentzako egoitza-zentroetan*. Eta, horretaz gain, Lurralde Historikoen estaldura-mailak parekatzen ari dira.

16. TAULA. MENDEASUNA/AUTONOMIA - ADINEKOAK EREMUKO ZERBITZU ETA PRESTAZIO EKONOMIKOEI BURUZKO DATUAK

(GEHI ELZ, FIZPE ETA AUTONOMIA PERTSONALAREN ALDEKO LAGUNTZAK)

	2012/01/01				2017/01/01				ALDAKUNTZA 2012 - 2017			
	A	B	G	EAE	A	B	G	EAE	A	B	G	EAE
DATU DEMOGRAFIKOAK												
Biztanleria, guztira	322.557	1.158.439	712.097	2.193.093	295.705	1.092.950	667.041	2.055.696	- % 8,32	- % 5,65	- % 6,33	- % 6,26
65 urte edo gehiago	58.078	236.158	140.874	435.110	64.196	253.904	153.738	471.838	% 10,53	% 7,51	% 9,13	% 8,44
Zahartze-indizea	% 18,0	% 20,4	% 19,8	% 19,8	% 21,7	% 23,2	% 23,0	% 23,0	% 3,7	% 2,8	% 3,3	% 3,1
75 urte edo gehiago	29.375	126.591	72.979	228.945	30.452	128.793	75.207	234.452	% 3,67	% 1,74	% 3,05	% 2,41
I. mailako balorazioa dutenak	2.923	10.790	7.692	21.405	Ez dago daturik	Ez dago daturik	Ez dago daturik	Ez dago daturik	Ez dago daturik	Ez dago daturik	Ez dago daturik	Ez dago daturik
UDAL-ZERBITZUAK												
ELZ / Etxez etxeko laguntza-zerbitzua (1.2)												
Arreta-orduak	895.776	1.538.036	1.282.414	3.716.226	694.629	1.682.375	1.399.518	3.776.523	-201.147	144.339	117.104	60.297
Aldakuntzaren %a, 2012 - 2017									- % 22,46	% 9,38	% 9,13	% 1,62
Estaldura (65 urte edo gehiago)	% 1542,37	% 651,27	% 910,33	% 854,09	% 1082,04	% 662,60	% 910,33	% 800,39	- % 460,32	% 11,33	% 0,00	- % 53,70
GKPa (goiko maila)	21.628.190	40.358.282	21.403.617	83.390.089	15.156.009	45.028.673	26.937.022	87.121.704	-6.472.181	4.670.391	5.533.405	3.731.615
GKPa (gutxieneko maila)						43.861.075		85.954.106		3.502.793		2.564.017
Adinekoentzako eguneko arretarako zerbitzua (1.7)												
Plazak	133	65	0	198	133	156	111	400	0	91	111	202
Aldakuntzaren %a, 2012 - 2017									% 0,00	% 139,68		% 101,95
Estaldura (65 urte edo gehiago)	% 0,229	% 0,028	% 0,000	% 0,046	% 0,207	% 0,061	% 0,072	% 0,085	- % 0,022	% 0,034	% 0,072	% 0,039
Estaldura (I. maila dutenak)	% 4,550	% 0,602	% 0,000	% 1,444	% 4,550	% 1,444	% 1,444	% 1,868	% 0,000	% 0,841	% 1,444	% 0,424
GKPa (gutxieneko maila)	1.829.029	733.277	0	2.562.306	1.883.900	1.810.282	1.021.495	4.715.677	54.871	1.077.005	1.021.495	2.153.371
Adinekoentzako ostatu-zerbitzuak (1.9.3 eta 1.9.4)												
Plazak	483 (3)	224 (154)	707 (2)	1.414	511	713	827	2.051	28	489	120	637
Aldakuntzaren %a, 2012 - 2017									% 5,73	% 218,40	% 16,99	% 45,05
Estaldura (65 urte edo gehiago)	% 0,832	% 0,095	% 0,502	% 0,325	% 0,796	% 0,281	% 0,538	% 0,435	- % 0,036	% 0,186	% 0,036	% 0,110
Estaldura (I. maila dutenak)	% 16,520	% 2,080	% 9,190	% 6,610	% 17,472	% 6,610	% 10,753	% 9,582	% 0,948	% 5,328	% 1,563	% 2,972
GKPa (gutxieneko maila)	3.209.455	1.901.318	0	5.110.773	3.766.859	8.722.645	3.578.521	16.068.025	557.404	6.821.327	3.578.521	10.957.252

	2012/01/01				2017/01/01				ALDAKUNTZA 2012 - 2017			
	A	B	G	EAE	A	B	G	EAE	A	B	G	EAE
FORU ZERBITZUAK												
Adinekoentzako eguneko laguntza-zentroak (2.2.1)												
Plazak	590	1.349 (437)	1.407	3.336	652	1.506	1.547	3.705	62	157	140	359
Aldakuntzaren %-a, 2012 - 2017									% 10,53	% 11,63	% 9,95	% 10,73
Estaldura (65 urte edo gehiago)	% 1,016	% 0,571	% 0,999	% 0,769	% 1,016	% 0,593	% 1,006	% 0,779	% 0,000	% 0,022	% 0,007	% 0,010
GKPa (gutxieneko maila)	6.332.324	15.218.174	17.334.550	38.885.048	7.559.021	15.289.232	19.670.063	42.518.316	1.226.697	71.058	2.335.513	3.633.267
Autonomia-mugek eragindako premiei erantzuteko gaueko zentroa (2.3.1)												
Plazak	0	0	0	0	7	25	15	47	7	25	15	47
Estaldura (65 urte edo gehiago)	% 0	% 0	% 0	% 0	% 0,01	% 0,01	% 0,01	% 0,01	% 0,01	% 0,01	% 0,01	% 0,01
GKPa (gutxieneko maila)	0	0	0	0	77.035	304.685	184.486	566.206	77.035	304.685	184.486	566.206
Adinekoentzako egoitza-zentroak (2.4.1)												
Plazak	1.463 (483)	5.640 (587)	4.400 (87)	11.503	1.676	6.169	4.622	12.468	213	529	222	965
Aldakuntzaren %-a, 2012 - 2017									% 14,59	% 9,38	% 5,05	% 8,39
Estaldura (65 urte edo gehiago)	% 2,519	% 2,388	% 3,123	% 2,644	% 2,611	% 2,430	% 3,006	% 2,642	% 0,092	% 0,042	-% 0,117	-% 0,001
GKPa (goiko maila)	46.749.959	111.860.093	91.577.039	250.187.091	58.795.097	131.199.604	101.724.976	291.719.677	12.045.138	19.339.511	10.147.938	41.532.586
GKPa (gutxieneko maila)					55.783.813	126.364.726		283.873.515	9.033.854	14.504.633		33.686.425
Adinekoentzako atsedenerako zerbitzu espezifikoak (2.5)												
Plazak	278	32	16	326	307	70	30	407	29	38	14	81
Aldakuntzaren %-a, 2012 - 2017									% 10,53	% 118,77	% 87,50	% 24,94
Estaldura (65 urte edo gehiago)	% 0,479	% 0,014	% 0,011	% 0,075	% 0,479	% 0,028	% 0,020	% 0,086	% 0,000	% 0,014	% 0,008	% 0,011
GKPa (gutxieneko maila)	648.066	590.465	1.123.287	2.361.818	775.830	1.291.756	1.463.287	3.530.872	127.764	701.291	340.000	1.169.054
Familia Inguruneko Zaintzetarako Prestazio Ekonomikoa (3.2.1)												
Hartzaileak	4.640	10.794	10.266	25.700	4.640	11.807	11.929	28.376	0	1.013	1.663	2.676
Aldakuntzaren %-a, 2012 - 2017									% 0,00	% 9,38	% 16,20	% 10,41
Estaldura (65 urte edo gehiago)	% 7,989	% 4,571	% 7,287	% 5,907	% 7,228	% 4,650	% 7,759	% 6,014	-% 0,761	% 0,080	% 0,472	% 0,107
GKPa (gutxieneko maila)	18.761.828	41.676.524	36.454.020	96.892.372	18.806.152	45.587.712	37.777.023	102.170.887	44.324	3.911.188	1.323.003	5.278.515
Autonomia pertsonalaren aldeko laguntzak (3.3)												
Hartzaileak	250	1.244	1.066	2.560	316	1.361	1.570	3.247	66	117	504	687
Aldakuntzaren %-a, 2012 - 2017									% 26,48	% 9,38	% 47,28	% 26,83
Estaldura (65 urte edo gehiago)	% 0,430	% 0,527	% 0,757	% 0,588	% 0,493	% 0,536	% 1,021	% 0,682	% 0,062	% 0,009	% 0,265	% 0,093
GKPa (gutxieneko maila)	258.087	1.287.220	1.620.424	3.165.731	298.332	1.408.021	1.886.775	3.593.127	40.245	120.801	266.351	427.396

17. TAULA. DESGAITASUNAREN EREMUKO ZERBITZUEI BURUZKO DATUAK

	2012/01/01				2017/01/01				ALDAKUNTZA 2012 - 2017			
	A	B	G	EAE	A	B	G	EAE	A	B	G	EAE
DATU DEMOGRAFIKOAK												
Biztanleria, guztira	322.557	1.158.439	712.097	2.193.093	295.705	1.092.950	667.041	2.055.696	- % 8,32	- % 5,65	- % 6,33	- % 6,26
18 urte edo gehiago	269.584	981.057	591.556	1.842.197	244.137	916.650	549.711	1.710.498	- % 9,44	- % 6,57	- % 7,07	- % 7,15
18-64 urte	211.506	744.899	450.682	1.407.087	179.941	662.746	395.973	1.238.660	- % 14,92	- % 11,03	- % 12,14	- % 11,97
6 urte edo gutxiago	23.022	74.460	50.789	148.271	20.759	67.294	44.698	132.751	- % 9,83	- % 9,62	- % 11,99	- % 10,47
FORU ZERBITZUAK												
Eguneko laguntza-zentroak + desgaitasuna dutenentzako okupazio-zentroak (2.2.1/2.2.2). Agregatua												
Plazak	565	2.318	1.704	4.587	615	2.419	2.012	5.046	50	101	308	459
Aldakuntzaren %-a, 2012 - 2017									% 8,85	% 4,36	% 18,08	% 10,01
Estaldura (18-64 urtekoak)	% 0,267	% 0,311	% 0,378	% 0,326	% 0,342	% 0,365	% 0,508	% 0,407	% 0,075	% 0,054	% 0,130	% 0,081
GKPa (gutxieneko maila)	9.759.205	26.941.855	17.053.615	53.754.675	11.951.161	27.325.253	19.730.322	59.006.737	2.191.956	383.398	2.676.707	5.252.062
Desgaitasuna dutenentzako eguneko laguntza-zentroak (2.2.1) / gaixotasun mentala barnean hartuta												
Plazak	146	1.042	844	2.032	183	1.120	882	2.185	37	78	38	153
Aldakuntzaren %-a, 2012 - 2017									% 25,34	% 7,49	% 4,50	% 7,53
Estaldura (18-64 urtekoak)	% 0,069	% 0,140	% 0,187	% 0,144	% 0,102	% 0,169	% 0,223	% 0,176	% 0,033	% 0,029	% 0,035	% 0,032
GKPa (gutxieneko maila)	3.204.861	16.955.325	10.418.931	30.579.117	4.455.641	17.540.373	10.957.241	32.953.255	1.250.780	585.048	538.310	2.374.138
Gaixotasun mentala dutenentzako eguneko laguntza-zentroak /aurrekoekiko desagregazioa (2.2.1)												
Plazak	15	335	203	553	28	364	210	602	13	29	7	49
Aldakuntzaren %-a, 2012 - 2017									% 86,67	% 8,66	% 3,67	% 8,94
Estaldura (18-64 urtekoak)	% 0,007	% 0,045	% 0,045	% 0,039	% 0,016	% 0,055	% 0,053	% 0,049	% 0,008	% 0,010	% 0,008	% 0,009
GKPa (gutxieneko maila)	146.080	1.800.149	1.686.311	3.632.540	302.455	1.882.554	1.759.227	3.944.235	156.375	82.405	72.916	311.695

	2012/01/01				2017/01/01				ALDAKUNTZA 2012 - 2017			
	A	B	G	EAE	A	B	G	EAE	A	B	G	EAE
Desgaitasuna dutenentzako okupazio-zentroak (2.2.2) / gaixotasun mentala barnean hartuta												
Plazak	419	1.276	860	2.555	432	1.299	1.130	2.861	13	23	270	306
Aldakuntzaren %-a, 2012 - 2017									% 3,10	% 1,80	% 31,40	% 11,98
Estaldura (18-64 urtekoak)	% 0,198	% 0,171	% 0,191	% 0,182	% 0,240	% 0,196	% 0,285	% 0,231	% 0,042	% 0,025	% 0,095	% 0,049
GKPa (gutxieneko maila)	6.554.344	9.986.530	6.634.684	23.175.558	7.495.520	9.784.880	8.773.081	26.053.480	941.176	-201.650	2.138.397	2.877.922
Gaixotasun mentala dutenentzako okupazio-zentroak /aurrekoekiko desagregazioa (2.2.2)												
Plazak	20	96	Ez dago daturik	116	42	96	Ez dago daturik	138	22	0	Ez dago daturik	22
Aldakuntzaren %-a, 2012 - 2017									% 110,00	% 0,00	Ez dago daturik	% 18,97
Estaldura (18-64 urtekoak)	% 0,009	% 0,013	Ez dago daturik	% 0,008	% 0,023	% 0,014	Ez dago daturik	% 0,011	% 0,014	% 0,002	Ez dago daturik	% 0,003
GKPa (gutxieneko maila)	120.612	1.216.886	Ez dago daturik	1.337.498	280.939	1.171.203	Ez dago daturik	1.452.143	160.327	-45.683	Ez dago daturik	114.645
Desgaituentzako egoitza-zentroak (2.4.2)												
Plazak	433	1.314	891	2.638	486	1.591	1.075	3.152	53	277	184	514
Aldakuntzaren %-a, 2012 - 2017									% 12,24	% 21,08	% 20,65	% 19,48
Estaldura (18-64 urtekoak)	% 0,205	% 0,176	% 0,198	% 0,187	% 0,270	% 0,240	% 0,271	% 0,254	% 0,065	% 0,064	% 0,074	% 0,067
GKPa (gutxieneko maila)	15.698.188	45.346.608	28.733.134	89.777.930	18.401.464	61.373.566	36.692.335	116.467.365	2.703.276	16.026.958	7.959.201	26.689.435
Gaixotasun mentala dutenentzako egoitza-zentroak /aurrekoekiko desagregazioa (2.4.3)												
Plazak	152	208	142	502	182	319	254	755	30	111	112	253
Aldakuntzaren %-a, 2012 - 2017									% 19,74	% 53,37	% 78,87	% 50,40
Estaldura (18-64 urtekoak)	% 0,072	% 0,028	% 0,032	% 0,036	% 0,101	% 0,048	% 0,064	% 0,061	% 0,029	% 0,020	% 0,033	% 0,025
GKPa (gutxieneko maila)	3.749.991	3.115.631	3.023.454	9.889.076	4.823.637	5.341.154	5.724.132	15.888.923	1.073.646	2.225.523	2.700.678	5.999.847

	2012/01/01				2017/01/01				ALDAKUNTZA 2012 - 2017			
	A	B	G	EAE	A	B	G	EAE	A	B	G	EAE
Desgaitasuna dutenentzako atsedenerako zerbitzu espezifikoak (gaixotasun mentala barnean hartuta) (2.5)												
Plazak	941	34	6	981	1.066	51	18	1.135	125	17	12	154
Aldakuntzaren %-a, 2012 - 2017									% 13,28	% 50,00	% 200,00	% 15,70
Estaldura (Biztanleria, oro har)	% 0,292	% 0,003	% 0,001	% 0,045	% 0,360	% 0,005	% 0,003	% 0,055	% 0,069	% 0,002	% 0,002	% 0,010
GKPa (gutxieneko maila)	470.117	1.572.959	269.691	2.312.767	832.772	2.359.439	609.789	3.801.999	362.655	786.480	340.098	1.489.232
Bizimodu independentea babesteko zerbitzua (2.7.2.1)												
GKPa (gutxieneko maila)	Ez dago daturik	Ez dago daturik	75.117	Ez dago daturik	555.000	480.000	117.000	1.152.000	555.000	480.000	41.883	1.076.883
Pertsona heldu ezinduentzako tutoretza-zerbitzua (2.7.2.3)												
Erabiltzaileak	136	1.006	585	1.727	216	1.476	752	2.444	80	470	167	717
Aldakuntzaren %-a, 2012 - 2017									% 58,82	% 46,72	% 28,55	% 41,52
Estaldura (18-64 urtekoak)	% 0,064	% 0,135	% 0,130	% 0,123	% 0,120	% 0,223	% 0,190	% 0,197	% 0,056	% 0,088	% 0,060	% 0,075
GKPa (gutxieneko maila)	454.336	2.160.516	880.089	3.494.941	550.000	2.783.364	963.966	4.297.330	95.664	622.848	83.877	802.389
Arreta goiztiarrerako esku-hartze sozialeko zerbitzua (2.7.4)												
Erabiltzaileak	192	521	188	901	192	1.489	770	2.451	0	968	582	1.550
Aldakuntzaren %-a, 2012 - 2017									% 0,00	% 185,83	% 309,57	% 172,05
Estaldura (6 urte edo gutxiago)	% 0,834	% 0,700	% 0,370	% 0,608	% 0,925	% 2,213	% 1,723	% 1,846	% 0,091	% 1,513	% 1,353	% 1,239
GKPa (gutxieneko maila)	287.081	849.289	117.047	1.253.417	409.068	3.643.071	700.000	4.752.139	121.987	2.793.782	582.953	3.498.722

18. TAULA. BABESGABETASUNAREN EREMUKO ZERBITZUEI BURUZKO DATUAK

	2012/01/01				2017/01/01				ALDAKUNTZA 2012 - 2017			
	A	B	G	EAE	A	B	G	EAE	A	B	G	EAE
DATU DEMOGRAFIKOAK												
Biztanleria, guztira	322.557	1.158.439	712.097	2.193.093	295.705	1.092.950	667.041	2.055.696	- % 8,32	-% 5,65	-% 6,33	-% 6,26
18-64 urteko emakumeak.	103.772	372.422	223.006	699.200	95.426	338.993	202.868	637.287	-% 8,04	-% 8,98	-% 9,03	-% 8,85
17 urte edo gutxiago.	52.973	177.382	120.541	350.896	51.561	176.300	117.332	345.193	-% 2,67	-% 0,61	-% 2,66	-% 1,63
UDAL-ZERBITZUAK												
Emakumeentzako ostatu-zerbitzuak (1.9.1)												
Plazak	60	94	70	224	60	94	70	224	0	0	0	0
Estaldura (18-64 urteko emakumeak)	% 0,06	% 0,03	% 0,03	% 0,03	% 0,06	% 0,03	% 0,03	% 0,04	% 0,01	% 0,00	% 0,00	% 0,00
GKPa (gutxieneko maila)	301.091	441.924	303.858	1.046.873	301.091	441.924	303.858	1.046.873	0	0	0	0
FORU ZERBITZUAK												
Adingabeentzako egoitza-zentroak (2.4.4)												
Plazak	174	669	405	1.248	180	537	300	1.017	6	-132	-105	-231
Aldakuntzaren %-a, 2012 - 2017									% 3,45	-% 19,73	-% 25,93	-% 18,51
Estaldura (17 urte edo gutxiago)	% 0,328	% 0,377	% 0,336	% 0,356	% 0,349	% 0,305	% 0,256	% 0,295	% 0,021	-% 0,073	-% 0,080	-% 0,061
GKPa (gutxieneko maila)	9.496.358	32.270.614	25.820.807	67.587.779	11.133.140	35.326.646	25.200.320	71.660.105	1.636.782	3.056.032	-620.487	4.072.326
Emakumeentzako egoitza-zentroak (2.4.6)												
Plazak	18	120	25	163	18	120	25	163	0	0	0	0
Estaldura (18-64 urteko emakumeak)	% 0,02	% 0,03	% 0,01	% 0,02	% 0,02	% 0,04	% 0,01	% 0,03	% 0,00	% 0,00	% 0,00	% 0,00
GKPa (gutxieneko maila)	349.019	2.841.277	724.759	3.915.055	476.552	2.926.515	817.246	4.220.313	127.533	85.238	92.487	305.258
Familiekin gizarte- eta hezkuntza-arloan eta/edo arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuak (2.7.3.1)												
Erabiltzaileak	669	630	1.382	2.681	669	630	1.441	2.740	0	0	59	59
Aldakuntzaren %-a, 2012 - 2017									% 0,00	% 0,00	% 4,27	% 2,20
Estaldura (17 urte edo gutxiago)	% 1,263	% 0,355	% 1,146	% 0,764	% 1,297	% 0,357	% 1,228	% 0,794	% 0,035	% 0,002	% 0,082	% 0,030
GKPa (gutxieneko maila)	1.855.435	1.722.481	5.707.427	9.285.343	1.999.230	1.774.155	7.428.224	11.201.610	143.795	51.674	1.720.797	1.916.267

	2012/01/01				2017/01/01				ALDAKUNTZA 2012 - 2017			
	A	B	G	EAE	A	B	G	EAE	A	B	G	EAE
Tratu txarren eta sexu-erasoen biktima izan direnei laguntza psikosoziala eta soziojuridikoa emateko zerbitzuak (2.7.5)												
Erabiltzaileak	614	1.719	477	2.810	614	1.719	929	3.262	0	0	452	452
Aldakuntzaren %-a, 2012 - 2017									% 0,00	% 0,00	% 94,76	% 16,09
Estaldura (Biztanleria, oro har)	% 0,190	% 0,148	% 0,396	% 0,128	% 0,208	% 0,157	% 0,792	% 0,159	% 0,017	% 0,009	% 0,396	% 0,031
GKPa (gutxieneko maila)	451.903	1.553.016	529.255	2.534.174	526.058	1.599.606	891.616	3.017.281	74.155	46.590	362.361	483.107
Familia-harrera sustatzeko eta teknikoki babesteko zerbitzua (2.7.6.1)												
Erabiltzaileak	137	170	311	618	137	170	410	717	0	0	99	99
Aldakuntzaren %-a, 2012 - 2017									% 0,00	% 0,00	% 31,83	% 16,02
Estaldura (Biztanleria, oro har)	% 0,042	% 0,015	% 0,044	% 0,028	% 0,046	% 0,016	% 0,061	% 0,035	% 0,004	% 0,001	% 0,018	% 0,007
GKPa (gutxieneko maila)	759.729	2.364.511	1.691.044	4.815.284	916.962	2.435.446	3.939.524	7.291.932	157.233	70.935	2.248.480	2.476.648
Adopzioa sustatzeko eta teknikoki babesteko zerbitzua (2.7.6.2)												
Erabiltzaileak	30	78	0	108	30	78	0	108	0	0	0	0
Estaldura (Biztanleria, oro har)	% 0,01	% 0,01	Ez dago daturik	% 0,00	% 0,01	% 0,01	Ez dago daturik	% 0,01	% 0,00	% 0,00	% 0,00	% 0,00
GKPa (gutxieneko maila)	75.785	227.792	123.600	427.177	40.432	234.626	149.768	424.825	-35.353	6.834	26.168	-2.352

19. TAULA. BAZTERKERIAREN EREMUKO ZERBITZUEI BURUZKO DATUAK

	2012/01/01				2017/01/01				ALDAKUNTZA 2012 - 2017			
	A	B	G	EAE	A	B	G	EAE	A	B	G	EAE
UDAL-ZERBITZUAK												
Bazterkeria-egoeran daudenentzako eguneko arretarako zerbitzua (1.7)												
Plazak	49	0	90	139	56	68	188	312	7	68	98	173
Aldakuntzaren %-a, 2012 - 2017									% 14,29		% 108,89	% 124,46
Estaldura (18-64 urtekoak)	% 0,023	% 0,000	% 0,020	% 0,010	% 0,031	% 0,0103	% 0,047	% 0,025	% 0,008	% 0,010	% 0,028	% 0,015
GKPa (gutxieneko maila)	528.956	0	267.497	796.453	631.725	489.177	583.916	1.704.818	102.769	489.177	316.419	908.365
Gizarte-jantokiak (hala badagokio, 1.7)												
Plazak	300	313	30	643	300	313	30	643	0	0	0	0
Estaldura (18 urte edo gehiago)	% 0,111	% 0,032	% 0,005	% 0,035	% 0,123	% 0,034	% 0,005	% 0,038	% 0,012	% 0,002	% 0,000	% 0,003
GKPa (gutxieneko maila)	1.265.362	680.280	85.000	2.030.642	1.265.362	680.280	85.000	2.030.642	0	0	0	0
Gizareratze-premiei erantzuteko gaueko harrera-zerbitzuak (1.8)												
Plazak	99	162	128	389	99	186	171	456	0	24	43	67
Aldakuntzaren %-a, 2012 - 2017									% 0,00	% 14,98	% 33,59	% 17,29
Estaldura (18 urte edo gehiago)	% 0,037	% 0,017	% 0,022	% 0,021	% 0,041	% 0,020	% 0,031	% 0,027	% 0,004	% 0,004	% 0,009	% 0,006
GKPa (goiko maila)	1.473.397	1.020.176	2.024.178	4.517.751	1.539.700	1.225.824	2.858.874	5.624.398	66.303	205.648	834.696	1.106.647
GKPa (gutxieneko maila)						1.174.412	2.650.200	5.364.312		154.236	626.022	846.561
Tutoretzapeko etxebizitza bazterkeria-arriskuan daudenentzat (1.9.2)												
Plazak					36	131	80	248	36	131	80	248
Estaldura (18-64 urtekoak)					% 0,020	% 0,020	% 0,020	% 0,020	% 0,020	% 0,020	% 0,020	% 0,020
GKPa (gutxieneko maila)					179.941	662.746	395.973	1.238.660	179.941	662.746	395.973	1.238.660
Bazterkeria- eta marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zerbitzuak (1.9.1/1.9.2)												
Plazak	114	38	261	413	114	172	261	547	0	134	0	134
Aldakuntzaren %-a, 2012 - 2017									% 0,00	% 352,37	% 0,00	% 32,42
Estaldura (18-64 urtekoak)	% 0,054	% 0,005	% 0,058	% 0,029	% 0,063	% 0,026	% 0,066	% 0,044	% 0,009	% 0,021	% 0,008	% 0,015
GKPa (gutxieneko maila)	731.285	8.026	202.210	941.521	731.285	243.701	202.210	1.177.196	0	235.675	0	235.675

	2012/01/01				2017/01/01				ALDAKUNTZA 2012 - 2017			
	A	B	G	EAE	A	B	G	EAE	A	B	G	EAE
FORU ZERBITZUAK												
Gizareratze-premiei erantzuteko eguneko zentroak (2.2.3)												
Plazak	0	491	0 (154)	491	78	491	174	743	78	0	174	252
Aldakuntzaren %-a, 2012 - 2017									Ez dago daturik	% 0,00	Ez dago daturik	% 51,32
Estaldura (18-64 urtekoak)	% 0,000	% 0,066	% 0,000	% 0,035	% 0,043	% 0,074	% 0,044	% 0,060	% 0,043	% 0,008	% 0,044	% 0,025
GKPa (gutxieneko maila)		4.123.225		4.123.225	657.101	4.246.922	1.079.673	5.983.696	657.101	123.697	1.079.673	1.860.471
Gizareratze-premiei erantzuteko gaueko harrera-zentroa (2.3.2)												
Plazak	0	15	0	15	5	19	15	39	5	4	15	24
Aldakuntzaren %-a, 2012 - 2017										% 26,98		% 160,32
Estaldura (18 urte edo gehiago)	% 0,000	% 0,002	% 0,000	% 0,001	% 0,002	% 0,002	% 0,003	% 0,002	% 0,002	% 0,001	% 0,003	% 0,001
GKPa (gutxieneko maila)		130.984		130.984	76.646	171.318	388.865	636.830	76.646	40.334	388.865	505.846
Bazterkeria- eta marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak (2.4.5)												
Plazak	47	351	434	832	105	387	476	968	58	36	42	136
Aldakuntzaren %-a, 2012 - 2017									% 123,51	% 10,26	% 9,68	% 16,35
Estaldura (18-64 urtekoak)	% 0,022	% 0,047	% 0,096	% 0,059	% 0,058	% 0,058	% 0,120	% 0,078	% 0,036	% 0,011	% 0,024	% 0,019
GKPa (gutxieneko maila)	925.822	7.464.102	6.595.849	14.985.773	1.430.575	8.476.962	9.131.739	19.039.275	504.753	1.012.860	2.535.890	4.053.502

GASTUA ETA HAREN JATORRIA 2017an EUTSI BAINA PROIEKZIORIK EGIN EZ ZAIEN ZERBITZUETAN ⁷⁵		GKPa 2011 A	GKPa 2011 B	GKPa 2011 G	GKPa 2011 EAE
Gizarteratze-premiei erantzuteko eguneko zentroak (1.7/2.2.3)	UDALEN GASTUA	519.328	210.887	26.689	756.904
	FORU-GASTUA	1.245.640		1.143.225	2.388.865
	AUTONOMIA- ERKIDEGOAREN GASTUA	1.284.242	3.099.688	75.029	4.458.959
	GUZTIRA ⁷⁶	3.305.264	3.361.867	1.398.065	8.065.196
Gizarteratze-premiei erantzuteko gaueko harrera-zentroak (1.8/2.3.2)	UDALEN GASTUA		194.000		194.000
	FORU-GASTUA			166.600	166.600
	AUTONOMIA- ERKIDEGOAREN GASTUA		171.532		171.532
	GUZTIRA	0	365.532	166.600	532.132
Bazterkeria- eta marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako ostatu-zerbitzuak eta egoitza-zentroak (1.9.1/1.9.2 / 2.4.5)	UDALEN GASTUA	159.170	467.317	2.313	628.800
	FORU-GASTUA	86.483		662.042	748.525
	AUTONOMIA- ERKIDEGOAREN GASTUA	608.653	1.459.204	1.648.325	3.716.182
	GUZTIRA	855.140	2.128.148	2.312.680	5.295.968
		4.160.404	5.855.547	3.877.345	13.893.296

PROIEKTATUTAKO ZERBITZUEN GASTUA 2017an ⁷⁷		GKPa 2017 A	GKPa 2017 B	GKPa 2017 G	GKPa 2017 EAE
Gizarteratze-premiei erantzuteko eguneko zentroak (1.7/2.2.3)		1.288.825	4.736.099	1.663.589	7.688.513
Gizarteratze-premiei erantzuteko gaueko harrera-zentroak (1.8/2.3.2)		1.616.346	1.397.142	3.247.739	6.261.227
Bazterkeria- eta marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako ostatu-zerbitzuak eta egoitza-zentroak (1.9.1/1.9.2 / 2.4.5)		2.161.860	8.720.662	9.333.948	20.216.470
		5.067.031	14.853.903	14.245.276	34.166.210

⁷⁵ Zerbitzu guztien titularrak pribatuak dira, eta erakundeek ez dituzte "itundutakotzat" identifikatu.

⁷⁶ Guztizkoan sartuta daude, hala badagokio, Europako edo Estatuko finantzaketa publiko txikiak.

⁷⁷ Titular pribatua duten zerbitzu guztiak sartu dira, bai eta erakundeek "itundutakotzat" identifikatutako titular pribatua dutenak ere.

20. TAULA. ZEHARKAKO ZERBITZUEI ETA LPPEari BURUZKO DATUAK

	2012/01/01				2017/01/01				ALDAKUNTZA 2012 - 2017			
	A	B	G	EAE	A	B	G	EAE	A	B	G	EAE
DATU DEMOGRAFIKOAK												
Biztanleria, guztira	322.557	1.158.439	712.097	2.193.093	295.705	1.092.950	667.041	2.055.696	- % 8,32	- % 5,65	- % 6,33	- % 6,26
3 urte edo gehiago	312.342	1.126.603	690.356	2.129.301	287.105	1.065.838	648.957	2.001.900	- % 8,08	- % 5,39	- % 6,00	- % 5,98
18 urte edo gehiago	269.584	981.057	591.556	1.842.197	244.137	916.650	549.711	1.710.498	- % 9,44	- % 6,57	- % 7,07	- % 7,15
17 urte edo gutxiago	52.973	177.382	120.541	350.896	51.561	176.300	117.332	345.193	- % 2,67	- % 0,61	- % 2,66	- % 1,63
UDAL-ZERBITZUAK												
Oinarrizko Gizarte Zerbitzua (1.1 eta kasuaren koordinazioko beste eginkizun batzuk...)												
Erabiltzaileak	33.649	123.428	58.449	215.526	33.649	123.428	58.449	215.526	0	0	0	0
Estaldura (18 urte edo gehiago)	% 12,482	% 12,581	% 9,881	% 11,699	% 13,783	% 13,465	% 10,633	% 12,600	% 1,301	% 0,884	% 0,752	% 0,901
GKPa (gutxieneko maila)	8.546.655	19.363.818	15.542.662	43.453.135	8.546.655	19.363.818	15.542.662	43.453.135	0	0	0	0
Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua (1.3)												
Erabiltzaileak	1.725	2.724	742	5.191	1.897	2.996	816	5.710	172	272	74	519
Aldakuntzaren %-a, 2012-2017									% 10,00	% 10,00	% 10,00	% 10,00
Estaldura (17 urte edo gutxiago)	% 3,256	% 1,536	% 0,616	% 1,479	% 3,679	% 1,700	% 0,696	% 1,654	% 0,424	% 0,164	% 0,080	% 0,175
GKPa (gutxieneko maila)	2.762.268	9.946.249	3.739.835	16.448.352	3.162.797	11.388.455	4.282.111	18.833.363	400.529	1.442.206	542.276	2.385.011
Adingabeentzako/familientzako eguneko arreta (1.3, aldaera)												
Plazak	96	281	118	495	96	281	118	495	0	0	0	0
Estaldura (17 urte edo gutxiago)	% 0,181	% 0,158	% 0,098	% 0,141	% 0,186	% 0,159	% 0,101	% 0,143	% 0,005	% 0,001	% 0,003	% 0,002
GKPa (gutxieneko maila)	1.205.945	1.164.181	415.825	2.785.951	1.205.945	1.164.181	415.825	2.785.951	0	0	0	0
Zaintzaileei laguntzeko zerbitzua (1.4)												
GKPa (gutxieneko maila)	122.339	1.003.587	162.962	1.288.888	183.509	1.505.381	325.924	2.014.813	61.170	501.794	162.962	725.925

	2012/01/01				2017/01/01				ALDAKUNTZA 2012 - 2017			
	A	B	G	EAE	A	B	G	EAE	A	B	G	EAE
FORU ZERBITZUAK												
Gizarte-larrialdietarako koordinazio-zerbitzua (2.6)												
Erabiltzaileak	3.957	6.188	833	10.978	3.957	6.188	833	10.978	0	0	0	0
Estaldura (18 urte edo gehiago)	% 1,468	% 0,631	% 0,141	% 0,596	% 1,621	% 0,675	% 0,152	% 0,642	% 0,153	% 0,044	% 0,011	% 0,046
GKPa (gutxieneko maila)	600.175	955.437	1.037.233	2.592.845	986.257	1.405.437	1.108.401	3.500.095	386.082	450.000	71.168	907.250
Laguntza teknikoak emateko eta ingurune fisikoa egokitzeko zerbitzua (2.7.2.2)												
GKPa (gutxieneko maila)	0	426.455	427.092	853.547	325.000	439.249	977.664	1.741.913	325.000	12.794	550.572	888.366
Garraio egokituko zerbitzua (2.7.2.4)												
GKPa (gutxieneko maila)	Ez dago daturik	Ez dago daturik	Ez dago daturik	Ez dago daturik	66.185	237.700	146.115	450.000	66.185	237.700	146.115	450.000
Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa (3.1.1)												
Hartzaileak	1	4	1.471	1.476	115	426	2.803	3.344	114	422	1.332	1.868
Aldakuntzaren %-a, 2012 - 2017									% 11.384	% 10.558	% 91	% 127
Estaldura (3 urte edo gehiago)	% 0,000	% 0,000	% 0,213	% 0,069	% 0,040	% 0,040	% 0,432	% 0,167	% 0,040	% 0,040	% 0,219	% 0,098
GKPa (gutxieneko maila)	6.660	32.806	8.152.981	8.192.447	764.848	1.953.624	16.034.059	18.752.531	758.188	1.920.818	7.881.078	10.560.084

4.2.3 Egonkortu gabekotzat jotako zerbitzu eta prestazio ekonomikoei (berriak edo gutxi garatutakoak) dagozkien aurreikuspenak

Zerbitzu eta prestazio ekonomiko horiei (LPPE) dagokienez, honako alderdi hauek kontuan izan behar dira:

- *Gizarte-larrialdietarako koordinazio-zerbitzuaren* kasuan, hemen sartu da koordinazio-zerbitzu espezifikoetako gastu gehigarria (gizarte-larrialdiko udal-zerbitzuei dagokiena barnean hartu gabe).
- *Laguntza teknikoa emateko eta ingurune fisikoa egokitzeko zerbitzuaren* kasuan, halaber, 2011. urteari dagokion gastu gehigarria soilik sartu da. Araban, gastuaren proiektzioa Bizkaian eta Gipuzkoan baino txikiagoa da, izan ere, Araban jada bada desgaitasuna duten erabiltzaileen kopuru jakin bat, bai eta zerbitzu horrekin lotutako 101.000 euroko gastu bat ere.
- *Bizimodu independentea babesteko zerbitzuaren* kasuan, Lurralde Historiko bakoitzean dauden eruedetan oinarrituta egin dira proiektzioak. Datuetan 2017rako aurreikusitako gastu eta plaza, erabiltzaile edo arreta-ordu guztiak sartzen dira (ez soilik gastu eta plaza, erabiltzaile edo arreta-ordu gehigarriak).
- *Adinekoentzako ostatu-zerbitzuen eta eguneko arretarako zerbitzuen (udal-eskumeneoak)* kasuan: Plaza eta gastu gehigarriak soilik sartu ditugu hemen, 2011n zeuden plazei eta gastuari dagokienez. Adinekoentzako ostatu-zerbitzuetako gastuaren estimazioa egiteko, 2. hipotesia hartu dugu oinarri.
- *Zaintzaileei begiratzeko atsedeen eta laguntza-zerbitzuei eta LPPEari* dagokienez ere, gastu gehigarria baino ez dugu aurkeztu hemen.
- *Gainerako zerbitzuetan* plaza edo erabiltzaile edo arreta-ordu guztiak eta gastu korrante publiko guztia hartu dugu aintzat.

21. TAULA. EGONKORTU GABEKO ZERBITZUAK	GKP /plaza edo ordu	Estaldura, plazak, erabiltzaileak edo orduak	GKP	A	B	G	EAEko plazak
2.3.1 Autonomia-mugek eragindako premiei erantzuteko gaueko zentroa	12.000 / pz	% 0,010	566.206	77.035	304.685	184.486	47
2.6 Gizarte-larrialdietarako koordinazio-zerbitzua (gastu gehigarria)			907.250	386.082	450.000	71.168	
2.7.2.1. Bizimodu independentea babesteko zerbitzua (datu agregatuak)			1.152.000	555.000	480.000	117.000	24
2.7.2.2 Laguntza teknikoak emateko eta ingurune fisikoa egokitzeko zerbitzua (gastu gehigarria)			888.366	325.000	12.794	550.572	
2.7.2.4 Garraio egokituko zerbitzua			450.000	66.185	237.700	146.115	
Foru-eskumeneko zerbitzuen GUZTIZKO PARTZIALA			3.963.822				
1.9.2. Tutoretzapeko etxebizitza bazterkeria-arriskuan daudenentzat	5.000 / pz	% 0,020	1.238.660	179.941	662.746	395.973	248
1.9.3/1.9.4 Adinekoentzako ostatu-zerbitzuak (tutoretzapeko apartamentuak eta etxebizitza komunitarioak) / 2. hipotesia			7.477.072	341.625	6.375.342	760.105	637
1.7.1. Adineko pertsonentzako eguneko arretarako zerbitzua			2.076.501		1.055.007	1.021.495	202
GUZTIZKO PARTZIALA			10.792.233				
Adinekoentzako ostatu-zerbitzuak eta eguneko arretarako zerbitzuak amortizatzeke hornidurak			1.511.706,5				
Udal-eskumeneko zerbitzuen GUZTIZKO PARTZIALA			166.667,16				
			12.470.607				
GUZTIRA			16.434.429				

22. taula. Adinekoentzako ostatu-zerbitzu eta eguneko arretarako zerbitzuetako plaza berrien eta gastu korrante publiko gehigarriaren estimazioa (1. hipotesia)⁷⁸

ARABA	1. MAILA	PLAZAK 2011	EST. 2011	BATEZ BESTEK O ESTALD URARE KIKO ALDEA	PLAZA BERRIAK	PLAZA BERRIET AKO GKPa
ARABAKO UDALERRIAK, GUZTIRA	2.923		% 16,5 2			
OSTATUAK DITUZTEN UDALERRIAK	2.504	483	% 19,2 9	- % 12,68	0	0
OSTATURIK EZ DUTEN UDALERRIAK	419	0	% 0	% 6,61	28	196.408
EGUNEKO ARRETA	2.923	133 ⁷⁹	% 4,55	-% 3,11		
						196.408

BIZKAIA	1. MAILA	PLAZAK 2011	EST. 2011	BATEZ BESTEK O ESTALD URARE KIKO ALDEA	PLAZA BERRIAK	PLAZA BERRIET AKO GKPa
BIZKAIKO UDALERRIAK, GUZTIRA	10.790		% 2,0 8			
OSTATUAK DITUZTEN UDALERRIAK	6.630	224	% 3,38	% 3,23	214	2.245.059
OSTATURIK EZ DUTEN UDALERRIAK	4.160	0	% 0	% 6,61	275	2.881.482
EGUNEKO ARRETA	10.790	65	% 0,60	% 0,84	91	1.055.007
						6.181.548

GIPUZKOA	1. MAILA	PLAZAK 2011	EST. 2011	BATEZ BESTEK O ESTALD URARE KIKO ALDEA	PLAZA BERRIAK	PLAZA BERRIET AKO GKPa
GIPUZKOAKO UDALERRIAK, GUZTIRA	7.692		% 9,1 9			
OSTATUAK DITUZTEN UDALERRIAK	5.875	707	% 12,0 3	-% 5,42	0	0
OSTATURIK EZ DUTEN UDALERRIAK	1.817	0	% 0	% 6,61	120	478.787
EGUNEKO ARRETA	7.692	0	% 0,00	% 1,44	111	1.021.495
						1.500.282

⁷⁸ Datuak estimatutako gastu-bilakaeraren arabera doitu dira.

⁷⁹ 133 plazak Gasteizko Udalaren zerbitzuetako plazak dira. Arabako Foru Aldundiak Eguneko Arretarako Landa Zentroak (180 plaza 2011n) ere kudeatzen ditu; zentro horiek foru-eskumeneko eguneko zentroen barruan sartuta eta proiektatuta daude (han proiektatutako 59 plazetatik, 23 plaza EALZe dagozkie). Zentro horietan pertsona autonomoak eta hainbat mailatako mendetasun-egoeran daudenak artatzen dituzte; 2011. urteaz geroztik, gehikuntza izan da (2 zentro berri) eta joera goranzkoa dela uste da.

GUZTIR A	7.878.237
-------------	-----------

ZERBITZU MOTA / ESTALDURAK	BATEZ BESTEKO ESTALDU RA 2011		
OSTATUAK	% 6,61		
EGUNEKO ARRETA	% 1,44		
ZERBITZU MOTA / PLAZAKO GKP _a	A	B	G
OSTATUAK	7.092	10.479	3.986
EGUNEKO ARRETA	8.014	11.620	9.197

2017ra bitarteko ostatu-zerbitzuen garapena etxebizitza komunitarioetan plazak sortzean soilik oinarrituko balitz (2. hipotesia), 2011n etxebizitza komunitarioek eta tutoretzapeko apartamentuek osatzen zuten proportzioari eutsi egin beharrean (1. hipotesia), plaza berrietako gastu korrante publikoa **9.275.314** euro izango litzateke, jarraian adieraziko dugunez. 2. hipotesia onartzeak zentzuzkoa dirudi, 2017. urtera bitarte inbertsioak egin beharko baitira tutoretzapeko apartamentuetan plaza propioak eduki ahal izateko.

23. taula. Adinekoentzako ostatu-zerbitzu eta eguneko arretarako zerbitzuetako plaza berrien eta gastu korrante publiko gehigarriaren estimazioa (2. hipotesia)⁸⁰

ARABA	1. MAILA	PLAZAK 2011	EST. 2011	BATEZ BESTEKO ESTALDURARE KIKO ALDEA	PLAZA BERRIAK	PLAZA BERRIETAK O GKP _a
ARABAKO UDALERRIAK, GUZTIRA	2.923		% 16,52			
OSTATUAK DITUZTEN UDALERRIAK	2.504	483	% 19,29	-% 12,68	0	0
OSTATURIK EZ DUTEN UDALERRIAK	419	0	% 0	% 6,61	28	341.625
EGUNEKO ARRETA	2.923	133	% 4,55	-% 3,11	0	0
						341.625
BIZKAIA	1. MAILA	PLAZAK 2011	EST. 2011	BATEZ BESTEKO ESTALDURARE KIKO ALDEA	PLAZA BERRIAK	PLAZA BERRIETAK O GKP _a
BIZKAIKO UDALERRIAK, GUZTIRA	10.790		% 2,08			
OSTATUAK DITUZTEN UDALERRIAK	6.630	224	% 3,38	% 3,23	214	2.791.945
OSTATURIK EZ DUTEN UDALERRIAK	4.160	0	% 0	% 6,61	275	3.583.397
EGUNEKO ARRETA	10.790	65	% 0,60	% 0,84	91	1.055.007
						7.430.349
GIPUZKOA	1. MAILA	PLAZAK 2011	EST. 2011	BATEZ BESTEKO ESTALDURARE KIKO ALDEA	PLAZA BERRIAK	PLAZA BERRIETAK O GKP _a
GIPUZKOAKO UDALERRIAK, GUZTIRA	7.692		% 9,19			
OSTATUAK DITUZTEN	5.875	707	% 12,03	-% 5,42	0	0

⁸⁰ Datuak estimatutako gastu-bilakaeraren arabera doitu dira.

UDALERRIAK								
OSTATURIK EZ DUTEN UDALERRIAK	1.817	0	% 0	% 6,61	120	760.105		
EGUNEKO ARRETA	7.692	0	% 0,00	% 1,44	111	1.021.495		
							1.781.600	
							GUZTIRA	9.553.573

ZERBITZU MOTA / ESTALDURAK	BATEZ BESTEKO ESTALDURA 2011
OSTATUAK	% 6,61
EGUNEKO ARRETA	% 1,44

ZERBITZU MOTA / PLAZAKO GKP _a	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
ETXEBIZITZA KOMUNITARIOAK	12.335	12.032	6.329
EGUNEKO ARRETA	8.014	11.620	9.197

Esan dugunez: a) estimazio honetan plaza berriak eta GKP gehigarria sartu dira, eta horri 1.511.706,5 euro gehitu behar zaizkio, ostatu-zerbitzuetan amortizaziorako hornidurenak, (637 plaza, % 50 tutoretzapeko apartamentuak eta % 50 etxebizitza komunitarioak), betiere egindako estimazioaren arabera; b) 2017. urtean, horietaz gain, 2011ko plaza guztiei eutsi egingo zaiela aurreikusi da, eta plaza horiek, hein handi batean, pertsona autonomoek okupatzen zituzten (tutoretzapeko apartamentuetako plaza guztiak eta etxebizitza komunitarioetako plazen zati bat); c) eta, gainera, GZESatik kanpo bermatu beharreko plazetako gastu bat aurreikusi da, horrekiko gehigarria.

24. TAULA. ZAINZAILEEI BEGIRAKO ATSEDENERAKO ETA LAGUNTZEKO ZERBITZUETAKO ETA LPPEetako GKParent GORAKADA

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE
Adinekoentzako atsedenerako zerbitzuak	127.764	701.291	340.000	1.169.054
Desgaitasuna dutenentzako atsedenerako zerbitzuak	362.655	786.480	340.098	1.489.232
Zaintzaileei laguntzeko zerbitzua	61.170	501.794	162.962	725.925
Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa (LPPE)	758.188	1.920.818	7.881.078	10.560.084
GUZTIRA	1.309.776	3.910.382	8.724.138	13.944.295

4.2.4. Diru-sarrerei dagozkien aurreikuspenak

25. TAULA. DIRU-SARRERAK (SINTESIA)

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Koordinaketa + erabiltzaileen bestelako diru-sarrerak + bestelako diru-sarrerak	24.198.257,5	90.957.504,5	63.712.061,9	178.867.823,90
Akordio soziosanitarioa (2017) ⁸¹	5.153.581,11	11.874.587,08	9.312.308,36	26.340.476,55
Autonomia eta Mendetasunaren Arretarako Sistema (estimazioa 2014; beheranzkoa 2016an)	7.500.000	24.000.000	22.000.000	53.500.000
Funtsa (2017)				20.000.000
GUZTIRA				278.708.300,45

26. TAULA. FORU ALDUNDIEK ORDAINDUTAKO KOORDAINKETA (2011/2013)

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
2011	16.258.363,45	58.349.317	54.108.251,83	128.715.932,3
2013	18.190.414,52	67.314.770	62.867.385,18	148.372.569,70

⁸¹ Datu horiek bat datoz Osasun Sailetik datozen diru-sarreren 2017ra begira egungo finantzaketarako modulu eta irizpideetan oinarrituta egindako proiektioekin (2015ean berrikusiko dira) eta 2015ean eta 2016an % 1eko urteko hazkundearekin. Estimazioan sartzeak ez du esan nahi, inolaz ere, modulu eta irizpide horiek ontzat hartzen direnik.

26 B TAULA. KOORDAINKETAREN ETA BESTELAKO DIRU-SARREREN ESTIMAZIOA 2011n

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Koordinaketa udal-sektore publikoan	5.270.395,0	12.853.210,0	21.023.430,0	39.147.035,0
Koordinaketa foru-sektore publikoan	16.258.363,45	58.349.317,0	54.108.251,8	128.715.932,3
Koordinaketa pribatu itunduaren estimazioa	2.155.515,0	9.885.308,0	10.175.873,0	22.216.696,0
Koordinaketa, guztira	23.684.273,5	81.087.835,0	85.307.554,8	190.666.963,3
Koordinaketaren %-a, GKPar dagokionez	% 12,8	% 18,4	% 26,7	% 19,9
Erabiltzaileen bestelako diru-sarrerak eta bestelako diru-sarrerak	142.851,0	959.332,0	763.336,0	1.865.519,0
Bestelako diru-sarreraren %-a gastu korrante publikoari dagokionez, 2011	% 0,1	% 0,2	% 0,2	% 0,1972
Guztira: Koordinaketa + erabiltzaileen bestelako diru-sarrerak + bestelako diru-sarrerak	23.827.124,5	82.047.167,0	86.070.890,8	192.532.482,3

26 C TAULA. KOORDAINKETAREN ETA BESTELAKO DIRU-SARREREN PROIEKZIOA 2017ra (FORU ALDUNDIAK)⁸²

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Koordinaketaren proiektzioa	24.053.181,4	89.893.988,9	62.867.385,18	176.814.555,4
Erabiltzaileen bestelako diru-sarreraren eta bestelako diru-sarreraren proiektzioa	145.076,1	1.063.515,6	844.676,7	2.053.268,4
Guztira: Koordinaketa + erabiltzaileen bestelako diru-sarrerak + bestelako diru-sarrerak	24.198.257,5	90.957.504,5	63.712.061,9	178.867.823,8
Gastu korrante publikoa 2017an	138.027.851	354.388.623	288.365.635	780.782.109
Koordinaketaren eta bestelako diru-sarreraren ehunekoak GKPar dagokionez 2017an	% 17,53	% 25,66	% 21,80	% 22,91

27. TAULA. AUTONOMIA ETA MENDEKASUNAREN ARRETARAKO SISTEMAREN FINANTZAKETA 2011 /2013 (gutxieneko maila) eta estimazioa 2014

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
2011	12.378.697,84	25.020.140,37	30.445.443,84	67.844.282,05
2013	9.470.311	41.479.385	29.691.486,79	80.641.182,79
2014		12.034.986 (6 hilabete)	10.077.980,88 (7 hilabete)	
2014 Estimazioa	7.500.000		19.366.576	53.500.000 ⁸³

⁸² Taula honetako datuak Foru Aldundiei baino ez dagozkie.

⁸³ 7,5 milioi Araban, 24 Bizkaian eta 22 Gipuzkoan, erakunde bakoitzak emandako xehetasunen arabera. Zifra hori errealitatearen arabera egindako aurreikuspen batekin, eta Autonomia eta Mendetasunaren Arretarako Sistematik datorren finantzaketan egiaztatzen den beherakadarekiko koherentea da. Kontuan izan behar da aurreko ekitaldietako likidazioek eta atzerakinek eragin garrantzitsua dutela ekitaldi bakoitzeko datuetan.

28. TAULA. FINANTZAKETA EREMU SOZIOSANITARIOAN (2013ko itxiera)
Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.

	BIZKAIA	GIPUZKOA	ARABA
MENDEBASUNA ETA DESGAITASUNA -behean banakatuta dago-	3.772.853	8.497.420,71	2.936.654
Egoitza-zentroetako osasun-modulua	1.907.820	4.963.083,09	2.936.654
Plaza soziosanitarioak	1.865.033	3.534.337,62	
Egoitza-unitate soziosanitarioak		1.784.681,07	
Desgaitasun intelektuala, nahasmendu mentala eta portaeraren nahasmenduetarako egoitza-unitateak		479.855,25	
Nahasmendu mental larrietarako egoitza-unitateak		609.397,69	
Errehabilitazio psikosozialeko zentroa		660.403,61	
BAZTERKERIA ETA BESTELAKOAK DESGAITASUNA	6.845.635	3.102.911	436.105
GUZTIRA	10.618.488	11.600.331,71	3.372.759

Legearen 56.3 artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz, GZESaren esparruan hornitutako osasun-prestazioak Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak finantzatu behar dituela xedatu behar du Akordio Soziosanitarioak (betiere erabiltzaileen parte-hartzearekin, osasun-sisteman horrela aurreikusita baldin badago).

Horretaz gain, eremu soziosanitarioaren barruan sartzen diren gailuekin lotura duten beste partida batzuk ere agertzen dira taulan, hainbat kontingentziari dagokionez (mendetasuna, desgaitasuna eta bazterkeria), eta horien finantzaketa -legearen 56.3 artikuluan aurreikusi da hori ere- batera egin ahal izango da eraginpeko administrazio publiko guztien artean, horretarako adosten dituzten hitzarmenen bitartez.

Nolanahi ere, taulan agertzen den gastua Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak egindako ekarpenei dagokie, eta dagokion baliabidearen titular den erakundeari zuzenean bideratu ahal zaio; kasu horretan, ez da izango foru-departamentuaren diru-sarrerara bat, esate baterako, Bizkaiko bazterkeriaren eta desgaitasunaren eremuko zerbitzuen kasuan gertatzen den moduan.

Foru Aldundiek 2014ko aurreikuspenei buruz emandako datuak honako hauek dira, arreta soziosanitarioaren hitzarmenaren azken likidazioa egiteke dagoela:

DIRU-SARREREN AURREIKUSPENAK 2014 Iturriak: Foru Aldundiak.

Bizkaiko Foru Aldundia	3.979.038: plaza soziosanitarioak eta adinekoentzako egoitzetako medikuntzako eta erizaintzako gastuengatiko konpentsazioa. 2015eko aurrekontua. 4.101.985
Gipuzkoako Foru Aldundia	Egoitzetako modulu soziosanitarioa: 4.954.433 URSS (Egoitza-unitate soziosanitarioa) eta UDITRAC (Desgaitasun intelektuala, nahasmendu mentala eta portaeraren nahasmenduetarako egoitza-unitatea): 2.290.555 CRPS (Errehabilitazio psikosozialeko zentroa) eta URTMS (Nahasmendu mental larrietarako egoitza-unitatea): 1.297.155

Arabako Foru Aldundia	2.956.748 euro. Hitzarmenean honako hauek sartzen dira: adinekoentzako egoitza-plazak, desgaitasun fisikoa eta desgaitasun intelektual larria dutenentzako egoitza-plazak, eta gaixotasun mentala dutenentzako unitate psikosozialetako plazak. Bestalde, 2014an Eusko Jaurlaritzatik zetorren beste finantzaketa bat jaso zen, Abegia egoitza-unitate soziosanitarioaren (14 plaza ditu) kostuaren % 50 ordaintzeko. Zentro hori kudeatzeko Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailarekin, Osakidetzarekin eta Gizarte Ongizateko Foru Erakundearekin sinatutako hitzarmen espezifikoarekin esparruan, 2014. urte osoan 432.000 euro jasoko direla aurreikusi da.
-----------------------	---

DIRU-SARREREN PROIEKZIOAK LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA

Jarraian, Eusko Jaurlaritzaren Osasun sailak Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan hainbat kontzeptupean emandako finantzaketaren ondoriozko diru-sarreraren bilakaerari buruz egindako hainbat proiektio aurkeztuko ditugu, betiere proiektio bakoitzean zehaztutako kontzeptuei dagokienez.

Proiektzioak egiteko finantzaren egungo modulu eta irizpideetan oinarritu gara baina, lehen ere esan dugunez, modulu eta irizpide horiek berraztertu eta eguneratu egin behar dira. Bestalde, diru-sarrerak urteko % 1 gehitu dira kasuan kasuko abiapuntu urtetik (2014. urtea Araban, eta 2013. urtea Bizkaian eta Gipuzkoan).

Hortaz, diru-sarreraren proiektzioak dira, ez gastuarenak, eta proiektio horiek azterketan sartzeak ez du esan nahi, inolaz ere, modulu eta irizpide horiek ontzat hartzen direnik.

Arabako Foru Aldundia

Estimazioa egiteko, Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako honako hitzarmen hauen edukia hartu dugu oinarri:

- a) Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Sailak, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak eta Osakidetzak arretoa soziosanitarioa hobetzeko 2014ko uztailearen 9an sinatutako lankidetzak-hitzarmenaren aldaketa.
- b) Arabako Lurralde Historikoko "Abegia" egoitza-unitate soziosanitarioa kudeatzeko eta mantentze-lanak egiteko Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak Arabako Foru Aldundiarekin eta Osakidetzarekin 2013ko abenduaren 24an sinatutako lankidetzak-hitzarmenaren luzapena.
- c) Arabako Lurralde Historikoko egoitza-unitate soziosanitarioetako zerbitzu soziosanitarioak emateko Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak Arabako Foru Aldundiarekin eta Osakidetzarekin 2009ko otsailaren 27an sinatutako lankidetzak-hitzarmena.

Aipatu dugun lehen hitzarmen horretan oinarrituta, estimazioa egiteko plazaren modulu berari eutsi eta 2017rako proiektatutako plaza kopuruarekin biderkatu dugu.

	HITZARMEN SOZIOSANITARIO KO PLAZAK 2014	PLAZA MODULUA/ PLAZA PREZIOA	ZENBATE KOA 2014	PLAZAK MAPA 2017	PLAZA MODULUA / PLAZA PREZIOA	ZENBATEK OA 2017
Adinekoentzako egoitza-plazak (ZLPEak sartuta)	1.170	1.102 €	1.289.340 €	1.676	1.102 €	1.846.952 €
Desgaitasun fisiko handia dutenentzako egoitza-plazak	27	1.102 €	29.754 €	45	1.102 €	49.590 €
Desgaitasun psikiko handia dutenentzako egoitza-plazak	84	1.102 €	92.568 €	88	1.102 €	96.976 €
Gaixotasun mentala dutenentzako egoitza-plazak (unitate psikosozialak)	137	11.278 €	1.545.086 €	182	11.278 €	2.052.596 €
GUZTIRA	1.418	-	2.956.748	1.991	-	4.046.114 €

ABEGIA egoitza-unitate soziosanitarioa patologia duala dutenei zuzendutako 14 plazako zentroa da, eta zentro horri buruzko bigarren hitzarmena Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundiaren artean finantzatzen dute, erdibana. Osasun Sailak osasun-modulua ordaintzen du -90 euro egunean plaza bakoitzeko-, eta Gizarte Zerbitzuen Sailak, aldiz, gizarte-modulua -hori ere 90 euro egunean plaza bakoitzeko-. Kasu horretan, 2017rako estimazio bat ere egin dugu, modulu berei eta plaza kopuru berari eutsita.

	ABEGIA HITZARMENEK O PLAZAK 2014	PLAZA EGUN MODULU A	ZENBATEKO A 2014	PLAZA K MAPA 2017	PLAZA EGUN MODULU A	ZENBATEKO A 2017
Patologia duala dutenentzako egoitza-plazak	14	90 €	436.104 €	14	90 €	436.104 €
HITZARMEN A, GUZTIRA	14	-	-	14	-	436.104 €

Azkenik, hirugarren hitzarmenean oinarrituta, 2015. urtean Arabako Lurralde Historikoko Egoitza Unitate Soziosanitarioa sortzea aurreikusi da (25 plaza). Gaur egun, plaza horiek ituntzeko prozesua lehiaketa publikoaren bidez egiten ari da (2014ko abenduan). Kasu horretan, Eusko Jaurlaritzak berriro ere % 50eko finantzaketa emango duela aurreikusi da.

	EGOITZA UNITATE SOZIOSANITARIOAR EN HITZARMENEK PLAZAK 2014	PLAZA EGUN MODULU A	ZENBATEK OA 2014	PLAZA K MAPA 2017	PLAZA EGUN MODULU A	ZENBATEK OA 2017
Egoitza-unitate soziosanitario berriko egoitza- plazak	0	-	-	25	62,50 €	570.312,50 €
HITZARMEN A, GUZTIRA	0	-	-	25	-	570.312,50 €

2015ean eta 2016an urtean % 1eko gehikuntzarekin:

Hitzarmen soziosanitarioa

4.046.114

4.127.036,28

Abegia hitzarmena	436.104	444.826,08
Egoitza-unitate soziosanitarioaren hitzarmena	570.312,50	581.718,75
GUZTIRA		5.153.581,11

Bizkaiko Foru Aldundia

Plazen bilakaera eta Osasun Sailaren finantzaketa

GZESaren Katalogoko zerbitzuak	MAPA 2011	2013	MAPA 2017	Aldakuntzaren %-a, 11-17
Adineko pertsonentzako egoitza-zentroak	1.601/5.640 (% 28,38)	1.500	1.751/6.169 (% 28,38)	1,09369144
	2.013.606,22	1.907.820,22		
Plaza soziosanitarioak	100	110	Aurrekoetan sartuta	
	1.695.571,33	1.865.033,10		

Diru-sarreraren bilakaera eta estimazioa 2017an, baliabide mota bakoitzaren arabera

	2013	Aldakuntza (%)	2017	urtean % 1, 14-16	Igoera
Adineko pertsonentzako egoitza-zentroak	3.772.853,32	1,094	4.126.337,39	4.250.127,51	477.274,19
Plaza soziosanitarioak					

Horretaz gain, gaixotasun mentala dutenentzako zentro pribatuetan Osasun Sailak hainbat plaza finantzatzen ditu batera, eta administrazio bakoitzak zuzenean erakundeari ordaintzen dizkio.

Bizkaiko Foru Aldundiak emandako datuen arabera, Osasun Sailak 2.628.487 euroko finantzaketa eman zuen 2013an gaixotasun mentala dutenentzako eguneko zentroetarako eta egoitzetarako (lehen aipatutako 6.845.635 euroetatik, eta hor sartzen dira estimazio honen xede ez diren beste zenbait kontzeptu ere).

	2013	Plazen aldakuntzaren %-a, 11-17	2017	urtean % 1, 14-16	Igoera
Eguneko zentroak		335/364 (1,09)	1.767.572,80	1.820.599,98	
Egoitzak	2.628.487	208/319 (1,53)	1.540.496,69	1.586.711,59	778.824,57

Igoera, guztira= 1.256.098,76

Plazen bilakaera

GZESaren Katalogoko zerbitzuak				MAPA 2011	2013	MAPA 2017
Adinekoentzako egoitza-zentroak		Egoitzak		4.400	4.367	4.622
		Egoitza-unitate soziosanitariok		95	96	96
Desgaitasuna dutenentzako egoitza-zentroak		Desgaitasun intelektuala, nahasmendu mentala eta portaeraren nahasmenduetarako egoitza-unitateak		6	12	12
Gaixotasun mentala dutenentzako egoitza-zentroak		Nahasmendu mental larrietarako egoitza-unitateak		81	105	X ⁸⁴
Gaixotasun mentala dutenentzako eguneko zentroak		Errehabilitazio psikosozialeko zentroa		203	223	210

Plazen bilakaera 2011. urtearekiko aldakuntza aurreikusten den zerbitzuetan

	2011	2013	2017	Aldakuntza (%)
Adinekoentzako egoitza-zentroak	4.400	4.367	4.622	1,058
Gaixotasun mentala dutenentzako egoitza-zentroak	152	193	254	1,316
Gaixotasun mentala dutenentzako eguneko zentroak	203	223	210	-1,061

Diru-sarreraren bilakaera eta estimazioa 2017an, baliabide-mota bakoitzaren arabera

	2013	Aldakuntza (%)	2017	urtean % 1, 14-16	Igoera
Adinekoentzako egoitza-zentroak	6.747.764,16	1,058	7.139.134,48	7.353.308,51	605.544,35

⁸⁴ Azterketa honetan sartzen diren zentroi buruzko datu banakaturik ez dugu, une honetan. Gaixotasun mentala dutenentzako etxebizitza eta egoitza-zentroi, oro har, buruzko datua 254 da 2017an.

(Egoitzak+Egoitza- unitate soziosanitarioak)					
Gaixotasun mentala dutenentzako egoitza-zentroak (Nahasmendu mental larrietarako egoitza-unitateak)	609.397,69	1,316	801.967,36	826.026,38	216.628,69
Gaixotasun mentala dutenentzako eguneko zentroak (Errehabilitazio psikosozialeko zentroak)	660.403,61	-1,061	620.118,99	638.722,56	-21.681,05
Desgaitasun intelektuala, nahasmendu mentala eta portaeraren nahasmenduetarako egoitza-unitateak	479.855,25	0	479.855,25	494.250,91	14.395,66
Igoera, guztira				9.312.308,36	814.887,65

5. PLANAREN KOORDINAZIOA, DINAMIZAZIOA, JARRAIPENA, EBALUAZIOA ETA EGUNERATZEA

5.1. Planaren koordinazioaz, dinamizazioaz, ebaluazioaz eta eguneratzeaz arduratzen diren organoak eta figurak

GZESa erakundeartekoa izaki, planaren koordinazioa, dinamizazioa, jarraipena, ebaluazioa eta eguneratzea GZEOaren adostasunarekin egin behar dira, betiere Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean eta Gizarte Zerbitzuen Erakundearteko Organoaren martxoaren 30eko 101/2010 Dekretuan aurreikusitakoari jarraikiz betiere. Era berean, gizarte-erakundeek planaren jarraipena eta ebaluazioa egiten eta eguneratzen parte hartuko dute Gizarte Zerbitzuetako Euskal Kontseiluaren bitartez, Kontseilua arautzen duen Dekretuan aurreikusitakoari jarraikiz.

Zehazki, GZEOa arduratuko da planaren ebaluazioa egiteaz, eta ebaluazioaren diseinua ez ezik, ebaluazioko azken txostena egitea ere egokituko zaio, GZEKren laguntzarekin. Horrela, bada, GZEKk planaren ebaluazioan parte hartuko du eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema hobetzeko gomendioak emango ditu; gomendio horiek planaren ebaluazio-txostenean sartuko dira.⁸⁵

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak edo, hala badagokio, gizarte-zerbitzuen arloan eskuduna den Eusko Jaurlaritzaren sailak:

- Planaren koordinaziorako, dinamizaziorako, jarraipena egiteko, ebaluazioko eta eguneratzeko prozesu teknikoak bideratuko du;
- prozesu horren esparruan beharrezkoak diren txosten eta/edo operazio nahiz azpi-operazio estatistikoak egingo ditu, kasuan kasu, eta bereziki, planaren ebaluazio-txostenen zirriborroak egingo ditu; horretarako, Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokiaren laguntza izango du, beharrezkoa den guztirako;
- eta, hala dagokionean, plan berria egiteko zirriborroa landuko du aurrekoaren ebaluazioan oinarrituta, GZEOan eta GZEKn aurkeztuko du, eta onartu egin beharko du, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean xedatutakoari jarraikiz.

⁸⁵ Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua zera da, gizarte zibil antolatua gizarte-zerbitzuen eremuko politika publikoei dagokienez parte hartzeko eta kontsultarako duen organo gorena, bai eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari berari dagokienez ere. Ekimen pribatua eta, bereziki, gizarte-ekimena oso garrantzitsuak direnez gizarte-zerbitzuen eremuko erantzukizun publikoko zerbitzuen horniduran, eta Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen bitartez zerbitzu horiek hornitzeko eratzten den eredu mistoa aintzat hartuta, organo horrek eta gizarte zibileko erakundeek GZESaren plangintzan eta ebaluazioan izango duten parte-hartzea aurreikustea eta dinamizatzea oso garrantzitsua da.

Gainera, GZEKn hirugarren sektore sozialeko sareak daude ordezkatuta eta sare horietan, erantzukizun publikoko zerbitzuen horniduran parte hartzen duten erakundeak ez ezik, sektore zibikoko beste batzuk ere biltzen dira (adinekoen, desgaitasunen bat dutenen... elkarteak); erakunde horiek guztiak gizarte-zerbitzuen hartzailleek osatutakoak dira. Bestalde, Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaia ere elkarrizketarako gune izaten da, eta hirugarren sektore sozialeko erakundeek eta Eusko Jaurlaritzak gizarte-politikei eta politika horiekin lotutako sistema publikoei -GZESaz gain- buruz hitz egiten dute.

Nolanahi ere, zerbitzuen hartzaille direnei zuzenean kontsulta egiteko mekanismoak ere bildu behar ditu ebaluazioak, ebaluazioa egiteko garaian txerta daitezkeen tresna espezifikoekin bitartez eta/edo zerbitzuekin (eta prestazio ekonomikoekin) lotutako gogobetetze-mailaren berri izateko inkestetako datuen tratamenduaren bitartez, kexa eta iradokizunak aurkezteko sistemen bitartez eta abar.

Horretaz gain, prozesu tekniko hori ahalbidetzeko honako hauek ere aurreikusi dira:

- GZEOaren barruan, planaren dinamizazioa, jarraipena eta ebaluazioa egingo dituen lantalde espezifikoak sortuko da. Talde horrek, GZEOak esleitzen diezazkiokeen eginkizunaz gain, planaren ezarpen-mailaren jarraipena egingo du eta, halaber, erakunde bakoitzak planaren ebaluazioa egiteko beharrezkoak diren ekintzak egin ditzala ere ahalbidetuko du.
- Foru Aldundi bakoitzean eta Eudelen, mintzakide eta lotura izango den pertsona bat izendatzea; pertsona hori arduratuko da planaren jarraipena eta ebaluazioa dinamizatzeaz, dagokion mailan. Figura horren eginkizunak honako hauek izango dira: alde batetik, foru-erakundeek eta udal-erakundeek garatu behar dituzten neurriak dinamizatzea eta bultzatzea; eta beste alde batetik, planaren ebaluazio-adierazleei buruzko informazioa biltzea, edo planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko eta plana eguneratzeko interesgarri izan daitekeen informazioa biltzea.
- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren barruan, planeko neurriak dinamizatzeaz, jarraipena eta ebaluazioa egiteko jarduerak koordinatzeaz eta planaren ebaluazio-txostenak idazteaz arduratuko den pertsona bat izendatzea; pertsona horrek Gizarte Politiketako Sailburuordetzarekin eta/edo Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzarekin lotura izan beharko du.⁸⁶

Hortaz, Eusko Jaurlaritzak lidergo-eginkizuna eta teknikoki ahalbidetzeko eginkizuna hartu ditu bere gain, eta halaber, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean aurreikusitakoari jarraikiz, hurrengo plan estrategikoak onartzeko erantzukizuna ere badagokio, baina planaren dinamizazioa, jarraipena, ebaluazioa eta eguneratzea prozesu mistoa edo, hobeto esateko, kide anitzekoa da -plan honen kasuan izan den bezalaxe-, Eusko Jaurlaritzak ez ezik, Foru Aldundiek eta Eudelek ere parte hartzen baitute GZEOaren bitartez, bai eta GZESan parte hartzen duten erakundeek ere. .

Barneko mailan, Planaren garapena eta ebaluazioa egitea Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari dagokio; Sail horrek beste sail batzuekiko koordinazioa eta lankidetzak finkatuko ditu, batik bat, Osasun Sailarekin, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin eta, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren barruan bertan, gizarte-zerbitzuen arloan eta diru-sarrerak bermatzearen eta gizartearen arloan eskudunak diren pertsona eta organoekin.

Une honetan, ez dirudi beharrezkoa denik sailarteko batzorde edo lantalde bat eratzea; izan ere, badira maila teknikoan eta politikoan koordinatzeko tresnak eremu soziosanitarioan (Osasun Sailarekin) eta arreta goiztiarraren eremuan (Hezkuntza eta Osasun Sailekin).

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, planaren sustatzaile den aldetik, egiten diren jarraipenei eta ebaluazioei buruzko informazioa helaraziko du Koordinatzeko Zuzendaritzara, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzara, eta Aurrekontu Zuzendaritzara.

⁸⁶ Pertsona horrek eta foru-aldundiek eta Eudelek izendatutako pertsona guztiek GZEOako lantaldean parte hartu beharko lukete.

5.2. Ekintzen eduki nagusiak

Planaren koordinazioko, dinamizazioko, jarraipeneko eta ebaluazioko ekintzak funtsezko bi alderdi hauetara bideratuko dira:

- planean aurreikusitako ekintzak betearaztera eta planean ekintzei dagokienez aurreikusi diren jarraipen-adierazleak betetzera;
- emaitzen adierazleak betetzera, estaldura-helburuei dagokienez (plazak /erabiltzaileak / prestazio ekonomikoen hartzaileak) edo, hala badagokio, arreta-orduei dagokienez, bai eta sarea lurraldean hedatzeari dagokionez ere, GZESaren zerbitzu eta prestazio ekonomiko bakoitzerako Mapan eta eranskinetan aurreikusitakoari jarraikiz.

Horretaz gain, GZESaren plangintzarekin lotuta legean aipatzen diren alderdi guztiak ere hartu behar dira kontuan -lehen ere aipatu ditugu-: kalitatea hobetzera bideratutako jarduerak (76. artikulua), titulartasunaren egitura (sektore publikoak eta sektore pribatu itunduak zerbitzuak ematean duten parte-hartzeari buruzko orientabidea) eta zuzeneko kudeaketa publikoren eta gizarte-ekimenaren bidezko kudeaketa gailen izatea eta abar.

Dena den, logikoa denez, GZEOatik edo GZEBatik landu beharrekotzat jotako beste edozein alderdi ere izan beharko da kontuan.

5.3. Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko tresna nagusiak

- 1) *Planaren ebaluazio-txostena, bitartekoa, 2017ko lehen seihilekoan.*

Ebaluazio horretan, aztergai nagusia planeko jardunen ezarpena (betetze-maila) izango da, bai eta 2017ko urtarrilaren 1erako finkatutako helburuak bete ote diren ere (emaitzen adierazleak Zorroko zerbitzu eta prestazio ekonomiko guzti-guztiei dagokienez).

Horrela, bada, *EAEko Gizarte Zerbitzuen Maparen helburuen betetze-mailari buruzko ebaluazio-txostena* ere izan beharko du; mapa eguneratu egin beharko da, behar izanez gero, eta premien bilakaerari erantzuteko eta hauteman daitezkeen disfuntzioak zuzentzeko egoki irizitako gomendioak ere barnean hartu beharko ditu.

- 2) *Planaren ebaluazio-txostena, amaierakoa, 2020ko lehen seihilekoan.*

Ebaluazio horretan, aztergai nagusia planeko adierazleak bete ote diren izango da, bai eta, sakonean, 2020ko urtarrilaren 1erako mapan finkatutako helburuak bete ote diren (emaitzen adierazleak Zorroko zerbitzu eta prestazio ekonomiko guzti-guztiei dagokienez) eta lehentasunezko elementuak (ikus aginte-taula) ere.

Eta GZESari eta sistemaren hedapenari buruzko gomendioak ere txertatuko ditu; gomendio horiek aintzat hartu beharko dira *EAEko Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa* egiteko garaian.

Bi txosten horietaz gain, Gobernu Kontseiluak 2013ko ekainaren 11n hartutako Erabakian – horren bitartez 2013/2016 aldiko X. Legegintzaldirako Plan Estrategikoen Egutegia onartu zen-, II. eranskinean “Gobernuaren Plan Estrategikoak egiteko eta izapidetzeko prozedura”

biltzen da eta 3.2 “Planen Jarraipena eta Ebaluazioa” puntuaren arabera, urtean jarraipen-txosten bat, gutxienez egin beharko da; beraz, 2016., 2018. eta 2019. urteetan ere urteko txostenak egin beharko dira.

GZEOak txosten guztiak bideratu eta berrikusi beharko ditu; GZEKk ere parte hartuko du, eta Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren laguntza teknikoarekin egingo dira txostenak.

GZEOak ebaluazio-txostenen zirriborroa helaraziko du GZEKra, eta azken horrek kontrastatu ostean eta GZESaren hedapenari buruz emandako gomendioak aintzat hartuta, zirriborroa itxi egingo du.

Horrenbestez, 2016-2019 aldirako ebaluazio-txostenetan planean aurreikusitako ekintzen betetze-maila eta Mapan jasotako emaitzen adierazleak –GZESaren zerbitzu eta prestazio ekonomiko guzti-guztiei dagozkienak– aztertuko dira.

Une honetan ezinezkoa da ebaluazioan honako hauek txertatzea: alde batetik, GZESaren emaitzen ebaluazioa, xedearen (autonomiaz gizartratzea) betetze-mailari dagokionez, eta bestetik, eraginaren ebaluazioa gizarte-kohesioari, prebentzioari, enplegua sortzeari, jarduera ekonomikoari, zerga-itzulkinari... dagokienez. Baina horrelako alderdiak arian-arian txertatu ahal izango dira ebaluazio-txostenetan, hori ahalbidetuko duten ekintzak –planean aurreikusitakoak– garatzen diren heinean; izan ere, zenbait kasutan –4.3.2, 1.5.1 edo 3.3.6 ekintzen kasuan, esaterako–, aldez aurretik egin beharreko ezinbesteko urrats baitira.

Ekintza horiek honako alderdi hauekin lotuta daude, hain justu: a) autonomiaz gizartratzearekin lotutako adierazleen sistema bat zehaztu eta ezartzea, GZESaren esku-hartzearen ondorioz lortu beharreko emaitza den aldetik (4.3.2); b) kontingentzien balorazioa eta diagnostikoa egitea, tresna komunetan oinarrituta⁸⁷ (1.5.1) eta bakoitzari dagozkion iragarleak identifikatzea (2.8.3); c) GZESaren eragina ebaluatzeko sistema bat diseinatzea (3.3.6); d) kalitatearen kudeaketa (3.4); e) eta, maila espezifikoago batean, aldizkako txosten bat egitea, emakumeek GZESari dagokionez duten premian, eskarian eta erabileran –edo erabilerarik ezan– eragina duten faktoreak aztertzeko, bai eta horrek emakumeen bizibaldintzetan duen inpaktua ere (1.8.3).

Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoak lau urteko iraupena izango du. Aldi horretan, ziurrenik, egoerak aldatu egingo dira eta desbideratzeak eragingo dituzten zirkunstantziak ere gertatuko dira; eta desbideratze horiek aztertu egin beharko dira, Planean aurreikusitako ebaluazio-sistemaren bitartez, gero planaren edukia aldatu eta egoera berrietara egokitzeke.

Horretarako, informazio- eta ebaluazio-sistemak informazio egokia eskaini behar die erabakiak hartu behar dituztenei eta, gainera, behar den moduan zabalduz gero, hartutako konpromisoen betetze-mailaren eta sortutako itxaropenen berri herritarrei emateko baliagarri izango da.

Bukatzeko, planaren edukian ebaluazioa funtsezko elementu den aldetik, funtsezko izaera hori adierazten duen betebeharrak bat dago; hain zuzen ere, Gobernu Kontseiluak plana onartzeko Erabakian, onartu beharreko jarraipen- eta ebaluazio-sistemari buruzko atal bat

⁸⁷ Desgaitasuna, bazterkeria, mendetasuna, babesgabetasuna, desgaitasuna edo, hala badagokio, arriskua.

txertatzeko betebeharra, aurkeztu behar diren dokumentuak (ebaluazio-txostenak) eta horiek aurkezteko epeak ere zehatuta.

5.4. Plangintza egiteko bestelako tresnak

Eskaintza *etengabe planifikatzeko sistema bat* indartu behar dela esan dezakegu, GZESaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoen premien eta eskariaren (bereziki, baldintzak betetzen dituen eta artatu ez den eskariaren) bilakaerara egokitzen ote den aztertuta; hartara, planeko aurreikuspena, mapa eta memoria ekonomikoa eguneratu ahal izango dira, premien bilakaerarekin bat etorrarazteko.⁸⁸

Horretarako, *GZESaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoen inbentarioa* egitea proposatu dugu.

Gure asmoa zera da, operazio hori 2017ko lehen hiruhilekoan egitea, 2016ko abenduko datuekin, eta 2020ko lehen hiruhilekoan, 2019ko abenduko datuekin; horrela, aipatu ditugun bi txosten horiek egiteko oinarritzat har dezakegu mapan xedatutako helburuen betetze-maila ebaluatzeari dagokionez, eta plangintza honako elementu hauen bilakaeraren arabera egokitze aukera emango digu:

- baliabideen sarea (plazak, okupazio- eta txandakatze-indizeak, titulartasun-egitura) eta lurralde-banaketa;
- gastua (gastu korrante publikoa/plaza, ahal den heinean, udalerrietako amortizaziorako hornidurak txertatuta) eta diru-sarrerak (koordainketaren ondoriozko diru-sarrerak eta GZESatik kanpoko finantzaketa-iturrietatik jasotakoak);
- baldintzak betetzen dituen artatutako eta artatu gabeko eskaria, zerbitzu edo prestazioen erabilerari buruzko datuak (zerbitzu eta zentroen erabiltzaileak, edo prestazio ekonomikoen hartzaileak) eta itzarote-zerrendak barnean hartuta; datu hori modu homogeneoan hartu behar da, ahal izanez gero.

Plangintza egiteko sisteman honako hauek ere txerta daitezke:

- Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren estatistika-organoak lau urtean behin egiten duen *Gizarte Zerbitzuen Eskariaren Estatistika* (GZEE).
- *GZEBak egiten dituen txostenak*, 77.3 artikulua d letran aurreikusitakoari jarraikiz, etengabeko plangintza-sistemaren barruan txertatuko dira edo kontuan izango dira hurrengo plan estrategikoak egiteko garaian, aldizkakotasunaren arabera

Nolanahi ere, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak GZESaren plangintzarekin, jarraipenarekin eta ebaluazioarekin lotura duten operazio edo azpi-operazio estatistiko horiek

⁸⁸ Gai horri dagokionez, ez dugu ahaztu behar legean (33.6 art.) xedatzen dena: helburuak sistematikoki ebaluatuko dira eta aplikazioaren jarraipena ere egingo da, eta, gero, emaitzak ikusita, planak aldian-aldian emaitza horietara egokitu beharko dira. Eta halaxe egin behar da, are gehiago, *EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren* (edo GZESaren Plan Estrategikoaren) kasuan.

Gainera, estimazioak ahalik eta errealistenak izan beharko dute, eta GZESaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoen premiaren eta eskariaren -baldintzak betetzen dituenaren-bilakaerara egokitu behar dira; baina hori guztia lortzeko, etengabeko plangintza-tresna bat (ziurrenik, bi urtez behingoa) beharko dugu, eskariari eta eskaintzari buruzko informazioa emango diguna.

guztiak egiteko metodologia eta epeak zehaztu beharko ditu, eta GZEOan eta GZEBan aurkeztu, betiere operazio horiek egin behar direla iritziz gero.

5.5. Plan Estrategikoaren eraginak

Arauetan izango duen eragina

EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa legean -35. artikuluan- xedatzen den aurreikuspenetako bat da, eta planaren garapena legearen arau-garapenarekin lotuta dago, planeko ekintzen artean sartuta baitago dokumentu honetan behin eta berriz aipatu den egin beharreko arau-garapena.

Antolaketan izango duen eragina (gizarte-zerbitzuen eremuan eta eremu horretan erantzukizuna duten sailetan)

Euskal administrazioek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari ezarritako helburuak, estrategiak, politikak eta jarraitu beharreko jarraibideak adostuko dituzte, eta sistema hori hedatzeko irizpideak ez ezik, zerbitzuen ezarpena lurralde autonomiko osoan homogeneoa dela bermatzeko beharrezkoak diren baliabideen banaketa geografikoa ere definituko dituzte, EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapan xedatutako aurreikuspen eta irizpide orokorren esparruan; hartara, legean aitortutako gizarte-zerbitzuetarako eskubidea baliatzeko aukera izango da.

GZESaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoaren eta Zorroaren hornidura bermatu beharko dute euskal administrazio publikoek; Katalogo eta Zorro hori hiru eskumen-mailetan banatzen da: udala, Foru Aldundia eta Autonomia Erkidegoa.

Eusko Jaurlaritzari dagokionez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak planean aurreikusitako jardun zehatzak ez ezik, errealitatea aztertze, plangintza egiteko, ebaluazioko, prestakuntza, kalitatea sustatzeko eta abarretarako prozedura eta sistema berriak ere indartu behar ditu; eta azken horiei dagokienez, GZESa, GZEBa eta abar hedatzea.

Aurrekontuetan eta finantzetan izango duen eragina

Planaren barruan memoria ekonomiko bat dago eta memoria horrek koherente izan behar du prestazio eta zerbitzu bakoitzaren horniduraz arduratzen diren administrazio publikoetako baliabideen erabilgarritasunarekin (egikaritutako gastua); memoria horretan, halaber, 2017/01/01erako zerbitzu eta prestazio ekonomikoen premiaren estimazioa ere egin da.

Gainera, lehen ere esan dugunez, Zorroari buruzko Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian horri buruz aurreikusitakoari jarraikiz, planean zera aurreikusten da, 2015/12/31 baino lehen, Finantza Publikoen Euskal Kontseiluaren erabaki bidez, egonkortu gabekotzat jotako zerbitzu eta prestazio ekonomikoak hedatzeko finantza-lankidetzako formula bat ("funts" bat) eratzea; eta 2015eko urriaren 14ko saioan hartu zuen Kontseiluak erabaki hori.

Gizarte-zerbitzuen eremutik kanpoko beste jardun batzuetan izango duen eragina

Eusko Jaurlaritzari dagokionez, planaren onarpenean, garapenean eta ebaluazioan inplikaturako Sailek plana bera lantzeko prozesuan eta GZEk nahitaezko txostena egiteko prozesuan parte hartzeaz gain, inplikazio-maila handiagoa edo txikiagoa izango dute planaren

garapenean, legea garatzeko onartzen diren Dekretuen arabera, planaren beraren edukiaren arabera, eta planean aurreikusitako gainerako jardunen arabera.

Hauexek dira Sail garrantzitsuenak:

- Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, alde batetik, GZESaren eta Lanbideren arteko koordinazioari eta lankidetzari dagokionez, eta bestetik, GZESaren eta Etxebizitza Sailaren -bereziki, Visasaren- artekoari dagokionez, ahal den heinean azpiegiturak gara daitezzen ahalbidetzeko.
- Osasun Saila, eremu soziosanitarioaren garapenarekin lotutako alderdi guztiei dagokienez, eta GZESaren zentroetako plaza soziosanitarioen eta osasun-prestazioen finantzaketari dagokionez.
- Ogasun eta Finantza Saila, planak aurrekontuan eta finantzetan izango duen eraginaren jarraipena egiteari dagokionez, betiere EAeko gainerako administrazio publikoen laguntzarekin, eta egonkortu gabekotzat jotako zerbitzu eta prestazio ekonomikoak garatzeko aurreikusitako finantza-lankidetzarako formula (“funtsa”) garatzeari dagokionez.

Erakunde-harremanetan eta gainerako gizarte-eragileekiko harremanetan izango duen eragina

Dokumentu honen aurkezpenean esan dugunez, planak GZESan erantzukizunak dituzten administrazioekin adostutako tresna izan behar du; alegia, Eusko Jaurlaritzarekin adostez gain, foru-aldundiekin eta udalekin adostu beharko da.

Era berean, planak hirugarren sektore sozialarekiko lankidetzaren indartzeko elementu baliagarri izan behar du, laguntza-sare informalentzat euskarri, sistemen arteko lankidetzarako eta koordinaziorako guneak eratu eta ezarri behar ditu, eta herritarrek modu antolatuan parte har dezaten sustatu.

Ildo beretik, planak eragin handia izango du dela laguntza-sare informaletan -laguntza formala eta zaintzaile informalei bereziki zuzendutako zerbitzuak (laguntzeko eta atsedenerako) garatuko direla espero baita-, dela ekimen pribatuko erakundeetan, oro har, eta gizarte-ekimenekotan, zehazki, eta batik bat, arian-arian erantzukizun publikoko zerbitzu bihurtu diren zerbitzuetan laguntzen ari diren gizarte-ekimenetako erakundeetan, zerbitzuak hornitzeko eredu mistoaren esparruan.

Itzulkin soziala eta ekonomikoa

Azkenik, gizarte-zerbitzuen etorkizuneko premia eta eskaria baldintza dezaketen faktore garrantzitsuak aztertu ditugunean aipatu dugunez, gizarte-zerbitzuen garapena aukeratzat eta inbertsiontzat hartu behar da, enplegua sortzeko potentziala duelako, itzulkin sozial eta ekonomikoaren maila handiak dituelako, eta kostu pertsonal, sozial eta ekonomiko oso handia eragiten duten arazo edo premiei aurrea hartzeko gaitasuna duelako.

Hori horrela izanik, gizarte-politikarekin lotutako beste sistemen kasuan bezalaxe, GZESaren garapenak itzulkin garrantzitsuak eragiten dizkio gizarte-eragile inbertsio sozialari, gizarte-babesari eta egonkortze ekonomikoari dagokienez, eta hartara, gastu soziala inbertsiontzat hartu behar da, ez ekonomia-eragilearen eta produkzioaren hazkunderako kargatzat.

ERANSKINA. 2011ko INBENTARIOAREN SINTEsia (datu nagusiak)

1. Inbentarioaren ezaugarriak

- Inbentarioa egiteko, 2011. urteko Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistikako eta Gastu Publikoaren Inkestako datuetan oinarritu gara, betiere datu horiek administrazio publikoekin erkatu ostean.
- 2011. urtean zeuden Zorroari buruzko Dekretuko prestazio ekonomiko eta zerbitzu gehientsuenak txertatu dira.
- Datua lortu badugu edo erkatu ahal izan badugu, urte osoan izandako erabiltzaileen kopurua eta erabiltzaile berrien kopurua eman dugu beti. Eta zentroetan, aurreko datuez gain, plazak eta okupazio-indizea.
- Sektore pribatuko plaza guztiak hartu ditugu kontuan erabilgarri dauden plazen kopurua zehazteko, baina Inbentarioaren eranskinean adierazten diren baldintzen arabera, soilik “itundutzat” jotzen direnak hartu ditugu kontuan GZESaren plaza kopurua finkatzeko.
- Zerbitzu eta prestazio ekonomiko bakoitzari dagokionez, diru-sarreraren eta gastu korrontearen deskribapena egin dugu; horretarako, GZGEEako datuak GPI inkestako datuekin gurutzatu ditugu, zerbitzuei dagokienez.
- Diru-sarrei dagokienez, jatorri publikoko diru-sarrerak, erabiltzaileek egindakoak, jatorri pribatukoak eta bestelako diru-sarrerak hartu ditugu kontuan. Eta atxikitako Excel dokumentuan, jatorri publikoko diru-laguntzen bi desagregazio aurkeztu ditugu, iturrien arabera: a) gizarte-zerbitzuen eremuko diru-laguntzak; b) beste sail edo erakunde batzuen diru-laguntzak.
- Gastu korronteari dagokionez, gastu korronte publikoa/plaza zehaztu dugu, plazen egungo titulartasun-egiturari erreparatuta.⁸⁹ Eta 2011. urtean GZESak administrazio publikoei eragin zien kostuaren estimazioa egin dugu: a) zentro bakoitzean, gastu korronte publiko/plaza faktorean eta GZESaren plazatzat hartzen diren plazen kopuruan oinarrituta; b) gainerako zerbitzu bakoitzean, dagokion zerbitzuko gastu korronte publikoa zuzenean aplikatuta.
- Adinekoentzako ostatu-zerbitzuetan eta egoitza-zentroetan pertsona autonomoentzat diren plazen kostua ere kalkulatu dugu, GZESatik kanpoko gastutzat baina, nolana ere, jada zerbitzuetako erabiltzaile direnei bermatzen jarraitu beharreko gastutzat hartuta, legearen laugarren xedapen iragankorrean aurreikusitakoari jarraikiz.
- Gastu korrontearen deskribapenean Foru Aldundiek egindako amortizaziorako hornidurak sartu ditugu (Aldundiek emandako datua da); bai eta “egitura-kostuak” ere, hau da: a) sektore publikoan nahiz pribatuan, zerbitzu teknikoekin lotutako langileen gastua; b) erakunde pribatuek zerbitzu bakoitzari atxikitzen dizkieten gastu orokorrak (kudeaketako, funtzionamenduko... egiturarekin lotutako langileenak). Eta azken horiei dagokienez, Arabako Foru Aldundiak izan duen gastua funtzionamendurako diru-laguntzen deialdietan eta erakundeekin sinatutako hitzarmenetan; izan ere, datua bereizi ahal izan du eta txertatzeko eskatu du.

⁸⁹ Datuak aurkeztu eta aztertzeko garaian, zerbitzu bakoitzaren egungo titulartasun-egitura (udala, foru-aldundia edo pribatu itundua) aintzat hartu da. Esaterako, gastu korronte publiko/plaza faktoreari edo okupazio-indizeari buruzko datuei dagokienez, titularrak udala edo erakunde pribatu bat duten plaza guztiei buruzko datuak lor daitezke, ez soilik GZESarenak diren plazei buruzkoak.

– Bukatzeko, *inbertsioari* buruzko datuen deskribapena egin dugu, erakundeen eta zentroen arabera.

2. Zifra nagusiak⁹⁰

A) Zentroetako plazak, prestazio ekonomikoaren hartzailak, eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako administrazio-langileak eta gizarte-langileak.

Ikus daitekeenez, Lurralde Historikoen artean alde handiak daude zentro mota bereko plaza kopuruan, eta alde horiek ez dira justifikatzen Lurralde Historiko bakoitzeko *xede-biztanleria*⁹¹ osatzen duten pertsonen kopuruan dauden aldeekin.

Era berean, oro har, kointzidentzia garrantzitsuak ere gertatzen dira: baliabide astunenak eta kostu handienekoak (egoitza-zentroak) gehiago garatzen direla gainerako zerbitzuak baino (ostatu-zerbitzuak, eguneko eta gaueko zentroak). Desoreka hori zuzendu egin behar da, arreta emateko alternatibak eskaintzeko eta eredu komunitarioan aurrera egiteko.

1. TAULA. GZESaren PLAZAK LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA ETA EAEn (Sintesia)⁹²

ZENTROETAKO PLAZAK	A	B	G	EAE
Adineko pertsonentzako egoitza-zentroak	1.463	5.640	4.400	11.503
Adinekoentzako ostatu-zerbitzuak	483	224	707	1.414
Adinekoentzako atsedenerako zerbitzua	278 ⁹³	32	16 ⁹⁴	326
Adinekoentzako eguneko laguntza-zentroak.	723	1.414	1.407	3.544
Desgaitasuna dutenentzako egoitza-zentroak	433	1.314	891	2.638
Gaixotasun mentala dutenentzat (aurrekoaren desagregazioa)	152	208	142	502
Desgaitasuna dutenentzako atsedenerako zerbitzua	941 ⁹⁵	34	6	981
Desgaitasuna dutenentzako eguneko laguntza-zentroak	146	1.042	844	2.032
Gaixotasun mentala dutenentzat (aurrekoaren desagregazioa)	15	335	203	553
Desgaitasuna duten pertsonentzako okupazio-zentroak	419	1.276	860	2.555
Gaixotasun mentala dutenentzat (aurrekoaren desagregazioa)	20	96		116
Adingabeentzako egoitza-zentroak	174	669	405	1.248
Inoren kargura ez dauden adingabe atzerritarrentzat (aurrekoaren desagregazioa)	36	290	144	470
Emakumeentzako egoitza-zentroak eta ostatu-zerbitzuak	78	214	95	387
Bazterkeria- eta marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak eta ostatu-zerbitzuak	308	1.018	1.009	2.335
Gizarteratze-premiei erantzuteko eguneko zentroak	297	1.567	530	2.394
Gizarte-jantokiak	300	313	30	643
Gizarteratze-premiei erantzuteko gaueko zentroak	99	219	188	506

⁹⁰ Lortu ditugun zifra nagusiak aurkeztu ditugu. Iruzkina laburrak baino ez ditugu sartu, orokorrak eta deskribatzaileak, zeren lehen ere esan dugunez, dokumentu osoa inbentarioan baitago eskuragarri. 2012/01/01eko datuak ere bildu ditugu Mapan, 2017ko datuekin alderatzeko.

⁹¹ Inbentarioari atxikita dagoen Excel formatuko "Biztanleriari buruzko datuak 2012 eta 2017" orriari 2017rako estimazioak biltzen dira; orri horretan, halaber, zerbitzu edo prestazio ekonomiko bakoitzaren "xede-biztanleriari" buruzko datu orokorrak ere aurki daitezke - estimazio horiek egiteko oinarritzat hartu dira datu horiek-.

⁹² Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoak eta LELe (Laguntza Ekonomiko Indibidualek) esleitutako plazak sartu dira. Inbentarioan eta mapan zentro ez diren zerbitzuei buruzko informazioa ere sartu dugu. Gizarte-jantokiak eta adingabeentzako/familientzako eguneko arreta (zentroetan) aldaerak dira; hain zuzen ere, hurrenez hurren, gizarteratze-premiei erantzuteko eguneko zentroen, eta Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuaren (1.3) aldaerak.

⁹³ Laguntza ekonomikoak jasotzen dituzten 238 pertsona barnean hartuta daude.

⁹⁴ Berariaz atsedenerako diren zerbitzuak sartzen dira hemen. Nolanahi ere, bai Gipuzkoako Foru Aldundiak, bai gainerako erakundeek badituzte plazak egoitza-zentro arruntetan aldi baterako egonaldiak egiteko, eta premia handituz gero, plaza gehiago bideratzen dituzte atsedenerako premiei erantzutera, baina 2011ko GZGEEan ez zen bereizi egonaldiaren arazoia; beraz, ezin izan dugu plaza espezifikotik erabilerari dagokion gastua identifikatu, ez eta banakatu ere.

⁹⁵ Atsedene hartzea xede duten aisialdiko programen erabiltzaileak, atsedenerako zentro espezifikotako 3 plaza izan ezik.

Adingabeentzako/familientzako eguneko arreta	96	281	118	495
Guztira (desagregazioak kenduta, datuak ez bikoiztarren)	6.461	16.186	11.995	34.642

Prestazio ekonomikoek dagokienez, oro har, garapen-maila handiagoa dute Gipuzkoan, eta nolana ere, Familia Ingurunekeo Zaintzarako Prestazio Ekonomikoa nabarmen garatu da hiru lurralde historikoetan, baina bereziki Gipuzkoan. 2011. urteaz geroztik, Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa garatzen ari da Araban eta Bizkaian, baina asko falta zaie oraindik Gipuzkoako garapen-mailara iristeko. Nolanahi ere, aurreikuspenen arabera, prestazio ekonomikoek eta, zehazki, Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoak garatzen jarraituko dute mapan eta araudian aurreikusitako esparruan, baina oro har, ez dira garatuko orain arteko erritmoan.

2. TAULA. PRESTAZIO EKONOMIKOEN HARTZAILEEN KOPURUA

PRESTAZIO EKONOMIKOAK	A	B	G	EAE
Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa (LPPE)	1	4	1.471	1.476
Familia ingurunekeo Zaintzarako Prestazio Ekonomikoa (FIZPE)	4.640	10.794	10.266	25.700
Autonomia pertsonalaren aldeko laguntzak	250	1.244	1.066	2.560
Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako ordainketa bakarrekoko prestazio ekonomikoa ⁹⁶				90

“Informazio-, balorazio-, diagnostiko- eta orientazio-zerbitzuari (1.1 fitxa)” dagokionez, kasuaren koordinazioan sartzen diren eginkizun eta zeregin guztiei edo esku hartzeko oinarritzko prozedurari dagokienez, eta OGZen kudeaketarekin lotutako administrazio-lanari dagokionez, OGZe atxikitako “gizarte-langileen eta administrarien edo administrari laguntzaileen” kopurua aintzat hartu behar da, eta zehazki, zeregin horiek egiteko “kontratututako urteko ordu kopurua” (gizarte-lanak eta administrazio-lana), lehenengoa baino datu zehatzagoa baita. 2011ko datuak honako hauek dira, Lurralde Historikoaren arabera.⁹⁷

3. TAULA. OGZetako ADMINISTRAZIO-LANGILEAK ETA GIZARTE-LANGILEAK: BIZTANLEAK PROFESIONAL BAKOITZEKO ETA MINUTUAK BIZTANLE BAKOITZEKO

LANGILEAK	A	B	G	GUZTIRA
Biztanleria 2012/01/01ean, milakotan	322,557	1.158,439	712,097	2.193,093
Gizarte-langileen kopurua	106	260	227	593
Profesional bakoitzeko biztanleak, milakotan	3,04	4,46	3,14	3,69
Administrarien eta laguntzaileen kopurua	88	160	80	328
Profesional bakoitzeko biztanleak, milakotan	3,67	7,24	8,90	6,69
MINUTUAK URTEAN	A	B	G	GUZTIRA
Biztanleria 2012/01/01ean	322.557	1.158.439	712.097	2.193.093
Minutuak urtean, gizarte-langileak	5.924.160	21.040.800	16.700.640	43.665.600
Minutuak urtean biztanle bakoitzeko	18,37	18,16	23,45	19,91
Minutuak urtean, administrariak eta laguntzaileak	4.596.240	10.934.880	6.169.680	21.700.800
Minutuak urtean biztanle bakoitzeko	14,25	9,44	8,66	9,90

⁹⁶ Prestazio ekonomiko hau Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoa da. Hartzaileak Lurralde Historikoaren arabera banakatutako daturik ez dugu.

⁹⁷ Tokiko erakundeek zuzenean kontratatzen ez dituzten langileak kontuan izan gabe (24 pertsona /26.265 ordu urtean Gipuzkoan, eta 25 pertsona/13.177 ordu urtean Bizkaian), ez eta Arabako gizarte-laneko lurralde-sarean kontratatutako kopurua ere (15 pertsona / Excel orrian gastua sartu da).

Gaur egun, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak trantsizio-prozesuan daude, *Diru sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko sistemako* prestazio ekonomikoen kudeaketa Lanbidera transferitu baita, eta ez dakite zehatz-mehatz horrek zer ondorio izango dituen, lan-kargari dagokionez eta hainbat alderdiren –esaterako, kasuaren koordinazioa– garapenari dagokionez. Nolanahi ere, prozesu horien balorazioa egiteko zain gauden bitartean, 2020. urteari begira, beharrezko iruditzen zaigu "biztanleak profesional bakoitzeko" eta "minutuak biztanle bakoitzeko" ratioetan dauden aldean murriztea.

B) Gastu korrante publikoa eta gastu korrantea

Jarraian, gastu korrante publikoari eta gastu korronteari buruzko datuak aurkeztuko ditugu, betiere aztergai ditugun zerbitzu eta prestazio ekonomikoei dagokienez.

4. TAULA. GASTU KORRONTE PUBLIKOA

GKP	Eusko				
	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	Jaurlaritza	GUZTIRA
Zerbitzuak	166.527.734	397.857.981	273.592.531	10.648.043	848.626.289
Prestazioak	19.026.575	42.996.550	46.227.425	493.308	108.743.858
GUZTIRA	186.650.887	440.854.531	319.819.956	11.141.351	958.466.715 ⁹⁸
	GZESatik kanpoko plazetako GKPa (desagregazioa)				15.227.711

GZESaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoetako Gastu Korrante Publikoa 943 milioitik gorakoa zen 2011. urtean, Foru Aldundiek ordaindutako *amortizaziorako hornidurak* (4.881.508 euro)⁹⁹, *egitura-kostuak* (sektore publikoko eta pribatuko "zerbitzu teknikoak") eta Arabako Foru Aldundiaren funtzionamendurako hitzarmenen eta diru-laguntza deialdietako gastua barnean hartuta.¹⁰⁰

⁹⁸ Arabako Foru Aldundiak funtzionamendurako egindako hitzarmenei eta diru-laguntzen deialdiei dagozkien 1.096.568 euro sartuta daude.

⁹⁹ Sistema GZESaren zerbitzuak emateko beharrezkoak diren azpiegituz hornitzeak dakarren kostua zehazteko, honako hauek aintzat hartzea garrantzitsua da: gastu korrontearen azterketan sektore publikoaren amortizaziorako hornidurak, sektore publikoko eta pribatuko mantentze-gastuak, eta sektore pribatuko amortizaziorako hornidurak –sartuta daude jada–.

Horri dagokionez, ez dugu ahaztu behar Foru Aldundiek egindako amortizaziorako hornidurei buruzko datua bildu dugula, baina ez Udalek egindakoa; beraz, gastu korrante publikoa baliteke hori baino handixeagoa izatea. Etorkizunean datu hori txertatzea garrantzitsua da, zeren GZESaren zerbitzuen emateko beharrezkoak diren azpiegiturak hornitzearen ondorioko gastua txertatzen baita gastu korronteari dagokionez. Horretarako, gastu hori identifikatzeko eta esleitzeko zer irizpide jarraitu behar diren argitu beharko litzateke tokiko erakundeekin.

Nolanahi ere, 2017rako gastuaren proiektzioak egitean, adinekoentzako eguneko arretako zerbitzuetan eta ostatu-zerbitzuetan (biak ala biak udal-eskumenekoak dira) aurreikusitako plaza berriak gaitzeko beharrezkoak diren inbertsioen estimazioa egin da, eta inbertsio horien ondoriozko amortizaziorako hornidurak proiektzioetan sartuta daude.

¹⁰⁰ Beste administrazio publiko batzuetako sektore pribatu itunduaren funtzionamendu-gastuak estaltzeko hitzarmenei eta diru-laguntza deialdiei dagozkien gastua ez da txertatu, ez dugulako banakatutako daturik. Nolanahi ere, gastu horien zati bat egitura-kostuak (erakundearen funtzionamendu orokorreko gastuak eta zerbitzu jakin bati atxiki ez dakizkikeen zerbitzu teknikoaren gastuak) izango dira, Katalogoko zerbitzuak ematearekin lotura dutenak, eta agian hein batean, atxikitako "zerbitzu teknikoekin" lotutako gastu korrontearekin bat etor daitezke.

Bestalde, *GZESatik kanpoko plazetako Gastu Korrante Publikoa* aintzat hartu behar da: titular udala duten adinekoentzako egoitza-zentroetako plazak, Foru Aldundiek itundu gabeak; eta autonomo izateagatik, zerbitzu horiek eskuratzeko aukera izateko baldintzak – Zorroari buruzko Dekretuan xedatzen direnak– betetzen ez dituzten pertsonak okupatzen dituzten plazak tutoretzapeko apartamentuetan eta etxebizitza komunitarioetan (I. mailako mendetasun-egoeran dauden adinekoak).

Kasu horietan, GZESatik kanpoko plazak dira eta administrazio publikoak horietako zenbait bermatu behar dituzte, legearen laugarren xedapen iragankorren aurreikusitakoari jarraikiz.¹⁰¹

Eta, praktikan, Zorroari buruzko Dekretua indarrean hasi bitartean plaza horiek okupatu izan dituzten pertsona guztiei bermatu egin behar zaizkie, nahiz eta ez den derrigorrezkoa, Dekretua indarrean hasi ondoren, GZESak plaza horien eskaintza egiten jarraitzea pertsona autonomo berriei, eta betiere erakunde bakoitzak eskaini nahi duen arreta gehigarria alde batera utzi gabe.

Gastu hori honela banakatzen da zentro motaren eta Lurralde Historikoaren arabera.

5. TAULA. GZESATIK KANPOKO PLAZETAKO GASTU KORRONTE PUBLIKOA

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Adineko pertsonentzako egoitza-zentroak	7.370.124	4.380.593	247.036
Tutoretzapeko apartamentuak	116.015	90.120	1.427.567
Etxebizitza komunitarioak	0	287.497	1.308.759 ¹⁰²
GUZTIRA	7.486.139	4.758.210	2.983.362

Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuan ere autonomoak artatzen dira, nahiz eta Zorroari buruzko Dekretuan aurreikusten den zerbitzu hori mendetasun-egoeran edo -arriskuan daudenei zuzendu behar zaiola, baina ezinezkoa da autonomoei emandako arretari buruzko datuak gainerakoetatik banakatzea; beraz, autonomo direnentzako ELZko gastua GZESako gastuaren barruan sartu.

Bestalde, 2017rako proiektzioak 2011n zeuden plazen guttizkoan oinarrituta egin ditugu, plaza horiek okupatzen zituzten erabiltzaileen autonomia-maila gorabehera.

Oro har, GZESarekin lotutako zerbitzu eta prestazio ekonomikoetako eta GZESatik kanpoko plazetako gastu korrante publikoaren guttizkoa **958.466.715** euro da; gastuaren zati handiena zerbitzuetara bideratuta dago (ia 850 milioi) eta beste zati txikiago bat prestazio ekonomikoetara (ia 109 milioi).

¹⁰¹ <<1. Lege hau indarrean jartzean, gizarte-zerbitzuen erabiltzaile eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistematik kudeatutako prestazioen onuradun diren pertsonak, gainera, aurretik eskuratuak dituzten prestazio eta zerbitzuak gozaten jarraitu ahal izango dute, alde batera utzita 25. artikuluan arautzen diren zerbitzu eta prestazioak jasotzeko eskakizun orokorrak eta, aurrerago, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Karteran aurreikusten diren eskakizun berariazkoak betetzen diren edo ez; betiere, prestazioak ematea eragin zuten baldintzak beren horretan irauten badute edo zerbitzuaz baliatzeko ezarri ziren betekizunak betetzen badira>>.

¹⁰² 2011ko abenduan, 88 erabiltzailetik 6 baino ez ziren mendetasun-egoeran dauden pertsonak (ez dakigu zer mailatakoak). Gastu korrante publiko guztia sartu dugu hemen (6/88 proportzioa kendu beharrean).

Gastu korronte publikoa kontingentzien arabera nola banatzen den aztertzen badugu, gastuaren erdia baino gehiago "Autonomia eta Mendetasunaren Arretarako Sistemarekin" lotuta dagoela ikusiko dugu; beraz, sistema horretan sartzeko aukera eskubide subjektibotzat bermatuta dago, jada, legez.

Hori horrela izanik, adinekoei/autonomia-mendetasunari zuzendutako zerbitzuetako, desgaitasuna dutenentzako zerbitzuetako eta prestazio ekonomikoetako gastu korronte publikoaren batura (578.333.849 milioi euro) bat dator, grosso modo, Autonomia eta Mendetasunaren Arretarako Sistemari sartzeko zerbiztu eta prestazio ekonomikoekin, eta horrek EAEko gastuaren guztizkoaren % 60,34 osatzen du.

6. TAULA. GASTU KORRONTE PUBLIKOA KONTINGENTZIEN ARABERA

GASTU KORRONTE PUBLIKOA kontingentzien arabera	GIPUZKO		Eusko		GUZTIRA
	ARABA	BIZKAIA	A	Jaurlaritza	
Adinekoak / Autonomia - mendetasuna	66.254.972	135.061.537	113.018.238	4.661.514	318.996.261
Desgaitasuna dutenak	26.668.927	76.871.227	47.053.576		150.593.730
Babesgabetasuna	13.289.320	41.421.615	34.900.750	474.795	90.086.480
Bazterkeria / Gizarteratzea	9.085.226	19.282.340	13.052.080		41.419.646
OGZ, Gizarte-larrialdiak eta bestelako zeharkakoak	34.865.572	73.218.009	42.729.226	2.579.448	153.392.255
Zerbitzu teknikoak eta bestelako zerbitzu orokorrak	16.363.717	52.003.253	22.838.661	2.932.286	94.137.917
Prestazio ekonomikoak	19.026.575	42.996.550	46.227.425	493.308	108.743.858
Guztira	186.650.877	440.854.531	319.819.956	11.141.351	958.466.715

7. TAULA. GASTU KORRONTEA, GUZTIRA

GASTU KORRONTEA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	Eusko Jaurlaritza	EAE
Zerbitzuak	207.177.465	569.829.516	363.059.275	10.648.043	1.150.714.299
Prestazioak	19.026.575	42.996.550	46.227.425	493.308	108.743.858
GUZTIRA	227.300.608	612.826.006	409.286.700	11.141.351	1.260.554.725
GKP / Gastu Korronte ehunekoa	% 82,12	% 71,94	% 78,14	% 100,00	% 76,04

Azkenik, *aztertutako zerbitzu eta prestazio ekonomiko guztietako gastu korronte publikoak gastu korrontearen guztizkoarekiko osatzen duen ehunekoa* % 76,04 da EAEn, zerbitzu pribatu ez-itunduak barnean hartuta. Lurralde Historikoaren arabera, honako hau: Araban % 82,12; Bizkaian % 71,94; Gipuzkoan % 78,14.

Hortaz, 2011. urtean, EAEn ematen ziren gizarte-zerbitzuen bi heren baino gehiago administrazio publikoek finantzaketan parte-hartuta ematen ziren. Esan dugun, parte-hartze hori oso handia da zerbitzu gehienetan (gastu korrontearen % 80 baino handiagoa, kuotak eta erabiltzaileen bestelako diru-sarrerak batuz gero).

Horrela, bada, gizarte-zerbitzuen eremua erantzukizun publikoko zerbitzuena baino zabalagoa bada ere, eremu horretan erantzukizun publikoa sendotzen ari da arian-arian, eta sendotze-prozesu hori bat dator legean biltzen den betebeharrarekin; hain zuzen ere, erantzukizun publikoko GZES bat eratzeko betebeharrarekin, prestazio, zerbitzu eta ekipamendu publiko eta pribatu itunduez osatuta dagoela.

Hala ere, zenbait zerbitzutan erantzukizun publikoa sendotzea garrantzitsua da, bereziki, bazterkeriaren/gizarteratzearen eremuan, eta, hala badagokio, jasotzen ari diren finantzaketa publikoa areagotzea prozesu baten bitartez; prozesu horretan, zerbitzua emateaz arduratzen diren erakundeek erabaki ahal izango dute sektore pribatuak eskaintzen dituen zerbitzuetatik zeintzuk har daitezkeen erantzukizun publikoko zerbitzutzat.

8. TAULA. FINANTZAKETA PUBLIKOAREN ETA ERABILTZAILIENGANDIK JASOTAKOAREN EHUNEKOA GASTU KORRONTEAREN % 80 BAINO TXIKIAGO DUTEN ZERBITZUAK

ARABA	%
Gaixotasun mentala duten pertsonentzako okupazio-zentroak	% 71
Bazterkeria- eta marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak eta ostatu-zerbitzuak	% 76
Gizarteratze-premiei erantzuteko eguneko zentroak	% 70
BIZKAIA	%
Desgaitasuna duten pertsonentzako okupazio-zentroak	% 58
Gaixotasun mentala duten pertsonentzako okupazio-zentroak	% 69
Gizarteratze-premiei erantzuteko eguneko zentroak	% 61
Gizarte-jantokiak	% 66
Adingabeentzako/familiarentzako eguneko arreta	% 74
Gizarteratze-premiei erantzuteko gaueko zentroak	% 56
GIPUZKOA	%
Gizarteratze-premiei erantzuteko eguneko zentroak	% 76
Gizarteratze-premiei erantzuteko gaueko zentroak	% 50

Taulan ikus daitekeenez, hain handi batean, bazterkeriaren/gizarteratzearen eremuko zerbitzuak dira eta, kasu askotan, Zorroko zerbitzuei atxiki dakizkieke. Beste horrenbeste esan dezakegu desgaitasuna dutenentzako/gaixotasun mentala dutenentzako okupazio-zentroei buruz, baina kasu honetan, ehunekoa txikiagoa izan daiteke, beste finantzabide garrantzitsu batzuk egon baitaitezke, Bizkaian gertatzen den moduan.

Nolanahi ere, garrantzitsuena zera da, bazterkeria-egoera edo arriskuan daudenentzako eguneko gaueko, ostatu hartzeko zerbitzuetako edo egoitza-zentroetako zerbitzu asko Katalogoko eta Zorroko zerbitzu izan daitezkeela ez ahaztea.¹⁰³

Eta zerbitzuak emateaz arduratzen diren erakundeek, azkenean, erantzukizun publikoko zerbitzutzat jotzen dituzten zerbitzuen kasuan, finantzaketa publikoaren ehunekoa areagotu egin behar dela, eta premia hori hiru Lurralde Historikoetan komuna izango dela, ziurrenik.

Erakundeek itundutzat jotzen ez dituzten bazterkeriaren eremuko zerbitzuetako gastu korronte publikoa 13.893.296 euro zen 2011n.

¹⁰³ Edonola ere, Katalogoko zerbitzu ote diren eta Zorroari buruzko Dekretuan aurreikusitakoarekin bat ote datozen berretsi egin beharko da.

2017ko gastu-aurreikuspenetan sartuta dago gastu hori, baina konstante eutsita (proiektatu gabe), oraindik ez baita argitu zerbitzu horiek GZESan sartzen diren edo ez diren sartzen, zerbitzuak emateaz arduratzen diren erakundeen ustez.

C) Diru-sarrerak

GZESatik kanpoko erakundeetatik edo beste Sail batzuetatik jasotako finantzaketa aztertuko dugu orain, betiere aztergai ditugun zerbitzu eta prestazio ekonomikoek dagokienez, bai eta koordainketaren estimazioa eta 2011ko bestelako diru-sarrerak ere.

9. TAULA. GZESatik KANPOKO FINANTZAKETA

	GIPUZKO			
	ARABA	BIZKAIA	A	GUZTIRA
Akordio soziosanitarioa	2.900.348	3.801.059	7.507.643	14.209.050
Autonomia eta Mendetasunaren Arretarako Sistema	12.175.845	34.252.345	29.024.843	75.453.033
GIZARTEKUTXA (Bizkaia)		17.743.011		17.743.011
Bestelako diru-laguntza korrante publikoak	2.063.511	11.488.739	2.715.613	16.579.863 ¹⁰⁴
Kanpoko finantzaketa publiko korrontearen guztizko partziala				123.984.957
Finantzaketa pribatu korrontea	372.150	11.426.160	505.255	12.303.565
FISS (kapitaleko diru-laguntzak)	483.592	9.284.965	5.263.306	15.031.863
	17.995.44	87.996.27		151.320.38
GUZTIRA	6	9	45.016.660	5

Finantzaketa pribatu korrontek zenbateko txikia osatzen du aztergai ditugun zerbitzu eta prestazio ekonomikoetako gastu korrante publikoari eta gastu korronteari dagokienez, bai eta GZESatik kanpoko finantzaketa guztiari dagokienez ere.

Eta, bestalde, finantzaketa publikoa txikiagoa duten zerbitzu horietan metatzen da, lehenik, bazterkeriaren eremuan eta, bigarrenik, desgaitasunaren/gaixotasun mentalaren eremuko zenbait zerbitzutan. Lurralde Historikoaren arabera, Bizkaian biltzen da, baina kontuan izan behar da 6.732.132 euro egoitza-zentroetan sartzeko laguntza ekonomikoak direla.

Horrela, bada, 2011. urtean, aztergai ditugun zerbitzu eta prestazio ekonomikoetako gastuari aurre egiteko diru-sarrerak, batik bat, publikoak dira, kuotekin, erabiltzaileen bestelako diru-sarrerekin eta bestelako diru-sarrerekin batera.

Azkenik, gastu korrante publikoari dagokionez, 2017ra begira egonda, kontuan izan behar dugu zuhurtziaz jokatu behar dugula Autonomia eta Mendetasunaren Arretarako Sistemaren finantzaketa kalkulatzeko, Katalogoko eta Zorroko zerbitzuen finantzaketa pribatuak desagertu egin beharko bailuke.

¹⁰⁴ Lurralde Historikoaren arabera zenbateko horietaz gain, 312.000 euro ere sartuta daude hemen, Eusko Jaurlaritzaren eskumeneko zerbitzu baterako jasotako GZESatik kanpoko ekarpen bati dagozkionak.

10. TAULA. KOORDAINKETAREN ETA BESTELAKO DIRU-SARREREN ESTIMAZIOA 2011n

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Koordinaketa udal-sektore publikoan ¹⁰⁵	5.270.395,0	12.853.210,0	21.023.430,0	39.147.035,0
Koordinaketa foru-sektore publikoan ¹⁰⁶	16.258.363,45	58.349.317,0	54.108.251,8	128.715.932,3 ¹⁰⁷
Koordinaketa pribatu itunduaren estimazioa	2.155.515,0	9.885.308,0	10.175.873,0	22.216.696,0
Koordinaketa, guztira	23.684.273,5	81.087.835,0	85.307.554,8	190.666.963,3
Koordinaketaren %-a, GKPari dagokionez	% 12,8	% 18,4	% 26,7	% 19,9
Erabiltzaileen bestelako diru-sarrerak eta bestelako diru-sarrerak	142.851,0	959.332,0	763.336,0	1.865.519,0
Bestelako diru-sarreraren %-a gastu korronte publikoari dagokionez, 2011	% 0,1	% 0,2	% 0,2	% 0,1972
Guztira: Koordinaketa + erabiltzaileen bestelako diru-sarrerak + bestelako diru-sarrerak	23.827.124,5	82.047.167,0	86.070.890,8	192.532.482,3

Hortaz, GZESatik kanpoko finantzaketatik eta koordinaketatik (Foru Aldundiek emandako datuak sartuta alderatzeko) datozen diru-sarrerak gehi erabiltzaileen bestelako diru-sarrerak gehi bestelako diru-sarrerak (GZGEE), guztira, **343.852.867** milioi euro dira.

¹⁰⁵ Udal-koordinaketari buruzko datuak GZGEEatik atera ditugu, udala titular duten zerbitzuetako kuotak batuta. Zenbait kasutan, baliteke datu horiek lehendik ere jasota egotea Foru Aldundien zuzenean emandako datuetan, esate baterako, Aldundiarekin itunduta dauden udal-titulartasuneko adinekoentzako egoitza-zentroen kasuan.

¹⁰⁶ Foru-koordinaketari buruzko datuak Aldundiek zuzenean emandakoak dira.

¹⁰⁷ Datu horri 227.154 euro gehitu behar zaizkio, telelaguntza-zerbitzuaren bigarren seihilekoko koordinaketari dagozkionak, zerbitzu hori Eusko Jaurlaritzak hartu baitzuen bere gain.

LABURPEN GISA

GZESako gastu korrante publikoa 943.239.003 euro zen 2011n, eta gastu korrante publikoa, guztira, adinekoentzako ostatu-zerbitzuetan egoitza-zentroetan autonomo direnei eman beharreko arretan konprometitutako gastua barnean hartuta (GZESatik kanpoko plazetako gastua), 958.466.715 euro zen; gastuaren zati handiena zerbitzuetara bideratuta dago (ia 850 milioi) eta beste zati txikiago bat prestazio ekonomikoetara (ia 109 milioi).

Gastu korrante publikoa kontingentzien arabera nola banatzen den aztertzen badugu, **gastu korrante publikoaren erdia baino gehiago Autonomia eta Mendetasunaren Arretarako Sistemako zerbitzu eta prestazioekin lotuta dago.**

Bestalde, honako alderdi hauek kontuan izan behar dira: a) titulartasun pribatuko zerbitzuen finantzaketa pribatu korrantea eta hirugarrenengandik jasotakoa (gizarte-ekintza, fundazioak,...) 12.303.565 euro ziren; b) erakundeek itunduzat jo ez dituzten bazterkeriaren eremuko zerbitzuetako gastu korrante publikoa 13.893.296 euro zen (eta horri beste 3.351.304 euro gehitu beharko litzaizkioke baldin eta finantzaketa publikoaren eta erabiltzaileen diru-sarreraren batura gastu korrantearen % 80ra iristea nahi badugu eremu horretan 2011n zeuden zerbitzu guztietan).

Aurreko hori guztia aintzat hartuta, aztergai ditugun zerbitzu eta prestazio ekonomikoek 2011n administrazio publikoei eragin zieten kostua **985 milioi euro** inguru izan daiteke, betiere GZESatik kanpoko plazetako gastua ez ezik, administrazio publikoek finantzaketa pribatu guztia eta itundu gabekotzat jotako bazterkeriaren eremuko zerbitzuen finantzaketa ere beren gain hartuko balute. Dena dela, inplikaturako administrazio publikoek argitu beharreko kontua da hori.

GZESatik kanpoko finantzaketatik eta koordainketatik datozen diru-sarrerak gehi erabiltzaileen bestelako diru-sarrerak, gehi bestelako diru-sarrerak eginda, guztira 343.852.867 milioi dira, eta horietatik 192.532.482 euro koordainketari dagozkio (Aldundiek zuzendutako datuekin, gehi beste 227.154 euro bigarren seihilekoko telelaguntza-zerbitzuaren koordinaketarenak).

Horrela, bada, EAEko administrazio publikoetan gizarte-zerbitzuen arloko eskumenak dituzten sailak prestazio eta zerbitzu horietako gastu korrante publikoaren zati handiena finantzatzen ari direla esan dezakegu, baina kanpoko finantzaketa ere handia da eta desagertu egingo da (finantzaketa pribatua, FISSaren finantzaketaren zati bat; nolana ere, 2011n jada desagertu zen, funts moduan) edo etorkizunean murriztu egin daiteke (Autonomia eta Mendetasunaren Arretarako Sistematik jasotako finantzaketa).

Bestalde, **finantza-arloko barne-egokitzapena egin behar da, EAEko administrazio publikoetako maila batek beste maila baten zerbitzuak finantzatzen dituen egoerak konpontzeko.** Nolanahi ere, inplikaturako administrazio publikoek egin behar dute prozesu hori.